

KATOLIKUEN-ERLEJINOA TA JOKABIDE ARAUAK

(B.U.P.'eko 2^o URTEA)

BIDEZ DOAN ERRIA

José Carlos SAMPEDRO
Miguel RIQUELME/Pascual CANDELA
Ginés PARDO/Fernando R. TRIVES

Euskeratzailea:
OLAZAR'tar Martin

LIBURU AU

Bi milla urte dira
Palestina'n Jesus'en berbak entzun ziranetik.
Baiña bere berbak bein eta barrero, gizaldiz gizaldi entzuten dira
gure lur zabal onetan eta bi milla urte onein joanean

Jesus'en jarraitzaille orreik,
Eleizea osotzeko deituak,
Bidez doan erri bat dira
eta aldien joanean doaz bidez,
elburua Aitaren **etxea** dala.

Liburu onek nai leukena
bidez doan erri orregana gu urreratzea da.
Bi milia urte luzeetan
erri orrek izan dauan kondairara,
Gizonen artean Jaungoikoaren Erreiñua agertzeko
egin **dauzan aleginetara,**
izan dauzan okerrak, baiña ugariago **zintzotasuna,**
gogoratzen **dogula;**
erri ori barru-barrutik zelakoa dan ikusi,
bere erakundeak, kidekoak, jaiak, jokabideak **aztertu,**
erri orrek dauan maitasunaren bidea
gure bidea dala, gizon eta erri guztien
bidea dala ikusi.

Eta au liburu bat da, baiña Eleizea askoz geiago da:
zer dan jakiteko bertan bizi bear da.
Liburu ta urteko lana, orretarako lagun izango dozuz.
Eleizea aurkitzeko.

I. GAIA

JESUS'EN LEENENGO JARRAITZAILLEA
(Jainkoaren Erreñua lortzeko Jesusek sortutako Eleizea)

Jesusek Jainkoaren Erreñua iragarri eban.
Asieran lagun gitxik jarraitu eutsoen.
Baiña, Amabiak (apostoluak) bere Espirituz bete zituan egunean bertan,
iru milla pertsona batu jakezan asierako lagun gitxi arei:
ziapen azia asten-astean joian (Mt. 13,31-32).

Arraza batekoa naiz bestekoa izan,
kultura batekoa naiz bestekoa,
gizona, gizon guztiak Jesusek deituak ziran
Eleiza ori osotzeko eta Jesusen antzera biziteko.
Eta bizikera barri au, Kristoren bizikera au,
ordurarteko bizikerakin batera ez etorrela-ta,
laster sortu ziran ainbat aitu-ezin, eztabaida ta izkanbilla.
Eztabaidak, aitu-eziñak, naigabeak eta pozak
beti izan dira Eleizearen historian zear,
eta aurrerantzean be olan izango dira aldiak amaitu ta gerorarte:
au da, Jainkoaren Erreñua bere osotasunera eldu arte.

-kizvr^rk

OARRAK

1. Eldu da "dagoaneko" Jainkoaren Erreiña

Onan asten dau Jesusek bere predikua: "ur dago ur Jainkoaren Erreiña" {Mk. 1, 15}. Ain zuzen, Jesus *berberagan* -bere irakatsi ta egiieekin- aurketzen da Jainkoaren Erreiñu au.

Baiña, zer da, ba, dalako "Jainkoaren Erreiñu" ori ? Erreiñu ori gertakizun bat da edo, obeto esanda, benetako "gertakizuna" da: Jaungoikoa jardunean *asiko* da ela gizon-emakumeen Jaun eta Errege *tez agertuko* da. Jesusek iragarri eta ekarri dakarsku Erreiñu ori eta, bere agirizko bizitzearen asieran, "Mendiko Itzaldian", Erreiñu onen "Carta Magna" (egitasmoa) azaltzen dau (Mt. 5, 3-11) (Ikusi ÓHO'ko 1² urteko VII gaia). Jesusek egiten dituan mirariak eurak be Jainkoaren Erreiña gure artean dagoanaren ezau-garriak dira (Lk. 11, 20). *Eia, era berean, Erreiñu au* onartuko dabon pertsonak aukeratzen eta deitzen asten da.

Asiera baten, gitxi dira Jesusi jarraitzen dautsoenak: Galileako ur-zingiran arrantzale ziran anai bikote bik (Simon-Ander eta Santiago-Jon). Baiña, apurka-apurka, beste batzuk be *asartzen* jakezan talde ugari bat osotu arte. Euren artetik -gau oso bat otoitzean egin ondoren- nai izan zituanak aukeratu ebazan Jesusek, Beragaz ibilteko eta Ebanjelioa iragartera bialtzeko. Aukeratu oneik *amablren taldea osotzen* dabe: Simon, Pedro izena ezarriko *eutsana*, Santiago Zebedeorena" eta Jon Santiagoren anaia: onei izena "Boanerjes" edo, bardin dana, "*trvmoi- seme*" *ezarri eutsen*; Ander eta Felipe, Bartolome eta Mateo, Tomas eta Santiago Alieorena, tadeo, **Simon Kanaandarra** eta Judas Iskariote, Jesus saldu ebana bera (Mk. 3, 13-19). Amabi oneik, Israel errira leenengo eia, berbiztu ondoren, munduko errialde guztietara bialdu zituan Jesusek bere Erreiña iragartera (mt. 28,16-20).

Eta Simoni, Pedro izena ezarri eutsanari (Jn. 1, 42), Jesusek Eleizearen Buru edo arduradun nagusi izango zala agintzen dautso, berba oneikaz: "Zu Pedro zara, eta arri orren gainean jasoko doi nire Eleiza, eta inpernuko atepak ez dabe menperatuko. Zeuri emongo dautsudaz Zeru-Erreiñuko giltzak; eta zuk *jurrean toiu dagizuna, zeruetan be* lotua izango da: eta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruetan be askatua izango da" (Mt. 16,18-19).

Illen artetik biztu ondoren, Jesukristok agintzari au baieztu egin eutsan Perodri, *bere Artaldea zaintzeko* aginduz (Jn. 21, 15-17), *au* da. *Jainko-Erri* barriaren Artzain nagusi izentatuaz.

Beste pertsona batzuk, Amabiren antzera izan ez arren be, jarraitu egiten dautsoe. Eta, aldikadetan, jende talde aundiak urreratzen jakoz eta bere berbak entzuten dabez.

Ziape-azi txiki-txikia erne ta arbola egiteraiño azten dan lez: olantxe azi zan Jainkoaren Erreiñua.

2. Espirituaren indarra

Jesusen *eñotza* atsekabe gogorra be *gogorra izan zan bere jarraúza* Hle-entzako. Jesusek sarritan esan eutsen kurutze baten ilgo ebela, alan be, eurak ez eutsoen siñisten: eurak euken Mesiasen ertzia ez zan ezkontzen eriotz az.

Eta, eriotz ori egi biurtu zanean, guztiz arrituta geratu ziran: Judasek, Amabietako batek, saldu eban; Pedrok, taldeko buruak, bildurraren bildurrez, zin egiñez ukatu eban; guztiak arerioen eskuetan bertanbeera itzi eben; alan be, Jonek, Jesusen ama Mariak eta beste andraren batek lagundu eutsoen kurutzearen oiñetan.

Jesus Berbiztua agertu jakenean, barriz, bildur eta atsekabe giro au zeatz aldatu jaken. Kristok, Azken Aparian agindutako Espiritu Santua bialtzen dautse (Jn. 20, 22), egia *osoa ulertu egien* (Jn. 16, 12-13). Eta, orduan, bat-batean, ulertu eben, ordurarte ulertu eziña izan jaken guztia, euren adimena argiz eta biotza maitasunez bete jakeezan. Euren bildurra adorez biurtu zan. Eta euren atsekabea, barriz, itxaropen sendoan. Jesus Berbiztuaren presentziak barrio alkartu zituan leen bildurrak sakabanatu ebazanak.

Era onetara, Espiritua Eleizan eta fededunen biotzean bizi da, jauretze baten lez, eta ekiñean diardu euretan, eta geure jainkosemetzaren testigantza emoten dau. Doai jerarkiku ta karismatiku desbardiñen bidez zuzentzen dau Eleizea eta aberastuten frutu ugariz: eleiza au egia osora gidatzen dau eta alkarren arteko alkartasun eta ministerítzan bategiten.

Sarritan agertu jaken **Jesus: eta. era onetara**, beragaz bizi izan ziranak, **oneaz jabetu ziran: eurekin bizi izan zan Jesus, aintzazko bizikera barri baten bizi zata orain, Eta uste ta ziurtasun oneaz. eurak izango ziran Jesus biztuaren testigu ta barri-emoilleak: Jesusegan ikusi ta entzun eben guztiaren testigu; Jesusen itz, mezu, bizikera ta Barri-Ona munduko bazter guztietara zabatúko eben barri-emoilleak:**

Azkenengo agertaldían, Jesus Berbítzuak Jerusalemen **egoteko agindu eutsen bere** ikasieei, arik eta Jainko-Aitak bere agintzaria bete egian arte. Eta **Aita ez zan luzatu: andik egun batzuetara, Judasen utsunea** Matiasek beteta gero, an **egozan Amabiak Mariagaz eta beste lagun batzuekalk alkartuta, guztiera eun eta ogeiren bat lagun. Eta orduan gertatu zan "Apostoluen Egiñak" deritxon liburuak, bigarren atalburman dirauskun gertakizuna. Gertakizun arrigarria benetan: Lukas bera be gertakizun ori azaltzeko berba egokiak asmau eziñik aurkitzen da: "Zerutik aize-boladarena lako burrundarea sortu zala" -diño- "eta su-antzeko miiñak bakoitzaren gaiñean banandu ta ezarri zirala". Baiña, ori bai, gauza bat azpimarratzen dau Lukasek argi ta garbi: "Guztiak Espiritu Santuz bete zirala"**

Espiritu Santuaren indarrez, posez beterik, beste izkuntza ezezagunetan Jaungoikoa goratzen asi ziran. Ori ikusirik, batzuk arrituta geratzen ziran eta beste batzuk apostoluak moskortuta egozala uste eben. Ori dala-ta, gertakizun au azartzen asi zan Pedro, Ona emen bere itzaldiaren laburpena:

- Ez gagoz moskortuta: oraindiño baraurik gagoz-eta.
- **Jazo dan au proletak iragarrita egoan antxiñatik: Jainkoaren Espiritua emona izan jaku bere arrigarriak iragarri daiguzan.**
- Geu gara testiguak: **Zuek il zenduen Nazareteko Jesus au, illen arte-tik biztu dau Aitak.**
- **Jesukristo, gure salbatzaillea dala siñisten ba'dozue, biotzbarritu zaitze; eta artu begi bateoa zuetariko bakoitzak zuen pekatuen parkamerako; eta Espiritu Santuaren doaia artuko dozue"**

Egun aretan iru miliaren bat lagun geitu jakeezan ikasieei.

Ziape azia aste-asten joian

3. Mugarik bako alkartea

Laster jabetu ziran ikasleak Jesusen eskakizun oneaz: kristau fedea ezin daitekela bizi bakarrean. **Orregaitik, asieratik alkartu ziran guztiak Kristoren borondatez familia bat osotzen ebela: Jesusen jarraizailleen familia, kristau alkartea: ELEIZEA.**

Asieran, **gure aroko 30gn urte inguruan gartatutako Jesusen eriotz eta biztueraren ondorengo urteetan, Eleizea Jerusalemgo leenengo kristau alkartez osotzen zan. Leenengo kristauen alkarte onetako bazkideak -oso osoan judeguak- Israelgo ekandu ta oituretan oiñarrituta irauten eben zintzo; gero, orrez gaiñera, Jesukristoren itz eta egiteetan janaritzen eben euren kristau- fedea. Ona emen euren usterik sakonenak:**

- **Jainkoaren Erria** izatearen kontzientzi **bizi-bizia euken.**
- Jaungoikoak bere Erriagaz **egindako Alkartasunari** gogor eusten **eutsoen.**
- **Jaunaren bigarren etorrera** aintzatsua urren egoala uste eben.
- Judeguen gizarte **ta erlijiozko ekandu ta egitarau**ei **lotu-lotuta sentitzen ziran, batez be, Moisesen Lege ta bizikereari** (erdainkuntza, zapaluko atsedena...)

Pentsakera ta bizikera **au dala-ta**, Jerusalemgo leenengo kristau-alkarteari "judegu-krtstauen alkartea" deritxogu.

Baiña, judegu ez ziranak be (jentillak), laster asiko ziran kristau alkartean sartzen. Pedro **bera izan zan jentifiei leenen ateak zabaldu eutsezana, Kornelio gudaria ta bere sendi osoa kristau alkartean onartzeaz; jokabide au azaltzean, barriz, jentillak onartzea, gizon batzuen eta besteen artean ezetarik bereizkeririk ez daukan Jaungoikoaren borondatea dala diño Pedro apostoluak (Ap. Eg. 10,1-48).**

Fenizia, Txipre, Antiokia ta abarretako helendarren artean be Ebanjelioa zabaltzen asi zan eta askoak ziran kristau fedea onartzen ebenak (Ap. Eg. 11, 19-26). **Ain zuzen, Anüokian ezarri jaken leenengoz "kristau" izena Jesukristoren jarraitzaileei (Ap. Eg. 11, 26). Eta Paulo apostoluaren predikuari esker, jentillen artetik sortutako kristiñauen taldea asko ta asko ugurtu zan.**

Orduan, Jerusalemgo judegu- kristiñau ek arazo *latz* bai *sortzen* dabe; kristiñau guztiak, judegu naiz jentillen artetikoak izan, Moisesen Legea beteteko beartuta egozala. Arazo au erabagiteko, Jerusalemen alkartu ziran ikasleak 50 gn. urtean, Eleizearen historiako leenengo "kotsilioan". Eia Eleiz-batzar onetan, auxe ebatzi zan: Jentillen artetik etozen kristiñau ei ez ipinteko beste eginbearrik, bear-bearrezkoen gaiñetik. Olan ba, jentillei ateak *zaba*lzen jakezan eta, jokabide oneaz, Jesusen eleizea judaismoaren lokarrietatik askartzen asi zan.

Alan be, judeguei amor-egrtearren, kristau egindako jentillei auxe eskatzen jaken: "Guzurrezko jainkoei eskiñitakoetatik, odoletik, itto danetik eta aragikeritik alde egiteko". Baiña eragozpen oneik laster *aztu ziran*: Paulo bera oitura onein aurka jarten da (1 Kor. 8) eta Pedrok berak be ez zituan beteten ekandu oneik (Gal. 2,12).

Paulok berak, bere ibillaldi ta idatzietan, eta berezi baten iragarri eutsen Ebanjelioa jentillei (Ikusi O.H.O.'ko 1^oko VII gaia).

Ulertu eban Eleizeak bera ez egoala lotuta erri bakar bati: Judegu erriari. Eleizearen egikizuna guztiakana eltzen da, eta gizon eta erri guztientzako lekua dago Eleizan.

4. Benetako familia zabal bat

Jesusen naia fedea alkartean bizitea zala-ta, *leenengo kristiñauak* Jerusalemgo leenengo Eleiza edo kristau alkartea sortu eben. "Apostoluen Egiñak" deritxon-liburuak (Ap. Eg. 2, 42-47; 4, 32-35) azaltzen deusku zelan bizi bear dauan kristau alkarteak;

* Apostoluak Irakasten daben **Jesukristoren Mezuari zintzo erantzunez Mezu au dalako** kristau-fede aren oiñarria. Eta alkarte au, pertsonak osotzen daben alkarte organizatua da, eta ez alkarte anarkiku bat; eta alkarte onen buruak dira, ain zuzen, Jesusen (izaren testiguak izan ziranak eta Itz ori zintzo zabaltzeko agindua artu ebenak.

* Otoitz egiñaz, au da, Aita-Jaungoikoagaz seme-artuemonak izanik, Jesusek sarritan egiten ebanez: eta ikasleak Jesusi "zelan otoitz egin" trakas-teko eskatzen eutsoenez (Lk. 11,1).

* **Norbere ondasunak banatuaz.** Benetako maitasunak ezin dau-lako **iñor ikusi berrizanean.** Orregaitik, **ondasunak eukezanak, apostoluen eskuetan ipinten ebezan ondasun orreik, gero apostoluak bakoitzaren bearri-zanen arauz banandu egiezan.** Jokabide au, **orraitino, ez zan izan iñoiz lege bat, maitasuna legepean ez dagoalako.** Baiña, kristiñauak benetan **bat-bat** eginda bizi ziran ezkeru, iñok beartu barik banatzen ebezan **euren ondasu-nak.**

* **Eukaristia edo "ogi zatitzean" parte artuaz. Izan be, Eukaris-tian, kristau alkarte Kristogaz eta anai-arrebakin alkartzan dalako; Alkartasun Barriko odola eskeintzen dalako** (Lk. 22, 20); eia **Jainkoaren Erria edo Eleizea** sortzen dalako.

Era onetara, "dagoaneko" kristau alkarte Jainko Erreiñuaren ezaugarri eta eragille biurtzen da gure artean.

Baiña ez zan dan-dana argitasuna leenengo kristau alkarte onetan. Apostoluen Egiñetako liburuak aurkezten dauskuz alkarte onen illuntasun batzuk be. Ananias eta bere emazte Safirak, adibidez, apostoluei iruzur egin nai deutse zaldutako solo baten diru guztia emoten euselakoa egiñez, baiña salneurriko diru zati aundi bat eurak ixillean gorde ondoren (Ap. Eg. 5, 1-11). Baita judegu **kristiñauen eta jeniil-krisiñauen arteko** aitu-eziñak be ugiarik dira (Ap. Ag. 6, 1; 11, 1). Orrez gaiñera, **kanpoaldetik, judeguen erri agintariak Apostoluen eta Eleizearen aurka jarraitu eben, leen Jesusen aurka asi eben erasoaldia: Apostoluak espetxean sartzen ditue** (Ap. Eg. 4, 3); Jesusen jzanean berba egitea galerazoten deutse (Ap. Eg. 4, 18); **zigorrez zigortzen ditue; Esteban diakonoa eriotzara galtzen eta il egiten dabe** (Ap. Eg. 6, 8; 7, 60); eta Herodesek apostolu batzuk espetxeratzen ditu, Santiagori burua mozten deutso eta Pedro ilteko asmotan diardu (Ap. Eg. 12,1 -4).

Bestekaldetik, **Jerusalendik kanpora be, 67gn urtean (Jerusalengo Kon-ziliotik urte gitxira), Neronek izugarrizko erasoaldi bat sortu eban kristiñauen kontra: erasoaldi onelan il ziran Peóro ta Paulo apostoluak.**

Edozelan be, pasadixu guzti oneitan somatzen da, **gitxi gora-beera,** zelakoa izango dan Eleizearen **historia mundu** onetan: Kristo ta Kristoren mezuaganako íeialtasuna; **bere nortasuna aztertu ta aurkitzea; aldi, alde ta kultura bakoitzean erroak botatea, inkulturizatzea; Eleiza barruko konpondu-eziñak; batzuen zintzotasunikezak; zuzengabekenaksalatzeak, erasoaldiak...**

Eta, orrez gaiñera, mugarik bako alkartea: Jesusen jarraitzaileak alkartzen dituan benetako familia zabala.

Argitasun guztiekin

eta genzeta guztien gaiñetik,
apostoíuak sortutako kristau alkarteakdira,
akji ta alde **guztietan**,
Eleizea sortzeko
irudirik berebizikoenak.

5. **Asi da, baiña ez guztiz**

Judeguk osoosoan siñistuta euken Mesiasen etprreaz azken aldiak elduko zirala. **Kristiñauak, ostera, egunak joan egunak etorri, konturatzen doaz apurka-apurka, Mesias eta azken aldiak eldu dirala, baiña ez aldi onein osotasuna: au da**, Jaungoikoaren **Erreiñua aurkez dagola dagoaneko gure artean, baiña oraindiño ez dala eldu bere osotasunera.**

Eleizea, osotasun orren zain mundu onetan bizi dan artean, eta Jaungoikoaren Erreiñuaren eragille ta Irudi dan ezkeru, a) bere izatea eratzen-erutzen doa, b) bere izate ori eratu bearra dauko, c) eta zenbat eta geiago asten dan, ainbat eta geiago eratu bearra dauko bere izate ori: olan sortzen dira bere erakunde konkretoak. Apostoíuak eurak, Kristoren aginduari jarraituz, euren ordezkooak **izango diran "gotzaiñak"** aukeratzen ditue.

"Apostoluen **Egiñetan**" agertzen dira Eleiz-anloíakeía onen **lorratz apurrak: Paulo Mileton alkartzen da Efeso eskualdeko gotzaiñekin (Ap. Eg. 20, 17-38). Eta Alkartasun Barriko azkenengo idatzietan -Timoteo ta Titori egindako eskutitzetan- zeatz-zeatz ipinten dira diakonu, abade ta gotzaiñak euki bear dituen bereiztasunak eta euki bear ez dituen akatsak. Zeaztasun onek auxe esan nai dau: ordurako ba-zirala erakunde **orreik eta** ezagutzen zirala erakunde **orrein eginkizunak**. Edozelan **be, Eleizea ez zan guztiz sendotuko, erakunde lez, llingizaldirarte.****

Baiña emen dago **Jesusen Eleizea, zuzenean Berak sortua, Jaungoikoaren Erreiñuaren eragille ta Irudi lez mundu onetan ezarria, parte arlu nai daben gizon-emakumeak alkartzuz, mundu onetatik Aitagana bidez-bkJe doana.**

EGIN GEJNKEZAN LANAK

Iztegia: Itz onein esanaia **billatu:** **zi**ape azia, *minIsterUza*, *Carta Magna*, **promul**gatzea, lekuko izatea, fenomenoa, **profeta**, **doai**, **ekanduak**, **egiturak**, **erdainketa**, **helenista**, **presbiteroa**, **diakonoak**.

Idatzi: **Lerrotxo batzuetan idatzi** Jaungoikoaren **Erreiñua** zer dan. Erantzun guztiak batu eta batean **ipiñi**. Irakasleak osotuko **ditu** **batutako eritziak**.

Zergaitik esaten da, "Zoriontasunak" Jaungoikoaren Erreiñuko "Carta Magna" dirala?

Irakurri ziape **aziaren parabolea (Mt. 13, 30-32)**. Gai onetan emondako argibideekin **Eleizearen "zugatz genealogikoa"** margoztu.

Gogoratu zer dan MESIAS, eta judeguk itxaroten ebezan mesias-mota desbardiñak.

Ebatzi eguizue **"Mesias-Lekuko"** itz bi onein arteko zerikusia.

Egiztatu eguizue Espiritu Santuaren **etorreraren pasadixua** "Apostoluen Egiñetako" Iln atalburua irakurriaz.

EgIn: Lauki sinoptiku bat , zerrenda bikoia, Jesusen Eleiza ta judaismoaren arteko bardintasun eta desbardintasunakin.

Zergaitik eta zelan odolusten **zitu**en judeguk abereak?

Azaldu: la zergaitik **dan Eleizea** Jaungoikoaren Erreiñuaren **irudi edo** ezau-garria. **Eta ia zergaitik** dan Erreiñua orren eragillea. Eleizea eta Jaungoikoaren **Erreihua gauza bera** ete-díra? **Zergaitik?**

Ze eginkizun euken "présbiteroak" **leenengo Eleizan?** **Eta "diakonuak"?**

Mapa bat egin **san Pauloaren ibillaldiak** marratuz.

Billatu egizu ia zein izan zan Neronek asmatutako atxakia kristiñauak **era**-soteko.

1. Erromako gizartea

Kristau erlejiñoa Jerusalendik asi eta diasporako judeguen koinietan zear zabaltzen joan zan. Zabaldunde onetan, naitaez, Erromako Inperioagaz artu-emonetan sartu bear. Baiña, ze girotan aurkitzen zan "Inperioa"?

Gizarte maillan: Euren artean artu-emomk ez euken mailia desbardin batzuk osotzen eben Inperioa:

Patrizioak: Idartsuenak, euren eskuetan euken ekonimi ta politika arazoetan indar guztia.

- Piebeioak: Erriko aldra ugaria, Erromako historian zear euren eskubi-deakaz jabelzen-jabetzen joan ziran.
- Libertoak (askatuak); Leenago esklaboak izandakuak.
- Esklaboak: Euren jabeen morroitzapean bizi ziran, ezetako eskubiderik ez eukela.

Politika maillan: Enperadorea gero ta indar geiagogaz jabetzen zan erritarren leporik, Senadua bere naikeri guztien tresna biurtzeraiño. Bere agintaritzak ez eukan ezetariko ostoponk, Enperadorea ta Estadua gauza bera izateraiño. Ortik, Enperadorearen aurka egitea, Estaduarí aurka egitea zan.

Erlejiño maillan: Erromatarrak euren jainkoekin batera, eurak menperatulako jainkoak be onartu egiten zituen. Enperadorea jainkotzat artzeak ondoren (atzak ekarriko eutsezan kristiñauen Ain zuzen, Enperadorea ta Estadua gauza bera ba'ziran eta Enperadorea jainkotzat artzen ba'zan, kristiñauak Enperadorearen jainkotasuna ukatzean, Estaduaren aurkalaritzat artuko ebezan...

2. Kristiñauak Inperioan: Bízítz-aukera desbardin bat

Esklabismoaren eta pertsonen arteko desbardintasunen aurka, kristiñauak anaitasunaren aukerea aurkezten ebelako... pobre ta beartsuenak baztertu ta bertanbeera iztearen aurka, kristiñauak solidaritzaren eta ondasunak alkar-banatzearen aukerea aurkezten ebelako... eta lana mespreziatua ela explotaziño tresna biurtzearen aurka, kristiñauak lana norbera nortasun-bide tez aurkezten ebelako... Kristiñauak iraultzailletzat artuak izango dira.

Enperadorearen jainkozko agintaritza ren aurka, kristiñauak Enperadorearen agintaritza onartzen ebelako, baiña Jaungoikoari zor jakon omena Enperadoreari egitea onartzen ez ebelako, traidoreíza? artuak izango dira.

Politeismoaren aurka, historiaren Jauna dan Jaungoiko bakarrearen aukera ekarrelako, kristiñauak ateotzat artuak izango dira.

3. Eztabaida

Salaketak

Kristau aukera oneik akullu bat dira Inperioarentzat. Erromako Estatuaren gizarte-ekonomiako egiturak desegin egiten ditue orpo-orpotik. Orí dala-ta, pentsalari jakintsu batzuk Inperioaren arriskua ikusirik, kristiñauak saiatzen asten dira:

- **Ez eukela Jainkorik: ateoak zirala.**
- **Ez eukela irudirik, ez jauretzerik alkartzeko.**
- **Euren jainko guztiak mespreziatzen zituela eta, orregaitik, erromatarren gaitz guztien errudunak zirala.**
- **Ez ebela bizitza maitatzen, ardura barik euren buruak eriotzara eskeintzen zituelako.**
- **Euren batzarretan umeak ilten zituela.**
- **Legetik kanpora alkartzen zirala.**
- **Ezjakin eta kultura bakoak zirala-ta eurak lako iñuzenteak baiño ez zituela irabazten.**

Zelsok, izentatu doguzan salaketak egiten zituan li gizaldiko pentsalari ospetsuaren eritziz. kristiñau guztiak garbituko ebazan agintari jator baten bearrizana ikusten dau.

Baiña izentatutako salaketak azaiezkoak ziran: kristiñauak ez ziran izan erasotuak zuzenean euren tedeagaitik, azken baten, erromatarrak nasaiak ziralako erlejiño guztiekin. Kristiñauak erasotuak izateko benetako arrazoa, auxe izan zan; Kristiñauak ez ebela onartzen Enperadorea Jainko lez. Eta, jakina, *Enperadorea* Esladuagaz ideniifikatuía *egoneran*, *Enperadorea* jainkotzat ez onartzea, Inperioaren aurka joatea zan angu polit jko entzat.

Kristau erantzuna

Baiña Erromako pentsalarien erasoaidietan, kristiñauak ez ziran ixildu: itzez eta egitez erantzun eutsen, **jtzez**: kristiñauak artean be pertsona jakintsuak eta ari aretako filosofia ezagutzen ebenak sortu ziralako: "apologetak" edo fededefendatzailleak. Oneik euren idaztien bidez kristau fedea defenditzen eben, esandako guzurren *aurka*, paganrsmoaren zentzunik-eza eta mo note ismoa ren nagusitasuna azalduaz.

Egitez: Kristiñauen bizitzako testigantza zintzoa, euren aurka esaten ziran salakuntza guztiak desegiteko, arrazoirik berebizikoena zalako: "Kristiñauak ez dira bereizten beste gizonakandik ez euren jaioterriagatik, ez euren izkuntzeagaitik, ez euren oiturakartik. Kristiñauak errez egiten dira errialde bakoitzeko janari, jazki ta oituretara... Lagun-urkoen asmoetan parte artzen dabe, bearrizanetan eurekin bat egiñez... Alan eta guztiz be, ezezagunak dira, eta eriotzara galduak dira; kristiñauak guztiak maite ditue, *ta* guzftakarfik aurrean erabilliak dira., li egiten ditue eta, eriotzaz bizia emoten jake. Onegiten dabe ta gaizkille batzuk balira lez zigortuak dira..." (Diognetori egindako jdzakitik, II gizaldian).

4. Eztabaidak lerízea: erasoaldiak

Giro onetan, agintariak kristiñauen aurkako neurri batzuk artzen asten dira. Eta asiera batetik (Neron'ek) agintariak aurrean erabilten ditue. Ondo go-goan izan bear da, erasoaldiak ez ziralako eten bakoak, ezta orokorrak be: erasoaldien ondoren barealdiak be izaten ziran. Eta, geien baten, kristau erlejiñoaz zenkusirik ez euken asmo politikoak izaten ziran Enperadore batzuk kristiñauen kontra erasoka asteko bidea, euren izena goratu la sendotzeko asmoz:

- Deziok (249-251), adibidez, enperadoreaganako kultura barrizatu eban, Erromako Inperioari galduta eukan **antxiñako aintza berreskuratzeko**: Enperadoreaganako **kultu au kristiñauak ez onartzen**, ikaragarrizko erasoaldi bat sortu eban euren kontra.
- Dioklezianoren (284-305) asmoa, ia desaginda egoan **Inperioa barriro zuzentzea** zan. Orretarako, zati bitan banandu eban Inperioa -sortaldekoa-errezago zuzentzeko. Era berean, **gizarte aretan** batasun **aundia-goa lortzeko, zeatz-zeatz** asmatu ebazan gizarte a eratzeko bideak. Organizaziño **barri onetan kristiñauak ez eukela lekurik-eta, kristiñau guztiak garbitzea erabagi eban: kristiñauen aurka emon eban azkenengo aginan (ediktoa) euren kristau fedea ukatzen ez eben guztiak** ilteko agintzen eban. Erasoaldi **bi oneik izan ziran** bildurgarrienak, baiña beste asko geiago **be izan ziran**. **Une askotan, euren fedea agirian agertu ezinda, ixilpean ibilli bearra gertatu jaken. Itxilpean**, klandestinitatean, baiña ez katakubetan, askok **uste dabenez; katakunikak ez ziran gordeluak, kristiñauak illobiratzeko** tokiak baiño. **Eta martirien odolaz busti zan Jesusen Eleiza gaztea. Alan be, odol onek ez eban** atzamatau **kristau fedea**: geiago biztu ta ongarritu eban.

Gauza bat **geratu zan argi: kristau fedea ilteko aalegín** guztiak alperreko izan zirala. *Diokleziano Ileta urte* grixira beste bide bat artuko *zan*.

5. Alkar ulertzea

III ta IVgn gizaidietako Inperioa ez zan leenagoko **Inperio indartsua**. Kanpokaldetik, Germanía aldeko erriak gaiñe-gaiñean eukazan. Barrukaldetik, **barriz, usteitzen-ustelzen** joian. Administraziño, **ekonomi, politiku ta militar** sailletako **barriztatze aalegín guztiak uts emon eben**. Inperioa, desagertzeko **arriskuan** egoan.

Inperio **ustel** onen ondoan, ostera, **aurrez-aur, kristau erlejiñoa** indartsu be indartsu agertzen zan, erasoaldiakaz sendotuta.

Ori ikusirik, Enperadoreak kristiñauen indar barri ori aprobetxatu nai izan eben **Inperioari indar barri bat emoteko, zearo desegin ez zedin**. **Olan ba, kristiñau erlejiñoagana** urreratzen asi ziran, urreratze au, barriz, iru pausotan egin zan;

Tolerantzia Agiria (311)

Erasoaidi guztiak uts emon ebela-ta, Galeriok uste dau kristauekazko artu-emonak aldatu egin bear zirala. Eta agiri au iragarten dau. Agiri onetan, kristiñauak kristau lez biziteko eskubidea ta euren batzarrak egiteko lekuak euki leikezala jakiñazoten da. Alkar ulertzeko leenengo urratza zan.

Milaneko Agiria (313)

Agiri au Konstantinok iragarri eban. Agiri onetan, auxe jakiñazoten zan:

- Bakoitzak nai eban erlejiñoa aukeratu aal leikeala.
- Abadeak, paganoen abadeak eukezan eskubide bardiñak eukiko ebezala.
- Eleizeak, erakunde lez, bere nortasun juridikoa eukiko ebala.
- Kristiñauak be lan publikoetan lan egiteko eskubidea eukiko ebela {ordurarte galazota euken}.

Olan beste aldi edo aro barri bat asi zan Eleizearen historian: Konstantinoren aroa deritxona. Aurrerantzean eta denporaidi luze baten Eleizea eta Estadia alkarregaz joango ziran bidez-bide, alkarte onek daukazan alderdi on eta alderdi txarrakin. Batzuentzako, Konstantino benetako kristau agintariaren irudi ta ikasbidea da; beste batzuentzat, ostera, Konstantinogaz asi zan Eleizearen ondamendia; baifia *egiaosoa* ez da *izango ain erraza*. *Edozelan* be, onerako ala txarrerako, gauza bietarako bear ba'da, olantxe asi zan aro barri bat Eleizearentzat.

Tesalonikako Agiria (380)

Teodosiok iragarritako agiri onetan auxe agintzen zan: "Inperioko errialde guztiak onartu egiela Erromako Eleizeak san Pedrogandik artuta eukan fedea", lege au sendotzeko, barriz, onako bide batzuk artu ziran:

- Kristau fede ukatzaillleei testamentua egiteko eskubidea ukatu egiten jaken.
- Mota guztietako "opariak" paganoen opariak, jakiña, debekatuía gertzen ziran.
- Paganoenteploakitxieginziran.
- *Paganoen erlejiñoa* pekaíuízan artzen zan

Prozesoa amaitu zan: Alkar aitu eziñik asi, erasoz iraun eta "ezkontzaz" amaitu zan. Kristau erlejiñoa, aurrean erabilia eta legez galazota egon zana, ona emen Inpeñoko erlejiño ofizial biurtuta. Lortu zan, bai, Inperio ta Eleizearen arteko alkartea, baiña, ze preziotan? Zelako ondorengoak etorri jakozan ortik Eleizeari?

6, Alkar aurketze baten ondorenak

Erakunde bik alkar-topo egiten dabenean, ez da aldatzen bietatik bata bakarrik: biak eragiten dautse alkarri. Era berean, Inperioak eta Eleizeak alkar-topoegitean:

- Inperioaren egitura batzuk Eleizan sartu ziran eta Eleizea beste era baten eratu zan.
- Eleizeak aalmen aundiagoa lortu eban bere ekintzetarako, asko zabaldu zan agiriz eta sendotu egin zan barrutik.
- Inperioagazko adizkidetasun onek askotan izen txarra ekarri eutsan Eleizeari; eta Eleizeak bere askatasuna galdu eban zuzengabekeriak argi ta garbi salatzeko.
- Asko Kristau egiten ziran, ez fede arrazoiakaitik, oportunitate bategatik baiño.
- Kristiñau egindako askoren oportunitateagaitik eta beste askoren fede epelagaitik, gero ta gatxagoa zan kristiñauen arteko anaitasuna.
- Eleiz-jerarkiari emoten jakezan omen, ospe ta tituloak, jerarkia erriagandik urruntzeko izan ziran.
Eleizeak, barruko bizitzan bere askatasuna galdu eban, ain zuzen, kristau Enperadore batzuk Eleizako arazoetan sartzen ziralako.
- Kristau erlejiñoak zerikusi aundia izan eban Inperioko legeak eta oitura batzuk zuzentzen: kurutzeko zigorra... aur jaiobarrak salerosteak..., esklabismoa... gladiadoreen eriotzaraiño berrak... debekatu egin ziran.

Eleiz eta Inperioaren arteko artu-emonak bide desbardiñak eroango zituen Ekialdean eta Sartaldean. Sartaldean **teokrazia** sortzen da (agintaritzaren gaillurrean Jaungoikoa aurkitzen da, eta erri-agintariak Jainkoaren **ordezko lez** jokaten eben); Ekialden, ostera, **Zesaropapismoa** agertzen da (Enperadorea Eleizearen ardura ta gidaritzaz jabetzen da).

7. Iturburueiara itzultzen? monakatoa

Eleizea "ondo ezarrita" geratu zanean, kristiñauen tede ta moral bizitza moteltzen asi *zan*, martirien aldiko kristau bizitzaz parekatuz beintzat: mundu guztia kristiñau izanarren, ez ziran bizi guztiak kristiñau lez; fedearen errezta-suna, kristau izateak ekarren izen on eta tituluak eragozpen bat ziran Kristori *urretik-urrera jarraitzeko*; gizartea, bai, obeagoa *ta* kristiñauagoa egin *zan*; baiña Eleizeak, *gizartetukeran orokortukeran* . *alkarte-txiki edo* komunitate bizitzaren bizitasuna galdu egin eban.

Orduan, eleizearen barruan, zuzperraldi bat sortu *zan*: monakatoa. Ona *emen zergaitik*: Gizarteak ez eban beteten, bear zanez, asierako kristau elburua. *Orregaitik*, kristiñau askok uste eban kristau-elburu *ori gizarte* barruan lortu eziña *zan* ezkerro, *gizartetik* aldendu egin bear zala Jesukristori urragoitik jarraitzeko eta leenengo kristiñauen anaitasun eta komunitate bizitza berreskuratzeko. Orrez gaiñera, monakatoa aldi aretako *gizarte-ekonomiako krisialdiaren aurkako zuzpertzeta* ba be izan *zan*...

Monakatoa Egipton sortu *zan*: Egiptoko kristau-giroa, lurraldea ta eguraldia egokiak ziran monakato bizitzarako. Geroago, san Atanasioren eskutik, monakatoa Sartaldera eldu *zan*. Baiña Sartaldean, san Benito izan *zan* monakatoa beinbetiko bere "araudi" ospetsuaz eratu ebona. Araudi onen goiburua, auxe *zan*: "Ora et labora". San Benitoren araudiak diñoanez, onexek dira monakatoaren ezagurririk berezienak:

* Esku-lana: Esku-lanaren bidez landu ziran monastegi ondoetako larrak. Aurrerago, barriz, monastegiak izango ziran kulturearen eta esku-lanen gune, ikastetxe ta tazabaltzailleak.

* Irautasun ziñ-eskeintza (botoa): Ziñ-ekeintz onen arauz, lekaideak bere berbea emoten eban, ii arte, monastegi berean biziko zala.

* Kristoganako onerespena: Era onetara, kristo da lekaideen jarraibide; **Kristo da** monastegiko bizitzako eta lekaideen arteko artu-emonen gune.

Jvgn gizaldia *Izan zan* monakatoaren gizaldia; *gizon asko ta asko* aldendu ziran *gizartetik* Jesusi jarraitzeko. Eta monakatoa izango da Erdi-Aroan giza-historia zuzenduko daben indar eragilletariko bat...

8. Eleizeak siñisten dauana ausnartzen dau

Jesus Jaun **eta** Salbaitzaille lez siñisten dabenen alkartea da Eleizea. Salbatzen **gaituan** Jainko-gizon bategan siñistea ez **da ulert-erreza**. **Alan be, euren aaiegiñak egin ebezan leenengo gizaldietako kristiñauak**, sortzen jakezan fede-arazo batzuei erantzun bat emon **nairik**:

- Jesus zelan izan deiteke Jainko, Jainko bakarra Aita ba'da?

Zelan **izan daiteke Jainko gu lako gizon bat, au da, aldatzen dan eta** sufritzen dauan gizon bat?

- Zelan alkartu daitekez izaki baten Jaungoikoa **eta gizona**, Jaungoikoak gizonaren izatea injntzi barik eta gizonak bere askatasuna galdu **barik?**

Itaun oneik, ainbat erantzun, dotriña ta aitu-eziñeko historia luze baten asierea izango dira. **Olan sortuko dira:**

- Herejiak: Fede-azalpen okerrak
- **Dogmak:** Fede-azalpen zuzenak; azalpen oneik **herejiak** zuzentzen ditue eta Jaungoiko ta Jesukristoren ezaguera **sakontzen dabe**. **IV** eta Vgn gizaldietako Kontzilioak, Jerusalengo Kontzilioko bideei jarraiturik, **Eleizearen fedea argitu eben Kristori buruzko dogmak iragarririk:**

Nizea'ko Kontzilioa(325)

- **Arrio'k esaten eban Kristo ez zala gu lako gizona, baiña ezta** Aita lako Jaungoikoa be: Arrio'ren **ustez, Kristo** Aitak sortutako kreatura bat da, Bera baiño gitxiago dana eta Beraren menpekoa: Jaungoiko ta gizonen arteko "bitartekoa"

Kontzilio onek, **ostera, auxe iragarri eban: Kristo eta Aita "izate berekoak" (consubstantialis) dirala; era onetara, Kristo** Jaungoikoa dana argi geratzen zan, naiz eta. Kristo eta Aita desbardiñak izan.

KonslanJinoplako Kontzilioa (381)

- **Mazedonio**'k **Espiritu Santuaren Jainkotasuna ukatzen eban; Laodi-zeako Apoïnar'ek, barriz, auxe iñoan: Jainkoaren Semearen jainkozko pertsona** zala, Jesusegan arimearen lekua beteten ebana.
- **Kontzilio onek, ostera, Espiritu Santuaren jainkotasuna iragarri eban; baita Jesus, benetako gizona** zala be, **giza-arima ta guzti**.

Efeso'ko Kontzilioa {431}

- **Nestorio**'k auxe defenditzen eban: Jesusegan pertsona bi dagozala (gizonezkoa eta jainkozkoa); pertsona **bi oneik, barriz, alkartuta** dagozala lemazaiña itsas-ontzi ar i lotuta edagoan antzera. Olan, ba, **Mana Jesusen ama da, baiña ez da** Jaungoikoaren **Ama**.

Kontzilioak, ostera, auxe argitu eban: jesusegan pertsona bakar **bat** baiño ez dagoala, eta Jesusen ama Jaungoikoaren **Ama** dala benetan.

Katzedonia'ko Kontzilioa (451)

- Eutikes'ek, Kristogan, **gizakundearen ondoren, pertsona bakar bat eta natura bakar bat egoala (mo noli sismo), esaten eban:** Jesus-gizonaren **izatea** Jaungoikoak iruntsi **egiten dau, ala, ospin** tanta bat itsatotan desegiten **dan antzera**.

Kontzilioak, ostera, argi ta garbi jarriko dau: **Kristogan natura bi** dagozala (jainkozkoa ta gizonezkoa), alkar naaztu barik (Eutikesen aurka), aldaketa barik (**Arrio ta Apoïnar'en aurka**) eta bananketa barik (**Nestorioren aurka**), **perlsona** bakar batean, **au da, Jainkoaren Semearen** pertsona bakarrean alkartuta.

Herejia eta konizilioen historia au, egia biribil biren arteko oreka billatzearen historia da; **egia bi oneik, onexek dira:** **Jesus, egiazko** Jaungoiko eta egiazko gizon dala. **Egiazko Jaungoiko izan bear dau bere salbame**na gizon guztiekana eldu daiten; eta egiazko gizon **izan bear dau bere salbame**na gizon guztiekana eta gizon oso-osora eldu daiten.

EGIN GEINKEZAN LANAK

iztegia: Aztertu egizu ja zer esan nai daben itz oneik: diaspora, patrizioak, plebeioak, intzenrizua, infrabaliotu, apologia, apostatalu, ediktoa, erregekaltezo ekintza, deserritua, aboüzinoa, teokrazia, zesaropapismoa, pertsona, natura, Kontzilioa.katekumenoa.

Maal ingurua: Historiako Seminarioaren laguntzaz, maai inguru bat eratu egizu; gaia, auxe izango da: "Erromako Inperioa eta Eleizea".

Billatu egizuz: XXgn gizaldiko martiriak.

Irakurri... egizuz "Martirien Ekintzak" (aktak).

Aztertu: la zelan sartu zan kristau erlejiñoa Españan eta ia zeintzuk izan ziran leenengo gotzai-uriak.

Zertzaz: Defendatu bearko leuke gaur apologista batek Eleizea.

Lantxo bat egin: Españako Eleiza ta Estaduaren arteko artu-emonei buruz, Konstituzifto barriari begiratzuz.

Billatu egizuz: Meza santuko kredoan, aitatu doguzan Kontzilioetan Eleizeak ebartzrako kristau-tedeko egiak.

Aztertu egizu: Erromako Inperioko ekonomia-egrturak, eta ia ze arrisku ekartsen kristau erjejiñoak eko no mi-eg itu ra onei.

Azaldu egizu: la zegaitik dan monoteismoa pol'rteismoa baiño bikaiñagoa.

aurkeztu egizuz: Apologista batzuen izenak.

Batu egizuz: Katakunbetako kristau-arteak dakarrezten argazki, postal... etabar, Azaldu ze zerikusi euki eben erasoaidiak kristau-arte onetan.

Zelakoak: Ziran eta nun dauken euren iturburua kristau basilikak?

Aurkrtu: monastegi ospetsu batzuk.

Egizu: Vgn gizaldiko kristau erlejiñoaren egoerearen mapa bat.

III. GAIA

MENDIPEKO ZULO ILLUNA BAIÑO GEIAGO (*Erdiaroko Eleizea*)

Taull'eko Klemente deuna. Erdi-Aroan
dana ebillen Jaungoikoaren Inguruan.

Dana bera jausten danean,
Erromatarren Aginterriaren gauzen egokitasuna
goitik bera zapuztu zanean,
Eleizeak iraun egin eban
eta bera **izan zan** gizartea alkartzeko
lokarri **bakarra: Kristiñautu egin zan** dana.

Eta kristinautua izan zan Erdi-Aroko mundu onetan
Eleizeak zauri sakonak artu ebazan, eleiz-barruko zatitzeak,
eta ementxe egin ebazan
gizonok eta erriok egiten doguzan
okerkeririk **aundienak: Inkisiziñoa ta barruko** usteltasuna.

Baiña, lurpeko zulo luze ta illunaren antzekoa dan
aldi onetan ez da dana illuntasuna:
Eleizeak jakintza **barri baten egunsentia**
agertu **eutson mundu osoari**
eta jakintza ori ez zan iñoz oso-osoan galdu (Kluny, Lekaide eskaleak,
agintaritza, eskubideen aurkako burrukak) jakintza orrek beti agertzen eban
era **batera edo bestera,**
Jaungoikoaren Erreifiuaren
eta gizonen salbamenaren
ezaugarri-berotasuna.

OARRAK

1. Erdi-Aro luzea

Ber-jaiotzak izan eban ikuspegitik ikusita, Erdi-Aroa aldi ilun eta atzeratu lez agertzen da. Ber-jaiotzak, XVIII gizaldia bide dala, olako ikuspegia ezarri dausku. Baiña gauzak ez dira izaten ain bakanak: Egia da, bai, ondamendi baten ondorena (aurreko jakintzaren ondamendia) izan zala zati on bat Erdi Aroa, baiña aldi barri baten sorburua be izan zan, jakintza zar eta zapuzluaren ordezkoa izango dan jakintza barriaren sorburua.

Egoera barriaren berezitasunak

* Uri-bizitza gitxitu egiten da eta baserri-gizartea ugaritu. : Urietan ez da besterik geratzen moltzo txiki ondo zaindu batzutan batu diran biztanleak baiño. Eta alkartzeko bideak ain urriak izanik, bakartadea aundiago biurtzen da.

* Ekonomiak ez dau ikusten beste elbururik, biziteko bear dana baiño. Irabazia ateratea, eziña da: biziteko bear dana be ostaz ateraten da. Bakoitzak bear dauana ateraten dau, iñori begira egon barik. Dirua, erri-maillan, ez da agiri, gai batzuk beste *batzun* ordez emoten dira.

* Olako egoeran errez galdu ziran antxiñako gizonaren Sorpenak. Eta orreik barriro lortzeko gizonak bear eban alegiña askoz aundiagoa izango zan, beneditarrak euren lekaide-etxeetan zaindu eta sortzeko zan Europa barrira zabaldu ez ba'ebazan.

* Erreiñua Erregearen jabetzako gauzea zan. Toki baktxean agintaritza jabe aundi baten eskuetan egoan, baiña onek beronen onerako erabilten eban. Jabe txikiak galtzen joan ziran, euren lurak jabe aundiari emon-bearra izaten ebelako. Jabe aundiak lur orrein ordez zaindu egiten ebezan eta orre-lan jabe biurtzeko bidea artu eben.

* **Eleizea, Erroma'tarren eta Ardi-Arokoen** artean bitarteko lez geratu **zan eta beronen bidez igaro** ziran legeak eta **jakintza**. **Epe luze baten berau izan zan erakundeak sortzeko almena eukan bakarra. Eta mundua Erdi-Aroko** gizonentzat ardatz baten inguruan dabil **eta Jaungoikoaren inguruan** dauz bere **bira guztiak**. **Gizartea bera** be Jaungoikoaren inguruan eratzen **da**, Jainko-Ardatzezko gizartea **da**.

Erdi-Aro sakonean enrigintzan ta gizarte egitarauan, jauntxukeria da nagusi. *Karios* Aundiak bere aginpide ta Aginterría bide **diraia, atzeratu** egin eban garapena, baiña au il zanean **laster galdu zan jauntxukeria: Onen** ondorengoak ez euken **izen aundirik eta erriak eurak beti egozan arabeen** erasoen bildurrez, normandak be orretarako **getu egozala**; orduan jabe **txikiak, erregeen zaintza ori labor geratzen zala ikusita, alkartu egin ziran jaun** batzun inguruan **eta onein** senbitzari **biurtu**, ziurtasunaren truke. **Emen** sartzen da **jauntxukeria berezitasun oneikaz**:

* Errigintzan: erregeak eginpidea galtzen dau eta jaunen aginpidea **indartu egiten da**.

* Ekonomi-arioan: jabetza-zentzuna galdu egiten *da ela* dirua *urritu*. Ortik gauzak gauzen **truke emon-bearra**.

* Gizarte-saillean: erakundea txuntxurduna da. Oñean geienak **osozten daben erria, baserritarrak eta esku-langilleak**. **Oneik otseñak ziran eta jauntxuen** menpekoak (jaunak zaldunak, gizaundiak...). **Jauntxuak be Jaun aundiñen menpean** egozan, oneik ugariagoak (dukeak, kondeak, markesak...). **Eta txuntxur-txuntxurrean** erregea egoan, **ez errege lez erriari agintzeko**, jaunai egintzeko baiño. Erregearen aginpidea mugabakoazan.

Erdi-Aro azalean: aldakunrzak agertzen *asi egiten dira*, **baiña** oraindiño lengotan jarraitzen **da**, ondorenak geroago etorriko dira, onexegaitik:

- * uriak edo Burgoak **asi dira sortzen**
- * **burgotarrak buru-jabetza aundiagoa nai dabe, Jaunen eskuetatik aske izan**
- * jakintza-giroa apur bat zabaldu egin da
- * **eta errietatik urietara biurtzen asi da jentea, urian aurrerapen geiago dagoalako.**

2 Karlos Aundia edo aundi-gurakoa

800n. urtean, Jesus'en Jaiotza-egunean, Erroma'n egoan Karlos Aundia **ela antxe ezarri eban bere buruan Aginterriko Nagusiaren Burestuna III Leon Aita Santuak: Karlomagno'ren gudalekuetako ondoren onak, bere Eleizea** babesteko gogoan, bere izen aundia., dana zan Errege-izena artzea merezi ebana eta mundu guztian Karlos Aundia errege (ez artzea eskatzen zan.

Baiña bera Enperadore **izan baiño be lenagotik eukan burutan Karlos Aundiak zeintzuk ziran Agintariaren zeregiñak eta zeintzuk Aita Santuarenak.** "Guk egin bear doguna, izkillu-bidez Eleizea zaintzea da... eta zuk egin bear dozuna, **Aita** Santua. Moises'en antzera eskuak zerura **jaso eta** gure gu da ro st ee n tz at laguntza (ortu...".

Bere berba orreitan agertzen dan lez, Frankoen Erregeak argi dauka: **Errigintzan eta erlejiñogintzan, bera da buruzagi** bakarra. Eta Aita Santuak, **berari koroia ezartzeaz, orixe agertzen dau eta Agintari Nagusi barriak eskintzen** dautson omen utsezko lekua onartzen dau.

Barru-barru an. **Karlos Aundiak nai dauana ez da besterik** antxiñako aginterria, erromatarrena, berbiztutea baiño. **Eta** orretarako, zaingoa sendotu bear **da eta aginterriko toki guztiak bere menpean egon** bear dabe, **baiña aginterri barriak ez dauka** zaingorik, biztale moitzoak banaka **bizi dira, uriburua Agintari Nagusia dagoan lekuan antxe dago eta** Errege-Etxean Zaingo-ardurea daukenak **eurak dira erri-zaingoa daukenak, toki bakoitxean** diran jaunak **arduratzen dira toki aretako zaingoaz, baiña Agintari Nagusiak ezin** eskuratu zaingo orretatik dauzan eskubideak...

Eta zaingorik ez eukakako, Karlos Aundiaren alegiñak alperrekoak izan **ziran Orduan, aurrean eukan erakunde bakarraren laguntza eskatu eban: menpekoena eta Eleizearena, euren bidez erri-zaingoa begiratzeko eta** eskuratzeko.

Angla nderrta London	Dinamarca'ko Erreiñua	Mosku Errusia'ko Erregesemeen erriak
	Akisgran Jermendarren Agintem Erromatarra ta Sakratua	Polonia'ko Erreiñua Kiev
Paris Frantzia'ko	Venezia Jenoba	Ungaria 'ko Erreiñua Budapest

Aiia Santuaren Lateralriak

	Bulgaria'ko Erreiñua Konstantinopoli
	Bizanrzi'ko Agin tema

Erreiñu Kristiñauak

Taifadun erreiñuak	Erroma Napóles	Kreta Txipre Erreiñu Kristiñauak Ak re
		Jeruslan is lam-erreiñuak

Menpekoizaren bidez, *za'mgoaren* zintzotasuna **ziurtatzen** zan. **Ela Eleizeak** bear ebazan **zaingo-gizonak** emoten eutsozan **Buruz**, edo orn zuri baten **bide orretatik** **Karlos Aundiak** bazter guztietara eltzeko erea eukan, **eginkortasunaz** eltzeko erea ta jaurtzekoa, egitez errege dan eta agintzen dauan gizona izateko. **Baiña izatez**, Erregeak zelan jaurtzen dauan, menpekoak alan erantzungo dau. **Egitez**, **Karlos Aundiaren ondorengoak** aitaren **bestean zurrak ez ziralako**, menpekotzak **Latern-erakunde** ori apurtu egingo dau. Atean dago Jauntxu-lurren erakundea.

Karlos **Aundiaren Asmoa bete barik geratu zan**, baiña berari **jako zor** jakintzaren berbizkundea: Lekaide-Etxeetan **eta Gotzain-Eleizen** inguruan ikastegiak ugaritu **egin ziran bere aldian**, eta Beneditarraz **batera, ortik** etorriko da jakintza, orreik bank galdua izango zan **erdi-aroko jakintza**.

3. Eleizea be Jauntxu-Lurren antzera.

Eleizan sortu **ziran ba, eta ortik asi ziran agertzen** Karlomagno'k beragandu ebazan **gizon** jakitunak, orduko **gizon** jakitun bakarrak. **Eta** beste idazgo-gizonik **ez eukan ezkerro**, abadeak **ondo etorriko jakozan lan orreik** egiteko.

Baifia **Karlos Aundiaren ondorengoakaz Eleizeak**, beste edozein **gizarteren antzera**, **Jauntxu-erakundearen antza artu eban**. **Eta ori erriarentzat ona izan arren, ortik asi zan berakadea**. **Oton-darrak euren Aginterria** eratzeko oiñarri lez **Gotzaiñak** Jaun lez izendatu ezkerro, Agintari nagusiak **gixitu** egiten eban jaunen almena **eta gaiñera Gotzaiñak ez eukan euren jauntza nori itzirik... Orreian azi zan Eleizearen Jauntxukeria**.

Abatak **eta** **Gotzaiñak** lurak eta lege bereziak artzen ebezan **erregearen eskutik eta nortasun bi eukezan, eleizearena ta erriarena eta jaun biri** egozan lotuta be, aginpidea **emon eutsen Jaunari eta orretan** menpekoen zeregiñak bete bear **izaten ebezan, eta Eleizeari**.

Agintaritza emoteko egiten zan "inbestiduran" alde batetik gogo-ardurea emoten jakon eta **bestetik erri-ardurea eta orreian gizon** bategan agintaritza biak egozan eta zintzotasuna eutson Eleizeari alde batetik eta Agintari **Nagusiari bestetik**. **Eta zintzotasun bikoitz au ez zan beti erreza**. **Aita Santuak** bere **izen ona galdu eban eta Agintari Nagusiak entzute on barria lortu** eben. Laster **sortu zan "inbestidura" arein** ugaritzea.

Ondoren lez, Eleizeari astuntasun aundia ezarri jakon aldi larri areitan, kondairan izan dan egoerarik ezezkorren aretan eta beste akatz askoren artean simonkeria zabaldu zan (eleiz-ardurak diru-truke saltzea) eta nikolaikeria be bai (simonkeriaren ondoren lez, ardura artzera etorzanak ez eukelako ardura orí artzeko bear zan bizitza garbia).

4. Ortik nora?

Gizon argi bat agertzu zan orduan, egoera larri orreri aurpegia emoteko, kristiñauen alkartean: VII Gregorio.

Aita Santu onek argi ikusten eban, Kristiñauen errian abadeak izan bear ebela zuzendari eta abadeen buru Aita Santua zala eta onek bear izan ezkeru Erriko Agintari Nagusia kendu be egin *eikeala*.

Eleizea egoera larri orretatik aterateko, elburu oneik ezarri ebazan:

- a) Aita Santuaren nortasuna sendotu.
- b) Eleizeak Gotzaiñak aukeratzen bear dauan askatasuna zaindu.
- d) Simonkeria ta nikolaikeria kendu eta orretarako abadeen jakintza ela jokabide-zuzen arloak indartu.
- e) Abadeen ezkongetasuna aldeztu.

Eta elburu orreik lortzeko, Eieiz-Legedia eguneratu eta barriztatu eban, dana *era barri* batera ezarten ebala:

"Oraindik aurrera iñok, Gotzaintza edo abatetza laiko baten eskuetatik artzen ba'dau, ez da izango Gotzain edo Abat lez onartua, Kepa Deunaren grazia galduko dau, eta ez dau izango eleizara sartzeko eskubiderik. Bardin, Agintari Nagusi naiz Duke naiz markez, konde edo olakoren bat, edozelako agintaritza maillan, Gotzaiñari, edo beste eleiz-agintari beteri inbestidura emotellan, ausartzen ba'da, jakin begi, *zigor* bardiñetan jausten daia".

Baiña bere jokabide orrek aurraketa gogorrera sartu eban. IV Enrike Agintari nagusiak Gotzaiñai inbestidura ezarten jarraitu eban eta Aita Santuak, esanda eukan lez, eleizatik alboratu, ezkomunikatu egin eban eta orduan ezkomunikatze ori, Erdi-Aroko giro aretan, Jaungoikoa adatza zan ezkeru, arrisku aundia zan Agintari Nagusiaren ardurari buruz: Jauntxuak eta menpekoak ez egozan beartuta, Agitari Nagusiaren esanak egitera, au eskomunikatea izan ezkeru.

IV Enrike'k berak joan bear izan eban *Kanosa'ra, Aita Santua egoan* lekura, ekskomunikapenaren parkamena eskatzera. apaltasuna aundienaz. Aita Santuak emon eutson askezpena, baiña orduetik aurrera aldakuntza egin zan: Lenengoz Erri Agintari Nagusiak Aia *Santuaren aurrean burua* makurtu-bearra izan eban.

Dana, dala *Kanosa'n bizitzan* be. *VII Gregorio'ren burubideak zuzen* jarraitzen eban Eleizearen askatasunak buruz, baiña egitez, Eleizea luzarorako Agintariaren gururari lotuta geratu zan.

5. Kluni'tarrak: Aize barriak

X gizaldia, Jauntxuak Eleizan geroago ta geiago sartzan ziralako, eleiz-aldakuntzarako ekintza barriak sortu eta "erlejiño-Sailleak" sortzen asi ziran.

Kluni'tarren eleizea, Magdalena deunari
eskiñia *Vezelay*"n. Kluni'tarrak
Europa osora zabaldu ziran.

Olako eleiz-saieen artean ospetsuena Kluni izan zan eta onek ezarri eban bere eginpidea, gizaldi bat igaro baiño lenago 1.450 lekaide-etxeran artean. Lekaide-etxeko Araudia ez zan berezia: Antxiñako Benito Deunaren eraudi bat baiño ez zan, baiña arau areik zeatz betetzea eskatzen eban. Klunjanen bereziñasunak oneik ziran,

* Lekaideak orduko gizarte-arazoetara sartzeko area.

⁴ Eleiz-sail bat izatea. Ordura arte ez egoan bateratzerik eta lekaide-etxe bakoitxak bere erara ulertzen eban araudia. Oraindik aurrera Klunik bideratuko dauz lekaide-etxeak eta alkarteak, bide baterantza joteko eta ardatzeko jaurketa sendoa ezarten dala.

* Lekaide-etxeak askean ziran eta ez eban beste nagusirik Arta Santua baiño.

Eta ain ondoren ona tortu ba'eban, onexegañtik izan zan:

* Lenenego abatak eratzaille onak izan ziralako, batzuk santuak, eginkorak eta bititza luzea izan ebanak.

" Araudiaren maitagarritasuna, laikoak ezertan sartzen itzi barik eta lekai-deen bizitzea zeatz eratzen ebala.

* Aita Santuaren laguntza aundia, naizta gotzain batzuk, lekaide-etxe-en askatasuna ontzat artzen ez ebelako, aurka jarri.

Orregaitik Kluni'tarrak indar aundia izango dabe eleizearen aldakuntzan eta aldakuntza orren oiñarri oiñarrian dagoz.

6. Arazo barriak eta erantzun barriak

Eskaleen eleiz-sailleak

XIII gizaldian, asieran, gizarte, jakintza ta ekonomi-egoerea aldatzen asizan eta orduan sortu ziran eskaleen eleiz-sailleak, aunditzen egozan uriai laguntzeko eta euren bear-izian barriai erantzuteko. Eskaleen saila oneik apostoluen antzera biziten alegintzen dira, ibilliz zabaltzen dabe Barri Ona errietan eta munduko ondasunen zaletasunetik urrin agertzen dira. Erri-arteko bideak obetu egin ziran eta batera sortu Jauntxuakandik askatasuna lortzeko esku-zurien guraria, eta iñoz abadeen guraria be bai. Gotzaiñakandik aske biziteko. Eleiz-saila barri onein aurka agertu ziran sinismen oker barriak, jakintzaren aurrerapen barriaren giroan. Eskale-sailleak aurrera egiteko laguntza izan ziran gauza bi orreik.

Frantziskotarrak eta Txomindarrak, eginkorrek izateko gurariaz, zuzen-zuzenean Aita Santuaren menpean jarri ziran, Kluni'tarren antzera. Eta Kluni'tarrak lez, oneik be, ardatzeko erakundeen menpean egozan eta ortik artzen ebezan jokabideak, guztientzat bardiñak, dagozen lekuan dagozela...

Ikastetxe Nagusiak

Karlos Aundiaren aldiari sortu ziran Lekaidetxe ta Gotzain-Eleizetako eskola areik, aundi egin ziranean, XIII gizaldian, irastetxe Nagusien sorburu izan ziran.

"Universitas" izena orduan alkartea esan nai eban eta taldeak alkartzen ziran elburuak lortzeko. Kasu onetan, alkartzen ziranak irakasleak eta ikasleak ziran, euren eskubideak zaintzeko gogoaz eta aldi aretako tangille-taldeen antzekoak ziran, Gotzaiñen naiz laikoen eskuetara jausi barik. Burruka onetan laguntzaille ona izan eben Aita Santua. Burruka onen ondoren lez, Ikastetxe Nagusi bakoitxak bere lege bereziak billatzen dauz eta orretan bereizten zan beste Ikastetxe Nagusi batzutatik.

Baina berezitasunak asko izan arren, guztiak eukezan gauza bardin batzuk: Izkuntza latina zan, ikas-gaillu lez, guztiak euken liburua eta guztiak euken ikasbide bardiña Eskolastika.

Eskolastika ikasbide bat zan eta ikasbide au gaiakaz bete bear zan. Gaia Erdi-Aroko Ikastetxe nagusietan irakasten zan Filosofia ta Teolojia ziran. Eskolastika arloan Santo Tomas agertu zan nagusi lez. Akino'ko Santu onek lortu eban kristiñau-bidea eta Aristóteles alkartzea. Anstoteles'en irakatsiak batez be Toledo'ko Itzultzaillean Eskolearen bidez zabaldu ziran. Alkartze ori oiñarn zala, Akino'ko Tomas Santuak Teoloji-erakundea sortu eban, berea dan liburu aundi baten "Summa Teológica" liburuan agertzen dana. Ortxe agertzen dira egokiro batuta, aurretiko filosofi ta teolojiak ekarriko burubideak eta burubide orreik ikutu aundia izango dabe ondoren datozen gizaldietan.

Kurutze-gudak

Izen ori emoten jake, musulmanen eskuetatik Lur Santua askatzeko, Eleizea zuzendari zala bidelariak eta gudarosteak egin ebezan ibillaldi arei. Kurutzedunak zin berezia egiten eben eta soifekoan gaiñean kurutzea josi.

Lenengo kurutze-gudea egiteko aitxakia Turkia'tar Seljuziden alde guda egiteko Sortaldeko Agintari Nagusia zan I Alexis Konmeno'ren deia izan zan. Klermont'eko Eleiz-Batzar Nagusitik urten eban deiak, orretarako It Urban Aita Santuak itzaldi ikaragarri bat egin ondoren. Orduan entzun ziran berba entzutetsu oneik: "Jaungoikoak nai dau".

Eta orren ondoren beste sei kurutze-guda egin ziran. Guztiak, eta batez be lenengoak polit ika-a rio ko ondorenak lortu ebezan, baiña egia esan, gizaldi bi gudaketan egin ondoren, 1291 n. urtean Akre'ko Joan'en uria galdu zanean, kristiñauak irabaztako lurralde guztiak barriro musulmanen eskuetara jausi ziran.

Kurutze-guda onein jazokizun au zergaitik izan **zan** ulertzeko beste bide-rik ez daukagu **XI gizalditik** XiU'era **sortaldean** egoan egoerea aztertzea baiño. Aldi aretan Europa pizka bat ziurrago egoan, basatien bigarren eraso igaro ondoren, salerosketak ugaritu eta bideak ibilteko obetu egin ziran; biztanleak **be ugaritu egin ziran eta esku zuriak euren** gudaketarako asti geiago euken: **Aiia Santuak bere aldetik, inbeslidura-burruka aren ondoren bere nortasuna sendotu nai eban. Errazoi guzti orreik, danak batera artuta, kurutze-gudak** sortzeko bideak zabaldu ebezan, Baiña **oneitariko errazoi bat ez da** naikoa jazokizun **ori zurtzeko**.

Dana daia, gaur sinistu-eziñeko gauza lez agertu arren, kurutze-gudak egin ziran **eia kondairan** dagoz, euren ondorenak itzita: Sortalde ta Sarteldea-ren arteko artu-emonak ugaritu, lur-arteko itxas-inguruan salerosketa **indartu, naizta erri batzuk eskuratu onen** ondorenak; **musulmanen trebibi-deak, burutasunak eta oiturak zabaldu** ziran sartaldean, Bizanzio'ren **indarra** makaldu egin zan **eta** Erroma ta Konstantinopoüren arteko **banatu-bearra** argiago agertu **zan, eta zori txarrez, kristiñauen artean** giza-jokabidearen **batasuna** sortu-bearrean, Kurutze-Gudak latem'ak alkarren aurka jarri ebezan.

Inkiszinoia

Inkiszinoia epartegi berezi **bat zan, siniste okerrekoak** aurrean erabiñteko Eleizeak sortuak eta Eleizearen izenean **bere** zeregiña beteten ebana.

Epaitegi au aztertzeraz urreratzen garanean tantabide bi alboratu bear **doguz:** Geure aldi onetatik epaituta bere ekintzak guztiak alboratzekoa eta ekin-tza **guzti orreik goratuz** zurtzeko a. **Gure ustez, okerkeri guztiak aiztu barik,** Inkiszinoia zelan agertu zan ulertzen alegindu bear gara.

Aita Santuaren Inkiszinoia erdi-aroan agertu **zan** (España'koa geroago **eta erriko agintarien indarrak**) **eta ori izan zan** aldi **aretan** erriak ezelan **be ez** ebalako onartzen Eleizea **la LaJeria gauza bi izatea**. Euren ustez Elei-zearentzat kaltegarri zana **Laterriarentzat be txarra** zan, danaren ardatzean egoalako Jaungoikoa. **Giro orretan sortu leikean inkiszinoia lako erakunde bat.** Gaiñera **siniste okerreko ekintzetan** erregeak azi **txarra ikusten** eben, **euren** lurraideetarako nasteak **ekarri leikezan** azia eta orregaitik eurak oso-oson egozan siniste oker orrein aurka.

Gero urrengo **urteetan alde bietatik alegiñak egin ziran** alkarragana urre-ratzeko, baiña ez zan **lortu** olakorik. Kurutze-gudak, batasunaren burutasuna ekarri eben **barriro**, baiña banaketea sakondu egin eben **batez be** latindarrak Konstantinopoli zapuztu (1.204) eta Patriarka bat aukeratu ebenean.

Sartaldeko banateketea

Aita Santuak 68 urte egin ebezan Avignon'en biziten. XI Gregorio'k il baiño urtebete lenago (1378) Erroma'ra aldatu eban barriro Aita Santuaren egonlekua. Bere ondorengoa aukeratzeko **Kardenalak indar aundi bat izan** eben errialdetik Erroma'n, aukeratuko eben Arta Santua Erroma'tarra edo gitxienez **italia'tarra izan zedin**. **Kardenalak VI Urban aukeratu eta** beingo urten eben euren gitzapetik eta Erroma'tik be **bai**.

VI Urban, kardenal mundu-zaleai gogor egiten **asi zan** eta oneik **orduan**, auxe esan eben: VI Urban **ez zan egoriko aukeratu, kanpotiko** indarrak eraginda **izan zalako, eta** beste Aita Santu bat aukeratu eta Avigno'en biziten asi zan.

Orrelan Eleizea zati bi eginda geratu zan, **Erroma-zaleena alde batetik eta** Avignon-zaleena bestetik.

Egoera **larri ori bideratzeko Paris'ko** Ikastetxe Nagusiak **iru bide eskiñi** ebazan: Aita **Santu batek iztea, biak epai-mai** baten menpera sartzea **edo** Eleiz-Batzar Nagusi bat.

Alde bietako kardenalen **artean Pisa'ko Eleiz-Batzar Nagusira** deia gertatu eben (1409) eta Aita Santu biak kendu eta barri bat aukeratu eben, V Alejandro. Orregaitik, **ez zan** ezer konpondu, txarrago jarri **baiño: Orain iru Aita** Santu geratzen dira.

Orretan, Konstantza'ko Eleiz-Batzar Nagusia egin zan (1414-1418) eta emen batasuna sortu zan V Martin Arta Santua aukeratuta. Au guztiak onartu eban eta orrelan amaitu zan sartaldeko zatiketea.

Baiña Eleizea re ntz at izan ebazan ondorenak, batez be **Aita Santua'ren-**tzat, bildugarnak izan ziran: Aita Santua'ren izen ona galdu zan eta txandaka **agintarien** menpean geratzen **ziran**.

EGIN GEINKENA

Iztegia: **billatu zer esan nai** daben berba oneik: **Inbestkjura, eskomunikazi-ñoa, menpetasuna, lekaidea,** monjea, zatiketa, **kardenai. abata,** mozárabe, **erromaniku, gotiku, kleriku, astuntasuna, ezkongetasuna, eleiz-leggedia.** alta-santutza, bizi-luzea, ziña, patriarka.

Eztabaidatu... ikas-gelan gaur eleizeak daukan ekonomi-giroa **eta** konparatu erdi-aroan eukanagaz (Simonkeria, Nikolaikeria).

Oinkada bat... eta garrantzi aundikoa Eleizearen kondairan **auxe** izan **zan:** Arta Santua kardenalak bakarrik aukeratu egiela... Begiratu gaur zelan aukera-tzen dan Aita Santua.

Billatu... erromaniku-tankerako erti-lanak oiñarrien dabezan berezitasunak eta ikusi **erti orrek** zelan agertzen dauan aldi aretako erlejiño-pentsaera.

Billatu... **gotiku-talkerako ertiaren berezitasunak. Ulertu erti-bide onek zein** erlejiño-pentsaera dauan oinarrian.

Zein zeregin... izan eban Rekaredo erregeak España'ko katoliku-bidean.

Billatu... **zer izan zan Toledo'ko itzultzaille-eskolea eta zein bere zeregiña** Europa'ko jakintzan.

Egin... **lur irudi bat Klunitarrak Europa'n eta emen zelan** zabaldu ziran agertzeko.

Lerrotu... **lur-irudi baten** Santiago'ren bidea. **Zein izan zan onen garrantzia** jakintza ta erlejiño-arloan?

Al ba'da... artuemonak izan lekaide-etxe bategaz **edo erdi-aroan** sortua dan konbentu bategaz.

Zer esan gura dau... Batikano'ko II **Batzar** Nagusia ezkerro Erroma **eta** Sortaldeko eleizearen arteko eskomunikapena kentzeak?

Zeintzuk... **ziran Europa'n e/a emen** Ikastetxe Nagusirik ospetsuenak? Billatu noz sortuak diran.

Nor izan zan... Luna Aita Santua? Non it zan?

Aurkitu... erdi-aroko uri baten irudia eta azaldu an bizitzea zelakoa zan.

Marra tu... Jauntxuen gizartearen erakundea agertzeko irudi bat, txuntxurduna.

Batu... ikas-gelan diran eritxiak inkisiziñoari buruz eta kurutze-gudai buruz, gero eztabaidatu.

Agertu... Txomindareta Frantziskotar lekaideen berezitasunak.

IV. GAIA

ALDI BARRI BAT
(**Eleizea mundu barri** baten)

Migel Anjel'en Dabid. Ber-Jaiotzatik aurrera mundua gizonaren inguruan dabil.

Ber-Jaiotza-aldian eta Aldi barrian gizon barria sortu **zan**, Erdi-Arokoa baiño bakartiagoa ta arroagoa, **eta** lur-bira barri bat agertu **zan** uste zan baiño aundiagoa eta **eguzkiaren inguruan dabilena**. **Eleiza barrizatu bat be jaio zan,** **zikindu** eben agintarien almenetik alboratuta, gero, **Erartzuleen** (protesíanteen) banakuntza igarota, bere benetako aurpegia aurkitu ebana, **gizon** barrien aurrean guztientzat salbamenerako bide lez aurketzen dana.

OARRAK

1. Aldi barria

Italia'ko urietan giza-mailfa barri bat sortu zan, salerosfeen gizamailla. Oneik dana lortu eben, baina ez gurasoakandiko etorpidiaz, euren alegifiaz eta trebetasunaz baiño. Euren ekintzeiarako ondasunak arriskura sartu ebezan eta arazoai eurantzuteko ariuemonetan lengo erregeak eta jauntxuak baiño. Eurentzat munduaren oiñarria ez da Jaungoikoa, eurak baiño.

Onelan asi zan agertzen ber-jaiotza eta aldi onetan Erdi-Aroko batasun-Didea urratzen asi zan: Agintari Sakratuak eukan batasuna, polit ik a-a rio an, la-terri barrien eskuetara joanda zatitzen da; pensabideen batasuna, pentsalan barrian eskuetan birrintzen da, teolojiaren orde z jakingaien mundua sortzen da eta Eleizeak jakintza ta politika-arloetan jauntasuna galtzen dau. Erdi-Aroko mundua Jaungoikoaren inguruan ibilli zan lez, Ber-jaiotzaren giroko mundua gizonaren inguruan dabil. Iñok ez dau ukatzen izadi-goitizko gauzak dagoanik eta ez Eleizearen nagustasunik be, baiña gauza orreik atzean geratzen dira eta bizitzak aurrera doaz Jaungoikoaren esanak edo Eleizearenak larregi kontuan artu barik.

Egoera barri au, aldakuntzaren egoerea da.

Lurglñen mundutik urien mundura Aldakuntza: Salerosketa-sailla ugaritu danean, uriak azi egiten dira eta langille-taídeak salerosleakaz norgeiagoka dabiltz, agintaritza-billa. Udalak indar barría artu dabe.

- **Biziteko** salerosketatik irabaztekora aldakuntza. Aurkitu diran mundu-arlo barriak bide barnak zabaitzen dabez eta, irabazia billatzeko, gizonak euren arietatik urten eta inguruetan doaz: Bankuak eta salketa-Batzak datoz.
- **Mundu ítxitík** zabaldua aldakuntza: Asmakizun barriak (Bruju-lea, ontzi-aurreko lemea, zaldientzat idun-inguruak) joan-etorria errezago biurtu eta urrintasuna laburtu egin eben. Orrelan salerosketako artu-emonak barriztatu egin ziran, pentsabideak be errezago zabaitzen ziran eta biziteko naiz gauzak ulertzeko era barriak sortu ziran.

Aginterri Sakratutik Laterretako errege-agInteetara aldakuntza: Erregeen eskuetara agintaritzaren batzean, esku-zurien garrantzia kentzeko bidea izan zan. Aldakuntza orain XII gizaldian asita aldi onetara arte aurrera eta aurrera etorren. Orrelan sortu ziran laterri barriak eta jaurtzerako era barria, ez Jaungoikoaren alde, laterri bakoitzaren alde baiño, Makiabeloren aolkuak iñoanez.

Jainkoa ardatz-izatek gizona ardatz izatera aldakuntza. Apurka gizonak izadia azpiratzea lortu dau eta konturatu da izadian bera dala nagusi. Bera dala ardatz uste dau. Mundua orain ez da ikusten Jaungoikoari begira, gizonari begira baiño. Orrelan sortzen da gizaki bakoitzaren garrantzia be.

Lurra ardatz izatek, eguzkia ardatz izatera aldakuntza: Kopemiko'k esana, lurra ebillela eguzkiaren inguruan, Galileo'k esperientziaz baieztatu eban. Ortik egia jakiteko bide barri bat agertu zan: Egia esperientziaz baieztatu al dana baiño ez da. Eleizeak asieran ez eban ontzat artu pentsabide ori, batez be Jainkoaren berbeak iñoanagaz batera ez etorrelako, baiña aldi barri bat ikusten zan begien aurrean, esperientzi-arioko jakingaiak aurrerapen aundia lortu eban aldia (osagille-gaiak, lutelesti-gaiak, bizi-iztikoak, fisika-a rio koak...) •

Agiriko eriejiñotik barrukora aldakuntza: Agiriko Jaun-Guriza eta agiriko ekintzak, sarritan ganora gitxikoak, euren lekua izten dau-tsoe barrukoa dan erlejiñoan, sakonagoari. Apurka-apurka, gizarteko erlejiñoa, norberaren erlejiño biurtzen da.

2. Eleizea aldi barri onetan

(Migel-Anjeren Moisés). Aita Santu batzuk arduraren geiago izan eban edertiar buruz eta errigintzari begira, Eleizeraren bizitza aldatzeko baiño.

Ber-Jaiotzaren aldi onetan Aita Santuak alegiña egin eban ekinbide barri onen buruz izateko eta Eleizearen barruan Ber-Jaiotza-gizonak eukan ederzaletasuna aurrera aterateko. Baiña or agertzen ziran ikuspegi batzuren aurka jarri ez zan ezker eta bere barruan be okerbide batzuk artu ebazalako, ez eban lortu gidaritzaren ori.

Aita Santuak sinisgarri izatea galdu egin eban. Aita Santu batzuren bizitzea, garbi-garbia ez **zan**, batzuk naiago dabe euren eskubide bereziak zaintzea eta euren ekonomia aurrera ateratea, arimak zaintzea baiño. Euren etxeokoi agintze-leku egokienak emoten eutsezan eta ardura geiago euen ertita politikarako, Eleizearen bizitzea aldatzeko baiño.

Abadeak gitxi eta ezjakiñak ziran eta batzuk ezkongetasunean ez ziran bizi.

Eskolastikea berba-joko uts biurtu zan jakingaien bideak alde batera itzita Eleizea, azkenez, egoera larri baten aurkitzen zan eta orrelan ezin eikean jarraitu, Kristo'ren aurrean zintzoa jzatekotan. Askoren abotsak entzuten ziran aldakuntza eskatuz.

3. **Erartzuleen** (protestanteen) **aldakuntza**

Egoera orretan gauza argia zan, aldakuntzea bear zala. Gaiñera, Ber-jaiotzak gauzak eta gizonak ikusteko era barria ekarri eban. Eta egoera orreri erantzuna emon bear jakon erlejiño-aldetik.

Nagusitza

Eisieben'en eta sendi apalean faioa zan Urtero, eta filosofia ta teolojia jkasi ebazan. Witenberg'en azaltzen eban teolojia eta antxe asi zan Erantzu(een aldakuntza. Asierea agertzeko ordura, erri orretara izlari batzuk etortea jzan zan eta oneik Aita Santuaren parkamena iragarten eben, parkamen orren ordez Erroma'ko Kepa Deunaren Eleiza Nagusia egitearen gastuak ordaintzeko. Orduan Lutero'k bere 95 azalburuak agertu ebazan parkamenen aurka eta bere irakatsiak *laster* zabaldu ziran Alemania *guztian*. X Leon *aita Santuak* Erromara deitu eutson Lutero'ri, baiña au ez zan joan eta Saxonta'ko Aukeratzaille zan Federiko'ren laguntzaz bertan jarraitu eban bere irakatsiak ezertan aldatu barik eta Aita Santuaren esanetara makurtu barik.

Juan Eck'egaz izan eban eztabaidan Lutero'k Aita Santuaren Nagusitza ukatzen ebala esan eban, baita Eleíz-Batzar Nagusien uts-ezintasuna eta Aintxiñako Eleiz-Guraso zarrak agertu eben Biblia ulertzeko erea be bai. Gero beste agiri batzuk zabaldu ebazan bere irakatsiak agertzeko. Erroma'k

orduan Lutero'k zabaldutako 41 azalburu ezeztu ebazan eta eskomunipamenaren zemaia agertu eutson. Lutero'ren erantzuna Aita Santuaren eurkako satakuntza barriak eta "Gizona-Zintzotzea"ri buruz bere irakatsia agertzea izan ziran. 1.521 urtean atera eban Aita Santuak Eleiz-alkartetik.

Lutero'ren pentsabidea

Lutero'ren ustez, Idazti Deunean agertzen da oso-osoan Jaungoikoaren agerpena eta ez dago bear-izanik agerpen ori iñok azaltzeko edo ulertzeko. Ez eban onartzen ba, ez Antxiñakoen irakatsirik eta ez Eleizearen irakasletzarik (Ik. VII gara).

Gaiñera bere ustez, giza-izatea, jatorrizko pekatua izan zalako, betiko ustelduta dago eta gizonak egiten dauana dana txarra da. Jesukristo'ren irabaziak zintzotzerako bide izan arren, gizona barru-barruan barriztatu barik gertzen da. Zintzotzea agiriko gauza utsa da. Edo, Jesukristo siñistu eta beragan uste osoa izan ezkeru, olakoari Jaungoikoak ez dautso kontuan artzen pekatirik. Salbamen au fedetik baiño ez dator, ez egite onak edo obeak egitetik eta ez parkamenak pillatutetik.

Eleizearen Sakramentuai buruz, Lutero'k ez dauz onartzen Bateoa ta *Jaunaren apaña* baiño. Bere bizitzako urte *batzutan* Penrtenízia be onartu eban, Aita Santua ez dala nagusi diño eta beretzat Eleizea ez dala besterik gogo--utsezko íededunen alkatea baiño eta onek ez dau bear agintari-maillarik, Jaun-gurtzak eta eleiz-jokabideak askatasun osoa bear dabe.

Erlejiño-arioko zatiketea

Lutero'ren Atkartegetzea edo eskomunikaziñoa izan ondoren, gudaldi batzuk izan ziran baita bere jarraitzaileen eta katolikuen arteko bakeak egiteko alegin batzuk be, eta gero Ausburgo'ko bakea esaten jakonak zeaztu eban aldi baterako katolikuen eta protestanteen arteko artu-emonak zelakoak izango ziran, baiña Alemania'ren erlejiño-zatiketa aintzat **artuta**. Ona Ausburgo'ko Bake onen erabagi batzuk:

- Jauntxuak eskubide osoa euken erlejiño barria artzeko, baiña euren menpekoak jauntxuaren erlejiñoa artu edo alde egin beste lurralde batera, ez euken beste biderik.

- ísílíeko arau baten aintzat artzen eban esku-zurien, urien eta errien eskubidea, aurreko urteetan Lutero'ri jarraitzea erabagita ba'euken. aukera barri orretan jarraitzeko.

Alemania'ko esku-zuriak, erlejiño-arloan Aita Santuak eta errigintza-arloan Agintari Nagusiak agertzen eben ardatzerako jokabidearen aurka egozan eta eurak nai eben izan bakoitxaren lurraldean danaren jaun eta jabe eta orregaitik, Protestanteen Aldakuntzaren alde jarri ziran eta eurak eskerrak, bide barri onek jarraipena ta sendotasuna lortu eban. Gaiñera, eleiz-ondasunak eskuratzeko gurariak orretara bultzatzen ebazan. Ondasun oneik eskuratzean eskerrak ekonomi-indarra emon eutsen erlejiño barria artzeko atxakiaz batera.

Baiña ez dogu aitzu bear be r-J ai otz aren sasioan gagozela eta laterri barriak euren buru-jabetza Sortzeko gurari bizia daukela. Laster, Alemania'ren ondoren, beste laterri batzuk be politikako askatasuna lortzeko bidea dan Erlejiño Aldakuntza billatuko dabe:

Inglaterra'n, Vii! Enrike'ren Jaun eta Jabe izan-gureak anglokeria sortu eban, erriak orretan zeregin aundirik izan barik, baiña erregearen aldetik Erroma'ren aurka jokatzeko eta bere erreñuen almen osoa lortzeko bide lez artuta.

Kalbino eratzal Ue ona eia ondo eraturia zan, bere burubide ia egiiieetan estutasun aundikoa. Ginebra'n bere erara pentsatzen ez ebenak eriotzarako epaia lortzen eben. Irudien aurka jokatu eban eta bere jarraitzaileak, batez be Prantzia'n, erti-balio aundiko lanak asko zapuztu ebezan.

Azken-neurketea

- * Aldakuntzagaz Europa'ren batasuna apurtu **zan**;
- * aldakuntzak bakotxaren eritxiak indartu ebazan eta onek **epe luze baten, Burubidekerira (racionalismo) eroango dau**;
- * aldakuntzak **gizartea sekularizatzea indartzen dau eta bide onen erakundea erlejiño-erakundetik um'ntzen da**;
- * **Ber-Jaiotzaren bideai jarraituz, Aldakuntzak** banakako jokoa indartzen dau.
- * Laterrikeriak indartu eta erlejiño aldakuntzetan erromatarren nagusien kentzeko alegiña egiten dau.

- * Aidakuntzagaz erlejiño bidea tatemaren menpean geratzen da eta Erdi-aroko Laterri Jaungoiko-ardatzezkoa kentzen da.
- * Erantzule edo protestanteen jokabideagaz domu-zalekeria (kapitalismoa) aurrera ateraten da eta jokabide au nagusiuu egiten da erlejiño barria artu daben lurraldeetan, naita gauza bi oneik zergaitik alkatzen diran oraindiño ondo ulertu ezin izan.
- * Aidakuntzak guztiena zan gurari au aurrera atera eban: Erlejiñoa garbiagoa ta burrukoagoa izatea, bakoitxaren arazoa izatea. Aidakuntzagaz Biblia irakurteko egarria indartu zan, baita Bibliaren azterketak egiteko guraria be.
- * Aidakuntzak artu eban ber-jaiotzaren bidean, gizonaren askatasunari eta burrukotasunari indar barria emoten jako.

4, Kaiolikuen giroko aldakuntza

Protestanteak (erantzueak) ekarri ebezan gurari asko Eleizearen barruan be aurkitzen ziran, Eleizearen gurariak be ba-ziran. Lulero agertu baiño lenago, Eleizearen bizierea aldatzeko ekintzak agertu ziran: Beartsua) laguntzeko erakundeak sortu, Eukaristi-zaletasuna berotu, lenagoko erlejiñoen saiueak aldatu arauak obeto beteteko bideak artuta, erlejiño-saiiie barriak sortu, Gotzain batzuk euren eleizbarrutietan aldakuntza egiten asiak ziran batez be abadeak obeto gertatzen aleginduz, gizabidean lan egiten saiatuz, Biblia ta antxiñako gurasoen idazkiak aztertzeko taldeak sortu ziran.

Barrizatzea egiteko alegin oneik, Protestanteen aldakuntza baiño lenagokoak izan arren, aldakuntza onegaz batera doaz, baiña gogoa ta jokabidea oso ezbaridiñak dirala, euren bideak daukezela.

Bide orretan sortu zan Jesus'en Lagundia, Loiola'ko Iñaki sortzaile zala ez bakarrik lagundikoak santutzeko, besteak santutzeko be bai eta onetan dago barritasuna: Josulagunen bizitza osoa apostolu-lanera eskiña da eta orregaitik, leku baten biziteko botoaren orde munduko edozein tekutara joateko gertu egotekoa egiten dabe. Munduan zabaltze au bardintzeko, argi-argi agiri dan agintari bakarraren jokabidea dauka. Aita Santuari esanak egitekoa dan euren laugarren botoa bide dala Katoliku-Aidakuntzaren eragille bizi biurtu ziran.

Karmeldarren aldakuntza Jesus'en Teresa Deunak asi eban. 30 urte lekaime lez igaro ondoren, Santa onek lekaide-etxe barri bat sortzeko eta antxe oso-osoa fedea biziteko deia artu eban, benetako txirotasuna eta

bizitza latza, XflI gizaldian bigunduak izan ziran araudiak ondo beteten dirala biziteko. Teresa Deunaren egitarauak gauza barri bi dakaz batez be: Benetako araudira biurtu artutako bide okerrak baztertuta, eta erlejiño-bizitzaren elburu lez mistikazko eta Jaungoikoari begiratzeko edo so-egjteko jokerea.

Baiña ekinbide oneikaz batera, laster sartu zan baita, azken ekinbidea Katoliku-Aldakuntza egiteko eta onek, Aita Santua Gidari dala, Protestanieen aurrez argi agertuko eban Eleizeak bear dauan benetako aldakuntza zein zan: Trento'ko Eleiz-Batzar Nagusiaren Aldakuntza izango da au.

5. Trento'ko Eleiz-Batzar Nagusia (1545-1547; 1551-1552; 1562-1563)

1545 Paulo'k dei eginda, lialia'ko Trento urian batu zan. Iru ekiñaldi izan eban, bakoitzean Aita Santu bat buru zala, eta antxe batu ziran Eleizearen barruan ziran ekintza-bideak: Protestanteen girotik etorren eta giro orretako erregeak ekarri eben aldakuntza biguna (onek ez eban nai jokabideak sendotzerik eta Teologo Protestanteai entzutea eskatzen eban); eta eleiz-barruko zatiketea eginda egoala ikusirik, benetako irakatsiak billatu eta Eleizearen arauak obetzeko bideak ezartea eskatzen ebenak ekarri ebena.

Irakatsien bidean auxe esan eban Batzar Nagusiak

- * Jaungokoagandiko agerpenak Idazti Santuan eta antxiñakoengadik etorritako irakatsietan dagozela (Ikusi VII gaia);
- * Eleizeak ba-daukala eskubidea Idazti Deuna zuzen ulertzeko ta ulertu-azoteko.
Saibamena lortzeko fedea ta egiteak bear dirala;
- * sakramentuak ba-dagozaia eta zazpi dirala eta onek euren indarra daukela nok emoten dauzan kontuan artu barik, (Ikusi Viii gaia)
- * Eleizea Kristo'ren Gorputz ezkutua dala, baiña batera, baita, lege-giroko erakundea;
- * abadeen abadetza eta beste sinistedunena ez dirala bardiñak, (Ikusi VI ta XIV gaiak)
- * Jatorrizko obena ez ebalá oso-osoan galdu gizona, naizta beronen askatasuna urrituta geratu;
- * gauza bat dala pekatuako jokerea eta beste bat pekatua bera; eta Jaungoikoaren grazia lagun daia, amar aginduak bete leikezala.

Arau-bidean, Eleiz-Batzar Nagusiak auxe erabagi eban:

- * gotzaiñak euren Eleizbarrutian bizi bear ebela eta ez lege-bereziak eskuratzen **ibilli**;
- * Eleizea Elizbarrutietan eratzen zala eta Eleizbarrutiak **parrokietan**.
- * **Eleizbarruti** bakotxean seminarioa egin **bear zala**, abadeen **osokuntza** ona **lortzeko**.
Jaungoikoaren berbea obeto ezagutu bear **zala eta** orretarako bide batzuk aukeratu eta arau batzuk emon **ziran**;
- * lekaideak eta lekaimeak etxe itxietan bizi bear ebela;
- * katekesMiburua bat idatziko zala eta ortxe batu Eleiz-Batzar Nagusi onen irakatsiak.

Eleiz-Batzar Nagusi onek ez eban lortu erlejiño batasuna **barriri ezartea**, baiña bai Eleizearen tedeia, benetakoa, **zein zan argi agertzea eta** Eleizeari gattzeko **arriskuan egozan bizia ta** araubide barria emotea, Onetan dago Batzar Nagusi onen garrantzia **eta ezaugarri bat da Eleizeak dauan erantzun-almena eta larri-uneak** azpiratzekoa agertzeko. **V Pio Aita Santua izan zan** Batzar Nagusiaren erabagiak betetu ebazan gizona: **Bizitza leunean bizi izan zan eta** Aita Santuaren gastuak **urritu egin ebazan**, sentdeai larregi lagundu barik, **Erromako Katekesi-liburua agertu-azo eban eta** Eleizearen benetako aldakuntza asi zan.

6. Lur-Barru barri bat

Kristobal Kolon'ek **bide barri batetik Asia'ra ertzeko ustetan**, Amerikak aurkitu ebazan eta **ortik**, bat-batean, **gure mundu au askoz** aundiagoa agertu **jakun**.

Baiña lur-barru barria ez egoan utsik: Jakintza **ezbardiñak eukezan milloiak** gizonak **bizi ziran an**. Europarren eta Kolon-aurrekoen arteko aurkaketak sortu **ziran eta Kolon-aurreko amerikatarrek azpiratu egin** ebazan, batez be gudaketarako trebebidetarako obeak **ziralako**.

Azpiratzaileen **ostean (eta sarritan eurakaz batera)** Barri Onaren zabaltzaileak **be joan ziran**. **Oneik**, azpiratzaileen okerkerien aurka **jokatu eben sarritan eta Nazaret'eko Jesus'en abotsa agertu eben lenago sekula iñoz entzun ez eben lurralde aretan**. **Orrelan ezarri zan an fedea eta tedeagaz batera** Eleizea.

rpar-Amerikan ara joandakoak, batez be protestanteak, sortaldean ezarri ziran, inditarrakaz artu-emonik izan barik eta inditarrak apurka sartalderantza bultzatu ebezan, euren sinismena eurai emon barik. España'tarrak eta Portugal'darrak erdiko Amerikan eta egoaldekoan euren fedea zabaldu eben eta iñoz goitik bera ezarri be: Lenengo Karibe-aldean, emendik gero Mexiko'ra: geroago Peru'ra eta emendik Lur-Barru aren egoalde osora.

XIX gizaldiaren lenengo irurenean laterri barriak sortu ziran koloniak burujabetza (ortu ebenean eta an jarraitu eban Eleizeak sendo ta erat uta.

Eta antxe dago gaur be txiroen alde bere igarle abotsa entzun-azoten, Nazaret'eko Jesus'en abotsa bera eta euren ateak guztientzat zabaltzen. Baiña Kolon Ameriketara eldu zanezo bideari jarraitu barik. 1975'ean asita Ameriketetan katoliku geiago dagoz Europa'n baino.

EGIN GEINKENA

Iztegia: Billatu zer esan nai daben itz oneik: Gizabidea, lan-alkarteak, senikeria, parkamen-eskintza, sinodoa, botoa, seminarba, eleizbarrutia, parrokia, etxe-itxia, araubidea, izadiz-goitia, eleiz-agintaritzza, burubideen jokabidea, Jaungoikoaren Agerpena, giza-ardatza, baieztua, berbakeria, jubileoa, jubileo-urtea, laikoa, indartzea.

Egin... lan bat ber-jaiotzako ertiari buruz, lkusi ertibide onek zelako gizabide baiña agertzen dauan.

Ekarri... argazkiak, irudiak, irarriak barroko-tenkera agertzeko. Ulertu zeintzuk diran oiñarriko burubideak.

Agertu... lur-irudi baten, aldakuntza izan eta gero non diran katolikuen eta protestanteen nagusitza agertzen daben lurraldeak.

Artu-emonak izan.,, Protestante-jokabidezko talde bategaz eta bide orretan dabillen norki bategaz.

Billatu... gaur Euskalerrian eta gure ele iz barrutian diran beste erlejiño batzuetakoezarpenak.

Erabili... BUP'eko lenengo urtean ikasitako gaiak Aldakuntzen eta Aldakuntza-aurkako ekiñean I Kartos'ek eta II Felipe'k izan eben jokoak ulertzeko. Aztertu Naparroa'ko erreinuan protestanteen lana zelakoa izan zan, Leizarraga'ren liburua, Jone erregeiñea...

Egin... laburpen-iauki bat, iau agetan, protestanteen, anglokeriaren, Kalbinkeriaren eta katolikotasunaren bidea agertzeko eta ikusi argi zertan dagozan batera eta zertan banatarak.

Nok... idatzi eban Errege-Semea edo "El Principe" liburua? Zein da Baltasar Grazian'en idazkirik garrantzitsuena? Zeintzuk burubide barri agertzen dira liburu onetan? Zelako ikutua izan eben gizartean eta errigintzan?

Idatzi... labur Loiola'ko Iñaki'ren eta Teresa Deunaren bizitzako jazoerak.

Billatu... Eleizeak Ipar-Amerikan eta Ego-Amerikan aurrerapena zelan lortu eban. Nor izan zan Bartolome Las Casas? Zein izan zan Josulagunak Paraguay'ak behe eben zeregiña?

Egin... lan txiki bat gaia Cisneros eta beroren aldakuntza-lana agertzeko.

Zer da... Jubileo-urtea?

Parekatu... Baserritarren gudaldia eta Europa'ren erdi-barruko gizarte ta ekonomi-giroa. Ulertu gizarte eta ekonomi-giroak izan eban ikutua Protestanten bideko aurrerapena.

W^w^vW w

V. GAIA

GAURKO EGOERIA ULERTZEKO
(Eleizea gaurko munduan)

Eleizeak gaurko gizonari
erantzunak eskintzen dautsoz.

Trento'ko Batzar Nagusitik gaur-arte igaro diran aldietan munduak aldakuntza aundiak izan dauz:
Buru-argia sekularizatu egin da eta erlejifiotik aldendu, politikeaedo emgintza be sekularizatu da eta Erdi-Aroko egoeria goikoz bera jarri jaku gure egun oneitan.
Gaartea be sekularizatu eta kristiñautasunetik urrindu egin da, banakuntza gizarte-zaietasun eta domu-zelatasunaren artean eginda.

Baiña Eleizea
aurrera ta aurrera doa Kristo'ren oiñatzai jarraituz,
bere benetako argiaz
Gizonen bideak argituz:
eta gizona buru-argiduna dan lez,
fedea be izad i z-g o i t i koa izan arren, buru-argiaren bidekoa da,
eta politikea gizonen eskubideen billa doan lez, Eleizea be bai:
Gizarte au zatitan banatzea zuzena ez dan lez,
Eleizea ez da gizartekerizkoa eta ez domu-zaleker¿koa be.

Eta gaurko mundu onetan,
antxiña goagandik ain ezbardiña dan mundu onetan,
Eleizeak gaurko gizonari beardauzan erantzunak emoten dautsoz.

OARRAK

1. Buru *argia* *sekuarizatu* egiten da

Esan gura dana, buru-argia erlejiño-girolík "erdrtu" egiten dala eta bere bidetik jarraitzen dauala da.

Buru-argiaren sekularizatzte au Ber-Jaiotza aroan jaio zan eta Argitsuen aldian dau bere goi-erpiña: Argitsuen aldia filosofi ta jakintza-bideko ekin-aldia da *eta XVJl g/zaldi osoan gitxi gorabera ibilj/ zan zabal. Orregaitik esan* jakin gizaldi oneri "argien gizaldia", giza-bizitzaren alde guztiak argitu nai izan ebazalako.

Eragille asko izan ziran jokabide ori sortzeko, baiña emen bi gogoratuko doguz:

Buru-argien jokabidea. Onein ustez *gizonaren buru argia* da bide bakarra egia lortzeko. Eta gizonak ez dau ezer onartu bear, ulertu al dauana baiño. Zentzun-bldea` Onen ustez, beste egirik ez dago oar-bidez aztertu al dana baiño eta zentzunen bidez ez datorrena dana, alboratu egin bear da.

Jokabide bi oneik elburu batera joten dabe eta ondoren lez agertu al izan zan Argitsuen aldia: Bide onetarako, ez dago beste ziur-biderik gizona baiño, naiz buruz ezagutzen *daualako naiz zentzunez ezagutzen daualako. Ela* gizona, buru argiak eta trebebideak eskintzen dautsoezan izkilluak eskuetan dauazala, izadira urreratzen da au ulertzeko uste osoagaz eta izadi oneri buruz oar-ikasketak egingo dauz onen barruko ari-kurutze guztiak ulertuko dauzalakoan.

Onein eragiña gure aldiraño eldu da.

Jakrtsuen liburua Enziklopedia edo giza-jakintzaren iztegia izan zan. Enziklopedia on jakintzaren iraulketa izan zan. Enziklopedi-egille ziran Diderot eta d'Alambert'ek euren lan onegaz jakintza ta ezagupenak zabaltzea nai izan eben eta barrikuntzara gizonak idegiteko eta eritxia sortzeko antxiñatik etorriko siniskera guztiak aztertzen ebezan.

Argitsu-gloaren ondorenak

* Erregeak bere agintaritzan **buru-argia izan bear dau gidari**. Orrelan agertu zan Nagusikeri Argitsua.

* Jakin-gaitegiak, **oiñarria oar-íkasia dabela al danik geien indartu bear dira**.

* Gizartearen **eta jokabide zuzenaren aurrerabideak oiñarri lez buru-argia euki bearko dau eta ez gizonagandik albora** eta gorago dagozan egoerak.

* Ekonomi-arioan askatasun-bidea aterako **da aurrera eta emen gizonak ezelako eragozpen barik ekonomi-indarra billatuko dau, bere antzekoen kontura izan arren be**.

* Gizonaren **azterketa-zentzuna indartuko da eta onek aurre-eritxiak alboratu egin bearko dauz (aurre-eritxiak goitik bera, ziurtatu ezin dana ezarten dautsoelako): Nagusitasuna, buru-argia eta bide** orretan dagoana izango dira.

* Erlejiño-bizitza indartuko da, baiña izadi-maillakoa. Erlejiñoa bera be buru-argiaren maiiñakoa izan bear da, bere gaiak ulertzekoak dirala, gizonaren buru-argiak ulertzekoak. Adimena da izan be gizonari erlejiñoa agertzen dautsona eta Jaungoikoa berak eskuratzeko gai lez eskintzen dautsona eta orregaitik, ez da sinisten Jaungoikoak gizonari ezer agertu dautsonik, ezkutuzkoa dana alboratu egiten da.

Labur-Labur, buru-argia sekularizatu egin da: Gizona gidatzen eta zaintzen dauan Jaungoikoaren aurka lez, neurri-bako aurrerapena jartzen da; salbamenaren aurrez, zorion ordezkaria eta au gizonak buru-argiaz eta lanaz lortu bear dau.

2. Fedea ez da buru-argiaren aurkakoa: Batikanoko 1 Eleiz-Batzar Nagusiak (1869-1870).

Ikusi **dogunez**, izadiz goitik **dana**, Agerketea, aldatzen izan-ala... **zalan-tzan jarten dira, eta oiako** gauzak gizonak adimenaz beste **barik ezin ulertu** daik ezan ezkerro, izan be Jaungoikoagandik datozen gauzak **dira, orduan buru-argiaren aurkakoak** dirala esaten da eta kito.

Zeatzago esateko, dana zuzenean ulertu nai dan ezkeru, ulertu egin nai da baita. Jaungoikoa zer, nor eta zelakoa dan; baita Berau gizonari zelan agertzen jakon be.

Iru erantzun ezbardin emon jakozan arazo oneri:

- Jaungoikoaren agertzerik ez dago eta Jaungoikoa ez da agertzen gizonaren kondairan (Deismoa)
- Agertzea ez dator Jaungoikoagandik eta naikoa da izadiko erlejiñoa.
- Alde bietatik bat kendu: Jaungoikoa (Ateismoa)

Eleiz-Batzar Nagusiaren erantzuna

IX Pio Aita Santuak bere artasantutzako elburu lez artu eban, gizartea osooan bir-ezartea. Batikano'ko lenengo Batzar Nagusia egiteagaz, alde bateatik gizonaren buru-argia gorengo maillan jarten dauan buru-argikeriari aurka egilea nai dau eta bestetik fedekerari eta atxifiakeriari, gizonaren buru-argiaren aurka doazen neurrian eta buru-argikeriaren iarkerien aurka sortu diralako, aurka egitea.

Batzar Nagusia uste barik amaitu-bearra izan zan, Frantzia ta Prusia'ren arteko gudea sortu zalako eta gertatúta egozan berrogei ta amaika gai aztertu barik geratu ziran, bi bakarrik aztertuta.

* **Fede katoükuarena:** Onek diño gizonak daukan buru-argiagaz ezagutu leikela Jaungoikoa izakietatik asita. Baiña, Jaungoikoak bere burua gizonai agertu nai izan eutsen goi-agerpenaren bidez, egia ezagutzeko bidea gutzat errezagoa izan daiten. Ez dagoz ba alkarren aurka fedea ta buru-argia, bien ¡turburua Jaungoikoa da-ta. Sarritan fedeko egiak txarto ulertzen dira edo errazoizko egitzat artzen dira, berez eritxikoak diran gauzak edo guzurrezkoak diranak. Ortik sortzen dira fedearen eta buru-argiaren arteko alkartu-ezifiak.

* Kristo'ren Eleizearena: Kepa Deunaren ondorengo dan Erroma'ko 'Abade Nagusiaren Lentasuna zer dan eta zelan sortua dan erabagi zan, berau dalako Eleizan dan Aginpide Nagusia ta orokorra, baita onen irakaskintzak dauan nagusitza fede ta jokabideko gaietan eta "Ex Katedra" edo Srakastegitik berba egiten dauanean (Ikusi VII gaia).

Batzar Nagusiaren neurriak

Aita Santuak Eleizan dauan aginpidea eia uts-eziña izatea ziurtaizeak, Aitasantutza sendotu egin eban, alde guztietatik erasoak eta azterpenak izaien ebazan aldian.

Batzar Nagusiagaz, gaiñera, Trento'n agertutakoak ziran jokerak ondorenetara edlu ziran, baiña kondaira-giroa egokia ez zalako ezin izan ziran osoan betetu.

Eta ainbeste gotzain batuta egoteagaz bizitasun barria sortu zan une aretako erazoai erantzuteko, guztiak ikuspegi bat eukela.

Politlkea sekularlratu egiten da

Frantzia'ko Irauketaren indarraz, politika-bidea sekularlratu egin da eta bein betiko banatu dira politika eta erlejiño-bideak, orrelan Erdi-Arokoaren aurkako egoerea sortzen dala.

Frantzia'ko Irauketaren ondoren, azkenean esan daikete sendotu egin dala Ber-jaiotzagaz ta Gizabide-aldietan asi zana: Aginpidea ez datorrela Jaungoikoagandik, erritik baiño. Erregeak lege bateri bere sendotasuna ezarten dautsonean, ez dau esango aurrerantzean "Jaungoikoari eskerrak", "Erriak nai daualako" baiño: Bere aginpidea erritik dator. Oraindik aurrera, astiro-astiro, erregearen agintaritza laburtu egingo da eta azkenean erregea ez da izango besterik Laterri-Batasunaren ezaugarri bat baiño, orretarako Laterri-Lege Nagusidun Erregetzak sortzen dirala, aurean parlamenüa dabela.

Erritarrak askatasun zeatza eukiko dabe eta esku-zurien naikerietatik babestuta agertuko dira. "Gizonen eta erritarren eskubideen Agerpenaren" ondoren (89-7-26) gizonaren askatasuna ta eskubideak sendotu egingo dira eta Askatasun-bideko LatenvLegeen erri-agintaritzan agertuko dira, astiro-astiro Europa guztian sortzen doazen neurrian. Eta olako burubide asko gaur egun gure bizitzan eta politika-bidean sartuta dagoz.

Ordutik ona, polilikea ta Laterria banatu egiten dira eta goragoko maillako erakundeetatik aske dagoz. Laterriak erri-giroko guztien ona billatuko dau, ez eriejiñozkoa; eta Eleizeak gizonaren izadigoitiko ona. Eleizea ta Laterria ez dira bat eta gaiñera euren artean ez da zertan nasterik sortu.

Burubide barri onen ondoren lez. erritarren legeak ez dauke zertan kontuan artu erlejiño-girorik, erfejiño-giroko kontzientzi-askatasuna sortzen da oritik eta abadeak abade ziralako euken erri-lege batzuk bete bearrik ez eukitea amaitzen da. laterriak ostera beretzat eskatzen dauz ekintza batzuk: Irakas-kintza. Osasungintza .. ordura artean Eleizearen esku egozanak.

4. Gizartea sekularlazu egiten da

Langintzaren iraulketan eta onen ondorenetan aurkitzen dogu gaurko munduaren eta gauko Eleizearen gai askoren arazoetarako giftza.

Iraulteta ori onexegaitik agertu zan:

- Oar-ikasketaz lortutako jakingaien aurrerapenak langintzara ezarrita gaurko langintzaren oiñarriak ezarri ziralako eta onik gizarte-aldakuntza sortu zalako:
- Ekonomi-arloko askatasunaren oiñarriak ezarteagaz ekonomi-askatasunaren bidea zabaldu zalako: Banakako jokia, langille-ituntzerako askatasuna, ekonomi-arazoetara laterria ez sartzea, jokabide zuzena ta ekonomi bide banatatik ibiltea, et-abar. Askatasun-bide au ekonomi-arloan gero domu-zaletasunean sendotuko da.

Askatasun-bideak langillea bertanbera izten eban, datorrena datorkola, eta gero beste pentsalari batzuk agertu ziran, kaftegarria zala uste eban ekonomi-erakunde orren orde bestea bide bat eskintzen, oneik ekonomi giroko gizarte-bidea aurketzen eban, langilleakaz eurakaz bat eginda.

Gizarte-eragin onek asieran ametsezko gizarte bidea utopikoa, sortu eban XIX gizaldiaren asieran eta askotariko burubideak eskiñi ebezan urten-bide lez, baiña jazokizunak eurak bear dan bestean aztertu barik, ekonomi eta gizarte giroan izaten diran indarrak kontuan artu barik. Saint Simon'ek (1760-1825) ordain-bardintzea, banku-arloak ondo begiratzea eskintzen eban, eta bide orreitatik ondorenak lortzea bera be, begiratu eikean eta orrelan sortzen zan gizarte-giroko laterri aundia eta oneri eskintzen jakon bakoitxaren lana eta onegandik artzen eban bakoitxak bear ebana. Fouher'ek (1772-1837) alkarte txikiagoak sortzea nai eban (falansterioak) olakoetan bakoitxak bere lana eskiñi eta lortzen ebazan, ondorenak besteen onerako izten ziran.

1848"ko otsaillean eta London'en Komunisten agerpena agertu zan Onegaz gizarte-bidea amets uisezkoa izatea amaitzen da, eta jakinbideko joko biurtuta gertatu. Kondaira osoa ikusten da gizamaillen arteko burrukaren ikuspegitik eta ondoren au ateraten da: Esku-zurien nagusikeriaren orde, langilleen taldea sartzen dala, une baratan asita, eta onek zuzenduko dauala kondaira dana: Ondorenak lortzeko bideen jabetasuna banakakoen eskuetatik kendu eta domua gizarteko egingo da. Marx'ek izan dauan eragiña gizonen kondairan osoa izan da eta da. Laterri-arteko lenengo ta bigarren agerpenak eragozpenak aurkitu izan arren, Marx'en eragiña osoa izan zan Europa'ko alderdi politikoak agertzeko eta geroago alderdi komunistak sortzeko. Olako guztiak, batzuk zuzenketak egin arren, Marx'ek izan eban kondaira ta gizona ikusteko erea, gauzabide, utsezkoa onartzen dabe.

Marx. Gizarte zati bitan banatua
Eleizatik urrindu egiten da.

Domu-zaleen eta gizarte-zaleen pentsabideak gure egunetara arte eldu dira, naizta jokabide biak izan daben kondaira izan dabelako, bigunduta eldu, eta euren egoerak gaur asikeran ziran bestean ertzekoak izan ez.

Trebe-bideko iraulketa, ezarte-gaifluen iraulketa, domu-zalekeri barria, *gizarte-zalekeri barria...* egoera orretan oiñarritzen dira eta aurrean dauzan egoera! erantzuna emon bear dauksen Eleizearentzat eupadea dira. Zeintzuk eta dira emon bear diran erantzunak?

5. Erantzunak

Gizarte-auzia

1848n. urte beratan Ketteler Gotzaiñak, geroago Maguntzia'koak, langilleen eskubideen alde jokatu eben. Orrelan ba, Komunisten agerpena sortu zan egun areitan ba-egoan eleiz-barruan gizarte-auziaren ardurea. Eleizeak berak artu ebazan jokabide batzuk pikutara joan ziran, eleiz-agintariak *bióe* ori onartu ez ebelako. 1891 Leon XIII Aita Santuak "Rerum Novarum" deritxon agiri zabala idatzi eban eta auxe da gizarte arazoaren ardureak izan eban *bidearen azkena*, bidea *bera Eleizan ainbat lenago sortua izan arren*. Dana dala, ezin ukatu lei, Katolikuak, guztiak izan ez arren, gizarte arazoaren kontzientzia berandu artu ebala eta euren artean jokabide bi ikusten zirala: Batzuk astiro-astiro joiazan kontzientzi ori artzen, beste batzuk, kristiñau-bidearen oiñarriak

sendotuz eta Aita Santuen idazkiak kontuan dabezala, erakundeak sortu eta ekintzara sartzen ziran. Eta bide onen barruan, 1891'eko Rerum Novarum aretan oiñarrituta. Aita Santuak agertu dabe Kristo'ren mezua beste askotan be bai baiña batez be giza rte-arazo a argitzeko diran idazki berezi onein bidez: Quadragesimo Anno, Mater et Magistra, Populorum Progressio, Octogesima Adveniens, eta oraintsu Juan Pauto II'aren Laborum Exercens.

Ekumene-arloko ekintza

Kondairaren joanean kristiñauak euren artean banatuta jokatu dabela ikusi dogu. Baiña jokabide orrek aldakuntza aundia izan dau eta alkarregana urreratzeko bidea ikusten da. 1948'an sortu zan Amsterdam'en eleizen Ludi-Batzordea eta onek fede-bide askotan dagozan kristiñauak alkartzen dauz, bere eleiza Orokor bakarria sortzeko, kristiñau guztiak gizadiaren alde lan egiteko dauken zeregiñean batzeko baiño. Batasunaren gurari au Batika-no'ko II Eleiz-Batzar Nagusian dan Ekumene-bideko agirian gauzatu zan, Eta, naizta oraindiño egiteko dagoan bidea luzea izan, alkarren gorrototik eta alkar ez ezagutzetik, alkar-urreratze-bide billatzera jo da.

Biblia-ikasketen barrizatzea

Gaur-egun Biblia, itzulpen barriak eginda, obeto ezagutzen da eta asko zabaldu be egin da. Eta itzulpen oneik egin izan ba'dira, Biblia-ikasketak sakondu diralako izan da, eta antxiñakoa zan eta katotikuak Biblia irakurtearen aurka egoan protestanteen aurkako jokoa, alboratu eginda.

Ori lortu al izateko, protestanteakaz artu-emonak, erri-giroko liturji mobimentua ta idazle batzuz (Claudel, Peguy...) lana bear izan dira, baita eleizan izan dan laikoen eragiña eta banakoen buruz sortu diran beste asmabide asko eta asko. Eta, barru-barruan onetarako sortu da: Kristiñau-iturriak zeatzago ezagutzeko eta kristiñauak artu daben mezua obeto ezagututa, gizonak dauzan arazo barriai erantzun egokia emon al izateko.

Liturjiaren barrikuntza

Gaurko gizonagana urreratzeko sortu zan baita, üturji-barrikuntzaren eragiña. Alemania'n asi zan au, guda-arteko aldi aretan, Eleizea tenplu barruetara sartuta geratu zanean. Beneditarren inguruan sortu zan, gazteen eragiñak

be barru zirala. Prantzia'n Centre pastoral Líturjique edo Liturjibideko Artzain-Lan tokia egoan, eta onek bere aldetik liturji eragiñari indarra emon eutson giza-moltzo aundien kristiñau-zentzuna galtzeak sortu ebazan arazoai erantzuteko eta Eleizako eginkizunetan fededunak kideko izatea lortzeko. XII Pio Aita Santuak Mediator Dei deritxon bere idazkian (1947) jokabide oneik beretzat artu eta liturjia zer dan barriro esan eban, len oikunetarako arauak izaten zirana, orain Eleizean kondaira barruan jarraipenezko Kristo abadearen jaun-gurtza lez agertzen dala.

6. Gaurko munduaren erantzun aundia: Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia

Eleiz-Batzar Nagusia egiteko asmoa ez zan bam-barria. IX Pio'k izan eban Batikano'ko I **Batzar Nagusia** jarraitzeko asmoa, 1870'an etena izan ebalako. **XII Pio'k** be asmo oneri ekin eutson,

Batikano'ko II **Batzar Nagusia**,, azkenez, XXII! Juan'ek deia eginda, lau ekiñalditan banatu zan eta 1962'tik 1965'era bitartean egin eban bere lan guztia. **Asiera emon jakon** egunean 2.500 gotzain-inguru egozan, mundu zabal **osotik etorriak**. Eta auxe zan bere berezitasuna: Gotzaiñen kopurua ta eleiza gazteen índarra.

XXIII Juan'en pentsabideari jarraituz, atera **geinke Batzar Nagusira** dei egitean bere elburua zein izan zan: Munduari zabaltzeko **Eleizeak bear** eban eguneratzea edo "aggiornamento", kristiñauen batasunerako ekiña, eta munduraren bakerako alkar-lana eskintzea.

Eleiz-Batzar Nagusi au alkar-izketa-girokoa izatea, **Erroma'ren ardatzera-ko gogoazpiratzea** eta aldien ezaugarrietara zabaldua agertzea **argi ikusi ziran asikerako berbaldian**. **Berbaldi onetan XXI II Juan'ek gotzaiñen ardurea** eskatu eban **kondenatzeak ugaritzea** alboratu egien eta eskari au egin eutsen: **Batzar Nagusi au alkar-izketa ta Artzai-lan-bidekoa** izan **bear zala**. Bere **ustez Batzar Nagusiak ez eban antxiñatiko teolojia barriro agertu bear**, ez okerbideak kondenatu, Eleizearen **betiko irakatsia gaurko** berbakaz **agertu** baiño.

Gero VI **Paulo'k artu** eban eskuetan **zuzi ori**, Bigarren ekiñaldiaren **asikerako** berbaldian **jokabide au sendotu eban**; **Batzar Nagusi onek Eleizearen eta gaurko** munduaren arteko zubi izan bear ebala.

Ori orrelan izanik, Batikano'ko il Eleiz Batzar Nagusia besterik ez lakoa da eta garrantzi aundikoa. Besterik ez lakoa, oso-osoan artzain girokoa dalako, ainbeste gotzain eta geienak Europa'tik kanpokoak ziralako, laikoak begiratzaille be artu ebazalako. Eta garrantzi aundikoa, eleizea bera zaintzeko ardura barik mundu sekularitzatuagaz alkar-izketa egiteko arriskua sartu dalako, kon-dairan berak jzan dauzan okerrak aintzat artzeko bildur barik eta Kristo'ri ta bere mezuari zintzoak izateko gogoagaz etorkizuna ausarti begiratzen daua-lako.

Batikano'ko II Batzarrak, joan dan gizaldiaren azkenetan sortu ziran Elei-zea barrizlatzeko ardura ta ekiñaldi batzuk artzen dauz, aurreko zatian gogora-tu doguzanak. Ekuspegi barri batzuk sendo agertzen dira:

- Eleizea Jaungoikoaren Erria eta Kristo'ren Gorputz ezkutua dala eta bateatu guztiak daukela Eleizan euren zeregiña (Ik. VI gaia).
- Eleizan Gotzaiñen alkartasuna bear dala eta orretarako erakunde barriak sortu, esaterako Gotzaiñen sinodoa, Go (zain-A) ka rte ak, Ar-tzain-lan eta Abade-Balzordeak.
- Liturjia barriztatzea, Jaungoikoaren Berbea iragarteari balio aundiagoa emoten jakola, fededunen kidekotasuna indartzen dala.

"Jatorrietara biurtzea" Bibliaren ikasketai indar emonda eta Eleizearen Guraso aundiak obeto ezagututa.

- Ekumene-gtroko ikuspegia edo beste eleiza kristifiauetara urreratzea. XXIII Juan'ek alkar-ikuste bat izan eban Inglaterran dan Eleizako Gotzain-Buruagaz eta VI Pauio'k Jerusalem'era ostera bat egin eban an Sortaldeko Eleizearen Patriarka zan Atenagoras'egaz alkar aurki-tzea egiteko. Oneik ziran lenengo oinkadak jarrartu-bearrekoa zan bidean.
- Erri zintzo ta kristiñauari begira zabartasun aundiagoa baita gizon guztiai begira be. "Gaudium eta spes" agiria izan zan alkar-izketarako alegin bat eta gero VI Pauio'k eta II Juan Pauio'k egin ebezan osterak zabaltze orren ondoren izan ziran.

Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia, XXIII Juan'ek egokiro esan eban lez, Eleizara aize ozkirria sartu zedin leio jdegi baten antzekoa izan zan.

EGIN GEINKENA

iztegia... Billatu zer esan nai dauan; Sekularizatu, domu-zaiekeria, askatasun-bidea, gizarte-bidea, komunismoa, anarkismoa, argitsuen agintekeria, buru-argi-bidea, zentzun-bidea, aurre-eritxia, sorginkeria, ber-eratztea, len-gotzaiña, uts-ezintasuna, aginpidea, legea sendotzea, aske-izatea, eztabaidatzea, kondaira-giroko gauza-bkdea, langillediaren agintekeria, ituntze askea.

Billatu... "laterri-arteko agiriak" zer eta zenbat izan ziran eta bakoitzean zer jazo zan.

Parekatu... Zoriontasunen idazkia (Mat. 5, 3-12 eta Lk. 6, 20-26) Kerexeta'-ren Jerusalemgo Biblian dagoan itzulpena eta beste batzutan dagoana.

Egln... lan bat eta parekatu Frantzia'ko Iraultetan agertutako Giza-Eskubi-deen agerpena, ONU'k egindako Giza-Eskubideen agerpen Orokorra eta España'ko Laterri-Lege Nagusia.

Esan labur... J.J. Rosseau'ren burubideak eta lanak.

Billatu... Frantzia'ko Iraultetaren eta Errusiakoaren arteko aldea.

Zenbatu... gure aldiaren eta gizartean oraindiño bizirik dagozan argitsuen aldi-ko berez rtasu nak.

Ba-dakizu... "Utopia" edo amets utsa ser dan? Ikasi nok idatzi eban idazpuru oh dauan liburu bat eta zeintzuk ziran bere burubideak.

Azaldu... esaldi au: **Erlejiñoa erriaren** lo-bedarra da.

Egin... iru agetan agertzen dan idaz-lan bat, gizarte-giroko iru Aita Santuaren idazki bat bakotxean dala eta azpian ipiñi noz agertu zan, idatzi eban Aita Santuaren izena, bakortzak dauan oiftam'ko mezua.

itaundu... COL) edo U.A.U.'ko lagun bateri azaldu dagrtzula zer dan zentzun-bidea, zer dan buru-argi-bidea, nortzuk diran orreitan pentsalariak eta zeintzuk euren burubide nagusiak. Erantzunak ikas-gelara ekarri.

Gaiñera., langintza-iraultetaren alboan beste **batzuk** be ba-dagoz: Gogo-iraulteta, kondaira-iraulteta, bizi-sortze-iraulteta, eta abat... Esan zein dan edo zer ekarri eban bakoitxaren mezuak eta nortzuk diran idazle nagusiak.

Esan labur... "Gaudium et spes" Batikano'ko II Batzar Nagusiaren agiriak zer diñoen.

Zergaitik... dagoz misiolariak eta misioñoiak?

Labur... esan gai onen laburpen, lez gaurko Eleizearen ikuspegia zein dan.

VI. GAIA

GURE ELEIZAAU:GURE ERRIA
(Batikano Hleko "Lumen Gentium" Agiria oiñarri)

Eleiza erri bat da. Baiña besteak lakoa ez dana.

Jaungoikoaren Erreiñua, Jesus Etorri baiño gizaldiak lenago eskiñi jaken **gizonai.**

Eta Jesus'ek bere agiriko ekiñaldia asi ebanean, Erreiñu ori etorri zala iragarri eban.

Berbiztu zanean. Jesus'ek Eleizeari emon eutson. Erreiñu ori iragarteko eta erri guztien artean agertzeko zeregiña.

Orregaitik **Erreiñua** ta Eleizea **ez dira** gauza bat bera.

Eleizea ez da besterik Jaungoikoaren Erreiñuaren iragarle baino **eta** bera da **Erreiñua** lurrean agertzeko bidea.

Eta Eleizeak Erreiñua apurka-apurka aundi egiten **ikusten dauan ariean, Erreiñu ori osotasunera eldu daiten gurari bizia dauka.**

* * *

OARRAK

1. Gure Eleiza onen ezaugarri diran izenak

Eleizearen zeregiña zein dan azaltzeko ta ulertu-eragiteko, Itun Barriko liburuak ezaugarri diran izen batzuk erabilten dabez. "Artaldea" (Jn. 10, 1-10); "Jaungoikoaren soloa" (Kor. 1, 3, 9); "Jaungoikoaren Etxeginrza" (I Kor. 3, 9); "Jaungoikoaren eleiz-Etxea" (Agerp. 21, 3); gu "arri biziak" garala (IP. 2, 5); "Zeruko Jerusalem" (Gal. 4,26) esaten dautsoe.

Baiña ezaugarri diran izen guzti onein artean, ezagunena eta ulertzeko errezena "Gorputz Eskutua" da (I Kor. 12,12-30) (Errom. 12,4-5).

Ezaugarri onen bidez San Paulo'k auxe agertu gura dau: Gizonaren gorputzean jazoten dan lez, Eleizan ba atalak dagoz eta atal bakortzak bere zeregiña dauala, guztiak dira bearrezkoak. Eta atal guzti oneik, ondo alkar artuta, Gorputzaren buru, atalik bearrena danagandik bizi-indarra artzen dabe, Kristo'gandik.

izan be, Eleizea dan gorputz au, Kristo'rena da eta San Paulo'k "Kristo'ren emaztea" be esaten dautso (Ei. 5, 21-30). Emazteak senarrangandik lez, Eleizeak be Kristo'gandik gogo-índarra artzen dau; eta indar ori bizi biurtuta bere seme-aiabai kristiñauak Kristo'ren jarrartzailleai emoten dautse.

Eleizea ikustekoa ta gogozkoa da batera. Gogozkoa da, íedetik eta Jaungoikoaren **grazitik daualako bizia**. Ikustekoa da kondairan zear personak osotzen dabelako, eta gizarte-erakunde argi bat daukalako

2. Nortzuk diran eleizklde

Fedearen eta bateoaren bidez Kristo onartzen dabenak, Jaungoikoaren **Erri Barria** dira.

a) Kristo onartzen dabenak

Gogo oneko **edozein gizon** beretzat artzen dau **Jaungoikoak**. Baiña **Jaungoikoak gu** salbarzea nai dau, **ez banaka, talde batekoak garala baiño**, alkarte **bat**, erri bat osotzen dogula: **JAUNGOIKOAREN ERRIA**.

israel Erria aukeratu eban Jaungoikoak Itun Zarrean eta erri onegaz alkartasuna egin eban. Ori iragarki **bat lez izan zan, Jaungoikoaren Erri Barria** gertatzeko **izan zan: Erri onetan gizon guztiak izan daitezkez errikide, edozien erraza eta edozein jakintzatako gizonak. Fedearen eta Bateoaren bidez Kristo** onartzen dabenak, Jaungoikoaren Erri **Barria** osotzen dabe.

Jaungoikoaren Erriak, gugaitik il eta berbitzu zan eta zeruan aintzaz beterik Errege dan Kristo dau buru. Kristo'ren eriotzea Jaungoikoaren seme-alaben duintasuna ta askatasuna da. Bere Lege maitasunaren agindua da. Bere elburua, Jaungoikoak berak lurrean asi dauan Erriñua zabaltzea, arik eta Erreiñu ori aldien azkenean betetu arte. Oraingoz ez daukaz beragan gizon eta andra guztiak, baiña batasunaren, itxaropenaren eta salbamenaren azi sendoa da gízadi guztiarentzat.

Eleizea **zer dan esan gura izan ezkeru, sinistedun guztien alkartea dala esango geunke, Kristo salbamenaren egille eta gizon guztientzat batasunaren eta bakearen egille dala diñoan alkartea. Ez tokiko eta ez aldiko mugarik ipiñi barik,** gizonen kondairara sartzen da erri guztietara zabaltzeko eginbearra daroala.

b) Kristo'gaz alkartuta, sákramentuen bidez

Eleizea **Kristo'gaz alkartuta dago, fedearen sákramentuen bidez. Bateoak, sinistedunak, Jaungoikoaren seme-alabak, bizitza barrira daroaz, Kristo'gaz eta Eleizeagaz bat egiten dauz eta Eleizearen bidez Jaungoikoagandik artu daben fedea gizonen aurrean autortzeko eginbearra ezarten dau. Sendotzaren bidez, estuago alkartzen dira Eleizeagaz eta Espirituaren indarrak sendotuta, fedea zabaftzeko ta aldeztuteko berbea emoten dabe. Eukaristlan kideko izanaz, Kristo'ren oparia eskintzen dabe eta euren buruak be bai Kristo'gaz batera: orrelan sakramentu orretan agertzen eta egiten dan Jainko-Erriaren batasuna adíeratzen dabe. Penitenzia sakramentua bide dala, Jaungoikoaren parkamena eskuratzen da eta Jaungoikoagaz eta iraindu eben eleizeagaz bakeak egiten dabez. Gaisoen Igortza artuaz, neke-miñetan dagozanak, Jaungoikoaren eskuetan jarten dira. Abadegin-tza artzen dabenak, Kristo'ren izenean, Jaungoikoaren berbea ta grazia bide dirala, Eleiz-artaldea zaintzeko ardurea artzen dabe. Azkenez, Ezkontza bide dala, ezkondu kristiñauak Kristo'ren eta Eleizearen artean dan batasun eta maitasun emonkorraren misterioa agertzen dabe esta misterio orretan**

kideko egiten dira eta abarrari laguntzen dautsoe ezkontzan bitzta santu izateko eta seme-aíabak ekarri eta azteko. Orrelan. Sákramentuen kideko izan da eta Jaungoikoak emoten dauskuzan doiakaz eta laguntzagaz kristiñauok Jaungoikoak deitzen dauskun santusasunerantza goaz.

Eleizearen agiriko erakundea be, Aita Santua ta Gotzaiñak buru dirala, apostolua-kaz eta Kristo beragaz bat egiteko bide dogu.

d) Mundu guztirako erri bat

Ez gizon batzuk bakarrik, gizon guztiak dauke deia Jaungoikoaren Erri Barri onetara sartzeko. Eta orrelan Erri au, bat eta bakarra izan arren, mundu guztira zabaldu-bearrekoa da eta aldi guztietara luzatu bearrekoa be bai: orrexegaitik esaten da katolikua dala edo Kristo'ren gurariaz mundu guztira zabaltzekoa. Eleiza katoliku edo orokor au Kristo'k olan nai izanda, salbamenerako bearrezkoa da. Izan be, Kristo salbatzaille bakarrak fedea ta bateoa bearrezkoak dirala esan eban (Mk. 16,16). Orregaitik, ezin salbau izango dira, Jesukristo'k Eleizea bearrezko lez ipiñi ebala jakiñik, Eleiza onetara sartu naiz ez dabenak edo eleizkide izan gura ez dabenak. Eleiza onetako eleizkide osooan oneixek dira: Kristo'ren Espiritua euren gan dabela, Kristo'k berak emon ebazan salbamenerako bide guztiak onartzen dabezenak. Beste era batera esateko, sakramentuak eta agiriko erakundea Aita Santuak Gotzaiñak zuzendari dirala onarten dabezenak, baiña danaren gaiñetik maitasunean irautea da gauzarik bearrena.

Jaungoikoaren Erriak, Eleiza Katolikuak, ez dau uste beragandik alboratuta dagozanik, Aita Santuagazko alkartasuna ukatzen daben eta tedeko egiren batzuk ukatzen dabezan kristiñauak. Euren balio bereziak kontuan artu,eta alkartzen gaituna kontuan geiago dala banatzen gaituana baino, Eleizea itxaroten dago eta Kristo'ren Eleiza bakarrean osoan sartzea gura dau.

Ebanjelioa artu ez dabenak be oso-osoan alboratuta dagozela ez dau uste Eleizeak. Jaungoiko bakar bat siñistea, egiaren billa ibiltea, moral-balioak eta kontzientziari ondo erantzutea, olokoak be neba-arreba lez artzeko oiñarriak dirala uste dau.

Jaungoikoaren erriak, guztion Eleizeak, guztiai, iñor alboan itzi barik, Barri Ona iragarri gura dautse, Kristo'ren agindu au beteteko: "Zoaze eta Barn Ona iragarri egiezue erri guztiai eta bateatu egizue, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean eta irakatsi egizue nik agindutakoa dana beteten. Ni zuekaz naukazue beti, mundua mundu dan arte" (Mt. 28,29-30).

3. Erri onen **barruan** diran zeregin bereziak

Eratuta dagoan edozein erritan jazoten dan lez, Eleizan be zeregin bereziak dagoz eta zeregin oneik beteten dabezan **persona bereziak be bai**.

* Jesus'ek, Aitari otoitz egin eta gero, amabi aukeratu ebazan, berak nai ebazanak, beragaz biziteko eta Jaungoikoaren Erriña iragartera bialtzeko (Mk. 3, 13-19). Amabi APOSTOLU oneik talde iraunkor lez eratu ebazan ela Kepa (Pedro) egin eban euren buru eta onei Eleizea zuzentzeko zeregiña emon eutsen, aldien azkenera arte. Apostolu oneik, euren zeregiña bizitzea baiño luzeagoa be ba-zan-eta, ondorengoak izendatu ebezan eta onei Gotzaiñak ipiñi eutsen izena. Eta gotzaiñak Eleizan dauken egitekoa da Jaungoikoaren Erreiña iragarten jarraitzea, fedeko maisu lez Jaungoikoaren berbeak dauan esangurea ulertzea eta alkartasuna zaintzea. Eginbear ori beteteko, gotzaiñak sagaratu egiten dira, abadegintza deritxon sakramentu osoa artzen dabe. Gotzain guztien taldeak, mundu guztian euren iekuetan ezarrita, Gotzain-Taldea dira eta euren arteko bat da, buru lez, AITA SANTUA edo Erroma'ko Gotzain-Burua.

Erroma'ko gotzaiña da. Kepa Deunaren ondorengo lez, Eleizearen lenengo aldietatik, Gotzain-Talde Osoaren buru. Kristo'ren ordezeko ta Eleiza Osoaren Artzain lez, eskubide osoa dauka, eskubide nagusia ta orokorra, Eleiza guztian, eta artzaintza orokor ori askatasun osoagaz bete daike.

* Gotzainen laguntzaillerik urrekoenak abadeak dira, abadegintzako sakramentua artu dabenak. Gotzaiñagaz batera eta onen izenean, toki bakoi-txeko aikarteen buru dira eta alkarteai Jaungoikoaren berbea iragarten dautse, Eukaristia ospatu eta beste sakramentuak emon.

* Diakonoak dira eleiz-arduradunen artean un-engo maillakoak. Esku-ak ezarri jakezelako sakramentuaren graziak sendotuta dagoz. Gotzaiñagaz eta abadeakaz batera Jaungoikoaren Erriari laguntza emoteko Lrturjian, berba-serbitzuan eta beartsuei laguntzean. Oneik Bateoko sakramentua be ospatu leikee, eukaristia banatu, eskontzak bedeinkatu, erritarrai Jaunaren berbea irakurri... Batzuk diakono izaten dira abade izateko aurreko egoera fez, beste batzuk ostera on*etarako diralako.

* Lekaideak, andrazkoak naiz gizonezkoak, Jaunaren berbai eta jarraibideai jarraituz eta eba nje lio-giro ko garbitasuna, txirotasuna ta esangintza onartuta, Eleizan Jainkoaren laguntza aundia dira. Oso-osoa Jaungoikoari

eskiñita dagoan bizi-ereagaz oneik lekuko bizi-biziak dira Jaunaren Erreiñua asi dala iragarteko eta Berbizkundera itxaroten gagozela gogoratzeko.

* **Laikoak** edo erritarrak dira eleizkiderik geienak. Izen au artzen dabe bateatuak izanik aurrean aitatu ez diran guztiak. Onei dagokie mundu onetako gora-beera guztiak Jaungoikoak nai dauanez bideratzea orrelan Jainkoaren Erreiñua gure artean izan daiten. Eta ori dagozan lekuan dagozeia: Etxean, lanean, edozelako lanetan. Oneik dira orearen barruan legamiña izaien dan lez: mundua santutu egiten dabe bere barrutik eta fedea, itxaropena ta maitasuna zabalduz.

4. Guztiok santutasunera deituak

Deia artzen danean erantzun edo itzi egin bear da.

Izan be, santutasuna ez da gitxi batzun zorioneko bidea. Ez da lortu-eziñeko edo ames utsetzko elburu bat.

Santutasuna Jainkoa aintzat artzen dabenen jokabidea da, Jaunak eskinzen dauan bidean iarraitzen dautsoenena. Beste era batera esateko, Jainkoaren Erreiñu dirala ondo dakien ekinbidea.

Eta santutasuna (ortzeko bidean bakarrik iñor ez dagoan ezker, ba-dauka-guz orretarako laguntzak be. Lenengo ta bein Kristo'ren berbea ta jarraibidea daukaguz; Jaungoikoaren grazia ta bere doiak be ba-daukaguz; Otoitzaren indarra eta sákramentuen laguntza be bai; inguruan doguzan kristiñauak be laguntzaille dira gutzat; eta gizaldien joanean bizi izan diranak be bai.

Onela, guztiok gara deituak Jaungoikoaren Erreiñua osotzeko. Eta ori guztiok egiteko lako gauzea da.

5. "Bai" eta "Oraindiño ez", egoera bi orrean bitartean

Deia artuta guztiok osotzen dogun eleizeak ez dau bere osotasuna lortuko geroko bizitzara eldu arte, azken-aldia etorri ta gauza guztiak Krislo'gan ezarriak izan arte. Baiña Kristo'gan ezarte au asita dago Kristo beragan, Espirituaren etorkundeak bultzatu dau eta Espirituaren indarrak jarraitzen dau Eleizan. Onelan, geroko bizitza itxaroten dogun artean, oraingo gure bizitza au

zertarako **dan** ulertzen **dogu** eta **Jesus'ek** bere **berbakaz** eta bere egiteakaz **irakatsi** euskun eran **bizi dogu** gure **bizitza** au. **Eta Eleizea** bidez **doa** kondaira (**historia**) **guztian**, bere akatsak aidean **dauzala** **Erretñuaren** aldeko **lana** egiten, **etorriko dan** erreñu osoaren itxaropenean **bizi dala**.

Eleiza au, munduan eta **gizaldietan** orokorra **dan** **Eleiza** au, **gizonen** **bizilekuak** eta **denporak** baiño be arago **doa**: **Kristo'gaz** adiskidetasunean **il** **ziran** **gizon** eta **andra** **guztiakaz** **bat** eginda **ikusten** **dau** bere **burua**; **areik** be **eleizkide** **biziak** **dira** eta **"Zeruko Eleizea"** osotzen dabe.

Kristo'gan euken fedearen **lekuko** izan **ziran** eta euren **bizitzeagaz** **Jaungoikoaren** **Erreñua** **zabaldu** eben **gizon** eta **andra** **guztiakaz** **alkartuta** **ikusten** **dogu** geure **burua**. **Baiña** **alkartzen** **gaituarra** ez da **gomutapena** **bakarrik**, **guk** **ba-dakigu** eurak, **berbiztu** zan eta **berbiztu** dauzan **Kristo'gaz** **bat** eginda **bizi di-rala**; **guk**, **Kristo'ren** **gaurko** **jarraitzailleok**, **gogoratu** **egiten** **doguz** eta **eurakaz** **bizitaz** **alkartuta** **ikusten** **doguz** geure **buruak**.

6. Lenengo kristiñauak: Maria

Gizaldien joanean **Kristo'ren** **jarraitzaille** izan **diranen** **zerrenda** amaibakoa litzake, **baiña** **guztien** **arieran** **lenengo** **lekua** **andra** **bateri** **dagokio**: **Maria'ri**.

Maria'k **Jaungoikoaren** **Itza** **artu** eban **bere** **gogoan** eta **gorputzean** eta **Bizia** **emon** **eutson** **munduari**, **bera** da **salbatzaillearen** **Ama** eta **Jaungoikoaren** **Ama**. **Eleizkide** **guztien** **artean** **berez** **i-berez** **ia** da eta **Eleizea** **bera** be **ezin** **ondo** **ulertu** **daiteke** **Maria** **kontuan** **artu** **barik**.

Maria'k **gure** **salbamena** **egingarri** **biurtu** **ebalako**... **graziz** **betea** da, **bergaz** **dago** **Jauna**, **bere** **ama** **izatea** **borondatez** **artu** **ebalako** (**Lk. 1,26-28**) **Jaungoiko-Semearen** **jaiotza** **egingarri** **biurtu** eban, **igarleak** **iragarri** ebena **betetuz** **bere** **barruan** **gorputza** **emon** **eutsonean**; **berak** **egin** eban **salbamena** **gizozentzat** **egingarri** **izatea**. **Bere** **fedea** ta **esangintza** **askatasun** **osodunak** **izanik**, **bere** **Semeak** **irabaziko** **ebazan** **meñtuak** **aurretiaz** **artuta**, **graziz** **baterik**, **fedearen** eta **maitasunaren** **Eleizearentzat** **ezaugarririk** eta **irudirik** **aundiena** eta **ederrena** da.

Kristo'ren **jaiotza** izan **ondoren** eta **salbamenerako** **bideak** **gutzat** **zabal-duta** **gero**, **Eleiza** **sortu-barriari** **bere** **lenengo** **oinkadetan** **lagundu** **eutson**: **Apostoluak** **pentekoste-egunean** **Espiritu** **Santua** **artu** **ebenean** **Maña'gaz** **otoitz** **egiteko** **alkartuta** **egozan** (**Ap. Eg. 1,14**).

Jaungoikoaren Ama da Mana, gu andra ta gizonon **ama be ba-da**. Jaungoikoaren eta gizonen ariean bitarteko bakarra **Kristo dala** (I Tim. 2, 5-6) bada-kigu baiña **Maria'k daukan ama-giroko zeregiña eta gizonen alde egiten dauana ez da eragozpen ezelan be Kristo'ren bitartekotasun bakar ori bete darten**: Sinisledunak **Kristo'gaz alkartzeko bide zuzena, laburrena da Maria**.

Eleizeak **Maria'gan osotasuna lortu dau eta orbanik edo tximurrik barik aurkitzen da** (Ef. 5, 27) eta **Jesus'en jarraitzaille garanok be santutasunean aurrera egiteko alegiñak egiten doguz eta, orretarako, gure biotzak eta begiak Mariaganantza jasoten doguz, bera dogulako eredu eta laguntza Jesus'en jarraitu eta beragana urreratu** nai dogunok.

7. Maria Eleizearen Ama

Baina Eleizea **ez da jerarki-erakunde bat beste barik, ez dira dana bere sakramentuak, arau-agindu ta olakoak**. Barru-barruan bere izatea eta bere santutasun-bideko eginkortasuna, **Kristo'gaz alkartuta egitean aurkitu bear da**.

Guk ezin geinke ulertu Kristo'gaz alkartze au bere Ama kontuan artu barik, Kristo'k berak be gu salbatzeko zeregiñetan laguntzaille lez artu eban-eta. Maria Kristo ta Eleizearen eskutukia ulertzeko giltza da.

Eleizea Kristoren Gorputza **dalako...**
Kristo'k Maria'ri ama esaten eutsolako...
Jaungoikoaren grazi guztiak Maria'ren bidez etorri **jakun** Knsto'gandik **datorkuzalako...**
benetan esan geinke Maria Eleizearen
Ama dala.

EGIN GEINKENA

**Iztegia... lkasi zer esan gura daben berba oneik: Artegia, soloa, onoimenak, fedea, sakramentuak, fedeko egia, osokide izatea, taldea, almena, ebanjelio-
onuak, eleizea, alkartea, eskubidea.**

Billatu... Eleizeak Biblian artzen dauzan izenak eta esan idazkiz zer esan nai daben.

Zeintzuk izenak... edo irudiak dagoz gure izkuntzan eta gure jakintzan Eleizearen izen-irudi lez artzeko?

Aztertu... Gizarte zeaztu baten (errian, urian, jakintzazko ekintzan edo kirol-girokoan, laterrian) egitekoak zeintzuk diran eta egiteko orreik konparatu Eleizan diran egiteko ta zeregiñakaz.

Jakin... Billaketa txiki bat eginda, talde baten, Eleizea noraiño sartuta dagoan zure errian eta auzoan: Parrokirik dagoan, nortzuk osotzen daben, zer egiten daben, lekaide-lekaimeen talderik dagoan, laikoak zelako lanak egiten dabezan...

Egin... Eleizbarrutiaren mapa bat eta or barruan ipiñi argi erlejiño-giroko garrantzia dauken jakingarririk aundienak.

Esan labur... gai au berba gitxitan, geienez be orri baten.

Erakutsi... Eleizearen eta gorputzaren arteko bardirrtasunak ela bardintasun orren zeaztasunak.

Zein da... Espiritu Santuak Eleizan dauan zeregiña.

Azaldu... esaldi oneik: "Aldien osotasuna eltzen danean gauza guztiak Kristogan ezamak izango dira". "Semearen irabaziak aurretiaz artu ebazan Andra Maria Eleizearen irudi ela antzeko da".

Zeintzuk... dira ebanjelio-onuak? "Zergaitik dauke izen ori? Azaldu zelan irurak eta bakoitxak laguntza emoten daben Jesus'eri jarraitzeko.

Egln... gaurko Eleizearen maillak eta zeregiñak agertzen dauzan irudi bat.

Azaldu... geienez amar berbatan, grazia zer dan.

Zergaitik... esaten dogu kristifiauok "kondaira guztian izan diran kristifiauok geure arteko doguzala"?

Zelan da... Maria Eleizearen Ama?

VII. GAIA

ERRI BATEN FEDEA

(Fedea agertzeko esaldiak: Fede bakar bat **autortzeko Eleizearen** bizitzan izan dan agerbidea. Eleizearen irakasletza)

Eleizea erri bat da. Eta erri guztientzat salbabideko ezaugarria.

Eleizea erri bat da: Jesus'en jarraitzaille garañón erria.
Erri berezia **izatez**, baina azkenean erria.

Ela erri guztiak lez, Eleizeak be bere kondaira dauko,
gauzak ikusteko bere ikuspegia, bere-berea dan fedea...
bere an me a ren antzekoa da fede **ori eta kristiñau garanokorixe aurkitzen dogu gure nortasuna,**
ortxe aurkitzen doguz **gure** sustraiak.
Eta erri berezia dalako
zerbait berezia dakarsu Eleizeak:
Erri guztien salbamenerako ezaugarria izan nai dau:
bere fedea Kristogan daukana eta salbatzaillea dalako.

ic&irtrfc

OARRAK

1. Benetako erria

Erri baten errikide diranak erri orren lotuta ikusten dabez euren buruak, alkarragaz daukezan ainbat gauza alkar-banatzen debezelako Kondaira bat. oitura bardiñak jai bardiñak, erakunde batzuk jakintza bakarra: Bizitza ikusteko era bardiña, labur esateko Erri baten errikide izatea eta zein erritan errikide garan jakitea gauza bearrezkoa ta alooratu-eziña da. gizonak galarako eta geure bizitzan dagokigun lekuan egoteko Erririk ez eukitea edo erri baten be errikide izaterik nai ez izatea, aidean dagoan sustrai-bako zugatz baten antzera bizitea da.

Erri bateko errikide diranak, euren anean alkartuta agertzeaz gaiñera, beste erri batzutatokoen aldetik be errez izaten dira ezagutuak, izkunzagaitik oiturakaitik, ekanduakaitik... baiña batez be bizitza ikusteko dauken eta gizonari, lanari, eriotzeari, maitasunari .. begiratzeko dauken era bereziagaitik.

Eleizea erri bat da. Benetako erri bat. Baiña ez besteak lako erria. Ez dauko lurraren zabaftasunean naiz aldien luzeeran mugarik, izkuntza guztiak eta jakintza guztiak beraganatzeko gai da. Aurreko gailan ikusi dogu nortzuk diran erri onetako errikide eta zeintzuk onein izaera bereziak. Erri bateko erritarrak erriko izatea barruan zomatzen daben antzera, Kristo'ri jarraitzen dautsoenak, erri orrelakoak dirala zomatzen dabe barruan. Fede bat bera dauke, maitasuna dabe lege, jerarki-erakunde bat onartzen dabe. Orrelan dira ezagutuak eta aintzat artuak errikide ez diranen aldetik.

2. Erri onen fedea

Edozein errik arro-arro gogoratzen dauz bere aurretiko ospetsuak eta bere sustraiak ezagutzeaz poza artzen dau. Eleizeak Kñsto'gan dauko bere jatorria eta onegan aurkitzen dau bere fedearen iturria, apostoluak iragarria, lenengo kristiñauen artean bizi-bizi izana, gizaldien joanean zabaldua.

Erri onen erritarrak, Eleizearen errikideak, Eleizako lez ezagutzen dabe euren burua. Beste errikideak be olako lez artzen dabez, lenengo ta bein fede bat bera alkar banatzen dabelako edo Kristo bat berari jarraitzen dautsoelako eta Jaungoikoak Knsto'gan agenutako egiak aïkar-banatzen dabezelako.

Kristo onartze ori eta egi-moltzo ori, fede bat bera ta bakar on, Jesus'en jarraitzai))eak mundua, gizona ta izadia begiratzeko **dauken era berezia da, bizitzea nondik norakoa dan jakiteko. Oneain fedea ez da buruz egi batzui baietza emotea, benetako bizikera biurtzen da.**

Fede **ori Krisio'gandik sortzen da eta onegan dauka oiñarria. Kristo'ren nortasuna, berbak eta egiteak dira fede ori emon dauskuenak. Eta gugana eltzeko izan dauan bidea auxe da:**

- **Apostoluak berbaz iragarri eben Kristo'ren berba eta egiteetatik ikasi ebena eta Espiritu Santuak ulertu-azo eutsena. Sarritan eurak esaten dabe; "Guk artu doguna emoten dautzuegu" (Kor. 1,11-23).**
- Apostolu batzuk **eta euren aldiko beste baizuk idatzi** egin ebezan, Espiritu Santuaren **etorriaz, Jesus'ek egin eta irakatsi** ebazan, oinarriko gauzak.
- **Fede au gizaldien joanean bizi eta oso doa aurrera, Eleiza osoa bere irakatsi, bizitza ta Jaun-gurtzan urrengo gizaldiai bera dana ta berak sinisten dauana zabaltzeko bidea dalako. Fedea artu eta urrengoak emote oneri edo artu eta emon danari berari, Eleizearen tradizino bizia edo antxifiakoengandik ikasia esaten jako. Gotzafiak, Apostoluen oiñordeko **lez, Irakasletza** zeregiña **artu dabe apostoluakandik eta eurak** dauke ardura berezia Jaungoikoak iragarritako egia zintzo ulertzeko ta zabaltzeko.**

Joan **dan ikasturtean orain esandeko** lenengo ekiñaldietara **sakon-sakon urre ratu giñan: Apostoluen irag arpe nak eta ltun Barriko idazkiak** (Ikusi BUP'eko lenengo **urteko VII gaia**). Orain geiago sakondu **dagigun eta obeto** ulertu fedea dakarskun eta gugana eldu-azoten dauan kate au: **Aurretikoen** irakaskintzata Eleizearen irakaskeinza,

3. Erri onek aurrekoakandik artua

Benetako erria dalako, **Eleizeak jatorria ta aurrekoen irakatsiak** daukaz.

Elizea Berbatik jai da
eta berbea urrengoai damotse.

Eleizea Berbatik (oíantxe lenengo izki aundiagaz) jaioa **da** Eta Berbea **Jesus bera dogu Gizon egindako Jaungoikoaren** Berbea Berba **au gizonai** agertu **egin jaken.** Jesus'en ikasleak, lenengo lekukoak eta ikusleak eta Berbearen mezulari **lez bialduak izan ziran.**

Eleizeak Apostoluen egitekoa jarraitzen dau munduan, **Artu dauan Berba** ori zabaldu eta ori **irakatsi, Jaun-Gurtza ta bizitza biurtuta: Orregaitik** esaten dogu **Apostoluekand/koa dala Eleizea.** Munduko **enda guztietara** bialdua da eta aldi guztietako jakintzetara eltzeko deitua da, orregaitik esaten dogu **katolikua** edo mundu guztirakoa dala.

Lenengo kristiñauen artean, idazki asko izan ziran Jesus'en eta Apostoluen egiñak eta **esanak batzen ebezala esaten ebenak eta orrein** artean **Eleizeak** Apostoluen irakatsia **zintzo artzen** ebenak aukeratu **ebazan.** **Orrelan sortu zan Itun Barria** esaten dautsagun **jiburu-moltzoa** (Ikusi BUP'eko laurleko VII gaia).

Baiña Jesus'en Mezuak eta berak egin ebazanak, "Legeak, Igarleak eta Salmoak" (Lk, 24) gertatzen **eta iragarten ebena, Israel Erriaren "Idazkia"** osotzen **eta betetzen agertzen dira.** **Itun Zarreko Erri au zan ba, Kristo'k** deituta **batuko zan Erriaren aurre-irudia ta iragarkia eta Kristo'ren Eleiza da,** benetan **Itun Barriko Jaunaren erria.**

Orrelan, Eleizeak, Itun Barria esaten dautsegun **liburu-moltzoa osotuz** batera **Israel Erriaren liburu santuak be Jaungoikoak iragarritako lez artu** ebazan. **Onei itun Zarra** esaten dautsegu. **Or aurkitzen ebazan** Eleizeak Kristok loralze barri batera **ekarri ebanaren sustriaiak.**

Jaungoikoaren Agerpena, Bide **bakarra** daroan agerpen zoragarri **ori,** gizaldira gizaldira zabalitzen da Eleizearen bidez. Eleizea **zintzo dago Aposto- luen** irakatsia jarraitzen, **oneik ziralako lenengo lekukoak, baiña ori ez dau egi- ten iragarpena geldi-geldi zainduta bakarrik, ulertzean, sakontzean eta bizitza- ra ekartean beti aurrera eginda baiño.** Zarrakandik artuta, **gizaldirik gízaldira- doan irakatsi au bide dala, Biblia ez da liburu zarratu eta otz bat, Jaungoikoa- ren erriaren burruan jaió ta bizi dan liburua baiño.** Gizaldi bakoitzeko gizon eta andralk liburu onetara urreratzen garanean. Berba **bizia dan Kristo** Berbizíua **bera jatorku bidera.** **Ez da ba, irarrita dagoan berba utsa, irakurten dauanak bere erara ulertu ta erabilli daikena.** Eleizeak **siñistu egiten dau Jaungoikoa- ren berba ori. baiña siñistu egiak onartuta eta bere bizitzara sartuta: Siñistu.**

ospatu, bizi, besteai emon, egiten da. **Auxe da Erri onen antxiñatiko ikasia, artuta daukan grazia, beteteko daukan zeregiña: Ez dira nastau bear ba gauzak:**

- **Ez da antxiñatiko gauza utsa edo lengoa beti bardin esatea. Eleizea ez da beti geldian dagoan zerbait edo norbait j**
- **Ez dira une baten, antxiñakoakaz lortzeko balio dauan irakatsi zar edo erlejiño-oituren moltzo bat. Oneik kaltegarri be izan daitezkez beste une batzutan, eta azken baten iñoz ez dira eltzen Apostoluen irakatsien bidez Kristo'gaz lotzen gaituan eragin bizia amaitzera.**

4. Erri baten fedearen laburpenak

Eleizearen bizitzearen asieratik sortu zan erriaren fedeak dituan oiñarri zeatzak labor agertzeko bide izan daitezkezan esaldien bear-izana.

Eta orrek elburu bi daukaz: aide batetik erriko jente zaiak errez buruz ikasteko lako laborpenak eukiten dira eta beste alde batetik erriaren benetako fedea argitu ta zeaztu egiten da, agertzen diran siniste okerrak alboratzeko eta federa urreratzen diralakoan Kristogan Jaungoikoak agertzen dauan benetako fedetikum'ntzen daben bideak kentzeko.

Itun Barrian bertan agertzen dira fede kristinauaren **esaldi labor batzuk. Oneik izan daitezkez liturjian eta bateorako katekesietan erabilten diran fede-autorpen edo sinboloen aurrekoak. Eleiz-Batzar Nagusiak eta Eleizan arduradun diranak geroago ta zeatzagoak eta garbiagoak diran Kredoak idazten dabez. Onein artean gurena Apostoluen sinboloa edo laburgoa da eta gero Konstantinopoliko Sinboloa. Oneik Eukaristiaren ospakizunetan esaten dira.**

Oraintxe gogoratzen ba'doguz, orreitan aurkituko dogu Jaungoikoaren Erriaren fedea labor-labor,

5. Erri onetako irakasletza

Gizon guztiak daukez eginbearrak besteai begira, baiña ez dauke guztiak alkartearen aurrean beteteko eginbear bat. Orrelan Eleizan, fededun guztiak dauke fedea autortzeko, aidezteko ta zabaltzeko eginbearra. Baiña euren artean arduradun batzuk dagoz Kristo'k emondako zeregin lez Jaungoikoaren Berbea egoriko ulertzeko ta jragañeko zeregina daukenak.

Irakasle oneik nortzuk diran

Alkarte kristiñauan irakasle ezarrlak, Kepa ta beste Apostoluen oiñordekoak dira, Arta Santua ta Gotzaiña^[^]. Onei "Eleiz-Agintari" izena emoten jake eta benetako irakasleak dira, edo, Kristo'gandiko irakabidea artuta daukenak eta erri kristiñaua santuta ta bideratu bear dabenak. Zeregin au beteteko abadeak dabez laguntzaille: oneik euren Gotzaiñaren ordezeko dira toki bakoitzeko alkartearen aurrean, parrokian edo eleiz-taidean.

Eleiz-agIntarf oneik banaka Irakatsi ielkee: Gotzain bakoitzak bere eleiz-barruti berezian, Aita Santuak bertako Gotzain lez Erroma'ko Eleizan eta eleiza osoan, berau Kepa'ren oiñordeko dan lez Eleiza Osoaren ardurea daukalako.

Alkartuta be irakatsi leikee:

Gotzain-Bazkun lez. Kepa Deunak bere Apostolukideakaz batuta egoan lez, Arta Santua beste Gotzaiñakaz batuta dago eta bazkun iraunkor bat osotzen dabe, Gotzain bazkuna deritxona. Bazkun onek, guztiak batera dirala, Eleiza osoaren ardurea dauka. Benetako irakasle (ez fede ta jokabide-arfoko eritxi batera batzen diranean, euren artean eta Kepa'ren Oiñordekoakaz lotuta jarraitzen dabenean, irakasletza alkartua beteten dabe, naizta mundu osoan zabaldua egon.

- Eleiz-Batzar Nagusi lez. Au, Aita Santuagaz alkartuta dagozen Gotzainen batzar berezia da. Mundu osokoa danean Ekumenikoa edo orokorra esaten jake eta Aita Santua edo beronen ordezekoak izaten dauz buru. Orain-arte 21 olako Batzar Nagusi egin dira eta azkenenegoaBatikano'ko I Ta izanda (Ikusi V gaia).

Goiza in-Talde lez. Au Lur-Barai oso bateko edo Laterri naiz lurralde bateko Gotzaiñen batzarra izaten da eta oneik, arduradun lez, euren lurraldeko arazoai buruz argibideak emoten dabez. Olako batzarrak dauken irakasbidea Gotzai-Bazkun Osoaren edo onek buru dauan Erroma'ko Aita Santuaren irakasbidea baiño txikiagoa da; baiña onein irakatsiak garrantzi aundia dauke, euren lurraldeetarako zeatzago ezarritako irakatsia dalako.

Zelan beteten dan irakasletza

Aita Santuaren, eta Gotzaiñen irakasletza, laguntzaille dabezan abadeenagaz batera, era askotara beteten da: Liturji-ospakizunetako berbaldian katekesia, eleiz-batzar askotan izaten diran berbaldian Irakasletza idatzia erak oneik izaten dira: Kate ke si-liburu ak, edo tede-eziketan erabilten diranak, naiz umeentzat naiz nagusientzat, olakoak oiñarriko eleizearen fedea labur agertzen dabe, baiña ez gauza guztiak; Aita Santuak be askotariko agiriak agertzen dauz Eleiza osoarentzat eta onein arieen ezagunenak Enziklikak edo idazki agiriak dira. Olakoetan nai izaten dau Aita Santuak gai bateri buruz irakatsirik nagusienak zabaldu; artzaín-idazkiak, oneik gotzain bakoitzak idazten dauz eta bere eleiztarrantzat izaten dira.

Aita Santuak Eliza Osoari
egiten dautsozan idazki agiriak.

Irakasletza uts-eziña

Irakasletza uts-eziña dala esaten dogu, edo Kristo'ren irakatsiaren ulerpean utsik ezin daikela euki, Aita Santuak bakarrik edo Aita Santuak gotzain guztiakaz batera, Eleiza osoarentzat fede edo jokabide arloko gauza bat azkenenka ta sinistu-bearko lez agertzen dauanean.

Uts-eziña izatea Kristo'k Eleizeari emon dautson doe bat da eta onen oiñarria ez da norkien ontasuna edo adimen argia, eta ez Jerarkiak gaur izan daiken argibide edo agerpen berezi bat be. Ori orrelan izan leiteke, Kristo'k Eleizeari eskiñi eutson eta Eleizeak irakatsia zabaltzean okerrera jausi ez daiten eta fedea argi agertzeko izan daiken laguntza berezian eskerrak. Lenago esan genduan lez, uts-eziña izate au ba-dauka baita Eleiza osoak, sinistedunen batzar lez, euren artzainakaz batera.

Siniskai ziurrak esaten jake Jaungoikoak iragarriak izan eta Eleizearen irakasletzak olakotzat agertzen dauzan egiai.

Teologoak. Fede artua, onartua ta bizia bat bera da Kristo'ren erriko errikide guztientzat. Teologoak deritxegu fede ori jakingai lez aztertzen dabenai eta oneik alegiña egiten dabe ikasbide onagaz fedea aztertzen, argitzen, zabaltzen eta erakunde lez irakasten. Efeiz-alkarteari emoten dautsoen laguntza aundia da, kondairaren joanean Krislo'k irakatsia obeto ulertzeko bide diralako.

6. Aldi bakotxari, dagokion erantzuna

Fedea bat bera da beti. Izan be Jaungoikoaren berbea azkenekoa eta Kristo'gan oso-osoan agertua izan da: Fedea aldatu-eziña da, ez dauko aurre rape nik.

Baiña aldi bakotxari dagokion erantzuna emon bear dautso, aldiak, gizonak, jakintzak eta arazoak aldatu egiten diralako.

Jaungoikoaren berbea bein eta barriro aztertzea, berba au agertzeko bide izan ziran sortaldeko izkuntzak obeto ezagutzea, aldi areitako jakinlan sakonketa bereziak egilea, gizonaren kondairak izan dauan aurrerabidea, aldi barriak arazo barriakaz izatea, jakingaien aurrerapena... eta Espiritua bera gure artean izatea... dana da lagungarri'Eleizeak Agerpen orretan bide barriak aurkitu dagizan eta gizonen arazo barriai erantzun barnak emon dagitsezan: Orixe da Eleizearen aldirik adirako irakatsi bizia.

Benetako erria dan Eleizea
fede bakar batek batzen dau,
Jaungoikoak Kristogan agertutako
egiak batzen dauzan fedea da,
Apostoluen irakaskinizan dagozan,
Liburu Santuan,
antxinatiko irakatsietan
agertzen diran egiak,
Eleizearen irakasletzak azaldu zeaztu
eta aldi bakoitxerako egokitzen dauzan
egiak dira,
aldi bakoitxeko gizonentzat erantzun lez
agertzen diranak.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Jakin zer esan nai daben berba oneik: Anxiñatikoa, irakasietza, igarlea, siniskai ziorra, siniskerea, fedea, irakasletza arrunta, gogoia, erakundeak, erria, esaldiak.

Asmau... Kristiñau dan batek eta ez danak gai onei ezarriko leuskien azalpena: Bizia, eriotzea, lana, gizona, maitasuna.

Zein da... Gotzain euskaldunak idatzi daben azkenengo agiria. Ikas-gelan irakurri 1a azaldu egingo dogu.

Billatu... Kepa eleizearen buru dala agertzen daben Bibliako zatiak: Mt. 16, 18-19; Lk. 22, 32; Jn. 21, 15-17). Idatzi oneik iru agetan eta esan zelan bete diran Eleizan.

Idatzi... Ikasle bakoitxak berea dauan kredoa, sinisten dauzan gauzak labur agertzeko.

Taideetan... Idatzi zein dan gaurko gure gizarteak bere bizitzan agertzen dauan kredoa.

Esan labur... Eieiz-Baizar Nagusiak gazteai bialdutako mezua.

Ekarri... ikasgelara oraintsu entzun dan meza bateko berbaldiaren laburpena.

Billatu... zein dan gure Gotzaiñaren azkenengo Artzain Idazkia.

Eztabaidatu... ikas-gelan esaldi au: "Guri fedea kentzen dabiltz". On esaten dabe batzuk eleizan zer bait aldatzen danean.

Billatu... eta azaldu Apostoluen Egiñak liburuko 2, 42-46 eta esan gure gai onegaz dauan zer-ikusia.

Zentzuk **dira...** Juan Paulo II'ren azkenengo idazki agiriak eta zeintzuk euren gaiak? Zelan azaldu labur-labureuren mezua?

Azaldu... esaldi au: Eleizea erri-guztientzat salbamenerako ezaugarri da".

Marraztu... kate bat eta kate-maillak, Knsto'gandik asita fedea gugana zelan eitzen dan agertu dagiela

Idatzi... Kredoa eta alboko age baten iragarri agertzen dauzan egiak.

Parekatu... Olanda'ko Nagusien Katekesi barria'ren gaiak azartzen dabean iru idazki, eta "Ez ogi utsaz" ftaliakoak dakazan iru gai orreina eta "Zuekaz dago" España'ko iru gai orreina.

VIII. GAIA

GURE ERRIAREN JAIK
(Ospatuz fedea agertzen)

Bere jaietan Erriak bere burua aurkitzen dau.

Batzuntzat jaiak ez dira besterik
eguneroko beti-bardiña kentzea baiño.
Baiña **beste batzuntzat jaiak dira**
erriak bere burua aurkitzeko lekua
Gogoia, ametsak, baterako kondaira
bere jazokizunik aundienak...

Gure erri onek, Eleizeak, Jaungoikoaren Erriak,
bere jaiak ospatzen dauz.
Eta eleizearen jaiak ikuspegi bi daukez:
Alde batetik, giza-biz itz ako jazoeren
sarearen barrura sartzen dira;
beste alde batetik eta batera,
Jainkoaganantza idegiten eta biurtzengaitue.

OARRAK:

1. Jai guztien **artean** nagusia

Efeizearentzal **jazokizunik aundiena, beste jai guztiai norabidea emoten** dautsena, **PAZKOA** eguna da.

Kristiñauen **Pazkoak Juda'tarren pazkoan dauka oiñarria** eta Eleizea pazko **orren artzaillea** ta etorpeduna da.

Igarotzea **esan nai dauen pazko-jai** onegaz, **Judutarrak Ejipto'ko morroitzatik askatasunera igaro** zirala ospatzen eban (**Ikusi BUP'eko 1⁹** urtean IV gaia).

Pazkoaren bidez Eleizeak **Kristo'ren eriotzea** ta berbizkundera ospatzen **dauz**, eta ori be morroitzatik askatasunera, eriotzatik bizitzara igarotzea da.

Eta kristiñauen Pazkoa **da jai guztiai eta kristiñauen bizitzean** norabidea argitzen dautsena, gure fedearen ardatza dalako. Orregaitik dauko eriotzeak **berak be** kristiñauarentzat baietzerako norabidea, nekeak eta samintasunak baiño be arago, iltea bizitza barri batera jaiotea dalako, berbiztutea.

2. **Jai bereziak**

Jai guztiak dauke norabide irukoitz bat: Atzera begira (jazokizun bat gogoratu eta jaian ospatu), gaurkoari begira (jazorikoa gaurkotu egiten da) **eta** aurrera begira (jaietan erriak alkartuta dagoala eta alkartuta bizi nai dauala agertzen **dau**).

Baiña kristiñauen jaiak zerbait berezia dakarre, ezdiralako gomutaki utsak benetako gomuta biziak baiño:

- * Ez da gomutatzea beste barik edo ezaugamz ospatzea
- * jazokizuna bera eguneratu egiten da eta indar salbatzaillea dauka.

Ori jazoten da oso-osoa Eukaristien (Ikusi XI gaia) Kristo'ren opariaren gomutaki bizia da eta ortik asita antzera **jazoten da Eleizearen beste ospakizunetan be, liturjia guztian.**

Liturjia zer dan

Eleizearen jaiak, ikusi dogun esangura guztiagaz, liturjian ospatzen dira batez be eta ospakizun orreik Eleizeak berak aintzat artu ta eratzen dauz bere jaun-gurtza jator lez eta gaiñera beste ospakizun batzuk dira Jaungoikoaren errian, banakakoenak esaten jakenak.

Liturjia kristiñau-erharen fedea osotzen daben jazokizunak ospatzeko diran berbak eta ekintzak osotzen dabe. Liturjiaren irakurgaietan, otoitzetan eta oikunetan ospatzen dauan fedea agertzen da.

Liturji-urtea

Gizonak denporearen ezaugarria daroagu. Gure bizitza osoa beti aurrera egitea da, nora edo ara joatea: denporea.

Orregaitik artzen dogu denporearen neurria, gauza bakoitxa bere lekuan ipinteko, gure bizitzean aldiak ezarteko: Orduak, asteak, egunak, urteak.,.

Liturji-urtea, beste urteagaz batera-antzean doa eta onelan gogobizitzako gauzak aragi lez dira gizonaren bizitzearen aldian sartuta. Urte baktotxean Eleizeak Kristo'ren eskutukiaren aldi osoa artzen dau. Paskoa ardatza dala datoz beste misterio guztiak euren lekuetan:

- Abendua. (Liturji-urtearen asierea) Jaiotza ospatu baiño iau igande aurreragotik. Aldi onetan Jaunaren etorrerea itxaroten da, Israel Erriak Mesias itxaron eban eta gizonak Salbatzaillea itxaroten daben antzera.
- Gabon-aldia: Salbatzaillearen jaiotza ospatzeko.
- Agerpen-aldia: Jauna agertu dala, gugaz dagoala, ospatzeko,
- Garizumea: Eskutuki aundirako damuz gertatzeko sasoa.
- Aste Santua **ta Pazkoa**: Gure fedearen giltzarri dan Jesus'en eriotza ta berbizkundearen ezkutukia ospatzeko.

Pentekostes: Espiritua gizonakana etorri zala eta gure artean dagoala ospatzeko.

Baina orrez gaiñera, gure kondairaren ardatzeko jazoerea, Kristo'ren berbizkundera, astero ospatzen da igandeetan. Igandea Jaunaren eguna edo Jaungoiko arentzat dan eguna da.

3. Biziaren iturriak

Kristiñauen jaiak ospatzen dabena, urrengorik urrengora egiten dabe. Ori egiteko bidea Sakramentuak dira. Eta sakramentuetan batzen dira kristiñauen jaiak.

Sakramentuak ezaugarri santuak dira, edo egiteak (berbak eta esakjiak) Eleizearen izenean egiñak, Kristo berak ezarriak eta orrein bidez Kristo geure artean agertzen da benetan, eta bere grazia emoten dausku.

Ezaugarri eginkorrek dira

Gizonen bizitzea oso-osoan ezaugarritz eunduta da: Bide-argiak, eskua emoteak... Ezaugarri bat ez da besterik gauza ikutugarri bat baiño, eta gauza onek beste bat gogoratzen dausku, sakonagoa (gorriak, igarotea debekatuta dagoala; eskua emoteak, adiskidetasuna).

Sakramentuak ezaugarriak dira, gauza zeatzak izanik beste gauza bat, izadiz-goitikoa agertzen eta gogoratzen dauskuelako. Esaterako, ume baten buru-gaiñera ura botateak eta orretan esaten diran berbak, gauza zeatz bat dira, baiña ura isuritea ta berbak baiño goragoko gauza bat adierazten eta egiten dau.

Sakramentuak ezaugarriak dira, baiña ezaugarri bereziak, ezaugarri eginkorrek diralako. Ez dira ezaugarri utsak, ezaugarritu eta egin egiten dabe, gauza barri bat egiten da.

Baiña au ez da jazoten berez edo aztuen erara. Sakramentuak eginkorrek dira baiña norberak onartu bear dauz euren eginkortasuna gugana eldu daiten. Sakramentuak, iragarten dabena egiten dabena ezaugarriak izan arren, Jaunagazko alkarleak be ba-dira eta alkartzea izateko bi alkartu bear dira: Geuk nai ez ba'dogu Jauna ez da alkartzen gugaz.

Sakramentuak iturriak dira,
biziaren iturriak.

Iturriak dira, baiña biziarenak

Edozeiñen **bizitzan une aundiak dagoz. Eta gure fede-bizitzan be Sakramenluak une aundiak dira. Sakramentueían Kristo gure bidera dator eta gugaz barru-barruko artuemonak izaten dauz guk geure giza-bizitzako egoerak bizi doguzan arieen: Jaungoikoak billatzen dogun artean eta gure biziaren norabidea billatzen dogula, errudunak izan eta geure burua errudun ikusten dogunean, maitasuna bizi dogunean, nekeak igaro eta eriotzea ur ikusten dogunean...**

Baina gaiñera, geure bizitzara begira dagoz sakramentuak eta biziaren iturri doguz, eurak emoten dauskue grazia edo Jaungoikoaren bizia, Beragazko **alkartea dan** adiskidetasun-batasunaren egoera berezi ori. **Eta ori ain argia dalako, sakramentu batzuk bizenak dira, norberak daukan bizia geitzekoak eta beste batzuk illenak (Bateoata Penitentzia)** oraindiño grazirik ez daukenentzat. **Orrei esaten jake illak eta sakramentu bi orrein bidez barriro daioz bizitzara, grazíra,** Jaungoikoaren adiskidetasunera.

4. Guztien jaiak

Eta guztiak kideko izateko.

Eta Eleizearen ospakizunak, liturji-ospakizunak, eta, jakiña, sakramentuk ez dira banakakoen ekintzak, Eleizearen ospakizunak baiño, Jaungoikoaren Erriarenak, alkartearen ospakizunak.

Orregaitik, sakramentuak alkartean ospatzen dira al danean: Jaungoikoaren semeak alkartuta, sakramentuak euren esangurea ondoen agertzen dabe Jaungoikoaren erria osotzen daben Seme-alaba guztiak batzarrean dirala.

5. Sarrerako alea

Bein baten auxe **esan eutson Jesus'ek Nikodemo'ri: "Benetan diñotzut: Goitik jaioa ez dana, ezin sartu daiteke Zeruetako Erreiñura". Nikodemo'k arri-tuta, esan eutson: "Zeian jaio". Eta Jesus'ek esan eutson: "Bene-benetan diñotzut: Uretik eta Espiritutik jaioten ez dana ezin leiteke sartu Jaungoikoaren Erreiñuan" (Jn. 3,3-5).**

Orrek esan gura dau. bateoaren bidez eleizkide egiten garala. Jaungoikoaren erri orren errikide izatera joaten garala.

Baiña kideko izaten aste au ez da izena emotea beste barik. Ez da beste edozein erakundetara izena emoten dogunean, jakintza-talde bateko kide-txartela artu eta alkarte orren izendegian sartzen garanean, jazoten dan lez.

Bateoa ezaugarria da eta ezaugarria baiño geiago be bai, ezaugarri egin-korra, sakramentua da. Eta, orregaitik, bateoak gizonaren barruan zerbait egiten dau, jaiotza barri bat izan da. Bateoa artzen dauanean gizona Jaungoikoaren seme barri lez jaioten da, Jaungoikoaren bizitzarako jaioten dala. Orixe esan gura dau bateatuaren gaiñera ura isuriteak. Urak garbikuzia, garbitasuna adierazten dau; bide batez ureztatzea ta edaria be ba-da: Bizta, Juda'tarrak ltxasgorman zear ur-artetik igaro ziran euren askatusunera eta antzera, bateatzen dana be uraren bidez doa salbamenera pekatuaren morroitza atzean itzita, era ezkutu baten Kristo'ren Pazkua edo Igarotzera sartzen daia. Orrelan berari eskiñitako lur-alderako bidea artzen dau.

Eta ori orrelan da, Bateoa deritxon sakramentu onek Kristo'ren gorputz-atal egiten gaitualako. Eta orrelan, Kristo'ren eriotzan sartuta, gizonaren pekatuak kendu egiten dira eta pekatuaren sustraia dan jatorrizko pekatua bera be ebagita geratzen da: "Orain ez gara Adan'enak... pekatupean biziteko... Bestetara.Kristo'renak gara"-esaten eben Eleizearen gurasoak-.

Onelan, Kristo'gaz gorputz bat'eginda ba'gagoz, Kristo Jaungoikoaren Semea dan ezkerro, gu be Jaungoikoaren seme aginda geratzen gara, Jaungoikoaren semetza artzen dogu (Errom. 6,4).

Baiña ori ez da dana. Bizia artzen da, ez alperrik gastatzeko, sakon eta osoan biziteko baiño. Eta bateoan arlu dogun bizi barria be aundi egiteko deitua da, oso-osoan biziteko, ezer galdu barik. Orregaitik, bateoa laguntza berezi bat da, baiña eskari bizi bat be bai Kristiñau-bizitza osoaren eskaria, osotasunaren eskaria.

Uraren antzera, Bateoak
garbitu ta bizia emoten dau.

Eta Kristiñaurengan Espiritu Santua egoteak, Espiritua bere Eleiza baten lez egoteak, bizi barri au aurrera ateratea askatzen dau, berau biziteko laguntza be ba-da eta zaintzeko ta garatzeko indarra emoten dau. Bateoa Jaungoikoaren deiaren eta maitasun bereziaren ezaugarri agiría da.

Baiña ez gagoz bakarrik bizitza onetan. Kristo'gaz bat egiten garanean eta bizi barria artzen dogunean Bateoak Eleizkide egiten gaitu, agiriko erri baten kideko. Eleizeak bere aldetik, bateatua artu egiten dau eta bere berbea emon al dauan neurrian bateatuaren fedea lantzeko, eleizkide barria bartanbera ez izteko. Ori batez be umeak bateatzen diranean agertzen da, oneik oraindiño euren fedea agertzeko gai ez diralako, Eleizearen fedean bateatzen dira eta Eleizea arduratzen da euren gan fedea sortu daiten, orretarako lenengo bidea gurasoak dirala, gurasoen lagun aita-amabitxiak. Bateoa ospatzen danean gurasoak eta aita-amabitxiak erriaren aurrean agertzen dabe euren fedea eta bateatzen danari laguntzeko berbea emoten dabe; gaiñera Eleizea bera, alkarte bizia eta gizon alkartuak osotua dan neurrian, katekesi erakundeak ezarten dauz fede onen aurrerapena egin al izateko.

6. Gero barruan geratzeko

Itun Barrian zear argi agertzen da Espiritu Santuak Kristo'ri lagun egiten eutsola bere zeregiña beteteko: Jesus'ek Juan'en bateoa artu ondoren, Espiritu Santua ikusi eban bere gaiñera etorten eta bere gaiñean geratzen (Mk. 1, 10). Bere ikasleai Espiritu Santuak lagunduko eutsela esan ondoren (Jn. 14, 16) esan ori Pentekoste egunean bete eban. Egun orretan Espiritu Santua Apostoluen gaiñera jatsi zan, Maria'gaz eta beste ikasleakaz batera egozala. Eta guztiak Espiritu Santuz beterik geratu eta Jaungoikoaren egite arrigarriak oiukatzen asi ziran (Ap. Eg. 2,4...).

Ebertarrai egindako idazkiak Bateoa ta Eskuak Ezartea kristiñau izaten asteko, Kristo'gana ta Eleizara sartzeko lenengo eginberrak dirala diñosku. Eskuak ezarte au, Sendotzeko Sakramentuaren asierea dala diñoie: Sakramentu onen bidez Pentekostes eguneko graziak Eleizan jarraitu egiten dau. Sakramentu au Gotzaiñak emoten dau, edo gotzaiñaren ordezeko batek, eta eskuak ezarteari krisma'gaz igortzitea gaiñeratzen joko.

Bateoa deritxon sakramentuaren bidez Jesus'en jarrartzailleen alkartera sartzen gara. Sendotzako sakramentuaren bidez Kristo'ren eta bere Eleizearen zeregiñagaz bat egiten gara, Espirituaren laguntzaz zeregiña ori beteteko gai izateko. Eta zeregiña, Barri Ona zabalzeko da, Jaungoikoaren Erreiñua munduan iragarteko. Sendotza knstiñau elduen sakramentua da: Norberaren santutasuna eta besteen aurrean lekuko izatea eskatzen dau. Gauza bi oneik, izatez, bat bera dira: norberaren santutasuna, kristiñau izatea, norberaren fedea beste batzui iragarteko gogoagaz ondo alkartzen da.

Bateoa ta sendotza alkarragaz ondo baluta dagoz eta aldi luze baten oikune baten ospatzen ziran biak. Bateoaren bidez federa jaio egiten gara eta *senólzaren* bidez fede orren lekuko biurtu ela Bateoaren eginberrak ba-koitxak onartzen dauz. Bateoa, Kristo'ren Pazko berbizkundera sartzeko bidea da. Eta sendotza, Pazkuaren aberastasunak agertzen dauzan Pentekostes eguneko Espiritua artzeko bidea da.

Sakramentu oneri ez jako emoten sarritan, aspaldion ba-daukala ikusten dogun garrantzia: Gizonok gure bizitzan norabidea ta osotasuna billatzen doguz, baiña norberaren askatzea eta anai-arteke alkartea bear doguz eta oneik gu baiño aragotik datoz, Jaungoikoagandik (Kor II, 3, 17-18). Gizonen kondairan etorkizunaren ziurtasuna Pentekostes egunez gizonai emon jaken Jaungoikoaren Espirituaren jazokizuna da, ez besterik.

7. Sartu eta betiko barruan geratu

Sakramentu oneik, Bateoa ta Sendotza, (eta abadegintza be bai) ezau-garria ezarten dabenak diralako, iñoz kenduko ez dan ikur bat emoten dabelako, ezin leikez barriro artu. Ikur orrek Kristo'ren antzeko egiten gaitu eta betiko dira sakramentu oneik.

Bateoak ezarten dauan ikur orregaz, bateatuak Kristo'ren federa begira dagoz eta euren Eleizearen bidez Jaungoikoagandik artu daben fedea, gizonen aurrean eta artean autortu bear dabe.

Sendotzak ezarten dauan ikurraz, bein betiko sagaratuak izaten gara Espirituak egiten dauan zeregiña bera egiteko mundian: Beti aundi egiten egoteko ikuspegi iraunkorra da.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Ikusi zer ezan nai daben itz oneik: Lrturjia, ezaugarria, jaun-gurtza, jaia, txerren-kentzea, krisma, eginkorra, igortzi, orioa, gomutakia, ekiñaldia, semetza.

Aztertu... Gure erriko jaiak zelakoak diran: eurretan zer gogoratzen dan, zer egiten dan, zeintzuk diran balioak eta balio-aurkakoak, zelan igaroten doguzan...

Ezarri... erriko jai baten lenari begira zer dagoan, eta zer oraiñari ta geroan begira. Gero bardin egin Eleizako jai bategaz.

Zelan **bizi dau...** Eleizeak igandeko jaia, zer dauka onik? Zer ikusten dozu oker igandea ospatzeko eran?

Zer deritxezu... eleizpideai, erromes-aldiai, fede-ibillaldia? Au egiteko bide egokia itaunketa bat izan leiteke.

Eztabaidatu... ikas-gelan, umeen bateoaren arazoa.

Zelan esan geinke.., ezaugarriaren eta ikurraren artean, Ezarri ori gai onetara.

Ze alde dago... eguneroko bizitzan erabilten dogun ezaugarri bat eta esan zertan dan bardiña eta zertan ez eleizako ezaugarnakaz. Bardin egin ikur bategaz.

Geure ariea **barriak emon...** gazteen pazkoari **buruz**. Joan geintekoz olako batera?

Zeintzuk dira... liturjiako margoak eta zer esan nai dau bakoitxak?

Ze alde dago... "Sartzearen" eta "izena emotearen" artean?

Azaldu... zergaitik, batekoak pekatuaren sustraia kentzen ba'dau, gizona barrero pekatuan jausten dan?

Zer esan nal dau... Espirituak kristiñauengan bere Eleizan lez daukala bizilekua.

Zeaztu... esaldi labur bategaz Sendotzako sakramentua zerdan.

IX. GAIA

ERRI AU ZELAN BIZI DAN
(Fede-agertze bizia: Kristo Jaunari jarraitzean Eleizearen
bizia *agertzen da*)

Fede bakar bai, Itxaropen bat bera, maitasuna:
Ortik sortzen da poztasuna

Jaungoikoaren Erria, Eleizea,
Alkar-banatzaillea da eta orrexegaitik benetako erri bizia,
jokabide bardiñak
erri berezi baten bizitera daroe ta garoaz,
fedearen jokabidea da
eta ortik dakigu gure bizitzea norantza doan;
Itxaropenaren jokabidea da
eta orregaitik bizi gara emen, baifia ohea itxaroten;
Maitasunaren jokabidea da
eta ortik sortzen dira gure arteko ta Jainkoagazko artu-emonak
Orregaitik, Jaungoikoaren Erria, Eleizea,
Erria alaia da:
Bere alaitasuna fedetik, itxaropenetik eta maitasunetik sortzen da,

W M I W T I T P T

OARRAK

1. Erri baten jokabideak

Erri batzuk beste batzuen antzekoak izaten dira: Errikideak euren artean alkartzen ebazana galdu egin dabe eta beste erriakandik banatzen ebazana be bai.

Baiña erri batek bere nortasuna zaintzen dauanean, benetako erria izaten jarraitzen dauanean, errikideak euren artean era berezi ta zealz baten alkartzen dira eta olako erria beste erri batzukaz dauan artu-emonetara be era berezi ta zeaztu bategaz sartzen da.

Erri ori era berezi baten **bizi** da, bere erara. Eta biziteko araudi berezia dauka, berea, eta araudi onek eskatzen dauan lez eratzen dau eni-barruko alkar-bizrtza eta beste erriakazkoa, naizta dana izan ez araudi idatzia. Olan erutzen dira eta bizi dira egoera guztiak: Ezkontzea, alkar-lana, eriotzea bera ta abar.

Eta araudi au ez da sortzen berez: erriak dauan ingurua ikusteko eratik sortzen da, bizitzea, mundua eta gauzak zelan lkusten dauzan dauka kontuan.

Jesus'en jarraitzaileen alkartea, Eleizea, benetako erria da, ez beste erriakaz bardiña, eta bere barruan errikideak alkarregazko artu-emonetarako era berezia dauke.

Jokabiderako dauan araudia, barruko alkar-bizitza eratzeko eta beste erri batzukaz artu-emonak izateko dauan Araudia, gauzak ikusteko berak daukan ikuspegrtik sortzen da, mundua ta aurrean daukan ingurua ulertzeko daukan era berezitik.

Eleizeak daukan, mundua, gauzak eta gizona bera begiratzeko erea bere Kredotik datorrena, Kredo orretan eta Jaungoikoaren Berban dagoana da.

Mundua, gauzak eta gizona ikusteko daukan era berezitik sortzen da erri onen jokabiderako araudia, Jaungoikoaren Erriaren araudia, eta araudi orren erara bizi dira eta bizi gura dabe ernkideak: **Fede**, **Itxaropen** eta maitasun-giroan.

Fedea, itxaropena ta maitasuna iru jokabide dira eta onein arauz bizi da erri bat, kristiñauen erria; orreixek dira mundu ikusteko ere berezitik sortzen diran jokabiderako arauak. "Orain iru gauza dagoz fedea, itxaropena ta maitasuna" (I Kor. 13,13).

2. Erri onen fedea

Siniskera batzuk

Erri bakortxak bere barruan gauzak *era* batera ikusteko daukan modua banatzen dau. Gzutiak batera sinisten dabe zerbait. Eta zelakoa da Jaungoikoaren erriaren fedea?

Bibliak "Sinistedunen Aita" esan jakon gizon baten fedea dakar: Abraan'-en fedea. Abraan'ek baldintza barik siñistu ebalako Jainkoaren berbea, oso-osoan Jaungoikoagaz *jarr*i ebalako bere uste ona. Eta Jaungoikoagan eta bere bertan uste osoa ebala, Abraan'ek bere ziurtasun guztiak eta bizitza eroso itzi ebazan eta gero etorri leitekezan agintzarien billa urten eban (As. 12,14;15,6).

Jaungoikoaren berbea onartzen dabena, fededunai, salmuen liburuan "txi-roak" emoten jake izena: *euren itxaropena Jaungoikoagan* dagoalako eta ez munduko gauzetan.

Jesus'ek Itun Zarretik datorren fede-jokabide au artzen dau eta gero argitu ta osotu: guk siñistu bear doguna, gure fedearen sinisgaia Jaungoikoa maite gaituan Aita dala eta guztiok seme lez artzen gaituala da; eta Kristo bera dala gizon *egindako Jainkoaren berbea, gugaítik bizia emoteko etorri zan eta gure salbamena bideratzeko berbiztu zan Jaungoikoaren Semea.*

Gugaitik il eta biztu zan
Kristo da gure fedearen
sinisgaia.

Jesus il eta biztu zanean, Eleizeak Jaungoikoagan eta Jesus ber-biztuagan eukan fedea agertzen eta zabaltzen jarraitu eban eta Jesus'egan sinisten eben guztiak batu ebazan. Orregaitik, Eleizkide, talde onetako alkarki-de eta erri onetako errikide izatea, federa jaioteko bidea da: gure fedea alkarte onen ekintzaz sortzen da, alkarte barru-barruan.

Eta, batera, bakotxaren fedea Eleiza osoaren fedean kideko da. Guk Eleizeak **sinisten dauana sinisten dogu, Eleizeak dauan uste** ona bera daukagu. Federa **biurtzen dan gizona sinistedunen alkartera sartzen da, erri onetako errikide egiten da.**

Eleizeak **gure** fedearen **seaskeari eragiten dautso eta fede** onen azkuntzan laguntzaille da.

Biziera bat

Eta zer? Fedea dala egi batzuk onartzea beste barik. **Egi orreik,** fedea **onartzen dauan egiak, bizitzea ikusteko era bat** emoten dauskue eta orik asita bizitzea bera be orrelantxe biziten **da, bizitzean buruz** pentsatzen **danan erara. Personeari ikututen dautson** aldakuntza, **biurtzea** daroa **barruan** fedea, (Ikusi BUP'eko lenengo urteko IX gaia).

Orregaitik, fede-ekintza errazoibidekoa da, baiña askatasunduna be bai. Fedea errazoiz artzen da, ez da artzen onartu eziñeko oker bat lez, **ez** siñistea baino be arrazoizkoa dan gauza lez artzen da. **Orregaitik** artzen da borondatea-gaz eta askatasunagaz. **Onartze ori** norberaren erabagia da. **Eta** onartze orrek **aldakuntza daroa barruan, personearen biurtzea,** bere fedetik **asi eta** bizitza osoa sinisten **dauanaren erara bizitera daroan biurtzea. Orregaitik,** federa ertzeko bideak eta fede orretan aurrera egitekoak, **ez dira sinisten diran** egiak, adimenez ezagula ta **aztertzea bakarrik,** fedea eskatzen dauan tankeraz **bizitea dira, or agertzen dan eta** fededunak artu **bear dauan bizitzea-ren** aurreko jokabidea **artzen dala.**

Jaungoikoaren emoitza

Betiko bizitzarako bidea zabaftzen dauskun fede au, ez da gugandik asten; gure erantzuna da, Jaungoikoak eskintzen dauksun emoitza doango bat bakortxak onartzea da: Orregaitik da goitiko. Eta gugana eltzen ba'da, Jaungoiko-ga gugana zuzendu **eta dei egin dauskulako da. Eta** guk, askatasunagaz **eta** bakortxak artzen **dogu, dei ori entzun eta** jarraitzen dogunean.

Eta fede biziz izateko "maitasunaren bidean ekin" **bear dau (Gal. 5, 6). Izan be fedea ez da gogo ta adimen utsezkoa, orrelan izanik ez** gindukez inora eroango. Fedea bizitza osora sartzen da eta orduan bizitza ori beste jokabide batez biziten da, fedea dagonean beste era batera beteten da bizitza

(Mt. 13, 4-9). Orregaitik, fedea ez da naikoa: Fedeak, naita ez, era bategaz jokatzera **garoaz**. **Zeatzago** esateko, kristiñauak Jesus'en aginduak **jarraituz**, Barri Ona zabalduz Eleizea egitean **kideko izatea eskatzen dausku** (Mt. 28, 18-20): **eta bide batez, mundu** au **zuzenago ta gizatiago egiteko alegiña** beste gizonakaz banatzeko benetako berbea eskatzen dausku eta orrexegaitik Jaungoikoaren gurrietara **doan mundua egiteko bidean jarten gartu**.

Fede bakar batek

Alkartzen gaitu Jesus'en **jarraitzailleak**: Eleizea.

Fede bakar batek

egiten gartu guztiok erri bakaronen kideko.

Eta Eleizeak

gure fedea egin leiken gauza biurtzen dau.

Baiña banatzen dogun fede au ez da gogo utsezkoa;

bere erara biz te ra garoaz

eta bizitzea aldatzeko eskatzen dausku

askatasunagaz **Jaunaren deia onartzen** dogunean.

Besteai emotera

eta mundu ohea egiteko bidera.

3. Erri onen itxaropena

Etorkizuna ren billa

Siniskera bardiñak banatu ondoren, erri batek bere etorkizuna **be banatzen dau**. **Etorkizun ori era** batekoa izango dala uste izanik oraintxe asita ori lortzeko **lana** egiten dau. Orregaitik etorkizuna bera **be (ori ikusteko erea, itxarotekoa** edo gura izatekoa) erri egiten **dabil**.

Etorkizunaren arazoak, **izan be, bizitzako arlo guztiai ikututen** dautse. **Bizi izatea itxarotea da**. **Gizonak etorkizuna gogoan izaten dau, ardurea emoten dautso, bildurra dautso**, itxaron egiten dau, **aurrea artu gura dautso, ziur eskuratu gura dau; Orregaitik, gaurko** egunean **bizi da baiña etorkizuna** zelakoa izango dan aitzu barik eta zelan edo **alan** etorkizunerako lan egiten.

Itxaropena galdu daualako eta berez etorriko dala itxaroten daualako edo edozelakoa onartzen daualako, itxaropena galtzen danean, gizona ez da bizi gizon **lez**: Ibilli dabillen ildako baten antzekoa **da, nora doan ez dakian** izaki **bat**. **Izan be, guztien** bizitzea bide bat da, norantza edo arantza joatea.

Eta kristiñauen itxaropenak neurri barri bat sartzen dau itxaropenen onetan, erri osoaren itxaropenean

Fedea eukitean gaiñera Jesus'en jarrartzailleak benetako erri egiten gartuan itxaropena banatzen dogu, baiña ez da beste erriak dauken lako itxaropen bardiña.

"Jesukristo da gure itxaropen bakarra" eta Beragan "Jaungoikoak eskiñitako gauza guztiak baietza artu dabe" (I Tim. 1, 1; II Kor. 1, 20). Eta Kristo berbitzuegan ondo dakigu eriotzea ta txarkeria ez dirala azkenengo berbea gizonaren elburuan begira, Ondo dakigu eriotzeagaz dana amaitzen ez dana, dana doala aurrera eriolzearen ostean. Orregaitik, kristiñauen itxaropena ez da beste errienaren antzekoa. Mundu onen etorkizunari begira dago, baiña ez dana mundu onetan amaitzen daia, arago luzatzen dala baiño.

Gizadia dan sendiak deia dauko Kristo'gaz Aintzatan biziteko, Jaungoikoaren antzekoak izateko. Itxaropenaren aldian gagoz: Emen gagozan artean aldi ohea itxaroten dogu.

Emen gagozen artean aldi ohea itxaroten dogu.

Etorkizuna men asten da

Orain emen gagoz. Eta ementxe bizi gara. Kristo'gan daukagun itxaropenak ez garoaz mundu au bere bidean iztera eta mundu onetatik geu urrintzera. Bestetara, gure itxaropenak mundu onetan eta mundu onen alde lan egitera garoaz: Emen itxaroten egon eta bitartean, itxaroten dogunak Jaungoikoagandik urrago dagoan mundua egitera garoaz eta orregaitik izango da mundu ori gizonarentzat biziteko ohea. Gaiñera azkenengo ber-egitea, itxaroten dogun mundu barria ez da gizonarentzat bakarrik, izaki guztientzat, Kosmosoarentzatda.

Gure itxaropena ez da beste itxaropenak lakoa: mundu onetan era batera bizi izatera indartu arren, beste neurri batdauko. Eta beste neurri batekoa dalako, gure itxaropenak ez dauz kentzen beste itxaropen batzuk gizonen artean. Oñarriko itxaropenaren eta eguneroko itxaropenen artean, ez dago alkartu-eziñik, mailla ezbardiñen arteko aldea baiño ez dago. Eta Kristo'ri jarraitzen dautsogunok, Berari itxaroten gagozen artean, mundu au eta geu obetzeko diran gauzak be itxaroten doguz.

Kristiñauen itxaropena munduan aurrera ta aurrera doa. **Eta** aurrera egite **ori gizonak lan eginda lortzen da. Eta ortik** aurrerabide bat dator. Gizona izaki askea dalako, ez **dauz** ezagutzen aurrerapenaren ekiñaldi **batzuk bakarrik** atzera-aldiak be ezagutzen dauz, geldi-aldiak eta sakabanatze-aldiak be bai. Baiña ondo dakigu gure itxaropenak ez dauala izango azkenengo ondamendirik, (**Errom. 10, 11**). Eragozpenak, arazoak eta tentaldiak izan **arren be ez. Tentaldirik aundiena, bear ba'da**, bidez doanaren antzera, biziten azperturea **da, eta ori bizitzeak inora ez** garoazela edo egin bear dan bide guztia eginda dagoala **uste** daualako. Kristiñauen itxaropenak bai rtxarogabekeria eta **bai uste larregia ta naikoa izatea azpiratu** egiten dauz: kristiñaua etorkizun-giroko gizona da: Kristo'gan bizi da gaur, oso-osoan ez ba'da be, itxaropena lortuta.

Itxaroteaaxuda:

* Asita dagoan baiña oraindiño azkenengo neurria lortu ez dauan egoeran bizi.

* **Gizonaren bizitzea ez dala** aldian amaitzen **baiña** aldian egin egiten dala jakin.

Bizitza onetan Jaungoikoaren Erreiñua gertatu, Jaungoikoagazko alkar-lana askatasunaz eginda eta Jaungoikoagana eroateko aurrean dogun giroa *ta mundua* aldatzen *d'ra*la.

4. Erri au maitatu

Eleizea dogun erri au fede bakar batek alkartzen dau eta itxaropen bakar batek eusten dautso. Baiña ez bere fedeak eta ez bere itxaropenak ez leuke **zentzunik izango**, maitasunik **ez ba'leuko. Maitasunbako bizitza**, barrutia rruan "jlda" dago.

Izan **be**, maitasun barik fedea **ezin izan** daiteke benetakoa: Persona bat ez **dau** ezagutzen **maitatzen** dauanak baiño; Jaungoikoa be ezin ezagutu daiteke bera maitatzen dala baiño. **Eta maitasun barik ez genduke itxaroten** doguna **billatuko** edo geuganatuko. "Orain iru gauza geratzen **dira**: Fedea, itxaropena ta maitasuna, **iru oneik, eta euretatik** baliotsuena maitasuna **da" (I Kor. 13, 13). Agustin** Deunak argiago agertzen dausku esaldi au: "Maitasunik ez dauanak alperrekoa dau sinismena, alperrekoa itxaropena... fedea ta itxaropena maitasuna lortzeko bideak ez ba'dira".

Kristiñauen maitasunak batera daukaz neurri biak: Danaren gaiñetik Jaungoikoa maitatzera garoz eta batera beste gizonak maitatzeko bultz egiten 'Jjauskun maitasuna da. (Ikusi X gaia).

Jesus'en jarraitzaileok bizi dogun maitasun onek beste erriakandik bereizten eta batera Eleizea dogun erri onegaz alkartzen gaitu. Fedeagaz eta Jtxaropenagaz batera erri onen berezitasunetariko bat da, aundiena, eta kristiñauak zelan bizi bear dogun jakiteko biderik sakonena agertzen dausku.

ii

5. Erri alaia

Jaungoikoaren erri eta kristiñau bakoitza, fede bakar bat banatzen bizi dira, etorkizun bat bera itxaroten dabe ela maitasunak euren bizitza osoa uguzten dau. Errazoi-bidez, ondorena erri alaia da: alaitasuna erri onetatik berez sortzen dan ondorena da eta errikide bakoitxak dauan biziteko era berezitik sortzen da alaitasun ori.

Ez da gero, eta ez nastau, kristiñau bakoitza beti barreka ia zantzoka daukan alaitasuna, ez da beti irri-barrez biziteko poza. Ez da alaitasun ori arazoak kontuan ez artzea edo irabazle urteteko bide bat. Alaitasun ori arruntagoa ta sakonagoa da. sinisten doguna, itxaroten doguna ta maitatzeko erea orixe da alai, pozez eta gertu egoten laguntzen dauskuna. Gure alaitasuna Jaungoikoagandik sortzen dan "barruko" alaitasuna da.

Kristinauaren alaitasuna
barrutik dator
eta eragozpenak azpiratzen dauz.

Egia da, kristiñauak giza-bizitzako alaitasunai euren balioa emoten dau-tse: giza-maitasunari, ondo egindako lañaren pozari, adiskide-giroko batzarre-nari... Baiña orregaz batera, ondo daki benetako alaitasunaren iturri Jaungoi-koa dala eta Jaungoikoak bere erriari beste poz batzuk be emoten dautsazala: Erriak zintzo jzalean aurkitzen dauzan eta itxaroten dauan mundu barrian osooan betetuko diran pozak.

Kristiñau bal goibeltasunean eta eragozpenen artean sartuta dagoa-nean, orduantxe be gizon alaia da: ez da erreza izango olako egoeran pozta-suna agertzea, baiña barru barruan eta sendo sinisten dau bere egitekoa zein dan, Jaungoikoaren ondoan daukan bizitzan bere lekua zein dan. "Pozez ganezka

dago bere neke-lorren artean" (II Kor. 7, 4) nekeak be esangura bat daukela-ko eta esangura orretatik sortzen da alaitasuna.

Bere sustraiak galduta, bere bizitzan nora-ezean dagoan gizonaren goibeltasuna "poz biurtzen da" (Jn, 16, 20): Jaungoikoaren Espirituak poza emoten dau bein eta barriro, poza ta barruko egokitasunaren asmapena.

Eta Jaungoikoa oso-osoa agertzen danean, poz eta alaitasun au be, osotu egingo da.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu itz oneik zer esan nai daben: Jokabidea, araudia, ekinbide egokirako araudia, atzerakuntza, zintzotasuna, autortu, fede-agerpena, Barri Onazabaltzea, neurria, itun-jausia, itxarobakotasuna.

Eztabaidatu... Gure gizartean nagusi dan bizitzaren ikuspegia zein dan. Zergaitik ori.

Irakurri... Apostoluen Egiñak 2, 42-46. Zelakoa da kristiftau-alkartea? Zelakoa gaurkoa?

Egin... Ikasglean itaunketa bat gure itxaropenak zeintzuk diran aurkrtzeko.

Zeaztu... Eta alkarren parean ipiñi "baiezko ria su na", "ezezkortasuna", "igarkeria", "kristiñau izatea".

Ipiñi alkarren parean... Kristiñau-alkarte baten eredua eta gizarte-taldeak edo alderdi polilikoak billatzen daben alkarte-eredua iru ikuspegi oneitan: Zer sinisten dabe eta zein da balioen mailladia? Zer lortzeko egiten dabe burrukea eta zer itxaroten dabe⁷ Zer banatzen dabe eta zelan dira alkar maite?

Izan artu-emonak... Itxaropenerako urrutizkinagaz: Dei bat da naikoa.

Zeaztu... Sinismena ta zintzotasuna. Zertan dira bardiñak, zertan ez...

Azaldu... Zergaitik dan "egite bako fedea, fede illa".

Bereizia.. Zer dan "itxaroten egotea" eta "itxaropena eukitea".

Eztabaidatu... **Ikas-gelan zergaitik salatu diran eta saiatzen dira** kristiñauak, mundu onetan ez dirala bizi, arazoak alboratu egiten dabezela esanez. Ikas-taldeko batzuk alde egongo dira, beste **batzuk salatzaile**.

Idatzi... Idazlan txiki bat edo ipuin bat sinismenik **eta** itxaropenik **ez daukan** norki bateri **buruz. Zeregiten dau? Zelan bizi dau mundu** au?

Billatu... Entzun eta **aztertu Godspell'en abestiren bat**.

Azaldu alkar reagaz... Teresa Deunaren olerki au **"Neugan bizi barik bizi naz"**.

itaundu... Teilhard de Chardin **nor izan zan eta zer ekarri eban gizartera**.

Ipiñi alkarren parean... Ekonomí-giroko irabazi aundi baten poza, **lenengo seme edo alabea izan dauan amaren poza eta** arerioa ondatzen ikusten dauan gizon batena, kristiñauen pozagaz.

Egln laburpena... Gai oneri buruz esaldi labur eta bakar baten.

X. GAIA

LEGE GUZTIEN GAIÑETIK

(maitasuna kristiñau-izatearen oiñarriko ardatza da. Kristiñauen maitasuna zelakoa dan: Jesus, maitasunaren maisu)

Maitasunak egoak damoskuz. Aske egiten gaitu.

Agustin deunak esana da:
"Maitatu eta egin nai dozuna".
Arrezkero gizaldi kristiñau askok,
bein eta barriro, esan dabe esaldi ori.
Eta iñoz txarto ulertu be bai,
beste aginduak kentze lez.

Baiña benetako esangurea, eskaritsuagoa da:
Maitasuna legeen gaiñetfc dagoala,
agindu guztien **laburpena** dala,
bizitza osoaren **eragillea** dala
esan gura dau.
Kristinauaren oiñarriko aukerapena da-ba,
bere bizitza osoari norabidea
emoten dautsona.

OARRAK

1. Maitasunerako egiñak gara

Asiera liburuak dakarren Atsegin-Baratzeko bizikizuna (As. 2, 3). Jaungoikoak gutzat daukan jokabidearen erakutsia da: Jaungoikoak zoriontasuna lortzeko ipiñi gartu lurrean, ori da gure elburua.

irudizko izkerea artuta, Bibliak auxe argitzen dausku:

- * gizona bere buruaren jabe izan bear da (billosik egon arren ez ziran lotsatuten);
- * gizona izaki guztien jauna da (dana egoan bere menpean)
- * batez be, gizona Jaungoikoaren adiskide izateko egiña da (arratsaldeetan gizonagaz berba egitera etorten zan);
- * eta beste gizonak adiskidetasunean eta onartuta biziteko be bai (au bai ba-dala nire aragiaren aragi).

Baiña Jaungoikoaren jokabide au pekatuak apurtu eban:

- * billosik egoteaz btsatu egiten dira,
- * lana astun egiten jake eta sarritan ondoren barik,
- * Jaungoikoa datorkenean, lotsatu egiten dira,
- * Gizonak andrea salatu egiten dau: Beronek atsipetu nau.

2. Maitasunezko alkartasuna

Asiera liburuak diñoanez, gizona da Jaungoikoagandik urrindu dana. Lenengo urrintzea egin ondoren, Kain'ek bere anaia il eban, Abel (As. 4, 8) Lamek'ek bengantzearen legea ezarri eban (as. 4,23-24) eta pekatua ugaritu egin zan, mundu guztira zabaldu (As. 6, 5). Baiña gizonak Jaungoikoa itzi arren,..

... Jaungoikoak ez dauz gizonak itzi: Abraan aukeratu eban eta bere ondorengo bat gizon guztientzat salbamen izango zala esan eutson (As. 12, 1-3)

Eta Abraan'en ondorengoak morroi lez Ejipto'n egozanean, Jaungoikoak askatasunera deitu eutsen Moises'en bidez (Uri 3, 1-10). Gizon askeen erria izatea nai dau, eurakaz alkartasuna egingo daualako eta morroi diranak ez dira euren buruen jabe eta ezin leikee berbarik emon.

Alkartasun au Sinai'ko basa-mortuan egin zan (Uri 20 ta 24) eta israel erriaren kondaira osoaren oiñarria da. Eta or gizonak berbea emon eban Jaungoikoa ta urko laguna maitatzeko edo, bardin dana, amar aginduak beteteko. Maitasunean oiñarritzen dan alkartasuna da ba, eta alkartasun orretan zintzoa izatea gizonak maitasuna lortzeko bidea da; pekatuak apurtu eban Jaungoikoaren jokabidea barrizatzeko bidea.

3. Agindu barria eta zarra

Lege-jakitun batek auxe itaundu eutson Jesus'en: Agindu nagusia zein da? (Lk. 10, 25-37). Eta Jesus'en eskariak beteteko, jakitunak berak emon eban erantzuna, Moises'en Legea laburtuz: Jaungoikoa maitatuko dozu, eta urko laguna.

Orrelan ba, maitasunaren legea, zarra da.

Jakitunak itaun barria egin ebanean, urko laguna nor dan jakin gura eban eta Jesus'ek ez eutson erantzun zuzen, samaritarraren ipuiña azalduz baiño. Ipuin orregaz, jakitunari eta guri esaten dausku, urko laguna gizon guztiak doguzala, edozein gizon, arerioa be bai (izan be samarrarrak Juda'tarrentzat arerioak ziran). Orduan ez da naikoa "urkoa" maitatzea (zeure endakoa, sendikoa, taldekkoa...), zu beragana urreratzea bear dauan edonor.

Jesus'ek lenago be egin eban itz maitasun oneri buruz. Mendiko berbal-dian arerioak be maitatzera bultzatzen gaituen maitasuna eskatu eban: "Zeuek maite zaituenak baiño maite ez ba'dozuez, ze sari izango dozue?" (Mt. 5,43-47).

Baiña antxiñatik ezagutua dan lege onen barritasuna ondoen agertzeko Jesus'ek bere burua ipinten dau maitasun onen eredu lez: Jesus'en aurretik esana au zan: "zeure burua lez". Eta Jesus'ek diño: "Neuk maite izan zaituedan lez". Orduan, azkeneraiño, bizia emoteraiño (Jn. 15,12-13).

Ulertzeko era onelan, Jesus'en agindu barriak Maitasunaren agindu zarrari sakontasun aundia emoten dautso. Orrelan da agindu barria (Jn. 13, 34).

4. **Nik** maite izan zaituedan **lez**

Jesus'ek bere berbakaz eta batez be bere bizitzeagaz agertu dausku benetako maitasuna zelakoa dan.

"Nik maite **izan** zaituedan lez. Orduan **bizia** emoteraíño".

Jaungoikoaganako benetako maitasuna

Jesus'en **bizitza** beti izan zan **Jaungoiko bere Aitaren naia** betetea. Amabi *uriek* zala, *Pazko-jaietarako etorritako jentez* batenk egoan **Jerusalen'en galdu zanean, ez dau** beste azatpenik agertzen auxe baiño: "**Nik** neure Aitaren gauzetan egon bear dot" (Lk. 2, 49). **Agiriko bizitza** asi ebanean **ara zer esan** eutsen bere ikasleai: "**Nire janaria aitaren naia** egitea eta berak emondako lana amaitzea da" (**Jn. 4, 34**). **Sarritan** esaten eban ez dala etorri **bere irakatsia** emoteko, bialdu dauanaren irakatsia baino (Jn. 7, 16). Txerrenak bere zeregiña beteteko beste bide bat agertzen dautsonean, nekeak igaro barik ori **lortzeko** bidea erakutsi eutsonean, Jesus'ek taltaldi **lez** alboratzen **dau, ori ez dalako "idatzita dagoana"** (**Mt 4, 1-11**). **Eriotzea ur** ikustearen **samintasuna zomau ebanean, oso-osoan** onartzen **dau Aitaren naia** (**Mt. 26, 39**). Alaiz bat egin bear dauanean, begiak zerura jasoten dauz **eta Aitari eskerrak emon** (**Jn. 11, 41**). **Sarritan mendira joaten da** bakarrik, gabez, **Aitari otoitz egiteko** (**Lk. 6, 12**). **Bere** ikasleak **arranta** geratzen **dira** Jaungoikoagaz etxeko lez berba egiten daualako eta Jesus'ek erabilten eban berbea bera be zein izaten zan esaten dauskue: "ABBA", "AITATXU".

Geideaganako (urfco-lagunaganako) benetako maitasuna

Gaideaganako benetako maitasuna, Jesus'en antzera oso-osoan norberaren **burua** eskintzea da. **Bere mirariak**, jenteari laguntzeko ekintzak ziran. Bere maitasuna orokorra zan, gizon guztiakana zabaltzekoa, baiña batez be beartsuakana **eta ori** azterketa zorrotzak entzun arren (Lk. 15, 1-2). Biotz-zabala **zan** eta onartu egiten eban, esaterako **andra ezkontza-auslea** eriotzarako epartzea **nai ebanean** (**Jn. 8, 1-11**) edo emakume damutua artzen

dauanean (Lk 7, 36-50) edo zergak eskuratzen geiegi eskatzen eban Zakeo artu ebanean (Lk. 19. 1-10). Kurutzean josita egoaia be, ilteko ordua eldu jakonean, bere aurka ebiltzanen alde eskatu eutson Aitari (Lk. 23, 34). Orregaitik esan eban Juan Barri Onaren idazleak, "azkeneraiño maitatu ginduzala {Jn. 13, 1). Eta San Paulo'k beste au esan eban: Gutariko baten bat bear ba'da gertu egon leitekela lagun on edo adiskide bategaitik bizia emoteko, baiña Jesus'ek arenokaitik emon ebala bere bizia, pekatuan gengozaiaiko Jaungoikoaren asarrean gengoazanokartik (Errom. 5,6-11).

Bere bizitza osoari oegira azkenean, Jesus'ek au esan al izan eban: "Ez naz etorri serbitzailleak eukiteko, neu serbitzailie izateko baiño" (Mt. 20, 28).

Jesus beraren testigantza oneri eskerrak eta berak maitatu ginduzan lez maitatu ginduzalako, guk be maitatu daikeguz besteak. Bere maitasuna aurretik doaku. Eta laguntza orregaz izan ezik, ezin maitatu benetako maitasunaz. Jesus'en antzera maitatu bear da Jaungoikoa, bere antzera geidea.

5. Begiraiu zelako maitasuna dautsen alkarrari

Apostoluen Egiñak liburuaren 2n. eta 4n. atalean (ikusi I gaia) agertzen jaku alkarte kristinauaren asmoa. Jesus'en ja rraitzailleen talde onetan Jaungoioaganako maitasuna agertzen da lenen, eta ortik sortzen diran oiñarriko agerpenak **gero:**

* **Apostoluen irakatsletan eten barik jarraitu,** Jaungoikoa eza-gutzeko bide lez, berak egindako agerpenean agertzen dan lez. Maitasunaren eskari bat, izan be, maitatua ezagutzea da;

* **Otoitzean Iraunkorrak Izan.** Otoitza Jaungoikoagaz artu-emonera sartzeta da, berak esaten daukun berbeari erantzunez. Ez da eginbear beti-bardin bat, adiskideak adiskideagaz daukan artu-emona baiño.

Alkarte kristinauaren bizitzan **geideaganako maitasuna** be batera agertzen da. Eta ori agertzeko biderik onena egiteak diran ezkerro, Jesus'en lenengo **jarraitzailleak** ondasunak banatzen ebezala esaten jaku. Ez egoan orretara beartzen eban legerik, baiña maitasunak bardintasuna eskatzen dauan ezkerro, maitasunetik sortzen zan, kristiñauak euren gauzak banatzeko jokerea.

Maitasunak,
Jesus'ek ogiak eta arraiñak
banatu ebazan **antzera**,
ba n atze ra garoaz.

Euren artean alkartasunaren lokarria eta **kristiñau** lez biziteko **indarra**, **Eukaristian sarritan kideko izatetik** artzen eben (**Ikusi XI gaia**) "**Ogia zatitzetik**". **Izan** be Eukaristia, alkar-laguntzaren jatordua dan lez, Kristo'gaz alkartzeko eta maikideen artean bat izateko bidea da. **San Paulo'k argi ta garbi diñosku** ori: "Ogi batetik jaten dogunok, Gorputz bat osotzen dogu" (Kor 1,10,17).

Onelan, maitasuna lenengo kristiñauen "bizi-erea" da. Era ain argia dalako, eurak ezagutzen ebezenak **arrituta esaten eben**: "Begiratu zelako maitasuna dautsen alkarrari".

6. Maitasunaren olerkia

Gizonaren bizitza osoari norabidea emoten dautsona, maitasuna da. Egiteen ontasuna ez dator **egiten dogunetik**, maitasunagaz **egitetik** baiño. San Paulo'k Korinto'koai egindako lenengo idazkiaren **13n**. atalean, maitasunari egindako oierki ederradakarsu. Ona emen, askatasunaz itzulita:

Nik munduko **izkuntza** guztietan itz egingo **ba'neu**,
eta aingeruen izkuntza bere be ba'nenki,
ez nintzake, **iñor entzule** izan barfc deadarka dagoan abotsa baiño,
ezerezerako danbadaka dagon **tun-tuna** nintzake
maitasun barik.

Mundu onetako ta besteko tsiipekoak jakin arren,
Jaungoikoak **berak nire itzai indarra** emon arren,
nire fedeak mendiak tokiz aldatu arren,
ni ez nintzake ezer, ezer be ez nintzake
maitasun barik.

Maitasuna,
maitasuna bakar-bakarrfc,
da dana daroana, danai laguntzen dautsena.

Maitasuna
ez da lotsabakoa, arretatsua da,
ez aoa cerera, besteenera baiño.

Maitasuna

ez da esarrez bateten, iraindua izan arren,
eta ez iñoz kontuak artzen ibilten,
bera sarritan iraindu izan arren.

Maitasuna,

ez da okerkeriaren lagun,
egiagaz egiten dau bat.

Dana aiztuten dau, dana sinisten dau
eta dana itxaroten dau, dana eroaten dau,
eta beti

maitasunak

maitasunak bakar-bakarrik.

Maitasuna

iñoz be ezda amaitzen...

Umea nintzanean

ume lez egiten neban berba, ume lez pentsatzen neban;
eta gizon biurtu nintzanean, umekeriak itzi egin nebazan,

Eta, umekeriak amatu ziran lez,
¡garletzak eta igarleak be amaituko dira,

izkuntzak joango dira

jakintzarik ez da izango

osotasunaren Erreiñua daiorreanean:

Orain izpilluan lez erdi-illun ikusten dogu,

baiña orduan dana ulertuko dot,

Jaungoikoak neu ezagutzen nauan lez, aurpegiz-aurpegi,
zuzenean.

Ez da bean\o ez ¡garlerik ez izkuntzarik, ez jakiterik.

Baiña orduan be ez da amaituko

iñoz be ez da amaituko,

maitasuna.

Orain sinismena, itxaropena ta maitasuna dagoz,

irurak,

Baiña geien balio dauana,

maitasuna.

EGIN GEINKENA

Iztegia; Ikasi zer esan nai daben berba oneik: Maitasuna, eros, ágape, zoriona, buru-jabetza, alkar-ituna, ekarri, etenbarik, alboratu, laguntza.

Ekarri: ikasle bakoltzak abesti bi maitasuna aitatzen dabenak eta billatu zertan datozen batera eta ortik atera jentearantzat *zer* izaten dan maitasuna.

Billatu: izpar-ingieían aste onetako jazokizunak, maitasuna agertzen dabenak eta ma'rtasunikeza agertzen dabenak, zeintzuk dira geiago eta zein da gizartearen oiñarria gaur.

Zer aldatuko litzake: gure ikastetxe oneten guztiok benetan alkar maitatuko ba'ginake?

Ezagutu: Cakxrta'ko Teresaren eta Aita Kalbe'ren bizitzak.

Irakurri: Juan'en lenengo idazkia.

Parekatu: San Paulo'ren maitasun olerkia eta berak idatzi ebana eta esaldiak azaldu.

Aukeratu: Garzilasoren maitasun oierki bat, Lauaxeta'ren beste bat. Ikusi bientzat maitasuna zer dan eta gero maitasun orreik Paulo'k diñoaren antzik dauken.

Sartu artu-emonetara: Karitas'egaz edo besteai laguntzeko dan erakunde bategaz.

Eritxia emon, esakji oneri buruz: "maitasun ondo ulertua, norberagandik asten da".

Aurkitu: Alboratuak eta alboratzeak gure gizartean, Zer esan nai dabe⁹

Billatu: eta irakurri Kl. 10,27; Mat. 25,31-46; Jn. 13,34; azaldu esaldiak.

Aztertu: Zelakoa da kristiñauen maitasuna? Zer alkar-banutzen dabe⁹

Irakurri: Samaritarraren ipuiña, Seme Ondatzaillarena. Gero azaldu zelakoa dan Jaungoikoaren maitasuna.

Esan labur: gaia orri-erdi baten geienez eta bost minututan.

Iruditu: zer jazoko litzaken munduan, une baten bat-batean gorrotoa kenduko ba'litz, maitasunik eza galduko ba'litz.

irri W JH iH 2ri

XI. GAIA

MAITASUNAREN EZAUGARRI BAT: EUKARISTIA (Eukaristia, Kristo'ren maitasuna ospatzea)

Ez gagoz bakarrik. Jesus gugaz geratu da

Maitasuna
agetu egiten da, erakutsi.
Azken-aparia egin ebanean
Jesus joan egin zan.
Baiña gugaz geratu be bai, geure artean dago.
Eta maitasunez.
Eukaristia, bere burua eskintzearen sakramentua da.
Batasunaren sakramentua be bai
kristiñauak eleizan alkartzen gaituan sakramentua,
Gorputz bat osotzen dogu
ogi batetik jaten dogu nok.

OARRAK

1. Mezara joatea

Domekak eta jaiak euren elburua dauke: Atsedeen-egun dira, baina ez beste barik indarrak artzea, gero indarrak galtzeko; atsedena, lan barik egotea dira (Ikusi XVIII gaia) baiña ori egiten da gizonak bere burua osotu dagian; gizonarentzat bear-bearreko gauzea dira. Olako egunetan gozotasuna lortzen da eta norberaren askatasuna erabili, atsegin diran gauzak egiteko, norberaren lagunakaz alkartu, urteerak egin...

Orrez gaiñera, kristiñauok "mezara joaten gara" edo bardin dana Eukaristia ospatzen dogu. Igandeak eta jaiak gizonaren egunak diralako "Jaungucikoa-arentzat egunak" be ba-dira.

Baiña sarritan olako zerbait entzuten dogu:

- Mezea edo ori, "rolto" bat da.
- Mezara doazenak euren burua erakusteko doaz.
- Aste-barruan (apurretan edadomekan mezara,
- Ori ba-doala ikusi dagien doa mezara,
- Gaurjoan naz mezara. Kumpllududot.
- Mezara joan ezkeru, gurasoakaz ez daukat asarrerik,

Labur esateko, mezea jenteagandik urrin geratu da eta eginbear bat lez baiño ez da agertzen. Edo ulertu-eziñeko gauza lez geratzen da eta esan be esaten da; Ori mezea baiño be gitxiago ulertzen da.

Baiña Eukaristia ez da ori...

2. Apari baten Izan eban asierea

Eta agur egiteko aparria zan, lagunuen arteko azken-aparria.

Jesus bere lagunakaz pazko-aparria ospatzen egoan (apari orretan Israel-darrak Egipto'ko morroitatik askatasunera igarotea ospatzen zan. Eta Jesus'ek ondo ekian bere pazkoa be axe zala: Mundu onetatik Aitagana bera igarotzea, laster kurutzean opaldua izateko ordua etorrela ba-ekialako.

Baiña Jesus'ek, "Mundu onetan ziran bereak maitatu eta azkeneraño maitatu ebazanak" ez ebazan bere lagunak bertanbera itziko. Orregaitik Azkenengo Aparia, apari berezia izan zan: Ez agur egiteko beste barik, bertan garatzeko era bat be bai.

Orduan Jesus'ek gauza barri bat egin eban: Ogia zatitu eta bere lagunai emon esanez: "Artu eta joan egizue au zuekartik eskiñiko dan neure gorputza da-ta. Au egizue neure ongarri lez", eta apalduta gero arda-ontzia artu eban eta bere adiskideai emon eutsen esanez: "Artu eta edan egizue guztiok, au zuekatik isuriko dan neure odolaren kaliza da-ta. Egizue au neure gomutagarri lez".

Berba eta egite oneikaz argi agertzen zan laster etorteko zan kurutzeko oparia. Jesus'ek Jaungoikoaren eta Gizonen artean dan Alkartasun barria asten dau, maitasuna lokarri dauan alkartasuna (agur egiteko apari beratzen Jesus'ek alkar maitatzeko agindua be emon euskun) eta kurutzeko oparia benetakoa zala agertu eban: Gizonakartik ilteagaz Jesus'ek salbau egin gartu eta Jaungoiko ta gizonen arteko artu-emonetan aldi barri bat zabaldu dau. Eta, gaiñera, gugaz geratzen da Eukartstian orrelan Kurutzeko opariaren sakramentua izateko, Aitari bere burua eskintzen dautsola.

3. Jarraitzen dauan aparria

Jesus'ek berak agintzen dau bere Opariaren gomutakia aldien joanean barriztatzeko: "Egizue au neure o ro jgarri".

Eta lenengo aldietako kristiñauak ondo ekien Jesus'en agindu onen barria. Orregaitik agertzen da Apostoluen Egiñak liburuan eguneroko ta sarritan egiten zan gauza lez "ogia zatiizea". Berba oneikaz orduan Eukaristia adierazten zan (Ap. Eg. 2, 42-46). San PauVk be sarritan ospatzen eban (Ap. Eg. 20, 7-11; 27-35) Kristo'k egin eban antzera (Lk. 24, 35). Eta kristiñauai zur ibilteko be ba-diñotse, Korintotarra ospalizon onek onuragarri izan bear ebala esaten dautsenean (Kor. 1,11,17-35).

"Bein eta barrero etorten ziran Apostoluen irakatsiak entzutera, alkartera, ogi-zatitzera eta otoitz egitera", (Ap. Eg. 2,42)

"Egunero eta iraunkortasunaz etorten ziran jauretxera, gogo bateaz, etxerik etxe ogia zatitzen eben eta janaria pozik eta biotz leunaz artzen eben (Ap. Eg. 2,46).

4. Gure Eukaristiak

Azkenengo aparia egin zanetik gaur arte kristiñauak Jesus'en agindu ori beteten jarraitzen dogu, Eukaristia egiten dogu. Orrelan jarraitzen dau bizi-bizi gure artean Kristo'ren gomutapenak. baiña ez gomutapen uts lez. Kristo benetan bizi da Eukaristian gugaz. Kristiñauentzat Eukaristia bizitzearen ardatza da, gure bizitzen ardatza. Eta Il Juan Paulo'k egin euskun ikustaldian gogoratu eban lez, "Eukaristi Santuan dago Eleizearen gogo-ondasun gutzia".

Batikano'ko Il Batzar-Nagusiaren ondoren, ospakizunaren aria argiago agertzen da eta guztiok ulertu geinke obeto, guztiok izan gaitেকেz kideko osotasun aundiagoaz. Ara zelan;

Eukaristian dana egiten da
jatordu baten antzera,

Eukaristian dana egiten da jatordu baten antzera, azkenengo apariaren antzera. Sendi-talde bat edo lagun talde bat, neba-arreben arteko jatordu bat egiteko batzen garanean, asmoa isillean edo agirian agertzen dala, ori egiteko bide batzuk artzen dira eta orrelantxe egiten da gure kristifiau-batzarrean be, izan be Eukaristia jatordu bat da eta Maia dan aftaran Kristo eskintzen jaku janari lez:

- * Lenengo, jatordura deituak etorten eta baizen dlra, sendiko diranak. Alkar agurtzen dlra, barriak **alkarrarl** emoten dausez, alkar-ikusteagaz **poztu egiten** dlra eta **oker-uter-turik izan ba'da, alkarrarl** parkatu eta **aiztu egiten** dabe: **Aerio** dlranak ez dabe batera jaten.

Orixegiten da Eukaristian, sarrerako oikunea esaten dautsagun zatian: Alkarteabatu, alkar-teagaz poztu (sarrerako abestia), alkaragurtu etaalkarragaz eta Jaingoiko Aitagaz bakeak egin (Mt, 5, 23-25) damu-aldian; eta alkar-te lez agertzen dira, sinistedunen alkar-te lez, Kristo euren artean dala (Mt. 18, 19-20), orretarako alkar-tearen otoi-tza egiten data.

- * Baiña sendiko batzarrean ez **da joaten artez-arte**z maira: sendideak **eta** lagunak jesarrl **egiten dira, eta jatordua gertatzea** amaitzen dan artean arazoak eta eginbideak **agertzen dira**, zergaitik **batu diran** gogoratzen da, mezederen batzuk alkarrari eskatu be bai...

Orixen egiten da mezan, Berbearen ospakizuna esaten jakon zatian. Zati onetan Jaungoikoak egiten dautso berba bere erriari Itun Zarreko liburuak, Apostoluen idazkiak eta ebanjelioa irakurten diranean. Batu diranak berba au entzun eta erantzun egiten dabe. Berba ori argitu ta eguneratu egiten da berbaldiagaz. Kristiñauak Kredoan guztiena dan fedea agertzen dabe eta erri-otortzean guztien bear-izanak gogoratzen dabez. Orain ba-dakigu Ebanjelioa entzun barik Mai Santura urreratzeak ez daukala esan-gurarik. Ori litzake jaten asita gero elizea edo etorri bear dalako etortea...

- * **Jakintza-giro askotan, geurean** be bai, beste bategaz bazkatzteak adiskidetasuna eta alkar onartzea esan gura dau. **Alkar agurtzeak eta,** barriak emotea amaitu diranean, maikideak maian **j esan en dira eta janariak** ekarten dautsez.

Orixen da Eukaristiaren liturjia: Eskintza-aldian janariak ekarten dira, ogia ta ardua, eta otoitz egiten da dana Jaunari eskintzeko. Eta jatordua ondo daiorrenean aintzat artzen dan lez, prefazioan Jaungoikoari eskerrak emoten jakoz bere on-egite guztiakaitik.

Eta gero ezkutukira sartzen gara: Emen ez **dogu aurkitzen** beste jatorduen antzekorik ezer. Jesus'ek azken-aparian egiñak eta esanak gogoratzen dira eta gauza arrigarria be egiten ta: Ogia da ardua Kristo'ren **gorputz** eta odol biurtzen dira, gutzat benetako janaria eta edaria izan daitezcan. Eta jateko geure buruak gertatzeko, Gure Aita esanaz eta alkarrari bakea emonaz, Jaungoikoagaz daukagun adiskidetasuna agertzen dogu. Baiña jatordua aurketzu ta eskiñi ondoren, jan egin bear da, Kristo'ren Gorputzean eta Odolean kideko izateko. Eta kristiñauak, ilten dan Kristo'gaz alkartuta, bere berbikundeagaz bat eginda, Aitari eskintzen dautsoe opari au berari eskerrak emoteko (Eukaristia gerkerarik artutako itza da eta eskerrak emotea esan nai dau.

- * Jatordua amaitu **ondoren, maikideak** agur egiteko alkar agurtzen dira eta **alkarrentzat gurari onak agertu ondoren,** joan egiten **dira.**

Agur egiteko oikunea esaten jako eukaristian zati oneri: Alkartu diran kristiñauak bedeinkapena artzen daben eta bakoitza bere bizitza-lekura joateko agurtzen dira. Baiña egin dabena orretan ez da amaitzen, eurentzat argia ta zuzenbidea da euren kristiñau-bizrtzarako.

5, Jatordua baiño geiago

Eukaristia, ondo dakigun lez, ez da alkarragaz janagaz agertzen dan adiskidetasu nezko batzar utsa. Ori baiño geiago be ba-da.

Lenengo ta bein, kideko diranak adiskide baiño zerbait geiago dira: Alkarte baten kideko eta egitasmu bakar baten bizi diranak be ba-dira. Eleizkideak dira, Jaungoikoaren erriko erritarrak, batzen diranak. Eta ikusi dogu lenago (VI, VII, VIII eta IX gaiak) Erri au erri bat dala, baiña erria baiño geiago. Eukaristia erri onen ospakizuna da, erri onek daukan agerbidea, erriaren agiriko batzarra guztiak batera fedea banatzeko, itxaropen baten biziteko eta Aitagaz alkarren artean dauken maitasuna agertzeko. Eukaristia ez da ba Kristo'ri begira bakarrik. Zabala da eta guztiok Eleiza bakar baten daukagun batasuna agertzen dau: Eukaristia egiten dan lekuan Kristo eta bere Eleiza osoa batzen dira.

Adiskideen batzarra baiño geiago izanez gaiñera, Eukaristia jatordu bat baiño geiago ba ba-da. Sakramentua bat da, Kristo'ren gorputza jaten dan eta Kristo'ren odola edaten dan Sakramentua da, eta Beragaz alkartasunera sartzen da. Eta bere bidez gure artean eta bere Eleizan irauten dau gizaldian azkeneraiño.

Kurutzeko Opariaren sakramentua da (Ik. 2 zenb.) eta batasunaren sakramentua be bai. Kristo'k gizonoi dauskun maitasunak ortxe artzen dau bere izatea ta sendotasuna; Kristo'ri guk dautsagun maitasunak be ortxe dauka oiñarria eta senide doguzan gizonai dautsagun maitasunak be bai. Eta maitasun *one/lan* dau bere sorburua batasunak: Eleizeak *Kñisto'gaz dauan* batasuna eta guztiok alkartzen gaituan senidetasuna, guk guztiok Jaungoikoagaz eta geure artean daukagun maitasuna agertzen da; ortze batzen dira baita Jaungoikoagananiza doazen gauza ta gizon guztiak (Kol. 1, 13-20). "Gorputz bat osotzen dogu ogi beratatik jaten dogunok".

Jesusgugaz geratu zan.

Baiña azken-agurra egiteko dan oikuneagaz ez da amaitzen eukaristia. Jai batera goazenean eta arazo bat daukagunean gure poza edo gure ardurea beste batzui agertu-bearra eukiten dogun antzera, Kristo'k betetzen gaitunean be barruko egin-bearra *zomatzen* dogu beste batzui azaltzeko eta gure bizitzan beteteko. Eukaristiaren eta bizitzaren artean ez dago zatitzerik: Eukaristia bizitzarako da eta bizitzea, benetan kristiñauena danean eukaristiarako bidea da. ez ostera, nai ta nai ez, biziteko bear dogun zerbaiten antzera

baiño. **Eukaristia izan be, bizitzarako** ogia da, eta **ezin izan bizitzarako** ogia ospatzen **dabenak Jesus**"ek agertu euskunez **bizi ez ba'dira**: azken-aparian bertan, **eukaristiako sakramentu sortzeaz batera, alkar maitasunaren agindua** itzi euskun.

6. Kideko izateko jakin-bear dana

Orain ezin esan mezea "rollo" bat dala. Edo mezara burua erakusteko joaten **dala. Ezin onartu aste-barruan lapurretan egitea edo Jesus'ek nai ez eban moduan bizitea, gero** igandean **ori aitzu eta mezea egiteko. Eta ez dauka** esangurañik, egin-bearra dalako beste barik egiteak.

Olako jokabiderik ez da agertzen eukanstiaren ospakizunean,

Eta guztien ekintza dan ezker (naizta bakoítzak bere zeregiña euki) alkarteko ekintza dan ezker (eta alkartea ez da beste **barik ardura-bakoen moftzoa**) **ez da ondo egiten guztiak kideko dirala izan ezik, guztiak arduraz jarraitzen dabela eta bizi dabela izan ezik. Jatordu batera noanean eta iñor agurtu ez, berbarik egin ez, jan ez, jatordu ori** zertarako dan ezin jakin lei.

Eta ni eukaristiara ba'noa eta an abestu **ez, otoitzik egin ez, erantzun ez, jan ez, eukaristi orrek bai izan daike "rollo" baten antza.** Izan be, eukaristia ez da ulertzen eta ez da bear **kristiñau-bizitza ez** dagoanean. **Eta** kristiñau-bizitza be ezin bizi daiteke **eukaristia barik.**

"Eguzkiarena esaten jakon egunean, guztiak urietakoak **naiz errietakoak**, toki baten batzen **dira. An** astia dagon **neurrian** apostoluen idazkiak irakurten dira eta jgarleenak be bai. Gero irakurleak amaitzen daunean, zuzendari danak egiten dau berba guztiak aolkua ta deia egíñez **irakurri** diran jarraibide ederrai jarafteko. **Gero guztiok** zutundu egiten gara eta geure otoitza egin. Ori amaitzen danean, esan dogun **lez, ogia,** ardaa eta ura eskintzen dira **eta** zuzendari danak, bere almenen arauz, Jaungoikoari bere eskeriak eta esker-emoteak egiten dautsoz eta erri **guztiak oiuka** erantzuten

dautso Amen. Gero janari eukaristiatuak banandu egiten dira eta orrelan kideko izan, eta janari oneik diakonoen bidez batzarrean ez dagozenai bialtzen jakez. Ondasunak daukezenak, nai izan ezkeru, bakoitxak bere askatasunaz, ondo deritxena emoten dabe eta batu dana zuzendariari emoten jako eta onek umezurtzai ta alarguna* laguntzen dautse orregaz, baita gaisoagaitik edo beste zeozergaitik bear-izaneandagozenai naiz espetxean dagozenai ta bidez doazen kanpotarra. Labur esateko, zuzendaria izaten da bear- izanean dagozenentzat banatzaillea".

Justino deunak bere alkartean,
II gizaldian. Apologia, 67.

EGIN GEINKENA

Iztegia: Aurkitu berba onein adirazpena: Eskirtzaldia, eukaristia, ágape, alkar- tzea bete-bearra, pazkoa, eukaristi-otortza, anáfora, oparia, agerpena, oben, ordaiña, ber-erostea, eskintzaria, argia garbi esanda, oikunea, damu-aldia, aolkatu.

Zer-Ikusia... Juda-tarren zapatuak eta kristiñauen domokeak, antza ta aldea.

Egin... age bitan lauki ikusgarri, eukaristia ta jatordu bat parekatuz,

Parekatu... gaiaren azkenean dagoan Justino Deunaren idazkia ta gaurko eukaristiak, ezagutzen doguzan, eukaristiak.

Gertatu... Juda'tarren pazko-aparia zelán izaten zan, zer esan gura eban, eta parekatu Jesus'en azken-apariagaz, eta ikusi Jesus'ek zer barrizatu eban Juda-tarren pazko-aparian.

Egin... itaunketa bat eta batu itaun oneri emondako erantzunak; "Zergaitik joaten zara mezara?"

Azaldu... esaldi au: "Eukaristi santuan dago Eleizearen gogo-ondasun osoa".

Bereiztu... alkartea ta giza-moltzo a. Esan bereizte orrek eukaristiagaz dauan zer-ikusia.

Ezarri... ikasgelan eztabaidatze bat gaia "gaurko mezea" dala.

Irakurri... Jn. 6,48-66 eta azaldu.

Billatu... Kor I, 11, 23-27. Ikasle bakoilxak aukeratu begi beretzat arrigarriena dan esaldia. Batu gero guztiak eta ikasleen aurrean irakurri.

Egin... ikasi dan gaiaren eskema bat, ez laburpena.

Jarraitu... zatirik zati eukaristiaren liturgia eta ulertu zati bakortxa.

Ekarri... ikasgelara mezara ez doazen lagunen edo adiskideen eritxiak mezeari buruz. Ikasi doguna kontuan dala, erantzun egiten dabezan rtaunai.

Idatzi... bakoitxak euki daikezan zalantzan Irakasleak batu eta argitu.

XII. GAIA

MAITASUNA AGERTZEKO ERA BAT; ADISKIDETASUNA
"Adiskidea, **ondasuna da**" (Sir. 6,14) "**Zure** ondasuna dagoan
lekuan antxe dago zure biotza" (Mt. 6, 21).

Jarraitu dagigun maitasunaren aritik...

Maitasunak milla aurpegi daukaz,
eta aurpegi bat adiskidetasuna dalako,
adiskidetasuna aitatzean, maitasuna aitatzen dogu.

Bai. Gizona bakarrik dago... baiña ez bakar-bakarrik:
Bere barrutik urteteko aukeran dago,
berta egileko, artu-emonak **izateko.**
Maitatu leike eta maitatua izan be bai.
Orixe da adiskidetasuna (**ez bestea**, indargetua, **sarri aitatua**)
benetako adiskidetasuna gitxiak lortzen dabe.
Adiskidetasun au bide luzea da
nik eta zuk egin bear dogun bide **luzea**
berbaz eta alkartasunaz
ni eta zu geu biurtzen **gaituana.**
Eta Jesus'en antzera.

OARRAK

1. Adiskidetasun indargetua

"Adiskidea" eta "adiskidetasuna" sarri entzuten diran berbak dira, larregi bear ba'da. Eta sarritan erabilli bear ez diranean:

- "Gaur arratsaldean gure mutilak zugaztian adiskide bat egin dau", diño arro-arro ama gazte batek, bere umetxua gizarte-artu-emonetarako oso trebea dala agertzeko gogoaz.
- "Nireak bai adiskideak, nireak, arekaz edonora. Gauza arrigarriak benetan guk egiten doguzanak..." diño amairu urteko mutiko batek talde barrira sartu danean.
- Neska! Zenbat adiskide dauzan gure gizonak! Gure entxean umjtizkiña beti dabil jo ta jo. Biziten be ez dausku izten. Baiña zeozer lortu nai dauanean adiskide bateri deitzen dautso ta kito!" diñotse emakume batek bere adiskideal senarra gizon aundia dala adierazteko.
- *Ez.* Gaur nire ematzea ezin leiteke joan. Adiskideakaz joko-aldia dauka eta ori sekula ez dau izten" diño senarrak.

Olakoa] entzun ezkerro, guztiok daukaguz adiskide asko eta ezin doguz bear dan besteko ardureagaz begiratu. Ori orrelan izan ezkerro, adiskidetasuna errez lortzen dan gauzea litzake.

Baiña seriotasunaz geure barrura begiratzen dogunean, geure buruak bakarrik ikusten doguz, ez daukagu iñogaz be benetako artu-emonik garrantzizko gauzetan beintzat: ez daukagu benetako adiskiderik.

Or gogoratu doguzan adiskideak ez dira benetako adiskideak, ezagunak baiño ez. Ori ez da benetako adiskidetasuna, ez dira besterik gizarteko artu-emonak baiño.

2. Adiskidetasuna, baiña benetakoa

- Zatoz nigaz jolastera -esan eutson printzetxuak azagahari- Goibel nago!
- Ezin zugaz jolastu -diño azagariak-. Ezi barik nago.
- Ai ene! Parkatu-esan eutson Printzetxuak.

Baifia gero, gauzea obeto pentsauta, esan eutson:

- Zer da ezita egotea?
- Zu ez zara emengoa -esan eban ezagariak- Zeren billa zabiltz?
- Gizonen billa nabil -erantzun eban printzetxuak- Zer da ezita egotea?
- Gizonak -esan eban azagariak-su-izkilluak daukez eta eizatu egiten dabe. Aspergarria da ori. Oilloak be azten dabez. Ori da euren guraria. Zu oiltobilla zabiltz?
- Ez -esan eban printzetxuak-. Adiskideen billa nabil. Zer da ezita egotea?
- Sarritan aitzuta eukiten dan gauzea da -esan eban azagariak- "Loturak sortzea" da.
- Loturak sortzea?
- Bai -iñotsan azagariak-. Zu nitzat oraindiño ez zara beste eun milla umeren antzeko ume bat baiño. Nik ez zaitut bear. Eta zuk be ez nozu bear. Ni ez naz zuretzat beste eun milla azagariren antzeko azagari bat baiño. Baiña eziten ba'nozu, alkarren bear-izana izango dogu. Munduan bakarra izango zara nitzat eta ni munduan bakarra izango naiatzu.
- Arren... ezi nagizu! esan eutson azagariak.

Ori nai neuke nik -erantzun eban printzetxuak- baiña ez daukat astirik. Adiskideak billatu eta gauza asko ezagutu bear dodaz.

- **Eziten diran** gauzak **baiño ez** dira ezagutzen **-esan eban** azagariak-Gizonak ez dauke ezer ezagutzeko astirik. Gauza egiñak erosten dautsez saltzailleai **baiña adiskiderik iñok ez dauan lez saltzen**, gizonak **ez dauke** adiskiderik. **Zuk** adiskide bat **nai** ba'dozu, ezi nagizu!

Printzetxua. Saint Exupery'rena.
Alianza argitaletxean. Madrid. 1982,

Auxe **da benetako adiskidetasuna. Orain argi dago sarritan adiskide ize-na** emoten dautsegunak ez dirala lanabesak baiño, jostailuak **eta iruzurgaillu-ak baiño** ez, geuk bakarrik ez gagozela siñistu dagigun. **Baiña** olakoakaz **ez** dago loturarik, ez dago benetako artu-**emonik**, ez da bizia alkar-banatzen.

3. Adiskidetasuna ez da gure asmakizuna

Gizonaren biotzetik sortua dalako. Bear-izana dalako: Beti danikoa da gizonak dauan maitatu-be arra eta maitatua izan-bearra.

Orregaitik, asieratik eta askok au esan **arren**: "benetako adiskideen arazo ori asmakizuna da", adiskidetasuna agertu da lur-gaiñera. Asko dira ezagutu ez dabenak ori eziña dala diñoenak, baiña egia da munduan benetako adiskideak **izan dirala, ba-dirala eta izango dirala**: Askorentzat norki ekjuak izatea eziña da, ezin dira adiskide lez eskiñi, baiña guziak ez dira orrelakoak.

Gizonak ba-gara adiskide izateko gai. Eta **arazo oneri buruz** azierketak egin be egin **dira: Zizeron'ek liburu oso** bat idatzi eban adiskidetasunan **buruz, Bakon'ek** argi ta garbi esan **eban**" adiskide izateko gai **ez dana**, geiago dala aberea gizona baiño" eta gogo-aztertzailea dan gaurko Young'ek beste **au uste** dau: "Adiskidetasuna bizftzearen ardaa lez da". Guk, **gai au** azaltzean, adiskidetasuna aztertu nai dogu, zer dan jakiteko.

4. Adiskidetasunerako bide luzea

Adiskidetasuna **ez da** duban datorren **frutua**. Adiskidetasunera **eltzeko**, orretarako gai izateko, bide luze bat egin bearda. Bizitzearen bidea.

Adiskideak ala
jolas-gailluak?

Bide luze au **ume-umetan asten** da. **Ume-akjian umea** bere buruan begira dago; **Bere inguruan** dabillela **edo ibilli bear dala dana uste dau**. **Orregaitik benetako adiskidetasuna eziña da ume-aldian, adiskidetasunak "norberagandik" urtetea** eta besteakana jotea eskatzen daualako.

Gaztetzuen aldia asten danean, gaztea galduta **dabil**. **Ez da umea**, baiña eldua izaten be ez dau ikasi. Eta galduta egote orretatik urteteko, "**pandillak**" **edo bardiñen taldeak sortuko dauz alkar** sendotzeko, bakarrik ibiltzen ez dakielako, Baiña **pandilla ori** ez da benetako adiskidetasuna, ez da besterik **al-
kar** zaintzeko talde bat **baiño**. Dana dala, **olako** talde baten **asi leiteke** benetako adiskidetasuna...

**Astiro-astiro, talde orreik apurtu egiten dira eta ez dira geratzen artu-
emon batzuk baiño eta oneik, astiro**, berba egiñaz, isiltasunetik isittasunera, **sakontasuna lortzen dabe eta orrelan eltzen dira** adiskidetasunaren antza dauan zerbait lortzera, baiña ordurako gaztetxua gazte **biurtu da eta bere bu-
rua eskintzeko, artu-emonak** izateko gai da, **Eta ori** adiskidetasunerako gauza bear-bearrekoa da.

Bizitzearen joanean, aldiak igaroaz, olako adiskidetasun asko galdu egi-
ten dira, baiña iñoz be **oso-osoan aitzu** barik. Batzuk orregaitiño, **iraun** egiten dabe eta bizitza **osoaren luzeeran jarraitu**, sarritan aldakuntzak eginda, geroago ta elduago izanez, baiña jarraitu.

Asko **dira adiskidetasunera urreratu be egiten ez diranak: umeak** izaten **jarraitzen dabe oneik (eurentzat** besteak ez dira jostailuak baiño) edo gazte-
txuen **aldian geratu dira** (oneintzat besteak **ez dira** bakartasuneko euskarna edo jolasteko taldea baiño) edo adiskidetasunean ondamendia izan dabe, asi **bai asi ziran baiña jarraitu ez eta** ondamendi **ori mingarria izan jake eta** **okerbidez uste izaten dabe olakoak**, adiskide tas un ik ez dagoala eta **ez dira** arduratzen beste adizkidetasun bat billatzeko, bear **ba'da** beste ondamendi mingarri bat izan leitekkelako.

Izan be, adiskidetasuna ez da zeregin **erreza ta ariña**. **Asko ez dira** elduak kanpotik eta etxuraz baiño.

5. Zer da adiskidetasuna?

"Neu" a

"Neu" a benetan garana da, gure izaterik sakonena eta ordeztu eziña. Eta benetako adiskidetasuna "neu" ori eskintzea da, norberaren burua eskintzea. Eta ori ezda erreza.

Alde batetik estu ta larri bizi gara eta iñoz geure buruaren aurrean alkartzea **be bear izaten dogu, bakarrik egon-bearra izaten dogu, jentetza aundiaren barruan nortasuna galdu ez dagigun.**

Baiña beste alde batetik "neu" ori osotu barik dago: **Bakarrik gagoze-nean utsik ikusten dogu geure burua, zoritxarrekoak gara: orduan beste batzukaz artu-emonak bear doguz.** Norberaren "neu" orretatik urten eta artu-emonetara sartu, ez gauzak, ez zeozergaz, beste norki batzukaz nor-edo-nofegaz baiño. Artu-emon zuzen **eta artez au gure guraririk biziena izaten da: Norki arteko maitasuna, maitasun zeatza da gizona bete leikena.**

Bizitzearen joanean gauza egokia da bakartasuna (norberaren burua "neu" ori aurkitzeko) **eta** besteakaz artu-emonak izatea (persona **lez norberaren burua ikusteko**) txandaka aurkitzea. **Eta artu-emon oneik ez dira** zerbaitegaz izaten, ez **dira gauzakaz izaten**, norbaitegaz, beste bateagaz, "zeu" gaz baiño:

"Zeu" a

Baiña artu-emonetara sartzeko bear dan "zeu" ori, bera be beste "neu" bat da: **bere** arazoak, akatsak, gurariak edo pentsaerak **daukoz, bear** ba'da gureakaz batera ez datozenak, eta gaiñera **ezkutauta dago**, berak bere **burua agertzen** ez ba'dau.

Orregaitik, adiskidetasuna "neu" biren arteko idegiterako bide luze bat da, "neu" bi orreik artu-emonetara sartzeko: lenengo kanpoko gauzak ikusten dira, begien aurrean'agertzen dana; gero bere gauzak ikusten doguz (daukana, izaerak) eta egiten dauana (zelan jokutzen dauan)...; eta azkenean bera zer dan ikustera **eltzen gara, bestearen "neu" orretara: orduan bai, eta olako bidea biak egin ba'dabe, **artu geinke adiskide izena**, ba-daukagu alkar maitasuna, ez bakoítzak daukagunagaítik, bakoitxa garanagaitik baiño,**

Eta auxe da adiskidetasuna: "neu" bi alkarregaz artu-emonetan eta persona lez alkarrari begirutzen. Orregaitik ez dago adiskide izena aitatzetik bestea gauza lez artzen diranean (jolasteko edo gira egiteko bide lez) edo bizitzako burrukan norgeiagoka ibilteko aurkalari lez.

"Geu" a

Adiskidetasuna **asi-barria da. Alkartze bat, artu-emon bat, ez dira oraindiño adiskidetasuna.** Olakoetan **asiera bai izan leiteke. "Neu" eta "zeu" orrek** alkarte sortzen dabenean, "geu" agertzen danean, orduan agertzen da **alkar-bizitza.**

"Neu" bat eta **"Zeu" bat,**
"geu" sortzeko bidea dira
eta alkarte **ori aurrera** doa.

Eta au bizitza guztirako zeregiña da, alkar-banatu izango dan bizitza baterakoa. Zeregin au apurtu be egin leiteke edo sendotu ez, eta sarritan norberarena itzi eta bestearena onartzea eskatzen dau: ori da adiskidetasuna.

Adiskidetasuna norkien arteko
alkartasuna da, n! eta **zu** alkartzen
dira eta bien artean **gu**
sortu.

6. Adiskidetasuna lortzeko gauzea izan daiten

Adiskidetasuna ugaritu **daitela gure artean, baiña** orretarako **ez da** naikoa alkartze bat. Beste baldintza oneik bear **dira:**

Alkarren artean; Ez da naikoa batek bere **"neu"** emotea ta banatzea, bestea be bardin erantzun beardau.

Bizkortasunaz: Adiskidetasunaren azkenera **ez gara iñoiz eltzen,** adiskidetasuna geroago ta elduago biurtzen da eta batera egiten dan bide bat da, **ez eroso egoteko leku bat.**

Alkar-izketea: Adiskidea isilpekorik ez daukana da, bestearen aurrean beti aske dagoana, ondo dakialako, esaten dauana esanda, bestea ez daia minduko. Eta ez da lortzen egia ta erreztasuna dagozanean baiño. Eta sarritan , berbarik be egin barik: alkarragaz isil-isilik egonda. Eta dana, bizitzea batera bizi izan ezkerro, batera ipiñi bear dalako bakoitxak bizitzeari buruz pentsatzen dauana.

Alkartzteagaz: eta onek norbera oso-osoan emoiea eskatzen dau. garanagaz, egiten **dogunagaz eta daukagunagaz alkarrentzat izatea eta ez** aldi labur baterako edo baldintza **batzukaz, betirako eta** osoan baiño.

Baiña **kristiñauak, gai onetan ikusi dogun lez, gure adiskidetasuna alkarri agertu eta emon ondoren, gure** adiskidetasuna **Jesuseen arara** egiten dogu egunero, Jesus'ek dakarsun bizitza-eginbideagaz adiskideak bat egiten gara. **Eta** eukaristian eltzen da geure adiskidetasuna gorengo maillara: "gu" gara eta gaiñera gorputz **bat**.

"Ez dautzuet otsein izena esango, lagun baiño; **zuek nire Aitaren gauzak ezagutzera emon dautzuedazalako"**.
(Jn. 15,15)

"Ez deutzuet otseiñak esaten, adiskideak baiño" (Jn. 15,15).

EGIN GEINKENA

Iztegia: Ikasi **zer esan** nai daben itz oneik: Adiskidea, laguna, barrukotasuna, alkar-laguntza, **balio-galtzea, ezi, sendotu, norki-arte, alkar, bizitasuna, jorkabidea, lotsea, kanpora-begira, errez.**

Gogoratu: Lan labur baten eta saio lez, zelakoak ziran umetako adiskidetasunak eta zelakoa dan edo izan bear leuken **gaur adiskidetasunak**.

Egin: **aztertze txiki au:** **Bost lagunek,** edo bost ikaslek bakoitxak esaldi **bat** idatzi norbera **zelakoa dan** esateko. Eta beste esaldi bat be **bai,** besteak zelakoak **diran esateko, lkusi ondorenak eta parekatu "neu" eta "zeu"Yi** buruz esanaz.

Parekatu: esaldi bi oneik: "Adiskide bat, ondasuna da" (Sir. 6, 14) eta "zure ondasuna dagoan lekuan antxe dago zure biotza" (Mat. 6,21).

Billatu: Ebanjelioan diran Jesus'en lagun guztiak. Gero esan zelakoa zan Jesus'en adiskidetasuna.

Irakurri: gaien zatiz agertu dan "printzetxua"ren idazki osoa (Saint Exupery "sakeleko liburua" Alianza argitald arian. Madrid, 1982).

Billatu: zer jaso zan Akiles eta Patrolo'ren artean. Dabid eta Jonatan'en artean.

Aurkitu: Kondairan, elertian, bizitzan adiskide izan diranak...

Igaro: Itaun au guztien eskuetara eta erantzun idatzita: "Gure lagunakaz eta gure gurasoakaz berbaz erabilten doguzan gaiak bardiñak dira? Zergaitik?"

Gogoratu: Izkuntza-ikastaldian ikusi doguna alkarrari barriak emotea dala-ta: emoillea, artzaillea, mezua, kodea, esiak... eta ezarri ori adiskidetasunaren arazoan.

Azaldu: zergaitik esaten dan Eukaristian goren agertzen dala gure adiskidetasuna.

Emon: ikasle bakoitxak adiskidetasuna zer dan zeazketea. Batu guztiak eta egin ikas-gelaren zeazketea.

Billatu: adiskidetasuna apurtzeko geien izaten diran arrazoiak.

Eritxia emon: esaldi oneri buruz: "Adiskidetasunerako gai ez dana, aberea da geiago gizona baiño".

Irakurri: eta ulertu Jonatan il zanean Dabid'ek egindako olerkia.

Billatu: Migel Hernandez'en 'tximista ez da gelditzen' olerkia, elejia.

XII). GAIA

MAITE-ERA BI: PARKAMENA TA ERRUKIA

Kristiñautzat bizitzea ez da azkena

Ez da erreza maitatzea,
batez be maitasunak okerkeria aurkitzen dauanean
Okerbideak gizona gaisora ta eriotzara daroa,
beste **baztutan** Jaungoikoaganako bidetik aldendu egiten gaitu.
Baiña **Jesus'ek bam'ro** be agertu dausku
miñaren eta pekatuaren **aurrean** bidea zein **dan**:
min daukanagaz **miña artu, maitasunez**.
Eta Eleizan maitasun orrek bere irudia dauka:
Alkar baketzearen sakramentua bide dala
rxarkeritik aldendu eta
Jaungoikoaren adiskidetasunera biurtu geintekoz;
Igorzako Sakramentuaren bidez
Eleizeak gaisoagaz min artzen dau
eta gaisoak, Kristo'ren antzera
gaisotasuna **azpiratu eta** eriotzea garartu egiten **dau**.

1. Albotik igaro.

Gabaz laguntzea arriskugarna da

Gabaz, uriko biztanle bakarrak, argiak dira.

Baiña batzutan gizonak gabaren erdian ogetik urten egin bear izaten dau eta oge beroa bere lekuan itzi eta urian diran argi otzen azpira sartu. Eta uria bera be dana ez da *argitan egoten*, auzo batzuk euren kaleak *menóizulo* illunen antzekoak daukez eta *antxe oztentzen dira* saiak.

Orain gizona olako kale batetik doa aurrera ta aurrera eta saiak isil-isiliik aiztoak zabaltzen dabez *gizona urreratzen danean. Eta aurre-urrean dagoanean, ate aurrerik illun-unearen aurrean, bere gaiñera jausten dira eta jkutu bat egiñaz esaten dautso:*

- **Dirua, arin!**

Gero gizona lurraren gaiñean ikusten da jausita. Eta, zutuntzen asten danean, zeozek laban *eragiten dautso eta barriro jausten da. Sorbaladan min apur bat zomau eta bere eskuak epela dan zeozek buztiten dauz. Berak odola dala uste dau. Orduan deadarka asten da eta arrituta, konturatzen da deadarrak bere burutik ez dauala urteten.*

Gizonak ezin dau bestenk egin, baten bat etorri arte *itxaron bairio.*

Baiña ez **dator iñor.**

Batzutan entzun dauz oinkada isil batzuk baiña **beragana eldu** diranean... **joan egin dira. "Ez dabe gura, antza, nasterik" -diño bere artean. Berebilien zarata batzuk be entzun dauz eta ikusten dabena zer ete dan jakiteko abiadea beeratu dabe bere ondoan... baiña odola ikusi dabenean tximistea baiño bizkorrago joan dira.**

Eta gizona itxaroten dago baiña geroago ta itxaropen gitxiagogaz, bere bizia bere aurrean joaten ikusten dualako eta oratu ezin,

Goiz-aldean beste berebil batek beeratu dau abiadea... eta ez dau barriro bizkortu. Baten batek, naizta bere aurpegia argi ikusi ez. artu egin dau eta kontuz jesarleku baten ipiñi, eta gizonak zomau dau ibiltzen asten dan berebillaren tirakadea.

- Loi-loi egingo dot -erdi esan egin dau gizonak zorabioak artu aurrean. Orregaitik ez eban entzun bestearen erantzuna.

Ez dau ardura.

Gizona itxartu danean, astiro-astiro, konturatu da gaiso-etxean dagoala, dana zuri, dana isil. **Eta onelan egiten** dautsoe berba:

- Ez **estutu**. Atsedendu **zaite**. **Danak urten** dau ondo be ondo.

Egun luze batzuk igaro ondoren, **gizonak urten** eban gaiso-etxetik **eta ordain-tokira joan zan**.

- **Arren**, gertatu egistazue **312n. gelakogaisoaren ordain-agiria**.

- Ez jauna; 312n. gelako ordain-agiria berebillean zaurtua ekarri eban jitanuak berak ordaindu dau aurretiaz.

Lk. 10,30-37.

2. Jaungoikoa ez da Igaroten albotik

Gitxi izaten dira gaiso barik **bizi diranak**. **Eta iñor be ez** eriotzara eltzen ez danik. Miña, gaisoa eta eriotzea ez dagoz norberaren eskuan: Beti datorkuz **gaiñera**, kanpotik jurtita datorren arri baten antzera. **Ezin doguz alboratu**. Orregaitik, olakoen aurrean gizona bakarrik **eta izkillu barik** aurkitzen **da**, ezeían be ezin dau iges egin. Beti beardau beste batzuren laguntza,

Baiña gaienak, geure burua ontzat daukagunak be bai, besteen gaiso ta eriotzearen aurrean igaro egiten gara, al dala aiztu egiten doguz. Batzutan lan asko daukagulako, beste batzutan bakoitxak bere burua **zaindu bear** dauala al dauan moduan uste dogulako; **bear ba'da, barru-barruan, besteen miñak** geuk aztu gura dogun zeozer gogoratzen dauskulako, geure gaisoa, geure eriotzea.

' Baiña Jaungoikoa ez da albotik igaroten gizonaren miña aurkitzen dauanean, bera ez da otza gure bear-izanen aurrean

Bere aragian, edo bere kondairan ikusi eban Israel erriak Jaungoikoaren maitasuna: Jaungoikoak entzun egin eban bere erriaren negarra Ejipto'ko Morro'rtza-aldelik eta erriaren aurrean jarri zan erria askalzeko eta beronegaz alkartasuna, ituna, egiteko.

Ori azaltzeko era bat baiño ez dago: Maitasuna, Jaungoikoak marte dauz gizonak eta eurai jaguntzera dator. Jaungoikoa ernikilsua da, nekeetan dagozenakaz nekeak artzen dauz eta bere errukizko maJtgBgriffittt'^ XXTgaia) ez da sarritan entzuten dogun errukia lakoa,"é"z"o^f*artzén dauana lotsatuta iztekoa. Jaungoikoaren errukia neke-artean dagoanarentzat benetako maitasuna da. Gizonaren aide egiteko Jaungoikoa makurtzen dauan mailasuna.

* Jesus'ek Jaungoikoaren maitasuna azaftzeko, zori txarrean dagoanagaz errukitzen dan Samari'tar onaren ipuiña azaidu euskun (Lk. 10, 30-37). Orixe azaldu dogu, gaurko erara ekarrta,-gaix^Sféj&affiï-
-¿.«Si*->rf:*.~*»''-~-' ^ _'

Baiña Jesus'ek ez eban uste izan Jaungoikoaren maitasuna azalzea naikoa danik, ori bete egin eban, gaisoak sarritan osatuz, miñak artuta ikusten ebazanean eta errukarri bizi ziranakaz txirotasuna bizita.

Eta maitasunezko Jesus'en bide onek roeré gorengo maila bat izan eban: Kurutzeko eriotzea. Eriotza erregaz Jesus'ek gatzik aundianari emon eutson aurpegia, eriotzeari. Berbizkundeagaz berak eriotzea azpiratu eban eta gu atera ginduzan eriotzatik. Esatea lez, Jesus maitasunak eraginda gizonaren alde ibilli zan: Jesus ez zan albotik igaro.

* Eta kristiñauak be ez dauka albotik Igaroterlk. Jesus'ek bide argia itzi euskun jarrartzailleai: Alkar maite izan zaiteze (Jn. 13, 34-35). Izan be gauza gartxetan ikusten da gauzen balioa, Gaisoaren eta eriotzearen aurrean kristiñauen maitasunak bere balio osoa lortzen dau. Izan be, ez da ain gaitxa pozik dagozenakaz poztutea. Baiña neke-artean dagozenakaz alkartu, eurak biotz onez artu eta gaisoak eta eriotzeak ba-daukela sentidu bat ulertu eta ulertu-azotea, ori ez da egiten kristiñauen maitasunagaz baiño. Gu epaitzen gaituenean be neurria besteakaz izan dogun errukia izango da baita gure ondasunak banatzeko izan dogun biotz-zabaltasuna be. (Jn. 1, 1, 17). Baiña ori ez dau egiten kristiñau-maitasunak eginbear bat lez: benetako maitasuna ba'da, berez doa beartsuai leguntzeara.

3, Gaiso-aldirako ta eriotza-aidirako sakramentu bat.

"Gizabideko ezer be ez dago bere biotzean oiartzuna aurkitzen ez dauanik" (Gaudium et Spes, 1) eta orregaitik Eleizeak era berezi baten ospatzen dau neke-artean dagozanai Jaungoikoak dauksen maitasuna eta olakoai dauksen maitasuna agertzen dau: **Gaisoentzat dan Igortza Sakramentua** da.

Igortzako **Sakramentua batera sufritzearen sakramentua da, kristiñauak neke-artean dagozanai** dauksen maitasuna be batera sufritzea dan lez. **Baiña** batera **sufritze au ez da iñor lotsatzeko eraz errukia artzea: "eurakaz sufritzea" da**, maitasunak bere eurakaz artu-emonetara, euren mtfiagaz bat egitera geroazalako. **Jesus'ek neke-artean egozanakaz nekea** artzen eban antzera, gaisoakana ta ezintasunean egozanakana aurreratzen zan antzera. Eta **Kristo** gaisoai **agertzen jaken antzera**, orrelantxe **agertzen** jake Eleizea igortzako sakramentuan **asieratik, sakramentu-ospakizuna egiñez (Sant. 5, 14); kristiñau** gaisoak bere gaiso-aldian grazi laguntzaiilea artzen **dau eta eta orrelan Kristo'gaz** nekaldian alkartzen da **eta eriotz-ostean** beragaz berbiztuten **da. Sakramentu** au ez **da ba**, ilten dagozenena, **gaisorik** dagozenena baiño eta ez da artu bear ilteko orduan, gaiso **astuna** dagoanean **baiño**.

Gizon gitxi izaten dira iñoz gaisotu bakoak. Bat bere be ez ilgo ez dana. **Baiña kristiñauak gaisoa Kristo'ren antzera daroa, eta Kristo'ren antzera** azpiratzen dau eriotzea.

4. Ateak idegi.

"...**eta zabalik** egozan ateetatik sartu **zan**".

"Noiz emongo ete daustaz giltzak agure orrek, neuk nai dodanean sartu **eta urten al izateko**". Emen iñor ezin leiteke bizi. **Aizerik be ez dagoala** esan lei. **Egizu au. Egizu ori** bestea. Begiratu **zelan egiten dauan zure anaiak**. Etxe **au aundia da. Ederto. Baiña niri mundua dala** aundia esan dauste. **Eta ain** aundia dalako, **leiorik** be ez dauala bear. **Ortik**, zear dirua eralgi ta eralgi egiten dala, **ezeri begiratu barik. Eta zelako emakumeak. Eta ori dana ortxe berton** kanpoan itxaroten **lez, eta gu** emen ito-bearrean. Baiña bitartean, **jakiña, orreik ateak beti... Konturatuko ete da agurea ni ez nazela ume bat eta** emongo ete dauksaz giltzak, neuk nai dodanean sartu eta urten al dagidan".

Urrengo goizean, semearen pentsaldia entzun egin ba'leu lez, esan eutson

- **Zuk eta nik** ondo dakigu **zu arduraduna zaraia**. **Eutsiz ba giltzak**, zeuk erabili.

Semea **arrituta geratu zan**. **Arrituta eta esker onez beterik**. Baiña gau **beratan, aitak egun guztiko alperkeria eta zenbat pezeta alperrik eralgi** eban agertu eutsonean, semearen esker **ona asarre biurtu zan eta asarrea** erabagi: Gaberdian idegi eban eskoiko kutxea, **artu eban giltz txikia, idegi** eban **burdiñezko kutxea eta kutxakrt dirua ta txekeak artu ebazan**. Gero goizean artuta eukazan giltzakaz, etxeko atepak **idegi ebazan, atepak aurak be gimntzerik egin barik...**

Baiña dana **amaitzen da**. **Dirua** bera be **bai**. **Eta** txekeak be bai. Azekengo íxekea galdu ebanean, negu gorrian kanpoan lo egin bear izan eban. Otzak lana billatzera bultzatu eta ez eban beste lanik aurkitu satsa batzen ibiltzen **zan** baten ordezkoa baiño. Baiña lana be ez da dana, gitxienez astebete bear izaten da dirua eskuratzeko. Gau areitan dana arakatu eban, satsa bera be **bai**, iguingarria izan arren be jateko zerbait aurkrtzeko.

"Nire etxea aundia ta nasaia zan. Eta egia esateko agurea **be ez zan ain txarra**. Gogoan daukat zelan etorten zan gauero niri begiratzera. **Edo** zelan gau baten osagillea ekarri eustan belarritik elduta ilten nengoalako. Baiña **nitzat etxea ta agurea txikiak ziran**. **Orain gauza oneik dira txiki** biurtu jatazenak. **Berak nai** izan ba'leu **aurkituko nindun eta txekeak dirala-ta**, ondatu egingo **nindun; baiña ziur-ziur isidu ta ordaindu** egin dauz. **Eta orain ara** urreratuko ba'nitz? Besterik ezean alboko **mendrxutik ikusiko neuke eta a** etxea be ikusiko **neuke**. **Ori bat-batean gomutapenez bete jat**. Bear ba'da, **bidean aurkituko ba'neu, berak eukala errazoa eta nik txarto egin** dodala esango **neuskio**. **Ez ori barrero etxean artu nagian, neure ustez txarto egin dodala jakin dagian** baiño, **Geienean be**, emesetan asi azkero, **lan txikiren bat** emon dagistala esango **neuskio, noizean bein, naizta asko-asko** ordaindu ez".

Etixerantza urreratu **zanean, bere eskuak txirrifari ikutu** baiño be lenago, atepak **idegi egin ziran**. **Barruan jaia egoan eta berak laster igarri eban** bere omenez zala. Eta bera, boltzan **uste barik erioazan giltzak eskuan estutuz** zabalik egoan ate aretatik **sartu zan**. **Lk. 15,11-25**

XV. GAIA

MAITASUNA ERRI-AURREKO ARGITARA
(**Aikar-bizitzearen** jokabiderako oinarri-bideak)

**Maitasuna ez da Illunetan geratzen, argitara,
kaleetara, urietara urteten dau.**

Maitasuna,
agindu guztien laburpena,
kristiñauen bizitzako eragilea,
adiskideengan, parkatzean, etxean... agertzen da.
Ba-daukoz beste giro ba tzuk be,
ain etxe-girokoak ez diranak,
zabalago lez agertzekoak,
onei erri-girokoak esango dautsegu:
auzokoak, erri edo urikoak, lantegikoak, aberrikoak..., dira.
Kristinaua be maitalea da
eta olako artu emonetan izan be.
Bere bidea, guztientzat bidea.

Baifia zelan maitatu "**erri-maillan**"?
Zer egin bear da gizartean knstinau lez biziteko?
Zelakoak izan bear leukee gizarteak?

OARRAK

1. Gizonaren aide

Gizona ez dago bakarrik. Nai ta nai ez, gizartean garatzen da, gizarte barik gizonak ez dauko ezertan be aurrera egiterik, gauzarik txikienetan be ez.

Orregaitik, gizartea zelan eratzen dan, gizonen arteko artu-emon zeatzak zelakoak diran, erreztasun geiago edo gitxiago emongo jake gizonai, bertan bizi diranai, gizon lez aurrera egiteko.

Eta gaur, orain, gizarte-era askotan gauza asko dagoz gizonaren alde ez dagozenak, gizonari bear dauan neurrira eltzeko laguntzen ezdautsoenak...

Gizarteko **gauza asko ez dagoz** Jaungoikoaren bidean, Jaungoikoak gizonarentzat **gertatu dauan bidetik urrin dagoz, edo gizonari** laguntzeko diranen artekoak **ez dira.**

Beste aide batetik, gizon **asko alkartuta** gogoratzen doguzanean, **gizartea aitatzen dogunean, gauzak zelakoak diran agertzeko ikuspegia** aldatu egiten **da: Ona, gizonari laguntzen dautsona, ez bateri laguntze dautsona, guztien ona** baino, ona gizonik geinai laguntzen dautsena da; **guztien ona** da ba gizonen alkartea argitzen dauan araua.

2. Zuzentasun-bako maitasuna, gurruzkoa da

Maitasuna ez da beste barik, asmo onak eukitea. Maitasuna egite zeatzak **dira. Eta banakakoa ez dan giroan, alkar-bizitzan, ez dago bide bat baiño iñor atsipetu barik maitatzeko: Zuzen jokatzeta. Eta "Zuzentasuna, bakoitxari berea emoteko gogo sendoa" da, diño Ulpiano'k.**

Antxiñatik, **zuzentasuna iru arlotan banatzen da: Banakakoa**, onek banakakoen arteko artu-emonak bideratzen dauz, taldeenak be bai, baiña oneik gogozko **persona lez artzen diranean, eta arto onetan bardintasuna osoa da (saldu-erosietan, lan-itunetan eta olakoetan); Banatzekoa**, onek gizarteak banakakoakaz **dauzan artu emonak bideratzen dauz eta onurak naiz** zeregiñak bardintasunaz emoten dautsez (gizarte-babesa, gizarte diruak

5. Jaungoikoa **guri ateak** zabaltzen.

Miña, gaisoa, eriotzea, ez **dagoz gure** eskuetan, **gaiñera** datorruz. Baina beste gauza txar bat bai ba-dagoala **gure barruan: Pekatua**.

Guzlioak zomatzen dogu gure barruan jokera ori eta orreri jarraitu ezkero Jaungoikoaren bideetatik aldendu egiten **gara (Gaudium et Spes 13 z^s)**.Izatez jokera ori ez da pekatua. **Pekatua ori onartzea da**.

Eta ori askeak garalako: Geuk aukeratu geinke **edo Jaungoikoaren bideetatik ibiltea edo beste bide batzuk artzea**. **Baiña** askeak garalako, **erantzukizuna be geuk** daukagu, Jaungoikoaren erara **naiz beste eratar**a biziteko.

Orregaitik, **gure** uts-egite guztiak **ez dabe merezi pekatu izena**: Bakarrik gure salbamen-bidetik alboratzen gattuenak **eta ori jakiñez gaiñera** egiten dogunean eta erantzukizunaz jokatzen dogunean. **Orregaitik**, sarritan, pekatua ez **da izango** gauza **bat edo bestea egitea**, Jaungoikoagandik aldentzen gaituan eguneroko jokabidea artzea baiño.

Pekatua ez agiriko arau batzuk bete barik iztea, beste barik.

Pekatua gizonaren barrutik datorren ezker **(Mk. 7, 20-23)** ez da beste barik, **agiriko** arau batzuk bete barik iztea edo gizonari beteteko **ezarri jakozan** lege batzuk alboratzea, **gizonak bere aldetik askatasunez eta** arduraz J au ngoo ko agandik urrintzen dauan bide bat artzea baiño eta gero bide orretan sarritan arauak eta legeak bete barik izten **dauz**.

Eta pekatuak, Jaungoikoagandik **aldentzen gaituanean, gizon lez be** ondamendira **garoaz**. **Gure elburua ta** zeregiña Jaungoikoak gizonari ezarriak dira eta orreik ez betetea galtzea da.

Baiña pekatuak ez gaitu Jaungoikoagandik bakarrik aldentzen, Besteengandik be aldendu egiten **gartu**. **Pekatu asko zuzen doaz Jaungoikoagana**, gizonen aurka zuzen doazelako. Pekatu egiñaz, beste barik, gizonen **elburutik** alboratzen gara eta elburu au gizonak alkarragaz bete bear daben **elburua dalako**, pekatuak gizonen alkartea **apurtu egiten dau eta** alkarte **orretatik** kanpoan izten **gaitu**. **Eta** Jaungoikoaren **erritik be** kanpoan, guztiok

gorputz **bal** garan ezkeru (Kor. 1,12). **Eta gorputz-atal bat gorputzetik kentzen danean gorputz osoak galtzen dau. ez atal orrek bakarrik: Pekatuak Eleizatik aldendu egiten gaitu eta kaltegarri jako Eleizeari.**

* **Baiña Jaungoikoak atek zabaltzen dauskuz**

Juda'tarren erria, Apaltasunaren arauak beteten ez ebazanean eta pekatu egiñez Jaungoikoaren bideetatik aiboralzen zanean, Jaungoikoak ez eban bertanbera izten. Parkamena emon eta maitasuna bamztatzen eutson. Orregaitik, aurrerantzean, erria beti joaten zan Jaungoikogana eta beti ekian Jaungoikoak onartu egingo ebala.

Eta orrek azalpenbide bat baiño ez dauko: Jaungoikoak maite dauala gizona eta maitasun onek parkamena emotera daroala.

* **Eta Jesus'ek atek Idegiten dauz**

Bere abotsak diñosku Jaungoikoak pekatariari dauksen maitasuna zelakoa dan, seme ondatzaellearen ipuiñaren bidez (Lk. 15, 1-24). **Guk ipuin ori nasai-nasai artuta azaldu dogu, zati bat beintzat, 4n. saillean.**

Baiña **Jesus'ek ez dausku maitasuna zelakoa dan esan bakarrik egiten, berak ori bizi dau: Pekatariakaz jaten dau, eurakaz alkar-bizitza egiten dau, eta errukiturik beste iñongo gizonak, gizon utsa dalako, esan ezin leikioen au esaten dautse: "Parkatzen jatzuz zure pekatuak".** Eta almen aundiago bear da -Jaungoikoaren almena"- pekatuak parkatzeko, gaisoak osatzeko baiño.

Jesus'ek pekatariari dauksen maitasuna, bera maite ez dabena kartik bizia emoteraiño eltzen da. Eta gure pekatuakaitik illaz, pekatu orreitatik atera egin gaitu.

* **Kristiñauentzat atek zabalik dagoz**

Parkatuak diralako, bai, **baiña euren bidea, Jesus'ena bera, ez da eurak maite dauzanak bakarrik maitatzea ("Zein izango leiteke zuen irabazia?") eurakandik urrin dagozenak be bai, euren laguna ez dana be bai (Mt. 18, 21-35): Kristiñauak Jaungoikoak parkatuak dira, baiña eurak Jaungoikoari dautsoen maitetasuna eta besteai dauksena iraiñak parkatzeko bidea da.**

6. Parkamenerako sakramentu bat

Zeatzago esateko, Jesus'ek bere erria dan alkartean sakramentu bat emon eutson, parkamenerako bide lez: Autortza, Penitentzia edo baketzea deritxon sakramentua.

Izenak eurak agertzen dabe naikoa ondo zer dan: Penitentzia damutzen danaren biotzeko miña da; autortza'k pekatua erriaren aurrean adieraztea esan nai dau, baketzea'k ondoren lez sortzen dan Jaungoikoa-gazko ta geideagazko adiskidetasun barria agertzeko da.

Sakramentu au Jesus beragandik datorku. Berak emon eutson eleizeari lotzeko ta askatzeko eskubidea (Mt. 16-19). almen au argi-argi sendotu eban bere berbikundearen ondoren (Jn. 20, 21-23). Eta gaur Eleizeak almek oneik agertzen dauz Bateoan (Eleizara sartzen gara eta aurretiko obenak parkatzen jakuz) eta Penitentzian (Jaungoikoaren adiskidetasunera eta alkartetik urrindu garanean, alkarkide barriro izatera) biurtzen gara.

Gure pekatuak Jaungoikoari eta alkartean ikuteten dautsolako, parkamena be Jaungoikoandik eta alkarteagandik datorku: Abadea, Jaungoikoaren serbitzaiilea da, eta alkartearen ordezkaria be bai, eta berak eskintzen dautso kristiñauari parkamena, erri-aurrean, biakandik urrindu egin dala autortzen dauanean.

Baiña parkamena ez da lortzen sakramentuak dauzan egitekoak beteten diralako; benetako biurtze egoerea bear da (Ik. BUP'eko 1^{fi} urteko IX gaia): Txarto egiña txartzat artu eta bide batera, Jaungoikoaren bidera, biurtu. Eta, jakiña, egindako kaltea bardintzeko, ordaiña eskintzeko, berbea emon.

Onelan kristiñauak bere bizitzan pekatua aurkitzen dau eta bidea artzen dau barriro, Jesus'en eskerrak txarrak geiago egiten dautsola.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu zer esan gura daben berba oneik: Igortza, igurtzia, orioa, alkar-mintzea, errukia, lege-austea, pekatua, errua, zigorra, damua, autortza, baketzea.

Irakurri... "Seme ondatzaillearen" ipuin osoa. Aurkitu or Penitentiaren zatiak.

Aztertu... Zelakoa dan etxera etom zanaren anaiaren jokabidea, ipuin orretan.

Urreratu... Job'en kondairan (gogoratu BUP'eko 1^o urtean Bilbian diran elerti- erai buruz ikasia). Gero egin í<as-gelan txarkeriari buruz eztabaidatzea.

Billatu... "Anaitasuna" izena daroan (anaia) alkarte batek nortzuk batzen dauzan eta zer egiten dauan.

Aurkitu... "Atbotik igarotea" diran personen eta gizartearen egoerak daukezan berezertasunik ugarienak.

Ikertu... Gaiso-etxe bat.

Azaldu... Eta emon eritxia esaldi oneri buruz: "Neke-artzeak gizona eldu egiten dau^M.

Ezagutzen dozuz... Besteen nekeak arintzeko diran lekaide-lekaime-sailleak?

Aurkitu... Besteai "ateak itxiten dautsezan" bakotxaren eta gizartearen jokabi-deak.

Ikasi... Benetan eta ez berba lez bakarrik, berba orreik zer esan gura daben eta ipiñi alkarren parean: Askatasuna, erantzukizuna, errua, zigorra, pekatua.

Billatu... Nondfc datorren eta zer esan gura dauan "sinpatia" berbeak, "alkar-mintze" berbeak eta esan biak errukiagaz dauken zer-ikusia zein dan.

Batu... Ebanjelioetako lau zati Jesus'en eta pekatarien arteko artu-emonak azaltzen dabezenak. Esan labur zelako artu-emonak eukazan Jesus'ek Pekatariakaz.

Zeintzuk... Dira gaurko gizartean geien egiten diran pekatuak? eta pertsonak banaka egiten dabezenak?

Gertatu... Ondo alkar-penitentzi aren ospakizun bat.

Esaldi au... "Nik parkatu egiten dot. baiña ea aiztu" izan leiteke orrelan? Kristiñau- bidekoadak?

XIV. GAIA

GURE ELBURUA: MAITASUNA

(Ezkontzea, Sendia, "Zeruetako Errefu agaitik" ezkongetasuna)

**Maitatzea ez da bestearen begietara begiratzea,
batera leku baterantza begiratzea baiño.**

Gizon bat eta andra bat alkar maite diranean, ez dabez **euren** gorputzak alkartzen, beste barik. Euren maitasunak bizitzak alkartzera eta alkarragaz ibillaldia egitera daroez. Maitasunez alkartzen diranak bateatuak diranean Ezkontzea Kristo'k emazte dauan Eleizeari dautson maitasunaren **ezaugarria da**.

Baifia eskontzea ez da azkenengo ekiñaldia andreak eta gizonak batera egin beardaben ibilliakjearen asierea baiño.

Eta ibillaldi au sendi-barruan egiten da.

Sendian asten **da bizitzea, bizitzarako eldutasuna lortzen da eta larri-
uneak eta** eragozpenak azpiratzen **dira**. Sendian baita, fedea sortu eta eldu **bere**.

Baifia ba-dagoz gizon batzuk eta andra batzuk ezkontzea alde batera **itzi**, eta sendia osotzeko ametsa alboratuarren maitasuna alboratzen ez dabenak.

* * * & * &

Oarrak

1. Edonon eta edonoz

Umearoaren eta gaztetxu-aroaren bitartean egoan lerroa igaro gendua-ne-tik, beti gagoz maitasunari buruz berba egiten eta entzuten, maitasunari buruz pentsaten eta ori sentitzen:

- Zenbatetan maitemindu ta otzitu **garan**, lenengotatik!
Neska ta mutil adiskideen artean zein izan ete da berba-gairik **ugarie-na?**
- Zergaitik daukagu ainbesteko **ardurea** gure gorputzari begira?
- **Zeintzuk izaten dira** geienetan gure pentsamentuak? eta gure **ametsak?**
- Benetan, ete dago **abestirik zelan edo alan maitemiña** aitatu barik? eta pelikularik? eta elebarririk?
- Eta or dagoz adiskideak edo adiskide baino geiago **diranak...**
- **Eta or dagoz maiteminduak sarritan izen au erabili ez** arren,
- Or dagoz, baita, eskontzen **diranak...**
- Eta ezkontzea austen dabenak...

Orrelan **ba**, ba'dago, alkartzea ta banatzea maitasun-abotsen abestaldi onetan, maitasuna zomatzen dabenak, maitasuna **daukenak eta ez** daukenak...

Batera ta leku baterantza begira

Baiña matasuna ago-miñean erabilten da **ondo** doanean eta apurtzen danean. Egunero **ikusten doguz** apurtzen **diran maitasunak,otzftuten** diran maitemiñak, **erantzunik** ez dauken boitz-miñak, banatzen diran bikote **ezkonduak, orregaitik askok maitasuna ipuin utsa dala diño**e, **pelikuletan, abestietan eta elebarrtetan** baiño ikusten ez dan gauzea.

Maitasuna zeregin bat da eta
sarritan aldatz-gora doa.

Izan be maitasuna ez da "begietara begiratzea" **beste barik**. Maitasuna bide luzea ta gaitxa da eta bizitza guztian, lenengotan banaka ta gero alkartuta. **Eta gizon asko ta andra asko bide-aldiren baten geratzen dira eta euren maitasuna ez da sendotzen.**

Maitasunerako bidea ume-denporan asten da. Gizonak umea dan arieen ezin dau benetan maitatu, umearen izat mundu osoa bere inguruan dabil-ela. Maitasuna, ostera, beste baten inguruan ibiltea da. Batzuk aundiak eginda gero be, mundua euren inguruan ba'lebil lez jokutzen dabe eta olakoak beti dagoz ume-aldian, ez dauke inoz maitatzeko almenik.

Maitasunerako bideak gaztaroan jarraitzen dau. Adin onetan kontuan artzen asi dira gorputza daukela eta gorputzak beraganatzen dau arreta osoa. Eta une orretan be maitasuna eziña da, maitasuna besteari begira egotea dalako eta ez norberari. Batzuk aundi egiten dira baiña beti jarraitzen dabe euren gorputzaren menpean, olakoak beti dira gaztetxu, eurentzat eziña da maitasuna.

Bakoitza bere eldutasunera ertzean danean, andreak naiz gizonak, barruz naiz kanpoz eldutasuna lortu dabenean, orduan dauke maitatzeko almena. Orduan dira gai biotz zabalez emoteko, norberagandik urten eta besteagana urreratzeko.

Orixe da bakoitxak bizitzearen edesti ederra asteko sasoi: Andrea eta gizona bidea batera egiten asten dira ez "batak bestearen begietara bakarrik begiratuta", biak "elburu baterantza begiratuta" baiño. (Peguy), Argiako esateko, andrea ta gizona emoteko ta nekea artzeko gai diranean (ez laguntzak artzeko bakarrik) orduan asten dabe bizitzearen eginbide alkarbanatua, biena dan etorkizuna alkar maitasuna elduago izateko bide lez. Etorkizun orretan maitasunak beti izango dau ondamendiaren arriskua, bidearen elburura eldu ez dalako, bidea egiten doalako.

3. Maitasunaren lekua

Elburu gaitxa izan arren, gizonaren elburua maitasuna da. Orregaitik, txarto urteteko arriskua izan arren, andreak eta gizonak maitasuna billatzen dabe: ezin dabe maitatzea edo maitasuna artzea alde batera itzi, gizona edo andrea izatea bera itzi barik.

Maitasunaren bear-izana, maitasunerako deia, sakona da eta ezin leikez bete une edo aldi baterako ekintzakaz. Beteteko bide bakarra andreak gizonarentzat edo gizonak andrearentzat eskintza osoa egitea ba, biak alkarrentzat oso-osoa emoten diran eskintza. Eta alkarrari oso-osoa emonda ez dagozenez, ez da benetako maitasuna alkarrari begira agertzen dana. Alkarrari emote oso au auxe agertzeko da:

- **Alkar maite diranak bakoitxa bere aldetik eta bere lekuan ezin dirala bizi; euren bizitzea alkar banatu eta eginbide bakar bat bele bear dabe.**

Bien artean **ez daukala lekurik ez guzurrak eta ez alkar atsipetzeak: Alkarrentzat zintzoa izatea ez da ezarritako gauza bat, maitasunetik sortzen dan gauzea baiño, izan be, persona bat maite ba'da ezin da benetan maitatu beste bat eta zintzotasunik ez dagoanean ez dago benetako alkar bizitzarik.**

- **Bikotearen alkartasuna** gorputzen **batasunean agertzen da; orre-gaitik**, alkartasun onek **ez dauka** benetakotasunik maitasun bank.
- **Eta maitasun au, edozein maitasun lez, bere barrutik urten eta luzatu egin bear da: bizitzak alkartzetik eta gorputzak bat egitetik seme-ala-bak datoz eta oneitan luzatzen da bikoteraren maitasuna.**

Ez dago "leku" bat baiño olako maitasuna bete al izateko. Eta leku ori ezkontzea da. Alkar-emote oso au, konturatuta eta askatasunaz ezkontzea aukeratzen danean baiño ez da beteten.: Orduan bizitzarako egitasmo bardiña alkar banatzen da, gorputzak alkar maitasunean batzen dira, zintzotasuna zaintzen da eta maitasuna seme-alabengan luzatzen da.

Baiña **leku au, ezkontzea, ez da maitasunaren elburua edo bidearen azkena. Asierea da ziurrago. Gizonak eta andreak artzen daben** erabagitik asita, **biak batera egiten dabe bizitzearen bidea. Edo bardin dana, pozak eta arazoak, gauzak ondo nálz txarto urteteak daukazan maitasun-bidea.**

4. G i z a r t e - e r a k u n d e b a t b a i ñ o g e i a g o

Emondako berba sendoagaz, **baietz** sendoagaz, **bikoteak erakunde bat sortu dau** gizarterako: **Ezkontzea. Eta, gizarteko erakunde lez,** ezkontzeak erri—lege **batzuk daukaz.**

Baiña ezkontzen diranak erritarrak izatez gaiñera, erri-legeak e ukiteaz gaiñera, bateatuak be ba-dira.

Eta Bateoa **(ikusi Viii gaia) Jesus'en** jarraitzaileen alkartera sartzeko bidea **da. Eta alkarre onetakoak diran andra eta gizona ezkontzen diranean, ez dabe erri-giroko ezkontzea bakarrik egiten, Jaungoikoaren aurrean be ezkontzen**

dira, eurak osotzen daben Eleizearen aurrean be bai. Eta maitasunerako berbea lekuko **baten** aurrean **emoten** dabe, alkartearen eta Jaungoikoaren izenean dagoan abadearen aurrean.

Eta orrelan kristiñauen eraz, **euren** maitasunaren ibil-bidea asten dabe. Baiña bide au ez da bide erreza eta Jaungoikoak ez **dau bide** orretan **bakarrik izten iñor, bere indarren eskuetan bakarrik**. Bikoteak bere **maitasuna zaintze-ko** Kristo'ren maitasuna dabe laguntzaille eta au ezkontza barruan era berezi baten izango dabe. Ezkontzea **sakramentua be ba-da, Jesus'ek berak** ipiñia **eta ezkonduak maitasunerako berbea emoten dabenean artzen dan sakramentua: Kristo bere ematze dan Eleizeagaz** alkartzen **dan eta** beronen alde nekeak artu eta il zan antzera, alkartzen dira **senarra ta ematzea eta** alkartze onek **Kristo'k Eleizeari** dautson maitasuna agertzen **dau**. Alkartzen **diranak ez dira euren gorputzak bakarrik edo euren bizitzak bakarrik**, euren fedea be banatzen dabe bien artean.

Eta Jaungoikoak gizonai dautsen maitasuna osoa dan eta aldika beteten **ez dan antzera, Kristo'k Eleizeari dautson maitasuna osoa dan eta** zatika beteten **ez dan antzera**, bein betiko beteten dan lez, gizonak eta andreak daben maitasuna be alkarrari emote osoa izan bear da (eta **orrelan izan** ezik, **ez da** maitasuna) eta ez aldi baterako gauzea: betikoa. Orregaitik ezkontzea **ausi-eziña da. Ezkontzeko** erabagia artu **baiño lenago**, askatasunaz **eta** arduraz pentsau bear da. Askatasun **eta ardura aundiaz**, baiña bein berbea **emon ezkeror, betiko eta baldintza barik emoten** da. Eta orrelantxe egiten **da** ituna, Jaungoikoaren eta gizonen **aurrean eta** Jesus'ek esan eban lez, gizonak "ezin leikee banatu, Jaungoikoak alkartu dauana".

Ezkontzea maitasunaren lekua da.

5. Bidea sendian egiten da

Gizona ta andrea ezkontzen diranean, maitasunaren bidea asten dabe batera. **Eta une orretatik bide au ez da bakortxak bere aldetik egiten**, taldean, sendian baiño.

Sendia gizonaren eta andrearen alkartasunean asita egiten da: Maitasunak bere barrutik urten egin bear **dau**, serne-alabetara luzatzen da. Orregaitik **sendiaren oiñarría aragia ta odola dira. Baiña** bere zeregiña aragia ta odola baiño goargo **dagoz**, ez dalako **bizi barriak sortzeko, bizi barri orreik** alde **guztietatik eldutasunera eroatea** lortzeko baiño. Ez da ba, alkarregaz bizitea

bakarrik, alkarragaz bizi **osoa eukitera eltzea baiño**: Bizi osoa gorputzez, gogoz, gizartez. erlejiñoz... la gauza guztiak aurkitzen doguz sendian: izkuntzea, barrea, lagunak, maitasuna, fedea,..

Sendia, senideak eldutasunera eltzen diran artean bera be eidutasunera eftzen dan taldea da. Bere elburua ez da bizia emotea, batez be senideak maitasunerako almena izatea lortzea baiño. Eta ori baiño be geiago oraindiño, seme-alabak be maitasunez auren sendiak sortzeko gai izatea lortu bear dau.

Baiña beste edozein **taldetan sortzen diran lez, sendiaren aurrerabidean be izaten dira larriuneak, arazoak. Sendian guztiak izaten dabe zer-ikusia guztiakaz eta ez da izaten arazo berezirik, arazoak taldean ikututen dautsoe. Larriuneak zintzotasunarenak, atkar-bizitzearenak, artu-emonetakoak, adin ezbardinen alkar ulertu-eziñak, astiñk-eza, gauzak eskuratzeko guraria ta olakoak izaten dira. Olako larriuneak sendia apurtu be egin ieikee eta apurtzera eltzen ez ba'dira be, senideak banatuta geratu leikez eta taldea sakabanatuta. Baiña larriune oneik azpiratu be egin leikez, maitasunak aurrera jarraitzen dauanean, eta alkarren artean dauken egitasmoak eragozpen guztien gaiñetik, bidea batera egiñez aurrera jarraitzen dauanean. Maitatzea ta alkar-banatzea beti gauza errezak izan ez arren, maitasuna **bakarrik da naikoa arazoak bideratzeko: Ezkontza-austea, apurtzea, ez da arazoak bideratzeko, arazoak aundiago biurtzeko baiño.****

Sendiak barrurantzako ikuspegia dauko, baiña **kanporantza be** begiratu bear dau. Bera **gizartearen gelatxu bizia, ormea egiteko bear dan zoia. Orrexegaitik daukaz eskubidea batzuk eta eginbear batzuk, ez berari begira bakarrik, gizartean begira be bai. Orrexegaitik dauka laterriak bera zaintzeko eginbearra eta lenengo sendiak izan al izatea lortzeko, gero aurrera jarraitu al dagien bere alde dagoana indartuz (Familiaris Consortio 46) eta bere aurka joatea **gizartearen aurka jokatea da, zoiak apurtzea ormea ezin egitea dan antzera... Eta sendiak, bere aldetik eskubidea ta eginbearra dauko erribiz'rtzara sartzeko, ormea egiteko...****

Bakarrik ezin dogu ezer. Sendian ia dana ikasten dogu.

Sendia bai, baifia bateatuena

Sendia ez da, beste barik, gizartearen gelatxu bizia. Eleizearen gelatxua be ba-da. Izan be, sendia osotzen dabenak euren bizitzak alkartzen dabez eta orrelan euren fedea alkartzeko bidea be ba-da. Eta gaiñera sendia osotzen dabenak bateatuak eta era berezi baten alkartuak dira.

Sendian bizitzara sartzen dan antzera, sendian urreratzen gara federa eta federako barrero jaioten gara: Sendiak bideak idegiten dauskuz Jesus'en jarraitzaileak izateko.

Eta sendian bizitzarako ta maitasunerako eldutasun-bidea egiten dan lez, sendian lortzen da fedearen aurrerapena ta eldutasuna be: Antxe biziten dogu batera eta egunero Jaungoikoaren egitasmoa.

Sendia Eleizeagaz lotuta dago Bateoaren et Ezkontzearen bidez eta fede-bizitzan aurrera egiten da sendian alkarragaz otoitz egiñaz, sakramentuak batera artuaz eta guztien artean senditik kanpora eginberrak beteten aleginduaz. Sendia Eleiza txiki baten antzekoa ba da, irudi bat lez da eta antxe Basi daiteke Eleizea dan lakoa: Martetsua, ugaria, batua, zintzoa.

Sendia, Jaungoikoari begira dagoalako, ezin leiteke bere barrua itxita bizi, beste gizon guztiakana zabaldua baiño, beste sendiai eta alkartearen laguntzari begira; Maitasunak bere barrutik urtetzen ez ba'dau ez da benetakoa maitasuna.

7. Maitasuna ez dau inok alboratzen

Ezkongetasuna. Neskutzasuna

Ezkontza ta sendi bidea ori izan arren, nori batzuk ez tautsoe bide orreri jarraitzen, gizon batzuk andra bateganako maitasuna itzi eta sendia sortzearen bidea ez dabe aukeratzen. Eta emakume batzuk be senarraren eta seme-alaben maitasuna aide batera izten dabe. Olakoak zorotzak artzen dabez batzuk, beste batzuk bildurtrizat, beste batzuk norberekoizat... Izan be ez da gauza erreza maitasuna alde batera iztea ulertzea, orixe dala gizonaren elburua eta ori inok ezin daikela itzi gizona izan nai ba'dau, sinisten ba'dogu.

Baina kontuz! ori egiten daben andrak eta gizonak ez dabe maitasuna benetan alboratzen. **Maitasuna da orretara bultzatzen dauzana, gizon bat edo emakume bat bereziki maitatzea bai izten dabe, baiña ori maitasuna Jaungoikoagana eta gizon eta andra guztiakana zuzenzen daia agertzeko egiten dabe, euren bizitzak Jaungoikoaren egitasmora osoan eskintzeko eta besteen taguntzan igaroteko. Egiten dabena ez da ezkontza txartzat artzea, ezkongetasuna aukeratzea baiño: Ez dabe maitasuna alboratzen, maitasunaren era bat da alboratzen dabena beste era bat aukeratzeko. Orixe zan Jesus'ek orretarako almena eukenai, Jaungoikoaren Erreiñuagaitik ori egiteko gertu egozanai (Mt. 19,21), egiten eutsen deia.**

Andra ta gizon oneik abadeak, lekaideak eta lekaimenak dira.

Krlstifiau-erriaren laguntzarako

Eleizea erri bat da eta erri ori fede bakar bat ezagutzen eta autortzen daben dandra ta gizonak, sakramentu bardiñak ospatzen dabezenak, antzeko bizitzea alkarragaz daroenak osotzen dabe, oiñarrian fedea, itxaropena eta maitasuna daukezela. Erri au, mundu osoan zabalduta, parroketan eta alkarteetan banatzen da eta parroki ta alkarte oneik euren laguntzarako diran zerbitzailleak bear dabez, fedea janaritzeko, sakramentu-ospakizunak zuzentzeko, bizitzak Jesus'en antzeko bideetatik aurrera bideratzeko. Persona orreik kristiñauen alkartearen aurrean Jesus'en ordezkoak dira, Jesus'en izanean egiten dabe euren tana, batasunaren lokarriak eta Jaungoikoa-ren ezkutukien banatzaileak dira. Eleizearen zerbitzaille oneik abadeak dira, lan orretarako abade-dei berezia izan dabena, Jaungoikoaren aldetik, eta abadegintzako sakramentuaren bidez zeregin onetarako sagaratuak izan diranak. Kristo'k bere apostolui emon eutsen bere abade-zeregiña (Lk. 22, 19) eta mundura bialdu ebazan (Jn. 20, 21-23) (Mt. 28, 18-20). Apostoluak sakramentu ori gotzainai emon eutsen oso-osoan eta oneik beste gotzain batzui oso-osoan eta abadeai beragoko mailla baten. Abadeak Jaungoikoaren gizonak dira, baiña Jaungoikoaren gizonak, gizonen artean.

Abadetza ta ezkongetasuna

Ezkongetasuna, Jaungoikoaren Erreiñuagaitik oso-osoan eta betiko ezkongea izatea, ez da abadetzak berez eskatzen dauan gauzea. Eleizearen lenengo aldietan abade asko ezkonduak ziran eta gaur be sortaldeko Eleizan

abade ezkonduak eta ezkongek **dagoz**. Baiña beste alde batetik egia da baita, abadetzaren **eta ezkongez izatearen artean alkartze aundia dagoala eta gauza egoki lez ikusten dala**. Orregaitik, **latindunen eleizan abadetzara ez jake dei egiten Jaungoikoaren doi ori daukenai baiño, ezkongez biziteko gertu dagozenai**.

- **Ezkongetasuna, Jaungoikoari eskiñita bizitearen ezaugarria da, baita gizonari eskiñita bizitearen ezaugarria be, eta orrelantxe bizi izan eban Kristo'k eta "bizi barriaren erakutsi lez agertzen da, izan be "bizi barri" ori "Jaungoikoaren Seme" izatea onartzen dabenai emoten jake eta olakoak ez dira jaió ez odoletik eta ez aragitik, Jaungoikoagandik baiño.**
- **Ezkongetasuna eleizeari egiten jakon eskintzaren ezagurria da eta abadeak eskintza ori sustrai-sustraiari bizi izango dau: Abadea Eleizeagaz ezkontzen da eta ori adierazten dau bere ezkongetasunak.**
- **Ezkongetasuna zeruko bizitzaren ezagurria da eta "senarrik ez amaterik ez da artuko" (Mt. 22, 30) eta bizitza onetako gauzetatik gorago begiratzen ikasteko deia da.**
- **Ezkongetasuna ez da ezagurri utsa, biotz osoa Jaungoikoari eskintzeko erreztasuna emoten dauan bidea da (Kor. I, 7,32-34) Kristo'ri, Eleizeari eta Jaungoikoaren Erreifiuko balioai eskintza osoa egiteko bidea erreztuten dauana.**

Lekalde-lekalmeen sailleak

Gaiñera, eta au be Eleizearen asieratik, **izan dira beste persona batzuk** Jesus'en jarraipen-arloan ere berezi bat aukeratu dabenak. Onek ebanjelioan **agertzen diran** aolkuen aukerapena egin dabe (**txirotasuna, garbitasuna ta esanekotasuna**), baiña aolku onek sustrai-sustraiari artuta. Olako norten inguruan beste norki batzuk batu dira eta **ortik sortu dira, gizaldien joanean lekaide-lekaimeen sailleak. Batzuk otortzerako dira, beste batzuk txiro ai, gaisoai eta zarrai laguntzeko, beste batzuk umeak eta gazteak azten laguntzeko, baiña guztiak dauke batera gauza bat: mundu onetan ezaugarri dirala.**

- Jesus'en ezaugarri eta beronen antzeko bizitzea daroe Jaungoikoa-
ren eta besteen zerbitzioan,
- Ebanjelioko gizon barriaren ezaugarri, apaltasunez zabalik Jaungoi-
koaren aurrean eta senideai biotz zabalaz eskiñita.
- Gero izango dogun mundu barriaren ezagurri, an oso-osoan biziko ga-
ra mundu au amaitzen danean eta an ez da izango zuzentasuna, mai-
tasuna, egia ta Jaungoikoa osoan artzeko izatea baiño.

Lekaide-lekaimeen ezkongetasunak egoriko agertzen dau "Jesus'en antzeko izatea, eurak ezaugarri dauzan gizon barri ta mundu barriaren izakera au. Orregaitik artu dabe ori Jesus'en jarraitzeko era berezi bat lez. Eleizeak orretan Espirituaren frutu bat, Eleizearentzat laguntza neurtu-eziñeko bat eta munduaren laguntza txalogarri bat, ikusten dau,

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu berba onein esan-naia: ezkongetasuna, alkar-bizitzaren larrialdia, maitasuna, seksua, deia, baliorik-eza, ezkontza-austea, banatzea, atzeratu-eziña, berba emona, esku-sariak, sortzea, ugaritasuna, birjintasuna, garbitasuna, lokarriak, sagaratzea.

Ezarri... maitasunaren eta adiskidetasunaren arteko antz-bidea. Antzak eta aldeak.

Zer esango zeunskioe... ezkontzeko dagozan bfcote bateko lagunai gai au ulertu ondoren?

Azaldu... Ef. 5, 22-23.

Aztertu... zure sendia zelakoa dan, zelakoa izatea nai zenduken. Itaunketa txiki bat egin eta batu danak sendia! buruz daukezan eritxiak eta noraiño dagozan sendiagaz batera edo banatuta.

Batu... ezkontza-austeari buruz legeak eta eleizearen eritxia.

Eztabaidatzea... ezkontza-austeari buruz legeak eta eleizearen eritxia.

Irakurri... Familiaris Consortio Aita Santiaren aginaren 46 zenbakia.

Asi... eskolan "jaiotzen zenbakia" neurtzeari buruz eztabaidatzea.

Esan labur-labur... HumanaeVrtae Aita Santuaren agirian buruz bere gaia.

Egln... idaz-lan labur bat gaia au dala. "Sendia, telebista ta ni".

Zein da gure eritxia orain... "ezkondu-aurreko artu-emonai buruz?

Zeintzuk dira... gaurko abadeen alderik onenak eta akatsik aundienak?

Ipiñi alkarren parean... gaurko gizartean maitasunari buruz pentsatzen dana eta gai onetan ikusia.

Gertatu... Disko-foruna maitasunari buruz. Orretarako ikasle bakoitxak gai au dauan abesti bat ekarri begi ikas-gelara.

Zuk uste dozu...? lekaimete itxi batera doazen emakumeak bildurragaitik edo bizitzan gauzak txarto joan jakezelako doazela?

Asmau... martasun-giroko kondaira bat.

* * * * *

txautzea, esaterako); Gizarterakoa, onek banakoak gizarteagaz daukezen artu-emonak bideratzen dauz, bakortxak guztien onerako dagokion neurrian lagundu dagian (zergak, gudaritza, eta abar)

Baiña zuzentasuna benetakoa:

- bere eginberrak ez dauz mugatzen legea beteteaz, bakotxaren gogoia ikusten dau, bakoitxari berea, eskubidezkoa, emoten dautso;
- ez dauz mugak banakakoen arieen ipinten, banakakoen arteko zuzentasuna baiño besterik ez ba'lego lez (eta onen zati bat gaiñera), laneko artuemonak, banakoak gizarteagaz dauzanak eta gizarteak banakakoagaz dauzanak begiratzen dauz;
- ez da mugatzen legeak beteteen, aldean daroa legeak aldatzeko indarra be, batez be legeak erritar guztiai laguntzeko eta euren eskubideak beteteko bear dan besteko itzaltasuna agertzen ez dauanean.

Zuzentasuna eta kristiñauen maitasuna ez dira gauza bat bera. Kristiñauen maitasuna Jaungoikoaren maitasunetik sortzen da eta persona bakoitxak Jaungoikoaren irudi lez eta Jesus'ek salbau dauan norbait lez daukan balioa aurkítzera garoaz eta Nazaret'eko Jesus'engan eta kristiñau bakotxaren bizitzan agertzen da; orrek esan gura dau, maitasuna bide dala, gizon bakoitxaren eta gizon guztien nortasuna, duintasuna aintzat artzen dogula; eta maitatzeko Jaungoikoak emoten dauskun indarra ta grazia artzen doguz. Orrelan, maitasuna erlejiño-gaia da.

Eta zuzentasunak gure erlejiño-bíitzearen eskariak dauan giza-gaia eskintzen dausku: Biotz zabalaz neba-arreben artean zer emon bear dogun mugatzen dausku.

Baiña zuzentasuna ta kristiñau-maitasuna ez dira banatu bear: maitasunak zuzentasunera daroa (bestea maite izatea, bere eskubidea zaintzea da, zuzentasuna egin eta bere alde ekitea) eta zuzentasuna bere gorengo maillara eltzen da maitasunean (maitasun onegaz, geidea ez da beste bat, anaia baiño, edo geiago Jesus bera anaiagan; eta olako maitasunaz graziak indar barriak damoskuz, emoten dogun laguntza zuzentasun utsa baiño biotz - zabalagokoa izan daiten: "eriotzaraiño" Jesus'en antzera.

3. Maitasuna, gogorkeria alboratzen?

Gogorkeria ezin izan daitekela kristiñaua diño, maitasunak bakea billatzen ei dau, ez alkar-joteak. Beste *batzuren ustez, oster, kristiñauen* maitasuna ez da zuzentasuna billatzeko bidea, ekintza gogorak alboratzen dauzalako, eta ekintza gogorak bearrezkoak ei dira *zuzengekerlaren* aurkarako.

Zein da kristiñauen benetako jokabidea? Gogorkeri guztien aurka jartea? Ala zuzengekeriaren aurrean isildu ori konponízeko gogorkeria bear dalako?

Baiña gogorkeri guztiak be ez dira bardiñak. Batzuk erakundeenak dira eta oneik egiaaren aldetik eta banakoen aurka artzen dira, edo taldeen aurka (politika egituraren, eziketaren, espetxeetako jokabidearen, poliziarioran...) Beste batzutan gogorkeria glzarte-egokieraren aurka izaten da, legezko gizarte erakundearen aurka, oneik zuzengeak diralakoan (gem'liak, iraultketak eta abar...) Gogorkeria nastatzalliea izan daiteke, izukerizko gogorkeria, zuzen ezarrita dagoan egokitasuna "nastau" nai dauan gogorkeria. Izan daiteke, baita guda-giroko gogorkeria, gudeak berak dakarrena (ik. II gaia). Ba-dago, baita, eglñkorra dan gogorkeririk-eza. Onek eginkortasunez jokatzen dau erakundearen gogorkeriaren aurka, baiña bere jokabideak beti izaten dira bakezkoak (agerpenak, kontzientzi-sortzeak eta olakoak).

Edozein kristiñauentzat, gogorkeriaren eta bakearen artean aukeratzea egin bear danean, aukerapena erreza da: Bakea aukeratu bear da beti, gogorkeria, gizonen edo gizarteko taldeen askatasunaren naiz biziaren aurka doan neurrian, gauza txarra dalako eta gaiñera, gorrotora ta erantzun bardiña emotera dei egiten daualako, eta oneik kristiñauen alkar-maitasunaren aurka doaz, iñoiz amaitzen ez dan gogorkeria goratzearen bidera daroe.

Baiña beste une baten etorten da kristiñau batentzat arazoa: egoera zeatzen aurrean aurkitzen garanean; olakoetan aukeratzea ez da izaten bakearen eta gogorkeriaren artekoa, dagoan gogorkeria eroapenez artzearen eta onen au/ka jokatzearen artekoa baiño:

- Erakundearen gogorkeria danean: Gogorkeri au txana da, personen eta gizarteko taldeen eskubideak okerkeriz zapaltzen dauzanean. *Onartzekoa* da, gizartearen onerako baiña demokrazi-begiratze baten barruan diran neurritan egiten danean, (esaterako giza-iltzaille bal espeixerazten *danean*)

Ezarritako egokitasunaren aurka doan gogorkeria danean: Geienetan ondoren txarrak ugariagoak izaten dira (gorrotoak). Kristiñau lez ezin leiteke onartu luzaroko jauntxukeri nagusia dagoanean baiño, eta orduan be beste bide guztiak aurretik artuta, ondorena ona izateko itxaropen zentzunezkoa dagoanean eta despreziaztea, gorrotoa ta erantzuna jokabide lez alboratzen diranean.

Gogorkeri nastatzaillea danean: Au beti alboratu bear da, gogorkeri itsua ta gizabide-bakoa dalako. Baiña au bururatzen dausku: Zelako gizartea ete daukagun olako gogorkeri ulertu-eziña sortzeko.

Eginkorra dan gogorkeririk eza danean: Auxe da Berri Onagaz ondoen alkartzen dana, baiña amets ulsezkoa ta eginkortasun-bakoa izan deiteke eta erakundeen gogorkeriaren aurka eginkorra izatea lortu bear dau: Ori ez da, gaiñera, nastau bear "eginkorra ez dan gogorkeririk ezagaz", onek gogorkeriaren aurrean etsita eta ezer egin barik jazaten izten gaitu, eta au ez da kristiñauen jokabidea.

4. Jaungoikoak dauan antzeko maitasuna

Zuzentasunean agertzen dan kristiñauen maitasunak beti dauko **legebidera** jausteko arriskua (legeak diñoana egin eta orretan biotzik ez inpintearen arriskua) eta **gogorkerlra** (ondasun aundiagoa billatzea atxaki dala).

Arrisku ori kentzeko ez dago beste biderik **erruki-bidea** dan goragoko maitasun-era baizuk artzea baiño.

Baiña gaur sarritan errukiaren burutasuna alboratu egiten da, txarto ulertzen dalako eta emoten dauanaren eta artzen dauanaren artean ezbardintasuna ekarten daualako:

Baiña ori ez da errukia. Errukia, bere erara jokutzen dauan gure Jaungoikoaren jokabidea gure alkar-bizítzan agertzea da: Seme ondalzaillearen ipuiña, (Lk. 15,11-32) (Ik. XIII gaia). Jaungoikoaren doia, grazia, da, Jaungoikoaren bizia bera emoten dala, eta bizi ori maitasuna da, errukizko maitasuna, zeatzago esateko. Orregaitik benetako errukiaren oiñarria, gizonaren duintasuna bera da: errukia egiten dauanak aintzat artzen dauan duintasuna, eta errukiz artua izaten danak bizi zomatzen dauan duintasuna.

Azkenean, errukia, maitasunik aundiena, da bakarra zuzentasunaren neurri estua azpiratzeko, gizabideko berotasuna beteten dauana. Errukiaren bidez baiño ez da lortzen, erantzuna billatzen ibilli barik edozelako okerra naiz zintzotasunik-eza azpiratu leikena.

5. Oraindiño be esanak egiten?

Gizonak lurraren gaiñean bete dauan kondaira osoan, erritaren arteko alkar-bizitza eratzeko, aginpidez jazten diranak artu dira oiñarri lez, beste alde batetik esanak egiten eginbearra dauken beste asko dirala. Eta iñoz aginpidea, Jaungoikoagandik datorrela-ta, gauza santu lez artu da.

Baiña gaur-egun aginpidea beste era batera ikusten da: Gizonaren asma-menetik datorren erabide bat lez artzen da. Ondo dakigu zelako larkerietara jausi dan. Nortearen onerako erabilten dan aginpidea, agintekeri alboragarri /ez agertzen da.

Beste askorentzat aginpidea ez da besterik, esanak egiten dirala, norberaren erantzun-bearra beste batzun eskuetan iztea baiño. Ortik jatorku aginpidea betetean eta onartzean kristiñauen erea zein dan aztertu-bearra.

Aginpidea glzarteari emoten jakon laguntza da

Urko laguna maitatzeko era bat, beronen laguntzea da, "besteari" arduraz begiratzea, bestearen bear-izana erantzutea. Jesus bera, bere bizitzako une garrantzitsu baten, berari jarraitu nai dautsoenak jokabide au agertu bear dabela esaten agertzen jaku: "Zuek be batzuk beste batsui oiñak garbitu bear dautsezuez" (Jn. 13,14).

Alkar laguntzerako dan jokabide au, erritarren arteko a (kar-biz itza ra ko be egokia da eta oso-osoan doa askok euren aginpidea betetean indarraren eta dirauren billa egiten daben alegiñaren aurka: "Zuek ondo dakizue erriak jaurri nai dabezeñak menperatu egiten dabezela eta aundiak zapaldu egiten dabezeia, baiña zuen artean ez olakorik, bestetara bai, gora igon nai dauana zuen serbíizaille izan daitela eta lenengo izan nai dauana, guztien morroi izan daitela, Gizonaren Semea be ez dalako etorri serbitzailleak eukríeko, bera serbíizaille izan eta guztien erospenerako bere *bizi* emoteko baiño (Mk. 10, 42-45).

XV. GAIA

MAITASUNA ERRI-AURREKO ARGITARA
(Alkar-bizitzearen jokabiderako oinarri-bideak)

**Maitasuna ez da Illunetan geratzen, argitara,
kaleetara, urietara urteten dau.**

Maitasuna,
agindu guztien laburpena,
kristiñauen bizitzako eragillea,
adiskideengan, parkatzean, etxean... agertzen da.
Ba-daukoz beste giro batzuk be,
ain etxe-girokoak ez diranak,
zabalago lez agertzekoak,
onei erri-girokoak esango dautsegu:
auzokoak, erri eóourikoak, lantegikoak, aberrikoak... dira.
Kristiñaua be maitalea da
eta olako artu emonetan izan be.
Bere bidea, guztierztat bidea.

Baifia zelan maitatu "erri-maillan"?
Zer egin bear da gizartean kristiñau tez biziteko?
Zelakoak izan bear leukee gizarteak?

1. Gizonaren alde

Gizona ez dago bakarrik. Nai ta nai ez, gizartean garateen da, gizarte barik gizonak ez dauko ezertan be aurrera egiterik, gauzarik txikienetan be ez.

Orregaitik, gizartea zelan eratzen dan, gizonen arteko artu-emon zeatzak zelakoak diran, erreztasun geiago edo gitxiago emongo jake gizonai, bertan bizi diranai, gizon lez aurrera egiteko.

Eta gaur, orain, gizarte-era askotan gauza asko dagoz gizonaren alde ez dagozenak, gizonari bear dauan neurrira eltzeko laguntzen ez daulsoenak...

Gizarteko gauza asko ez dagoz Jaungoikoaren bidean, Jaungoikoak gizonarentzat gertatu dauan bidetik urrin dagoz, edo gizonari laguntzeko diranen artekoak ez dira.

Beste alde batetik, gizon asko alkartuta gogoratzen doguzanean, gizartea aitatzen dogunean, gauzak zelakoak diran agertzeko ikuspegia aldatu egiten da: Ona, gizonari laguntzen dautsona, ez bateri laguntze dautsona, guztien ona baino, ona gizonik geinai laguntzen dautsena da; guztien ona da ba gizonen alkartea argitzen dauan araua.

2. Zuzen ta sun-bako maitasuna, gurruzkoa da

Maitasuna ez da beste barik, asmo onak eukitea. Maitasuna egite zeatzak dira. Eta banakakoa ez dan giroan, alkar-bizitzan, ez dago bide bat baiño iñor atsipetu barik maitatzeko: Zuzen jokatzeara. Eta "Zuzentasuna, bakoitxari berea emoteko gogo sendoa" da, diño Ulpiano'k.

Antxiñatik, zuzentasuna iru arlotan banatzen da: Banakakoa, onek banakakoen arteko artu-emonak bideratzen dauz, taldeenak be bai, baiña oneik gogozko persona lez artzen diranean, eta arto onetan bardintasuna osoa da (saldu-erosietan, lan-itunetan eta olakoetan); Banatzekoa, onek gizarteak banakakoakaz dauzan artu emonak bideratzen dauz eta onurak naiz zeregiñak bardintasunaz emoten dautsez (gizarte-babesa, gizarte diruak

Agintaritzak alkar-izketara jo Dear dau

Egia norberarentzat bakarrik iñok ez daukan ezkerero, alkar-izketea da oiñarri, gizarteko alkar-bizitzan. Guztiok daukagu geure eritxia entzuna izateko eskubidea. Baiña guztiok daukagu, baita, besteena entzuteko eginbearra. Entzutea ela entzuna izatea, orixe da alkar-izketea.

Eta alkar-izketea, laguntza dan neurrian, agintaritzaren jokabidea izan bear da, baita gizanekide guztien jokabidea be. Orregaitik, ori egiteko lako gauzea izan daiten, erakundeen girora sartu bear da:

- Gizarte-erakundeai erreztasuna emon gizarteko bear-izanai lagun-izek-o.
- egiturak-sortu, agintarien eta erritarren artean alkar-izketea sortu al izateko.

Agintaritzak aginpidea Izan bear dau

Kideko izatea, alkar-izketea, laguntza emotea, bearrezkoak dira. Baiña une bat eltzen danean, erabagiak artu bear izaten dira eta erabagi orreik gizanekide guztien aldetik betetea lortu bear da. Ori ezin lortu leike agintaritzak izan ezik beste iñok,

Esan gura dana agintari bakoitza dala Jaungoikoa orretarako aukeratua, orrelan ulertu ezkerero, aginpidea ez dator Jaungoikoagandik. Baiña aginpidea bai Jaungoikoagandik dator, Jaungoikoak gizona gizarteko izateko eta gizartean biziteko egin daualako, eta orrek aginpidea eskatzen dau. Eta Jaungoikoagandik datorren ezkerero, eta erriagandik be ba-datorren ezkerero, (erriaren onerako da eta erria da bere eskubideak agintariaren eskuetan jarten dauzana), agintaritzak benetako aginpidea bear dau eta eskubide ori betetu. Eta gizarteko alkar-bizitza b'deratzeko dan ezkerero, esanak egin bear jakoz.

Orregaitik, esanak egitea ez da norberaren eskubideak beste baten eskuetan iztea, arduradun izateko dan bide bat baiño. Eta esangintza ez da beste barik, aginduak betete utsa, agintaritzari begiratzea eta aztertzea be bada. Ez dago esanik egin barik geratzerik, agintzen dana edo agintze orren neurria okerra danean baiño: "Jaungoikoaren esana egin bear da lenago, gizonena baiño" (Ap. Eg. 5,29).

6, Alkar-bizitzako arazo aundi b!.

Izadiaren aurkako ekintzak pekatu dira.

Egin ete leike alkar-bizitza bizi, ezin leiteken lekuan?

Aizea **ez da arnasea artzeko lakoa. Uretako bizitzea azkenetan** dago. Lurralde zabalak **basamortu biurtu dira. Landara ta pitzi-motak galtzen** doaz. **Uri aundiak iruntzi egiten dabe gizona. Gizonen janariak pozortuta** dagoz. Zaratak, kea, langinluzako ondakiñak, osin bartzak, zugatz-ebagrite **bildurgarriak, eiztarrta neurribakoak..**

Eta biziak arduratuta ekolojislak agertu **dira: bizidunen ingurua euren** arteko artu-emonen moltzo **bat ei da**, "ekosistema", **lurraren inguru** guztian **eta or bardintasan edo oreka galtzen danean, toki txiki baten galdu arren,** danean **dira ondorenak.**

Eta biziari buruz arduratuta, gizarte-eragin barriak sortu dira (ekolojizaleak, orlegiak) **kontzientzi** guztietara **dei ta dei egin eta** gaurko **langintza-bidea** alboratzea eskatzeko, **giroa kontuan dala itzaltasun** geiago dauan erakunde **barria** eskintzeko, Laterrí-arteko erakundeak **eurak be**, UNESCO'k 1969'an: "**bizileku egokiagoa dan mundu bat sortu nai dogu**". **ONU'k**, 1972'an{Ekoioji-agir)a) arazo oneri buruz arduratuta agertzen di ra.

Baiña jakingafak, gizarte-eragiñak eta **laterri-erakundeen** agerpenak **or izan arren**, agintariak ez dabe e ko iog i-jokabide **egokirik artzen, erritarrak ez dogu datorren arriskua** kontuan artzen.

Zer daukagu or **zer-ikusirik guk kristinauok? Ba, dana. Izadia** babestea gizona babestea dalako, izadiaren alde jokatzea, **gizon guztientzat Jaungoikoak sortu eban** egokitasunaren **alde jokatzea** dalako. Orregaitik inguru-giroa babestea kristiñauen **zeregiña ta** giza-jokabidearen agindua da. Eta orrek auxe esan **gura dau:** Kristiñauak **ekoloji-kontzientzia bear dan lez** bideratzen sartu **bear dirala, inguru-giroa itzaltasunez begiratu bear dabela**, gizartean buftz egin bear dabela izadia babesteko legeak sortu daitezcan. Izan be, ekoloji **oreka** apurtzeak pekatu **dira, munduan gaur diran eta** geroago izango diran biziteko giroaren eskubidedun diran gizonen onaren aurka diralako.

Bide zabaletan ilteko jaió ete gara?

Karl Benz'ek 1885'ean berebilla asmau ebanetik ona, gizonen oiturak aldatu egin dira, batez berebilla edozeiñek daukan gauzea danik ona.

Gaur gauzak eta gizonak tokiz aldatzeko ez dago urrintasunik, baiña zer emon bear izan da orren orde?: Kutsadura, ikuspegi ederrak apurtzea, gizonak zauritzea, eta batez be kondairan jzan dan eriotz-it urri rik aundiena sortzea (Laterri Batuetako bide zabaletan, esate baterako, azkenengo 55 urteetan norki geiago ii dira, 1774'tik izan diran guda guztietan baino; Frantzia'n diran ezindurik erdiak bide zabaletako izlripuen ondorena dira).

Berebiñen iztripu ugarien artetik %90 norkien jokabide okerren ondorena dira (ibilketa-arauak beteten ez diralako, batez ariñegi ibilteagaitik eta arauen aurkako aurreratzeak egiteagaitik, eta gorputz eta gogoko utsakaitik, esaterako ardura barik ibiltea edo alkool larregi edatea izan dalako), eta %10 baiño ez dira berebillen utsakaitik izan diran iztripuak.

Arazoa ain aundia dalako eta alkar-bizitzan daukan aiñako ikutua daukalako, kontzientziko zeregin bat sortzen da ortik:

- Ag i danentzat: Lege-arauak emon bear dabez, bizia ta jabetzak babes-teko, inguru-giroa, ikuspegiak eta kondairadun giza-moltzoak zaintzeko: arau orreik betetea ziurtatu bear dabe: bide zabalak onak eta ondo ikurtuak izateko alegiña egin bear dabe.
- Oiñezkoak eta berebil-eroaleak ibiltetako arauak, edo bardin dana, euren antzekoak diran besteak, itzaltasunez begiratu bear dabez;
- eta guztiok berebilla bear dan bestean baiño ez dogu erabilli bear, ara ta ona ibilte ugariak, indar-bideen mugak eta inguru-giroa zaintzeak orretara gure kontzientzi beartzen daualako.

Baiña kristiñauak ez dauz bete bear legeak zigorraren bildurragaitik bakarrik, besteak maite izan eta aurai itzañtasunez begiraten dautselako baiño. Eta legeak bete ez diralako edo itxitasunagaitik iztripu bat izaten danean, urko lagunaren bizitzearen eta ondasunen aurka pekatu egiten dalako (gogoratu emen bostgarren eta zazpigarren aginduak).

Geiago oraindiño, kristiñau batentzat ez da naikoa iztripuak aiboratzea urko lagunari dautsan maitasunak bide zabala toki atsegintsu eta txerazko aïkar-bizitzaren leku biudzera beartzen dau.

ESKUTITZA

"Washington'en dan agintari Aundiak gure lurak erosi nai dauzala esateko agindua emon dau... Aztertu dagigun bere eskintza, guk ondo dakigu-ta, ori egin ezik gizon zuria bere su-izkulluz orniduta etorriko dala eta gure lurak artu egingo dauzala... Zelan saldu naiz erosi zeinkee zerua edo lurraren beroa? Gauza arrigarria da gutzat ori. Gurea ez da aizearen ozkirritasuna edo uraren dizdiza. Zelan erosiko dauskuzue zuri olako gauzak? Gizon zuriaren udakoak euren ama lurra aitzu egiten daben iza-artera ibilteko doazenean, gure illak ez dabe iñoz be aiziuten lur eder au, berau da izan be gizon narru-gorriren ama. Gu lurraren zatia gara eta lurra geure zatia dogu... Orregaitik, Washington'en gizon zuriak daben Agintari Aundiak gure lurak erosi nai dauzala esateko agindua emoten dauanean eskatzen dauana, asko da... Ondo dakigu gizon zuriak gure izakerea ez dauala ulertzen. Arentzat bardin da lur-zati bat naiz beste bat, bera bear dauana lurretik aterateko gabaz datorren kanpotar bat dalako. Lurra ez da bere anaia, bere etsaia da. Lenengo eskuratu egiten dau eta gero bertabera itzi eta beste leku batera joaten da. Bere atzean izten dauz bere gurasoen illobiak, orregaitik ezelako barru-miñik asmau barik... Bere dana bear izateak, lurra iruntzi egingo dau eta ez dau atzean itziko basamortu bat baiño. Nik ezin dot ori ulertu. Gure izakerea ez da zuenaren antzekoa. Zuen uriak begiko miña sortzen dautsoe narru gorridun gizonari. Baiña ori, bear ba'da, gizon narru-gorria basatia dalako izango da, gizon azal-gorriak gauzak ulertzen ez dauzalako... Eskintza ori onartzen ba'dogu (gure lurak erosteko eskintzea), nik baldintza bat ipiñiko neuke: Gizon zuriak lur onetako piztiak anai lez artu bearke dauzala. Ni basatia naz eta ez dot ulertzen beste era bateko jokabiderik. Nik millak buïaloak ikusi dodaz landetan usteltzen, gizon zuriak bera joian trenetik tiraka il ondoren, an itzi dauzalako.

Gauza guztiak dauke alkarregaz zer-ikusia... Ez da gizona bizitzearen sarea eundu dauana: ez da besterik sare orren ari bat baiño. Sareari egiten dautsazan kalteak bere buruari egiten dautsoz. Lurrean jazoten diranak, lurraren semeai jazoten jakez. Jaungoikoagaz ibiltan eta berbaz dabillen gizon zuria bera be, adiskide-giroko artu-emonak euki arren, ez da geratzen guztion elburu onetatik kanpoan. Azken baten, bear ba'da anaiak izango gara. Ori

gero ikusiko dogu. Guk ba-dakigu gizon zuriak geroago jakingo dauan zerbait, **gure Jaungoikoa** euren Jaungoikoa bera **dala**. **Orain bear ba'da uste izango dozue beraren jabe zareela, gure lurren jabe izan nai dozuen antzera, baiña ori ezin lortu izango dozue**. Bera gizadi osoaren Jaungoikoa da eta bere **errukia bardin dator gizon narru-gorriarentzat eta gizon zuriarentzat**. **Lur au eder-ederra da berarentzat eta oneri kalte egitea Egillea aintzat ez artzea da...** Guk **ez dakigu zer izango dan** bufa loak lurretik **kenduak** izango diranean, zaldi basatiak **eziak** izango diranean... **Non dago baso baltz aundia? Joan zan. Non dago arranoa? Joan zan. Orrelantxe** joaten da bizitzea **eta orrelantxe asten da** biziten jarraitzea..."

(Gizaldi bat baiño geiago dala, **Laterri** Batuetako Agintari Nagusiak lurrak **erosi izan gura eutsozanean Narru Gorrien Leiñu bateko Buru zan** Seatlek egindako eskutitzaren zatiak).

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu zer esan nai daben berba oneik; Alkar-bizitza, guztien ona, erakundetu, aurretiaz **ikusi, eskubide-norkia, alkarte-norkia, iraulketa** egin, jauntxukeria, erantzuna, **aitakeria, irabazia, zillegia, bizi-giroa, barru-agindua**.

Zer da... "**Ekintza, zuzentasuna ta Bakea**" *eragiña?* **Onen etxurea ulertzeko** lagungarri izan daikeguzan jakingarriak billatu,..

Azaldu... Agintaritza ta erri-serbitzioari buruz dan Mt, 20,20-28.

Egln... Guztion artean, guztion ona zer dan ulertzeko zeazketa bat.

Gertatu... Mai-inguru **bat gure** lurraldeko ekolojiari **buruz, jakingaien** ikas-tegiagaz batera.

Banandu... lau taldetan eta talde bakoitxak lan bat egin, Gandhi, Luther King, Helder Cámara eta Paulo Freiré gai dirala. Gero lanak ikas-gelan aurkeztu.

Billatu... zer diran Lanza del Vasto'ren "**EL Arca**" **alkarteak** eta berau **nor** dan.

Atkar-ziketea egin... aurretiaz gaia ondo gertatuta lbitaritzako arduradunen bategaz.

Egin... ikasle bakoitzak lan bat **oiñarri lez oneik artula**: "errukiz aberatsa" deritxon enziklikaren 12n, zenbakia; b) "Ecclesiam suam" enziikiaren 94^{tik} 97 zenbakira.

Billatu... Luther King'en gogorkeririk-ezaren amar aginduak.

Esan labur... Jon XXIII'aren "Bakea Lurrean" enziklikaren zati au: Agintaritzaren bear-izana eta Jaungoikoagandik jatorria.

Epaitu... ikasgai onetan ikasia kontuan dala, **izukeria**.

Irakurri... "Albert Kamus'en "Zuzenak" edo Sastre'ren ^Mesku-zikifiak". **Olako bategaz antzerki irakurri bat gertatu lei, guztien aurrean irakurri eta toruna egiteko.** Beste era batera egitekotan, ikasle **bik irakurri eta** ikasgelan azaldu dagiezela.

Billatu... eta guztien arteen zerrenda baten agertu, **munduan**, geure lurraldean, geure gizartean, **geure arrian edo** urian, geure taldeetan aurkitzen doguzan o ke rke nak.

Billatu... ez gizarteko gogorkeria, bakoitzak barruan daroaguna baiño.

Balu... izparringi batzuk eta ebagi edozelako gogorkeria aitatzen daben zatiak. Gero ikusi zenbat zuk) geratzen dan izpar-ingi bakoitzean.

Parekatu... Alderdi politiku batzuren egitarauak eta **ikusi zeintzuk diran** aztertu dogun gaiari buruz euren burubideak.

» A A A «

XVI. GAIA

MAITASUNA ERRI-AURREKO **EGITEETAN** EGI BIURTUTA AGERTZEN DA
(Alkar-bizitzaren erakundeak: **Jakintza**, ezitea ta gizarteko albiste-bideak)

Gure aurretikoen mundua ta gurea oso ezbardiñak dira.

Arraiñak ura bear dabe
ugar egiteko **ta arnasea** artzeko,
gizonak egia bear dogu
persona lez agertzeko eta artu emonetarako.

Erri bakoitxaren jakintza **bereiztua**,
gizarteak eskintzen dauan eziketea bera,
giza-moltzo aundia alkarragaz **artu-emonetan** **ipinten** daben
gizarteko albiste-bideak,
benetako **egia**
edo egi erabillia
gizonagana etorteko bideak **dira**.

Kristiñauak,
egi osoa billatu bear dau beti,
egiaren bide orreik erabilli eta
beste batzui **erabilli-azo bear dautsez**,
egiaren bideak lez, bide eginkorlez.

OARRAK

1. Guzurraren munduan egiaren bidean beti

Egia pentsau-bearrean, geiEnak pentsatzen dabena, edo ondoen jator-kuna pentsatzen da, edo albiste-bideetan datorrena (Aurreratzean alb. bid. esango dogu) ela oneik guri pentsau-azoten dauskuena pentsatzen dogu.

Egia esan bearrean, norberak nai dauana esaten da edo beste batzuk norberak esatea nai dabena edo arrigarri agertzen dana.

Egia esan-bearrean edo egin-bearrean, oikereak, modeak, diñoana egi-ten da, edo irudi ona emoten dauana, edo atsegingarri dana.

Orrexegartik gagoz guzurrez ingurutatua, banakakoen artean, saleroske-tan, polrtikan... Mundua guzur gaiñean eginda dago eta egia ez da billatzen, egia zer dan aitzu egin da: Ez da bear, besterik ez.

Izan be, egiak, maitasunaren aurpegi bat dan neurrian, bide gaitxa agertzen dau, maitasunaren antzera, Egiak auxe eskatzen dau:

- Egia pentsatzea: edo gauzak zelakoak diran billatzea. Orretarako jarraiko alegiña egin bear da eritxiak eskatzen daben bidetik ez joate-ko eta adin bakoitzean osokuntza lortzeko. Eta orren aurka doa egiaren ardurarik ez artzea eia azal utsez bizitea eta okerreko bidetik ibiltea (bide onetatik urteteko alegiña egin bearda).
- Egia esatea: edo bakoitxak pentsatzen dauana esatea. Pentsatzen dugunaren barria besteai emotea esan gura dau. Orren aurka dago egiaren ardurarik ez eukitea.
- Egia egitea: edo pentsatzen dugunaren erauz egitea. Orrek esan gura dau gauzak eroso datozelako ez egitea, gizartearen bultzakada-indarrak eraginda ez ibiltea. Orren aurka dago pentsaten dana ta egiten dana batera ez joatea, lotseagaitik zerbait egin barik iztea, azal-utsa izatea.

Guk kristiñauok egiaren bidea artu dogu, maitasunaren bidea artu dogu-lako. Egia begiartu ezik, ona zer dan be jakin barik amaituko genduke, ez genduke jakingo zer egin bear dogun eta zer ez. Egian begiratu ezik, gizonak

alkar ulertu eziñik ama'rtzen dabe, batek besieaga'rtik txarra pentsatzen jarten dira. Kristiñauok gura dogun gizartea guztiok ondo alkar ulerizekoa da, maitasuna sortzeko era emoten dauan gizartea. Jaungoikoaren Legean bertan esaten dana, "Ez dozu guzurrezko testigantzarik egindo eta ez dozu guzurrik esango" esaldi argia da bidea zein dan jakiteko. Eta Jesusék egiaren lekuko izateko zeregiña artu eban argi ta garbi (Jn. 18,37); egia pentsau, esan eta egin ebalako okerkeriz ¡l eben.

2. Aldakuntzak gu be aldatu egiten gaitue

Jakintza barria

Neil A. Amnstrong'ek lenengoz illargiaren gaiñean bere oiña ipiñi ebanean, 1969'ko uztaillaren 21'eanean, gure urrutikuskin-gailluen bidez ibilten ikusi gendun: Gazteak arrituta ikusten eben, zarrak ez eben sinisten ori egia zanik. Gure zanren mundua izan be, gure aitita-amama eta gure gurasoen mundua eta gurea oso ezbarðiñak dira. Mundua aldatu eginda. Eta aldatzen dago.

Nondik dator aldakuntza ori? Jakin-gaietan eta írebebedeeían aurrera egitetik, lengo aldia kondairaz eta gerokoa eginbidez eskuratu doguzalako, nekazaritza-giro ko mundutik langintza mundura igaro garalako, errietatik urieta-ra eta lurralde batzutatik beste batzutara joan garalako Alb-Bi. eta eziketa arlo guztietara sartzea dira aldakuntza ori lortzeko izan diran bide batzuk.

Baiña gauzak ez dira aldatzen kanpotik bakarrik. Asmakizun barriak agertzen diran an, giro barri bat agertzen da, pentsatzeko era barri bat, agertzeko bide barri batzuk, oitura barriak, erakuno'e barriak, jolasbide barriak, erti-jokabide barriak: **Jakintza barria**.

Oneik dira jakintza barriaren berezitasunak.

- **Burubide aztertzailea:** Ezer ez da egizat artzen, dana egiztatu bear da. Orregaitik jarten gara antxiñatik jokabideen aurka, betiko oíturen aurka, batez be gazteak.
- **Aurrerapenaren guraria:** Jakingaien eta trebebedearen aurrerapenak gizonari almenaren sentipena sartu dautsoe eta orregaitik sinisten dau aurrerapena dala bere arazo guztiak bideratuko dauzan izkillu bakarra.

- **Gizona zer dan ulertzeko era barria:** Gogo-ikaskelaren iraultzak auxe ulertzera ekarri gaitu: Gizonak egiten dauana dana ez daua-la egiten jakiñaren gaiñean. Eta ba-dakigu gauzak eurak be ez dirala len uste izan geldulakoak eta etorkizunean be gauzak ez dirala izango gaur diran lakoak. Gizona obeto ezagutzen dogu, kondaira-zuzmoa daukagu.
- **Oíturen batasuna:** alb-bid., eziketa zabaldua, txangolaritza, lur-aldatzeak, urrin bizi diran gizonen oiturak alkarren antzeko biurtu dabez, Giza-moltzoen jakintza agertu da.
- **Artu-emon geiago:** gizonak alkarren artean, uri-barruan, lurralde-barruan, jakintza-artean, lurraldeen artean.

... Irabaziak eta galtzeak

Orain obeto ulertzen dogu jakintzak bere baldintzak ipinten dautsozala gizonari: Ez da bardin Euskalerrian jaioa edo Arabian jaioa izatea, ez da bardin gaur jaioa edo XVI gizaldian jaioa izatea. Gaurko jakintzak bera baldintzak ezarten daukuz:

- **irabazia da** gutzak aztertzaileak izatea eta galtzea ori bakarrik izatea eta dana apurtuta ezer egin barik, ondoren barik geratzea;
- **irabazia da** daukagun aurrerápena. Galtzea izan leiteke aurrerapenak danetarako urtenbidea daukala **uste izatea**;
- irabazia da giza-moltzoen **jakintza** guztiokana zabaltzea. Galtzea izan daiteke, **olako jakintza, utsa ta erabillia izatea**;
- **irabazia dogu** artu-emon geiago eukitea eta **galtzea izan daiteke** artu-emon orreik azalekoak, **sakontasun-bakoak** izatea.

Baiña **jakintzak gizonari bere ikutua egiten ba'dautso**, gizonak be **jakintza ori aldatu eta egin egiten dau**. Eta gizonak ondo daki ori: **Guztiok dakigu gizar-teko pentsaera batek, erakunde batzuk, oitura batzuk, berba baten esateko jakintza-era batek gizonari lagundu egin leikioa edo oztopoak jarri be bai**. Eta **gaurko gizonak**, geroago ta **gizon geiagok**, billatzen dabe gizonen alde dagoan **jakintza-erea**, benetako balioen alde dagoan **jakintza**; **baiña orregaz batera ikusten dabe**, arduara aundiaz, **gure jakintza eragozpen eta okerbide aundietara jausi leitekela**.

Jakintza barria eta erlejiñoa

Gure jakintzak be ba-dauka bere ikutua erlejiñoan. Aztertzaile-jokabideak Jainko-bakoen moltzoa sortzen dau: Jaungoikoari neurriak iñok artu ezin leikiozan lez, Jaungoikoagaz experientzirik ezin egin leiken lez, batzuk uste dabe Jaungoikorik ez dagoala, edo askok euren burua zaintzeko naikoa dirala uste dabelako, Jaungoikoa alde batera izten dabe eta euren bizitzan Jaungoikoaren lekuan aurrerapena edo urrutikuskin-gaillua ipinten dabe.

Kristiñauak itxaropendun gizonak diran, baiña euren aldiko gizonak be bai: Mundu gizatiagoa sortzeko lana edozein kristiñauen zeregiña da. Kristiñauak ori lortzeko eginbearra bere gaiñean artu bear dau: Gizartea aztertzaile izan daitela, baiña gauzak eginda, aurrerapena bai, baiña bizitza gizatiagoa ta anaiorragoa be bai; giza-moltzoko jakintza guztiakana eldu daitela, baiña ez batzuk erabillia eta sakontasun barik; artu-emonak ugari izan daitezeia, baiña sakonak izanda. Orregaitik kristiñauak:

- bere jakintza ezagutu bear dau, eta batera bere fedea be bai, orrelan bere fedea bereak dituan jakintza-eretan agertu dagian eta bere jakintzak dauzan eta ebanjeüoaren alde ta aurka dagozan balioak jakin dagian;
- edozein jakintzara urreratu bear da, baiña jokabide zabalagaz (jakintza bakoitxak gizonaren alde dakarrena onartzen dauala) eta batera aztertzaile dala Q'akintza bakotxean gizonaren aurka dagoana saiatzen dauala);
- ez da kultura bakar baten sartuta geratu bear, jakintza bakarra iñoz be ez dalako osoa; eta erri txikien jakintzak aintzat artu bear dauz, gitxiengoen eskubideak zaintzeko.

Gizartea ta jakintza zuzenagoak izateak egingo dau Jesus'en ebanjelioagaz alkartea askatasunaz egin al izatea.

3. Egirantza bidea: eziketea

Eziketea beti dago begien aurrean gizarte ta pofitikako giro guzlietan: "erri-aurreko irakaskintza", "banakakoen irakaskintza", "ikastolak"... Eztabai-datze beroa sortzen da, eziketea dalako gizona zelakoa **izango dan agertzen** dauana, erritarren pentsaerak **eta** jokabideak bideratzen dauzana.... Eziketea eskuetan eukitea, gizartea eskuetan eukitea da.

Beste mailla batzutan, olako esaldiak entzuten doguz:

- "Niri irakasten daustenak, ez daust balio bizitzarako"
- "Ona datorrena gogaituteko dator".
- "Emen denporea igaroten dogu, baiña ikasi ezer be **ez**".

Zer eta *ua ezeiketea?*

Eziketea ez da besterik, persona lez **aurrera egiteko eta** gizartera sartzeko **laguntza emoteko bidea baiño**. **Orregaitik eziketean ez dau** agertu bear bere guraririk gizarte-talde batek be; ikasleen onerako danean be ez.

Orretarako, eziketeak **osokorrek izan bear dau: Personeak arto guztietan aurrera egitea** billatu bear **dau** (gorputzez, **buruz**, trebetasunez, **erti-arloan**, gizarte-arazoetan, **seksu-arloan**, **politika**, **jokabide eta erlejiño-gaietan...**) **eta** almenak **kontuan dirala**, **edozein gcarte-girotan eta** orretarako ondo gertatzen dala.

Eziketeak ez dau **iñorendu bear: eziketea ez** da ba irakaste utsa, ez da **ja-kingarriak emotea** beste barik, **eta gauzak daben** norabidea azaltzea ez **dau** aiziu **bear; eziketea ezin izan** daiteke batzun erara **erabilia ez da izan** bear aurretiaz pentsau **dan bide batetik gizona aurrera eroateko bidea**, erabil-tzailleak nai dauana lortzeko erea.

Eziketeak lortu bear dauana bakoitxak bere **eritxiak lortzea da**, bakoitxak bere **eranízukizuna ta askatasuna** eukitea, **bakoitxak** bere aztertzeko erea **lortzea: ori lortzen ez ba'da, iñok erabiliak izateko** arriskuan gagoz, burubide, politika, ekonomi eta edozelako arloetan **eta** ez dogu lortuko bakoitza izan bear dauan lakoa izatea, iñorendu egingo gaitue.

Ezketearen arduradunak

Lenengo arduradunak gurasoak dira: Eurak dira seme-alabai bizia emon dautsenak eta, orregaitik, eurak dira bizi orrein lenengo erantzukizuna dabenak. Eskubidea eta eginbearra dauke seme-alabak eziteko eta onei arlo guztietan aurrera egin dagien laguntzeko,

Ikastola edo Ikastetxea da eziketarako gizarteak artu dauan lanabesa. Erri-agintariak ikastetxeak ondo jokatzea ziurtatu bear dau, baifia ezelako bakar-lanik izatea laketu barik.

Gizarie-tatdeak eziketarako laguntza eskintzeko erarik daukenean, ori eskintzeko eginbearra ta eskubidea daukaz, esaterako lan eta politika-alkarteak, jakintza-taldeak eta kiroletakoak, eleizak eta erlejiño-bideak. Eta onetan oiñarritzen da Eleizeak dauan eskubidea ta eginbearra ikastetxe-giroan erlejiño-eziketea eskintzeko.

EzJketea eskubkteen lekua da

Gaur ardura audiz artzen da eziketari buruz giza-eskubideen arazoa. Orretarako eskubide oneik batzen dira ario onetan:

- Guztien eskubidea oiñarriko eziketa duban artzeko, ezelako bereiztasun barik: ez seksuaren, ez endaren eta ez gizarte maularen edo erlejiñoaren bereiztasunik...
- Eziketa oso rako eskubidea.
- Goi-rnaillako eziketara sartzeko eskubidea bardiña guztientzat.
- Ikastola-gíroan erlejiño-eziketarako eskubidea.
- Seme-alaben eziketa-mota aukeratzeko gurasoen eskubidea.
- Bere eziketa-etxeak eukiteko eta beste gizarte-talde batzuk daukezan baldintzetan eukiteko Eleizearen eskubidea.

4. Eg (arentzat arriskua ta itxaropena

Gizarteko albiste-bideak Alb-Bid.)

1492"ko urrillaren 12'n aurkitu eban Kolon'ek Amerika: **Ori ez eban jakin** emen iñork be ille batzuk geroago areik ona etorri artean! Illeak eta urteak igaro ziran albiste ori mundura zabaldu arte! Baiña gaur edozein jazoera edo albiste zabaltzen da mundura **une baten: Izparringiak, esku-liburuak, ziñea, irratia, urrutikuskiña, bideoa, antzerkia ta olakoak laster** zabaltzen dabez barriak eta burubideak, argiaren bizkortasunagaz. Orreik dira albiste-bideak.

Albiste-bideak gizonen zentzumenen luzapnea dira eta eurai eskerrak gizona laster eltzen da munduaren azkenengo bazterreraiño **eta** orrelan **mundua, erri txiki bat biurtzen da, guztiok** dakigu beingo baten erritxu orren ertzetan **zer jazoten dan**. Alb. Bid, **mundua** alkartu egiten dabe, artu-emonak ugaritu... baiña arrisku **bat dauke: Personak** erabilteko arriskua, banakakoen gurarietara makurtuta egoteko **arriskua**. Orregaitik, **Eleizeak eta** kristiñauak onartzen dogu alb-bid.'en balioa, baiña dauken arrisku **aundia** aitzu **barik, barri-**emotea manipulatzeko arriskua, jokabide zuzenaren aurka argi-argi dagozan ereduak **eta** burubideak eskintzeko arriskua, umeen eta gazteen eidutasunik kontuan ez artzeko arriskua...

Albiste-bideak, egiaren serbitzaillelzan bear dabe

Eta egia serbitzeko, edo bardin dana, **norki bakoitxa** ta gizartea serbitzeko, gauza oneik ziurtatu bear dira:

- **Barriak emoteko eskubidea:** au barri-emoilleen **aldetik** barriak emoteko askatasun osoa da, banakako norkien eta guztien onaren mugak bai-ño besterik ez daukela. Eta barri-artzailleai begira, barriak artzeko eskubidea da, iñok goitik bera **ezer ezarri barik; orretarako** askotariko albiste-bideak bear dira (esaterako, askotariko izparringiak) eta osokuntza eukitea bakoitxak aukeratu dagian.
- **Barriak emoteko eginbearra:** orretarako barrí emoilleak barri-emote **zuzena egin** bear dabe (bai barriak lortzen eta ez gitxiago **barriak** emotean) eta egizkoa **izan daitela (guzurrik eta** nasterik barik, erdizka egjak esan **barik)**. **Eta barriak** artzen dabezenentzat ondo ulertzea

ta barriak ondo billatzea da eskatzen dana; eta egin bear au ezin itzi lei bete barik nagikeriagaitik eta ardurabakoa gizarte-arazoetan izatea-gaitik.

Iru albiste-bide

Antzerkia da albiste-biderik **zarrena**. Beronen berezitasuna antzezlanak eta ikusleak alkarren aurrean egotea da. Gaur onen ordeztu beste **albiste** bide batzuk agertu **dira: edesti** bat edestea, **esaterako, baiña antzerkia** sakonago sartzten **da arazoetara eta gizarte naiz** giza-egoerak biziago aztertzen dauz. Egiaren serbitzaille **izan nai ba'dau, antzerkigilleak** gizarteko gaiak artu bear dabez, gizonari ardura dautsoenak, eta egoerak aztertu, urtenbideak eskiñi. Eta ori erti-giroan egin bear da: izan be antzerkia **erti-mota bat** da, ez saio bat edo atariko idez-lan bat. Eta antzerkiak bere aldetik ikasleai osotuak izatea eskatzen dautse, euki dagiela azterzaille-gogoa, egiten dana sendotzeko edo salatzen.

Ziñea: Antzerkiak lekuaren **eta aldiaren** aldetik dauzan mugak kentzen dauz eta ikusle-kopuru aundiagora **eltzen da. Orregaitik da** aundiagoa gizartean **dauan ikutua** eta geu **konturatu be egin barik sartzten da** gure **barrura. Danak ikustoki** batera begira egotea eta giza-moltzo baten ikusgaira urreratzen danak daukezan barru-eragifiak, antzez-mintzak obeto ulertzeko **laguntzen dau** ikusle bakortxa **orretara bultzatzen dala**. Ziñea egiaren serbitzaille izatea nai ba'dogu, zinegilleai **pelikula onak egiteko adorea eskatzen jake**, orretarako **aurkitzen** dabezan ekonomi-oztopoak, politika ta burubide-arloko eragozpenak **azpiratuta, ertia ta** langintza dan zineak bere zeregiña gizartean bete dagian. **Eta ikusleai be** zerbait eskatzen **jake:** Jakin dagiela **antzez-mintzak aukeratzen** eta orretarako ikusle lez **euren** buruak osotu dagiezela, aukeratzen eta ikusten jakin dagien eta **erti naiz** jokabide arloan pelikuleak **dauan** zelakotasuna ulertu dagien.

Urrutluskina: **Au mundura zabalik dagoan leio bat da eta leio orretatik** begiratzen dogu mundua baiña baita mundua bera be gure etxera eta gure **barrura** sartzten da leio orretatik. Denpora asko emoten jakolako eta ikusleak asko diralako, **auxe da albiste-biderik indartsuena, Eta orregaitik**, gizabidea **naiz gizarte karte**a egiteko almen aundia dauka. Egiaren serbitzaille izan nai

ba'dau, arduraduna! auxe eskatzen jake: Gurari argia izan dagiela jakintza eta guztien ona indartzeko eta gizarteko ekintza-bide guztiak izan dagiela erea albiste-bide orretara sartzeko, ezelako bakar-eskubide barik eta ekiñaldiak zuzenean egilen dirala, orrelan ulertze-erak eta aldakunlzak kendu daitezana. Eta ikusteari beste au eskatzen jake: Urrutikuskiña neurritz artu dagiela, bear dan beste denpora eskintzen jakola eta egitarauak bear dan lez aukeratzen dirala eta ikusten danaren aurrean beti aztertzaile izanda, etxe-bizitzaren barrukotasuna, ontasuna, alkarizketa unrituten ez dauzala.

Albiste-bkjeak egiaren serbitzaille
ba'dira, geroko mundua ohea izango
da eta Jaungoikoaren Erreñuak bere
bide zabala izango dau.
Albiste-bide ak egiaren serbitzaille
ez ba'dira, talde txikiak edo erri-aurrekoak
bakarrik serbrtzen ba"dauz,
gizarte osoa gitxi batzuren andrakil biurtuko da.

Albiste-bideak, egi-bideak izan bear dabe.

EGIN GEINKENA

Iztegia: Jakin zer esan nai daben berba oneik: Azalekoa, uste okerra, azal-utsa, erabilli, jakintza, burubidea, txirutasuna, balio-aurka, eziketa, osokorra, giza riera tzea, giroa, iñorerrtzea, norkeria, baimen-ukatzeta, zuzena.

rtaunketa: lkasleak zelako telebista ikusten daben jakiteko ta baliatzeko, auxe egin leike: A) itaunketa idatzia baiña izen barik: "zenbat ordu egrten dodaz astean, telebista ikusten? Zeintzuk dira ikusten dodazan saioak? B) lkasgelako talde batek erantzunak batu eta egokitzen dauz. D) Ondorena ikasgelan agertzen da eta guztien artean baliatu.

Billatu: ONU'ren giza-eskubideen agerpena eta irakurri eziketeari dagokiozanak. Gero ikusi zelan beteten diran.

Azaldu: esaldi au: "Egia maitasunaren aurpegi bat da".

Ikusi: izparringi bat egiten dan lekua eta ulertu zer dan eta zelan egrten dan.

Sratu: Ikasgelan eztabaidaize bat Izparringiai buruz. Garrantzia, bear-izana, ekonomi-mugak, ezagutzen doguzan izperringien jokerak, zelan egiten dan, izparringiaren txokoak, nortzuk erosten daben, zelan irakurri bear dan.

Parekatu: jokabide ezbaridña dauken izpamngietako atari-idazkiak, egun batekoak eta al ba'da gai bat bera daukenak.

Billatu: zer izan zan gogo-aztertze-iraulketa.

Aztertu: artzen dogun zabalkundea eta onen aurrean zelan zaintzen garan: Izpar ingietakoa, telebistakoa, esietakoa, irratikoa, orrietakoa...

Banandu... talde tixikietan eta aztertu zinean buruz gai oneik: Egitea (gioia, zuzendaria, antzezlariak, argazkariak, alkartzea, eresa, ordainketa), banatzea (orretarako diran arauak, bultzagiJJe-taldeak), agerketa (ikusleengan dauan ikutua, tokiak, zabalkundea, sariak),

Tokia aurkitu: guzurak non pentsau, esan, eta egiten diran gaurko gizatearen eta gure bizitzen jokabideetan.

Iruditu: Zer jazoko litzaken guztiok eta danean egia pentsau, egin eta esango ba'gendu. Ondorenak atera.

Eztabaldatzea: erri-aurreko telebistari buruz eta banakakoenari buruz, ikas-gaía begien aurrean dala.

Aurkitu: jakintza-era barriak eta or diran geu obeto agertzeko erak eta gazteak pozago aurkitzen garan lekuak.

Aurkitu: Gure erriaren, uriaren, eskualdearen lurraldearen eta aberriaren jakintza-artako berezitasunak.

AA^AA

XVII. GAIA

ONDASUNAK GIZONARENTZAT DIRA
(Ondasunak lortzean, banatzean eta erabütean jokabide zuzena)

**Ez da naikoa ondasunak lortzea,
banatu eta erabili egin bear
dira zuzentasunaz.**

Guk, gizonok arazo asko dogu.

Arazo sakon **bat**
ondasunak **lortzea**

eta ondasunak **erabiltea** da.

Arazo onek gizon eta lurralde askori ikututen dautse,
bear dabena ez daukelako;

Asko eta gauzak **eukitea** nai doguna be ikututen gaitu,
izan eta neurria emon bear dogula, aiztuten dogulako.

Eleizea, kristiñauak,
burubideak argi daukaguz
arazo onei buruz gauzak ondo ikusteko
eta orrek eskatzen dauan lez biziteko:
Dana da gizonaren laguntzarako,
gizon guztien laguntzarako.
Etaezbestetara.

•

1. Berbak baino geiago diran berbak

Gaur berton izparringi batera begirutzen ba'dogu, eta antzera atzoko ta ariñugungo izparringira begiratu ezkeru, berba batzuk aurkituko doguz beti agertzen diranak: Eko no mi-arloko larruinea, dirua arintzea, lanik-eza, lan-iztea. Gizarte-zalekeria (Sozialismua), Domu-zalekeria (Kapitalismoa), sindikatoak (Alkargoak), atzerakuntza. zuzengekeria, zapalkuntza...

Eta zer esan nai dabe berba orreik? Bakoitxak diñoana baiño ez? Geiago, askoz geiago dinoskue, bakoitxak esan nai dauan baiño askoz geiago.

- **Ekonomia deritxogun jokabide bat dagoala diñoskue. Ekonomiak eskuarteko gauzen urritasuna aztertzen dau, ondasunak eta laguntzak lortu, banatzeko, erabilteko, gizartea osotzen daben guztien aldetik, eta gizonak ezin itzi alde batera ekonomia, ori gaiñera datorko or dagon gauza lez, eta bere bizitzearen arlo aundiak artzen dauz. Ori bear da biziteko eta edozein mailletan biziteko.**

- Ekonomia deritxon jakituri orren ondorenetan, difioskuenez, arazo sakonak dagoz, **ondasunak ez diralako eltzen guztiakana bardin, eta askorentzat bear dan beste ondasun eltzen ez dalako.**

Ekonomi-arazoan gizaldiak aurrean daukazan arazoak ikusita, diñoskue, batzuk jokabide zuzenak artu dabezela eta guztientzat onak izango diran bide batzuk artzen asi dirala. Beste batzuk oster, arazoak bakoitxak bideratu bear dauzala diño, bakoitxak al dauan munduan eta sarritan beste batzui kalte egiten jakela.

- **Jente asko dagoala, diño, euren bizitzan gozamina baiño beste baliorik ez daukenak. Orreri atsegin-jokabidea edo moral edonista esaten dautsoe.**

Labur esateko, ondasunak lortzea, lortua gizonen artean banatzea eta ondasun orreik erabiltea, gizonak daukaguzan arazo-iturrien artean sako-nenak dira.

Orregaitik arazo orreik aztertu egin bear doguz eta orrein aurrean kristiñau batek ze jokabide artu bear dauan ikusi kristinauentzat bide zuzena zein dan pentsau.

2. Emen **zer jokatzen** da

Agertu dogun ikuspegi oso au astunago biurtzen da, emen zer jokatzen dan begiratzen dogunean. Izan be, ondasunak zelan sortzen diran, ondasun orreik zertarako diran zer pentsatzen dan, personeak, alegin geiago edo gitxiago eginda, Jaungoikoak zertarako egin dauan kontuan dala elburu ori lortuko dau edo ezelan be ezin lortu izango dau.

Beste berba batzukaz esateko: Arlo guzti onetan personeak jokatzen dauana personearen maillea lortzea edo ez lortzea da.

Azken baten, izatea edo ez izatea.

Personak izatera eltzea edo ez eltzea... da
emen jokatzen dana.

3. **Kondaira apur bai**

Gaurko arazoak, asko, joan dan gizalditik daioz (Ikusi V gaia). Makinea otorri zanetik langintzaren jraulketea lertu zalako.

Orduan, egoera barri onek sortu ebazan ekonomi-giro barriak ikusita, jazokizun arrigarri batzuk sortu ziran eta jazokizun oneik izan eben aurrerapena ez zan izan gizonaren duintasunari egokiona. Esaterako, Langintza sortu zanean ondorenak lortzeko erea aldatu egin zan (ekonomi-giroko jazoerea); orregaitik esku-lan geiago bear zan eta asko arrietatik urietara aldatu ziran (gizarte-jazoerea); eta urietan ez eben aurkitu bizileku egokirik, ez gizarte-babesik, ez euren eskubideak zaintzeko biderik (giza-norkien duintasunaren aurkako jokabidea zan ori).

Egoera onetan izan eben be/e sorrerea langilleen eragiñak eta onek bere alde jokatzeko bideak artu ebazan (alkargo edo sindikatoak, lan-izte edo uelgak...) eta bide orreitan lantegi-jabeen alkarteen aurka jarri ziran eta oneik be euren eskubideak edo interesak aldeztuten ebazan. Langilleen alkarteak

eta jabeen alkarteak **alkarren aurka jarri ziran**, ez batagaz **eta ez** besteagaz ez egoan **laterriaren aurrean, baiña berez** laterriak indarlsuen alde jokatzen eban **eta indartsuak jabetzen ziran Laterriko ta Politikako** erakundeari begira.

Gizarte-Auzia esaten jakon naste **aundi eta auzi au, orain** argi dagoanez. politikeagaz eta ekonomiagaz ondo lotuta dago.

Gizarte-Auziaren arlo onetan Eleizearena izan zan esku-arizerik argiena ta garrantzitsuena, arau-giroan eta gorengo maillan, Aita Santuen bidez, argitasuna emoten alegindu zan. Kristoren jarraitzaileen zinzlotasuna aurrean dala personak alkarren aurka jarten ebezan eta dabezan arazoak bñieratzeko.

Orregaitik, XIII Leon bere Rerum Novarum agiriagaz **así eta gaur arte, ez** dago Aita Santunk arazo oneri ikutu ez dautsonik.

Eleizearen azkenengo **itza dan agiri bat "Eleizea ta Gaurko Mundua"** deritxon Batikano'ko li Eleiz-Batzar Nagusiaren agiria **da:** Gizaldi onetan agiri au argibideko giltza da.

Zeren **billa** dabil Eleizea "Gizarte Auzia'Yi buruzko agiri **onein bidez? Ez dau** nai besterik argia emonaz bere zeregiña betetea baiño, orrelan gauzak zelan izan bear leitekezan argitzeko daukazan burubideak argi egon daitezcan eta egiteak naiz jokabideak argibide orreikaz **batera joan eta egitez** bete daitezcan.

Eleizeak dakazan burubideen **artean bat dago beti argi agiri** dana eta bere inguruan **beste guztiak** darabiitzana, dana bere menpean daukana: **Giza-norkia izan bear** dala ardatza **eta gizarte, politika** ta ekonomi-ekintza guztien oartzaillea.

"Edozein gizarte-erakunderen asierea, egillea eta elburua giza izakia da **eta izan bear da, giza-izakia da izan be, bere** izateak ori eskatzen daualako, gizarte-bizitza oso-osoa beardauana".

Batikano'ko, eleizea **ta mundua, 25-a**

"Ekonomi ta Gizarte bizitzaren egillea dan gizona, bera da bizitza orren ardatza ta elburua **be"**

Batikano'ko II^s Eleizea ta mundua, 63-a

5. Izan ala euki?

Elizeak argi izten dauana auxe da: Bizitza onetan danak egon bear dauala gizonaren laguntzan eta ez irabaziaren, errentaren edo burubidearen senbitzioan.

Orrelan ba, dana gizonaren laguntzarako, gizona geroago ta geiago eta obeto gizona izan daiten. Ondasunak bere laguntzarako izan daitezcan "eta ez alderantziz", persona lez bere Egillearen antzekoa izan daiten: Auxe da Asiera liburuko aginduak dauan esan-gurea (As. 1,28).

Baiña gaur asko dira eukiteak izateak baiño garrantzi geiago dauala uste dabenak. Eta, jakiña, geiago eukitea, geroago ta geiago eukitea, zoroen elburua da, gizona morroi eta gauzen naiz ekonomi-erakundearen menpeko biurtzen daualako (eta ez gauzak eta ekonomi-erakundea bere alde erabilli); edo beste era batera esateko, euki-gureak gizona gizon ez izatera daroa, bere nortasuna galtzera.

Zer da jazoten dana, esaterako, jaun batek zelaietan etxea eukiteko, lan eta lan, bizia galtzen dauanean eta zori txarraz gero bera il dauan etxe orretan atsedena artzeko eperik ez daukanean?

On* bai ba-daía gauzak buruz bera ipintea, eta sarritan ikusten dan gauzea da, izatea baiño eukitea geiago baliatzea. "Konsumo-gizarteak sortzen dau ori eta batera orrek konsumo-gizartea sortzen dau. Orixe da gaur sortaldean daukagun gizarte-erea.

Gizarte onentzat gauzarik garrantzitsuena, gizonaren elburua, erosi, norberagandu eta gastatea da, naizta gero erosten eta norberagantzen dana bearrezkoa izan ez. Eta orrelan gauzak biurtzen dira gizarteko errege, gauzak gurtzen dabez personak, gauzak dira personen jabe. Gizonaren izaerea oso-osoan buruz bera geratzen da. Eta munduko ondasunen elburua be bai: Ez dira ondasunak gizonarentzat, gizona da ondasunentzat.

Olako gizartera sartuta ez da iñorentzat be gauza erreza, kristifiauentzat be ez, konsumismoa alboratzea. Baiña kristiñauak ez dau aitzu bearko, persona persona lez aurreratzeak Jesus'en eriotza ta berbizkundearen jokabidea bear dauala.

**Ezin eldu norki izatera
eukitea elburu lez alboratu barik:
konsumismoarerrtzat iltea da
gauzak menpean eukiteko,
eta norberaren burua osotzera eltzeko bidea.**

6. Kristiñauak ekin eta ekin

Gizarte baten **bizi eta antxe ekiten daualako. Eta kristiñau-izaerea** bera agertzeko **tokia, sendia, besteakaz artu-emonak diran lez, ez dauka** beste biderik **ekintza ori kristiñau lez politikan, ekonomian eta gizatean agertzeko: Danean kristiñau izanda baiño ezin bizi leiteke fedea eskatzen dauan lez.**

Eta politikea, ekonomia eta gizarte-arazoa kristiñau lez bizita oneri esaten dautsagu "gizarte-jokabide" ona eukitea edo "errikideen etika".

Kristinauaren gizarte-jokabide zuzenak auxe eskatzen dau:

- **Fededunak diranakaz naiz ez diranakaz alkartuta jokatu *guztientzat* gizarte ohea lortzeko. Eta orrek eroan bear dau kristiñau erritarren eta politikako alkarteetan sartzera, sindikatoetan lan egitera, beti bere fedearen aurka ezerten ekin barik.**
- **Gizartean diran gastuetarako diru-laguntza emon. Laguntza au zergak ordainduz emoten da eta orrelan laguntzen da guztienak diran gastuak ordaintzen, esaterako bide *barriak, eskolak eta abar...* Eta ondoren lez dator: Geiago daukanak geiago lagundu bear dau. **Dirua aurreratzeke zergak ordaindu barik iztea, ez da fededunaren jokabidea: Gizarteko lapurretea da ori. Eta jokabide zuzenaren ikuspegitik begiratu ezkerro, zerga-aldatzea beti zuzendu bear da daukenak ordaintzeko bidetik, eta ge jago dauke nak geiago.****
- **Ez da iñoz pentsau bear eta ez da iñoz ekin bear norberaren eta faldearen gurariak edo gure erriarenak dirala bakarrak uste izanik. Edozein kristiñauak bere ikuspegia mundu guztiari begira euki bear dau eta mundu guztian ainbeste milloi personak dauken bizikera errukarriak bere aragian min egin bear dautso. Egoera errukarri ori, geien bat, erri aurreratu en eta errikide aurreratu en zekenkeriak eta ondo bizi-gureak sortu dau: Kristiñauak alegiña egin bear dau burubideak aldatzeko eta guztiak ondasunak zergaitik eta zertarako diran ulertu dagien.**

Jesus ez zan izan ardurabako munduko txiroen aurrean: "onei egiten dautsezuea, neuri egiten daustazue", eta kristiñauak ez dauko txiroen aurrean ardurabakoa izaterik.

EGIN GEINKENA

Iztegia: Billatu zer esan nai daben berba oneik: Ondorenak lortzea, larri-unea diru-arintzea, atzerakuntza, zapalkuntza, izerdi-kentzea, ekonomia, baliola, atseginkeria, zirriborrotu, eskaria, eskintza, sortzea, nastea, nora-ikurra, gizarte-erea, zerga-ukatzea, ondo-gurea, zergategia, errentea, eralketea.

Zer da... "Ipar-Ego-alkar-izketea? eta "sortaíde-sartalde-alkar-izketea?

Ezagutu... idaz-lan oneik. "Begiratzaiüea deiez" J.B. Priestiey'rena "Irukoi-txa" Van Der Meesch'ena.

Irakurri... guztiak batera ikas-gelan asteko izparringiak gizarte-Auziaren ikuspegiak.

Aztertu... lanik-eza, gure erríkoa, orretarako izparringiak ikusita edo Lanbakoen idazgora joanda.

Egln... ikasle bakoitxak zerrenda bat gastaten dauan eta bear ez dauzan gauzak ipiñiaz. Gero erosteko ustea dauan gauzena. Ondorenak aztertu eta ikusi, guztiok gagozela konsumo gizartera sartuta eta ez dala gauza erreza ortik urtetea...

Zer da... dirutza aundien ^esa? Gai au kontuen dala argitu arazo ori.

Zelan dabil... gosea ren aurkako ekintza?

Lortu... guztiak ekonomia zer dan esatea.

Gogoratu... norkia zer dan BUP'eko lenengo urtean ikasi zan lez.

Ba-dakigu,, jainko-izunak zer diran. Non dagoz gaurko jainko-izunak?

Ekarri... ikas-gelara ekonomi-aldizkari bat eta idazlan baten laburpena egin daziela ikasleak.

irakurri,, XV gaiaren azkenean labor agertzen dan eskutitzaren zatiak eta parekatu: konsumoa ta ekolojia.

Zer esan nai dau... ondoren-bideak gizarteratzeak? Zer da "Azoka-Gizartea"?

Batu... Batikanoko II Batzar Nagusiaren "Eleizea ta Gaurko mundua" agiritik gai oneri buruz diran zatiak.

Egin... ludiaren irudia, bizta nieen giza-maillea agertuz.

Osotu... orma-irudia eta orma-irudian sariketea, gaia ondasunen banaketea dala.

pT w ffs w w

XVIII. GAIA

LANIK-EZAK IL EGITEN DAU
(Jokabide zuzena laneko artu-emonetan)

**Blotz-Inguruko zanak aldatzen dauz, oztasuna ta
goserik-eza, estutasuna ta barru-larria ta gogalbidea dakaz.**

Lan batzuk gizona osotu-bearrean zapuztu egiten dabe,
baiña izatez, lana da bide bakarra,
gizona gizon lez osotu daiten;
lañaren bidez gizonak mundua aldatzen dau. Ondasuna da.

Baiña gizona ez da lanerako beste bank;
atsedena artzea eta atsedena **ori** onuragarri biurtzea
gizonaren eskubidea ta bear-izana **dira...**

Baiña tan batzuk ez dagoz gízanbídearen barruan,
eta atsedena bera be, txarrerako erabillia izaten da.

Mundu onetan,
zuzentasuniketa maitasunik ez dala,
kristiñauen aukerea
zuzentasuna ta martasunadira,

OARRAK

1. Ona ala txarra?

Esaldi asko, beti entzunak diralako, lana zori txar lez agertzen dabe, ze-lan edo alan ortik iges egin bear dala diñoē... Zuk ba-dakizuz olako esaldiak?

Beste batzuren ustez, lana ez da bedeinkapen bat, zeruak emondako zigor bat baiño. Eta ori ez da Eleizearen eritxia. "Lana Egillearen lenengo bedeikapena da" (Monjuich'en 82° 11^s 7).

Baiña izparringietan agertzen diran idazpuruak ikusi ezkerro, ez da besterik bear eta auxe da ondorena: Lana, ondasuna da; iana bizia da.

Sarritan, lañaren inguruan baldintza txarrak dagozelako, gizonari lana txarra dala sinistu-azoten dautsoe. Ori jazoten da ian-sariak zuzentasun-bakoak *dIranean*, lan-g/roa gizabidekoa ez *danean* ían-egunak luzeegiak diranean...

2. Baiña zergaitik da ondasuna lana?

Lanik-eza txarra dalako atera geinke ortik lana gauza *ona dala?* Ez. *Errazoi* sakonak daukazuz lana berez ondasuna dala uste izateko:

Lanak izadia aldatu egiten dau.

Lanak izadia aldatzen daualako

Lañaren bidez izadia gizonaren bear-izenetara egokitzen da eta lañaren bidez izadiak gizonari laguntzen dautso. Orrelantxe beteten dau gizonak Egillearen agindua. Ugaritu ta zabaldu zaiteze. Bete lur guztia ta menperatu (As. 1,28).

Ekintza onek, jakiña, aletin aundi bat eskatzen dau. Eta aletin aundiegia ez daitela izan lortu bearko da. izadia menperatzeko guraria ez dauala bete, gizonak uste izan ez dagian. Eta orixe jazoten da lana gogorregia izan eta gizalegiaren aurkako biurtzen danean; edo lana oso-osoa trebebidetan sartu eta berezitu danean, norbera aukera bakoa, autómeta, biurtzen dala ikusteko neurrian; edo.

Lanagaitik biurtzen da gizona gizon

Lana ez ba'leuko gizona oso-osoan izadiaren indar itsuan menpean egongo litzake. Orregaitik, gizon lez izan be ez litzake izango. Eta ori ez bakarrik izadiak geiago egingo leuskiotako eta bere askatasuna aurrera ateraten ez leukiolako iiziko, baita, batez be, gizonak eginkorra ez ba'da, bere burua gizon lez ikusten ez daualako be. Gauzak egitea bearrezkoa da gizonarentzat eta egite au, ekintza, ibilli-bearra baino be askoz geiago da: personea izatetik datorren gauzea da eta beronek bultzatzen dau gauzak aídatzera doala sentzartzeko ta biziteko.

Baifia sentipen eta bizi-ikasi oneik, lañaren bidez munduak artzen dauan ikuspegi au, eta lanak gizonarentzat daukan ikuspegi au ez dator alkarte batuen edo korporaiibisten bidez eta ez erakunde aske-zale ta domuzaleen bidez be. Erakunde batzuk naiz besteak, gizona alboratu egiten dabe, ez dabe kontuan artzen langillea, beargina, eta langillearen egitekoa makiña utsen maillara jasoten dabe, ondorenak lortzearen bidean kideko izaten be itzi barik, eta gitxiago jzien dautsoe ondasuna banatzeko orduan.

3. Laník-eza, okerkeria da

Lana ondasuna da,

Baiña bat-batean ekonomi-giroko larruneua sortzen da. Edo lana ez da ondo bide ra tzen. Eta orduan ez dago guztientzat lanik eta gizon asko, biziteko eta gizon izateko lana bear dabenak, lan-barik dagoz. Auxe da gaurko gizartearen zauri bat.

Eta lanik-eza gizarteko zuzengekeria edo okerkeria da. Orregaitik guztiok aurpegia emon bear dautsagu lanik-ezari al dogun neurrian. Ondorenak benetan kalte aundikoak diralako.

Eta (aník-ezari aurpegi emoteko, ara zer bear dan: Irudimena urtenbide barriak eta onak aurkiizeko; alegiña gizarte arazoak aunditu ez daitezkan; eta alkar-lana langilleen artean, lan-bakoai begira.

Zalantza barik au dana gaur zabal dabilzan jokabide batzuren aurka doa: Ordu berezien aurka, lan-leku bat baiño geiago eukitearen aurka, jokabide oneik batzuk aberastu eta beste batzuk txirotu egiten dabezelako...

Argi dago ekonomiaren bideratze osoa egin bear dala. Eta **au** egin bear dabenak **lenengo ta bein, laterriko agintariak dira; baiña baita gizarte erakundeak be** (sindikatoak, baltzu-buruen erakundeak, alderdi **politikoak**...) Gizarte osoaren *arazoa da ela* gizarte osoak egin bear dau **lan arazo au** bideratzeko.

Urlenbideak ez diranak

ori esaten dautsegu íanik-ezari emoten *jakozan* urtenbide batzui, baifia benetan **urlenbideak ez diranak, naizta une baterako** arazoa nasaitu. Olako batzuk benetako larkenak dira.

- **Lurrez-aldatzea** Edozeiñek dauko ori egiteko eskubidea, baifia **íñok** ez dau egiten bear-izanak *eraginda baiño*, bide orretatik ekonomi-arazoari nasaitasun **apur bat emoten jako, baiña beste arazo batzuk** sortzen dira gizartean, gizonen gogoan, sendíetan eta abar...
- **Lanik-ezari babesa, Au be nasaitasunerako bidea da guztiai el-tzen ba'jake eta guztien bear-izanak beteten ba'dauz. Bairia** ondo egin ezean, **kirtenkeri askori** zabaltzen dautse bidea.
- **Lan-astea Jaburtea, Au** bide ona **zan lan-lekuak** sortzeko, baifia alkar-gogo **aundia bear da, bai baltzu-buruak eta bai** langilleak **ori onartzeko**, bitzuentzat irabazia murriztaten *dalako*.
- **Isllleko-lanak. Au larkeri bat da,** ziurtasunik-eza artuta, lan-barik dagoan Jagillea bide dala, **gizartean oztu egiten** dautsolako eta langilleak morroitzara sartzen dauzalako. Okerkeriada au.

4. Asti-aldlak bearrezkoak dira

Asti-aldi ak
gure almen guztiak
aurrera aterateko dira.

Izan **be, gizona** ez **oa** esku-Jangiile utsa. Gizonagan gauzak sortzeko beste almen asko ta aundi batzuk dagoz.

Orregaitik asti-aldien arazoa aurkeztu egin bear da; asti-aídiak eta lana alkartu egin bear dira, baiña ez bata bestearen menpean jarri.

Astiaaldiak ez **dira lanera** biurtzeko artzen diran atsedeen-aidiak. Geiago **dira**. **Bakoitxak bizitzan artzen dauan aukerea dira, askatasunaz eta gogor** beragan daukazan **almenak aurrera aterateko**. **Benetako astitsuak ez** dauka inondik be alperarren edo gogo-bakoaren **antzik**.

Izatez, **eta geroago ta geiago**, lan-eguna **laburtu dalako asti** geiago dauko bakoitxak **beste gauza batzutarako**. **Eta oneri indarra emon bear** jako, baiña **baita zaindu be**; **astia, gizonaren ekintzarako dan ezkeru, erabilia** izatearen **eta nortasuna** gauzearen **arriskura sartzen da eta batera lanak** daukazan **tez ñxaropen** aundiak **daukaz**.

Gaur daukaguzan gizarte ta **ekonomi egoeretan, lanaik-ezak ez dauka** **urten-biderik epe luzera baiño eta astiaaldiak bear daben benetako balioa** izatea **(eta lanari salgai-balioa kentzea)** **bide ona izango litzake gaurkoa barik** beste **era batekoa dan gizona** sortzeko, gizalegean sakonago dagoan gizona, **eta ori ona litzake ekonomi-arazoak** alkartze-bidetik bideratzen asteko. **Ez da onartzen eta norberaganatzen, baliokotzaí artzen dana** baiño. **Eta asti-aldiari baliorik emoten ez ba'jako, asti-aldian gizona norki lez aurrera** aterateko **bide lez ikusten ez ba'da, asti-aldia ez da onartuko eta arazoak** atzeratu egingo dira, ez bideratu.

Norkiari **buruzko** burubide **zabal au, gizona esku-langille utsa dala uste** ez izate **au, gizona Jaungoikoaren irudi dala diñon kristiñauen burubideagaz** **batera doa**. **Izan be, Egilleak munduari begira** dauzan asmoen bidean dago, **lurra betetzen dogun gizonai buruz, berak** dauzan asmoen bidean.

5. Lan-lztea eskubidea da

Lan-lztea jzan da langilleak euren eskubideak zaintzeko izan daben)ana-**besik onena**. **Eta sarritan bakarra**. Orregaitik egiten jakoz azterketa **zorrotzak**. **Orregaitik, arlo onetan, kristiñauok, Afta Santuen irakatsiai jarraituz, argi diño-**gu bidezko eskubidea dala au.

Kondairari begiratu **ezkeru, errazoia argia da: Langille bakar betek lanik** egi-ten ez ba'dau eta ori lañaren baldintzak zuzenak **ez dirala uste** daualako, ba ltz u-buruak **beste bat artzen dau orren leku rako eta kfto**. Baiña (en gil le **guztiak, batera, lanik egiten ez ba'dabe** baldintzak **obetu arte, orduan** beste ikuspegi bat agertzen da.

Lan-izlea langilleen eskubide bat da ba eta euren eskubideak zaintzeko edo egoerea obetzeko, azkenengo lorbidea da eta iñok ezin lei galazo edo ztgortu eskubide au.

Lan-izteak be bere mugak ditu, guztien onetik datozenak (gizarte-kalte aundiak, lanik-eza beste elburu batzutarako erabiltea...) eta erabilten dan go-gorakeriari begiratu ezkeru be bai: *gonputzeko gogorrena, g'izak'ia*ren duintasunaren aurka doazen ekintza gogorrak...).

Lan-iztearen aurka doan jakoa, ugazaben fantegi-zarratzea da. Au egoera guztiz larrietan izaten da. Orregaitik ez da erreza ondo dagoala esateko lako egoerak aurkitzea. Bartzua ez da dirua irabatzeko bakarrik, battzuak gizartean bere zeregiña dauka. Orrek esan nai dau edo zarratzea argi zuritzen dala edo baltzua ez dala, izan bear dauana.

6. Alkargoak (sindikatoak)

Gizarte-giroan, lagilleen alkargoak garrantzi aundia dauke eta zeregin aundia beteten dabe.

Langilleen eskubideak zaintzeko sortuak dira eta asieran aurrean erabiliak izan ziran.

Arlo onetan be Aita Santuak beti aldeztu dabe alkargoen eskubidea ta zuzentasuna. Orregaitik kristiñauok beti begiratu bear dautsegu txera onaz eta beti izan bear dogu euren ekintzakaz alkartzen errezak, bai sindikatoen barruan eta bai eurai laguntza emonez, kanpoan gogozenean. Langilleen eskariak geienetan zuzenak izaten dira.

Dana daJa, politika-arloru sartzan dirala salatuak izaten dira leku askotan sindikatoak eta kendu egiten dabez. Baiña euren zeregiña ez da politikea. Sindikatoak politikara sartuko balitzaz, euren egitekotik kanpoan jokatuo leukee. *Jazoten dana auxe da; Ekonomi ta lan-arazoak dabezan* ikuspegiak ikutu egiten dautsela poititika-arloai, esaterako, Laterriari eta alderdi politikuai eskariak egiten dautsezenean erri-aurrean. Baiña orrek ez dau esan gura sindikatoa alderdi po liriku bat dala.

Errazoi guzti orreikatik, kristiñauak, mundu-au anai-girokoa izatea nai dogun ezkeru, argi ikusi bear dabe maitasuna ez daia eleberri bigun bat eta zuzentasuna oiñarri izan ezik, ezin lortu izango dala ezelan be lan-arazoak urtenbidea aurkitzea, guztiok Arta baten seme-alaba lez bizi al izateko.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu zer esan nai daben itz oneik: Asti-aldia, morroitza, aukera, **betiko tokia**, **alkarte-gjrokoa**, ondoren-bidea, banatze-bidea, **egínbide** osoa, laguntza, isilpekoa, esku-langille, saiketa-batioa, zuzenbidekoa, eskaria, **larke-ria**.

Irakurri... "Huxley'ren mundu zoriontsua".

Batu... *Aña Santuen* eritxiak **lan-lzteari** buruz e/la alkargoai begira, gizarte arloko agiri nagusiak aztertuz.

Zein da... Baltzuairen gizarte-giroko zeregiña? Eta beteten dauana?

Batu... janari buruz entzuten diran esaldiak. Aztertu eurak obeto ulertzeko eta lanari buruz dagozan burutasunak jakiteko, epaitu burutasun orreik, gai onetan esana kontuan dala.

Morroitza... kendua izan zan, baiña bat beste baten morroi izateko beste bide batzuk be ba-dagoz. Zeintzuk dira, zure ustez?

Esan labur... Il Juan Paulo Aita Santuaren "Laborem exercens" agiriak diñoana.

Billatu... zeintzukdiran gizona gizon lez osotzea galerazoten daben lanak.

Iztegiagaz... jakin latínez zer esan nai daben berba oneik "Faber" "Otium".

Zeintzuk... dira lur-aldatzeak dakazan gogo ta gizarte-arazoak.

Epaitu... lan-bakoen saria artu eta batera lan egiten dabenen jokabidea.

Zergaitik... ete da lanik-eza gizartearen okerkeria.

Billatu... itaunketa bat eginda, gure asti-aldiak zertan igaroten doguzan.

Zer eta da... basati-giro ko lan-iztea?

Asti-aldia... dira opor-egunak. Baieztatu egun orreik izateko eskubidea. Aztertu zertan erabilten diran.

Emon geure eritxia... emakumeen eta umeen lañan buruz.

Irakurri... Giza-eskubideen agerpenean ONU'k aitatzen dauzan lan-eskubi-deak.

Zer ete **dira...** JOC eta HOAC?

XIX. GAIA

ERRIGINTZA

(Politikako arlu-emoneíarako jokabideak)

**Gizonak aurrera egiten dau politika-arioan. Baihia *aurrera*
egite ori oraindiño ez da amaitu.**

Lurraren gaiñean agertu zanetik gaur arte,
gizonak zigorretik alkar-izketara
igarotea lortu **dau**.
Astiro-astiro obetu dauz
bere errigintzako jokabideak.
Baiña berbak berba eta egiteak egite:
Gaur be politikako jokabide asko
ez dagoz oso-osoan sartuta
alkar-izketara, giza-itzaltasunera
zuzentasunera ta askatasunera.
Guk kristiñau ok,
serbitzaille agertu zan Jesus'en antzera,
erri-bizitzara sartzeko
eskubide ta eginbearra daukaguz.
Erri-bizitza au gizonari dagikion *lako*a
eta Jaungoikoaren gogoaz obeto alkartzekoa
izatea lortu bear dogu.

OARRAK

1. Gaurko politika-jokoa

- Polrtikea jenteari pentsaerea kentzeko bidea da.
- Gureak irabatzen dabenean, dana konponduko dabe.
- **Polrtikea polrtikarientzat.** Orretarako artzen dabe **saria**.

Alegiña egingo ba'gendu, guztion artean lortuko genduke **politikan buruz entzuten diranakaz zerrenda** osoa egitea. Eta guztiok ezagutzen edo erabilten doguzan esaldi oneik, batzuk polrtikea alboratzeko izango litzakez, beste **batzuk oso-osoan** polrtikara sartzeko. Banaka **batzuk baita, dana** bardin dautsela agertzeko.

Zer jazoten da or? Zergaitik da ori?

8ear ba'da, politikea sakon artzen dabenak oso gitxi diralako, baretasuna **ta egizko izatea** falta diralako. **Eta, jakiña, gizona** "abere politikua" **dan** ezker, eta politikea iñok be albo baten **itzi ezin dauan lez**, jokabide okerrak sortzen **dira arazo oneri buruz. Polrtikea itzi eta albotik igarotea bera be, polrtika-jokoa** da.

Orregaitik, **krisiñiauoak arazo au argi agertu** bear dogu, **baita ondo ulertu be, kristiñau** lez alboratu eziña dan arazo onen aurrean zelan jokatu ikusteko.

Baifia kontuz, **emen** eskatzen doguna ez da zein alderditara sartu bear dogun eta **kristiñau lez zeñeri autarkia emon bear dautsagun itandu edo erantzutea; laster ikusiko dogu zergaitik. Polrtikearen aurrean euki** bear dogun kristiñau-jokabidea zein *dan ikustea da nai doguna.*

2. Zer da errigintza edo polrtikea?

Gaur **pentsalari** euskaldun betete **onelan** zeaztuten eta argitzen dausku arazo **au**.

"Ez da aiztu bear gizona *abere-mota bat daia* **eta milloi bat urte** baiño geiago daroala lurraren gaiñean ibilten eta urterik urtera biziten. Milloi bat **urte orreitan, astiro-astiro baso-baltzeko ta** zigortzeko legeetatik gora igon dau. Egin dauan aurkitzerik aundienetariko bat errigintza izan da.

Zigortzeak itzi eta urrengo egunean, gizonak eztabaidatzerako jesarri ziran baso-baltzaren utsune baten. Ortxe jaió zan polit ¡kea.

Eztabaidatzerako jesarri: Berbea zaratatsu sartu da, oiuka, irrintzika. Talde biren arteko berbea, alkar-izketea. Gizona burubideko aberea da, abere poitikaria. "Poiís" "civitas" uria da, ortik urigintza, errigintza, errikidetzatza, erri-jokoa...

Bestea ezeretzu barik, alkar-izketarako lagun lez artzen da eta apur bat itzi egiten jako, oraindiño zigorrak oso-osoa itzi barik. Gogorkeritik eginbearra igaroten da gizona, errigintzako jakituria, eginbearraren ertilana".

Gogorkeria munduan eta Eleizan
U RB INAlar Fernando'k Nova Terra'n.

Baiña aurrera jarraitu baiño lenago, zeaztu dagigun obeto politika edo errigintzari buruz daukagun eritxi au.

Gauza bat da "politika-arloa" eta onetara sartzen da edozein giza-ekintza, gizona erri-barruan bizi dalako eta egiten dauan danak besteakaz zer-ikusia daukalako, eta *gauzea* onelan begiratu ezkerreko gizona beti dago politika-arlorra sartuta.

Gizona
politika-arlotik
ezin da urten.

Eta beste gauza bat da "politikako ekintza". Onak "erri-aurreko" arazoak eratzea ta aurrera ateratea billatzen dau (erromatarren "res publica"), guzitoi *ardura* dauskuen eta ikututen gaituen *arazoak*. Au da laldean eta alderdi politikuen egitekoa. Ekintza onen ondoren lez sortzen dira laterriaren errea eta jaurtzeko edo gobernatzeko errea. Ekintza orrek dakar gizarteko agintaritzatza. Eta ekintza orretatik gizona aiboratu egin leiteke, orreri joaten itzi. Baiña ori be amets utsa da. Izan be besteai erabagiak artzeko eskubidea izten jekenean, onein erabagiak ikututen gaitue. Orregaitik, polítikara ez sartzea be politikea egiteko era bat da.

3. Egin dan bide-zatia

"Edozeiñek dauka bere errialdean
jaurtzen kideko izateko eskubidea,
naiz zuzenean naiz ordezkoen bidez,
ordezkoak askatasunaz aukeratzeko
dirala" (Giza-eskubideen agerpena, 21 n. araua)

Gure kondairara astiro begiratu ezkerreko, laster ikusten dogu basatien arteko legea, indartsuenen legea, izan zanetik, antziña izan ziran nagusi ankerren legetatik *igarota*, bitartean Aginterri aundiak, Jaungoikoaren *izeneko agintzeak*, eskubide osoak eukezan bakaldunak dirala, Giza-Eskubideen Agerpeneko 21 n. araura eldu arte, gizadiak bide luze bat egin eta bere erri-aurreko erakundeak osotu ta obetu egin dauz.

Baiña gauza bat da orretzat arro egotea eta beste bat orrelan jokatzea. *Gaur berton* be 21 n. *arau ori* benetan beteten daben errialdeak gitxi dira.

Baiña, burubide utsezkoa eta errialde batzutarako bakarrik izan arren, gizonak politika bidean egin dauan aurrerapena aundia da. Jakituria ta jakintza aurreratzeagaz batera, bere buruaren ezagutzea be lortu dau ortik datorkoz bere gurari sakonak bardintasunerako ta guztien artean gauzak egiteko. Orrelan gizonak norki lez dauan duintasuna ta askatasuna (Octogessima adveniens 22) agertu ta bete egiten dauz.

Orregaitik esan geinke, bardintasuna ta batera gauzak egitea diran gauza bi oneik politikazko aginte-erak edo jaurtzeko bideak, ondoen beteten dabezen orreixek dirala jaurtzeko erarik aurreraluenak eta duiñenak, olako gurariak ziurtatzen edo bideratzen ez dabezan beste era batzuk baiño askoz lenago.

Orregaitik, guztiak begirata, zelan edo alan, erri-aurreko arazoak bideratzen dabezan eta mailla guztietan bardintasuna billatzen daben erri-jatorri ko aginte-erak dira benetan norkiaren neurriko aginte-erak.

Eta orregaitik egitez olako eskubideak ebagiten dabezan errigintzako erakundeak, dauken izena daukela, aztergarriak dira. Eta norkiaren aide benetan doazen beste aginte-era batzuk sortzeko diran ekintzak zuzenak eta bearrezkoak dira, ekintza orreik lortu nai dan ondasuna baiño kalte aundiagoak ez da'dakarrez beintzat.

4. Errigintza izan bear dauana izan daiten

Eta ez sarritan **izaten** dan lakoa. Orretarako bear dana auxe da; Baldintza zeatz **batzuk eta bardintasuna ta kideko izatea diran gurariak bideratuko dabezan barru-barruko** jokabide batzuk.

Berba **bi alkartu doguz "jokabideak eta baldintzak"**. Bear diran baldintzak ez diralako agertzen jokabide osasungarriak ez dagozanean, narraztubakoak **eta ondo ezagunak doguzan** jokabideak dagozanean. Jokabide **ta** baldintza oneik ez ba'dagoz **ezin leike aurrera egin eta politika-jokoa bideratu: erritarren** etika edo erri-aurreko jokabide-araue esaten jako onen.

Berbak eurak agertzen dabe **errez esan gura** dabena: basatien legea, **kirtenkeriak, maltzurkeriak, norkeri-laguntzak eta guztiok aztertzen doguzan** olako **jokabi-ezezkor asko; erritarren giroko eta erri-aurreko mundu** onek, banakakoen eta sendi-giroko munduaren antzera etika ta jokabide zuzeneko ekintza geiago bear dauz.

VI Paulo'k "Octogessima **Adveniens**" bere agirian argi agertu eban, errigintza-bkjeak nondik nora izan bear daben.

Norkiarf itzaltasuna

Bere duintasunari **eta eskubideai be bai**. Orrek **nai ta nai ez esan gura** dau norkiaren gurariak aintzat artu bear dirala (Octogessima Advenients 2).

Alkar-izketarako jokabidea

Esandako itzaftasun **orreatik sortzen da au**. Alkar-izketari **lez** ezbardifia dala, bestea onartzea esan gura dau baiña beste **ori balioko gauzak** ekarteko duin dala (Octogessima Advenients 4).

Eskubideak eta eginberrak artzeko gaitasuna

Gauza biak batera **eta ez beti norberaren alde** (Octogessima Advenients 24).

Legeat rzattasuna:

Eta *on beti*, lege zuzenak *diranean* (naizta legezkoa dana beti **izan ez** zuzena) **eta lege** orreik askatasunaz gizarteak bere erakundeetatik artuak diranean (Octogessima Adveniens 23).

Gizonagan uste ona

Baita aurreapenaren eta zuzentasunaren bideetatik jarraitzeko gizonak daukan gaitasunean be (Octogessima Adveniens).

Zuzentasunaren eta askatasuna ren gurariak

Orreik **biak ez dagozanean eta oiñarri ez diranean, ez dago sendoa ta** jokabide onekoa dan giza-erakunderik (Octogessima Adveniens).

5. Eta kristiñauak zer?

Izatez arlo **guzti onetan ez dago ezer kristinauena edo** kristiñauentzat **berezia danik: Jokabide ta baldintza oneik edozein gizon naiz andrarentzat** dirabaiioko.

Baiña kristiñau izateak erri-arazoten sartzeko daukaguzan errazioak sendotu **egiten dauz: Gu ezin geinteko, ez jaku zillegi, jesarrta bare-bare geratu** beste batzuk gizartea eratu dagien:

- Gauzak Jaungoikoaren eginbidean aurrera joatea lortzeko: Guíztok neba-arreba izan gaitezela.
- Kristiñauentzat **jokabide berezia lez Kristo'k itzi euskun** laguntza-jokabidea *izan dañen, ag'mtzea euren* buruak sendotzeko bide **lez aurkitzen** daben ainbesteren artean, politika-arloan zelan jokatu jakiteko besteentzat argia izan daiten.
- Norkiaren **duintasunaren aurka, berba naiz egitez** doazen **politika-erakundeak** aurrera egitea kentzeko.

Baiña esandako orrek **ez dau** esan gura kristiñauak eurentzat alderdi **politiku bat sortu bear dabela; ez eta** guztiok alderdi politiku batera **sartu** bear dogula be, **edo alderdi bateri geure autarkia emon bear** dautsogula. **Politikea** gizartea eratzeko bide bat da eta **bakoitxak askatasuna dauko** bere **ustez egokia dan alderdi edo talde bateri izena** emoteko.

Baiña **ori ez edozelan eta arduratu barik. Izatez, ba-dagoz kristiñauen** fedearen aurkako burubideak daukezan **errigintzako eginbideak, edo, burubi-**derik **aitatu barik euren egiteakaz gizonari buruz kristiñauak dauken ulerbidea-**ren **aurka doazenak. Eta kristiñauak olakorik ezin bereganatu, eutsi ezin leiki-**on **aurkaketa batera jausi barik.**

EGIN GEINKENA

Iztegia... Billatu zer esan nai daben berba **oneik: loturea, Oso-askea, izatez-**koa, **burubidekoa, sartu, ametsez, erri-agintaritza, alkar-izketa-lagun, lotu, nor-**keri-**barik.**

Ezagutzen dozu?... "Betikotasunerako gizona" atzez-mintza? Billatu bere gaia **zein dan eta asi berari buruz eztabaidatzea gai onegaz batera.** "Norberaren barruagaz ala alderdi politikuagaz zintzoa?"

ikasi... 1982'ko auteskundearen aurrean **España'ko Gotzain-Taldeak idatzi** eban **agiria.**

Aztertu... Eleizea ta erlejiñoa noraiño sartzen diran **España'ko Laterri-Lege** Nagusian **eta Euskadi'ko** Burujabetzaren **Araudian.**

Potitika-arJoan... **Politikea lanbide ez daben guztien zeregiña auteskun-**dea **egin eta autarkia emoten danean amaitzen ete da?**

Ikusi... alderdi politiku bakotxaren **egitarauak zer** diñon **erlejiñari buruz.**

Eztabaidatzea... kristiñauak zelan sartu bear daben politikara: guztiak alder-di **baten? Eurena dan alderdi bat sortu? Abadeak egin leikee politikarik?**

Batu dagluzan... eta gogoratu politikeari **eta politikarjai buruz esaten** diran **esaldiak.**

Zein da... esaldi onen esan-naia. "*Gizona* abere polifikaria da"

Iztegia eskuan dala... ikasi latiñezko berba oneik zer esan nai daben gaurko gizonentzat: **Uros, civitas, res publica; eta zer esan nai eben jatorrian. Billatu** baita politika eta demokrazia itzak nondik datozen.

Emon zure eritxia... Sartu zan Kristo politikara ala ez?

Irakurri dagiguzan... Octogesima **Adveniens Agiriarenak diran eta gai onen 4n. zatian aitatzen diran** zenbakiak. **Eta egin** laburpena.

Politika ta ekonomiak... euren artean dauken zer-ikusia zein da?

Esan labur... politikeak zelakoak izan **behar dauan, ez zelakoa dan, oni-erdi baten.**

Egin dagigun... politikeari buruz burubideen euri antzeko **bat. Gero** irakasleak eztabaídatzea bideratzen dau.

XX. GAIA

BAKEA, LORTU LEITEKEN GAUZZA

Delicado Baeza Gotzaiñak:

Munduaren zuzentzaille ak
eriotzarako **jakituria**ren bidea artu dabe.
"Bakea eta gerrea" gai daun ipar-ameriketako
gotzaiñen Artzain-Lan Idazkia.

Ingi at erra'ko Eleizea Atomozko Lerkaiaren aurka.

Zergaitik guda eta gudak?
Okerkeriak egiten diralako
eta izkilluak ugari dagozelako.
Okerkeriz beteriko **mundu au,**
izkilluz ondo jantzita, daukagu.
Gure zeregiña **ez da gudea zuzena izan** daiten
baldintzen billa ibiltea,
ez da guda **batzuk** zuritzea,
bakearen **alde ekitea baiño.**

Eta bakea
ez da gudarik-eza beste barik,
zuzentasunetik **eta** maitasunetik sortzen **da**
eta maitasuna, askatasuna ta egia da,
gauza bi oneik barik, iñoz ezda izango bakerik.
Zuzentasuna **ta maitasuna billatuz**
kristinauok bakea egingai biurtzen dabe.

OARRAK

1. Ez ezarri baldintzarik gudeari

Gudearen *zemaia ez da jarrñasun utsa: aurrean daukagun gauza bildurgarria da. Ori zalatu dau oraintsu ONU'ren* idazkari orokorra dan Pérez de Cuellos januak: "814 milloi abedetu-bako, 17 milloi ume goseak ilda... Laterri Batuak eta Sobiek Alkartuak egunero 10 milloi dolar eralgiten dabez kizi-indarrezko lerkaiak egiten eta amar bidar geiago **orreintzat** eroan-bideak egiten. **Gaur Dj-gBttBf TftnTT1** fi n n n kizi-indarrezko lerkaien **lertze-indarra, Hiroshima'n lertu zan aren lako milloi** bat lerkairen neurrikoa da".

Gauza bildurgarri oneik munduan izateak beti zabaldu dautsoz bideak gudeari eta orrexek biurtzen dau gaurko mundua, lertzeko arriskuan dagoan bonbategi.

Urte batzuk dirala jokabiderako arau-zaleak, gizaldi askotan gizonak ikasia batuz eta alkarren aurkako jokoak ezin baztertuz, "gudea zuzena izateko bear diran baldintzak" batu ebezan eta gudea iñoz zillegi izan izan ete daiteken itautzen eben.

Gudea zuzena izateko eskatzen ebezan **baló'mtzañk beiñenak** oneik ziran:

- Errazoi zuzena eta etorteko diran txarren neurrikoa.
- Gudea azkenengo oinkadea izan daitela, azkenengo errazoia, aurretik beste bide guztiak egin ondoren.
- Gudea, ona lortzeko asmoagaz egin dártela.
- Gudari gudarako gizonak eta gauzak baiño ez kaftedun izatea.

Ete dago gudarik gizonen artean izan danik eta baldintza orreik bete dauzanik? **Dana dala, baldintza orreitara eltzea, buruz baiño ez ba'da be, aurrerapen** aundia izan zan gizadiaren kontzientzi-arloan.

Gaur, gudea ondamendi orokorraren zemaia da. Mundu guztikoak izan barik **gaur** lurralde batzuk odolez gorritzen dabezan gudak lenagokoak baiño eriozkifiagoak dira eta or erabilten **diran izkilluak** askoz dira apurtzailleagoak eta ekonomia zapuztu ta bizitzak ondatu egiten dabez.

Eta olako egoeran aitatu ete lei guda zuzena? Ete dago errazoirik on zuhtzeko eta gudak ekarri leikezan kalteak bardintzeko neurria billatzeko? Ete dago eskubiderik urlenbide bakarra lurretik bizia kentzea dala edo lurraldeak ondatzea dala uste izateko? Nork ziurtatu leike guda oneik ona egiteko asmoagaz egina dirala? Eta nork ziurtatu, gaur dagozan izkilluak egonda, ez jakela kalterik egingo gudarako gauza ta gaia baiño?

Orduan, zer egin geinke ta egin bear dogu? Fededun lez, gauza bat: Gudeari baldintzarik ez ipiñi zuzena izan daiten, bakearen alde ekin.

Orixe izan zan Jesus'en jokabidea, geu rearen antzera zatituta gogorkeri-giroan bizi zan erri aretan.

2. Gudearen aurka zer dagoan

Baiña askoren ustez, bakea bildurkeria da. Bake-zalea izateak giza-izatasunarenak diran balio batzuk alboratzea askatzen dau.

Ez. Bakea ez da aurreko arazoetatik iges egitea, ez da atkar-izketarako gai amets utsezko **bat**.

Bakea, zuzentasunaren ondorena eta maitasunaren lorpena da.

Izan be, guda guztien itunian beti dagoz okerken'ata maitasunik-eza.

Orregaitik bakea ez da amets utsa, ez da bildurtien bidea. **Zeregiña** da. Bakea nai ba'dozu, gertatu bakea.

Bakea
egiaren ela zuzentasunaren ondorena,
askatasunaren eta maitasunaren lorpena.

3. Bakea gertatu

Bakea nai ba'dozu,
gertatu bakea.

Gizarte osasuntsu guztiak batera billatzen daben ezer ba'dago, gudea ontzat ez artzea da: "Ez daitela sortu gudarik" oiukatzen dabe guztiak

Orrexegaitik artu bear dogu geure gauza **lez, gudea alboratzeko zere-giña**.

Eta au bakortxaren eginbearra da, **gizon bakoitxarena, laterriak, erri-agin-rariizakoak izan arren** be, beti ez dabelako bear *dan itzaltasuna izaten*, norberaren **buruaren** alde jokatzearen arazoetan, Guztien oiua da bakea.

Bakortxaren eginbearra dalako, auxe egin bear da:

- Erri-aurrean diran aimendunai bizi **ta bero** eskatu (albíste-bídeetan, parlamentuetan, autarkiagaz eta abar...) bakea [ortzeko eta gudarako gertakuntzak um'tzeko eta ¡zkiilu-anfieketa *zoratu*a gelditzeko.
- Beke-zaleen jokabideai erreztasuna **emon (kontzientziko** gudariaren aurkalariai, erri-iaguntza egiteari, bakearen aldeko ibillaldia!...) **eta** bakea lortzeko elburua argiagaz sortzen dan edozerreri.

4. Nondik gudak eta nondik bakea

Ikusi dogu Batikanoko *ii Batzar* Nagusiarentzat **eta Eleizea re ntzat** bakea zuzentasunaren lana eta maitasunaren ondorena dala. **Eta orrek** agertzen **dau** benetako bakea, bake **iraunkorra ez** dogula lortuko zuzentasunaren alde jokatu eta batera maitasunagaz ekiten ez ba'dogu.

Baiña, izatez, laterñen arteko artu-emonak (eta sarritan laterri-barrukoak be bai) indartsuaren legeak eraginda doaz. **Gizarte-iztiak**, kondairak, **ekonomiak**, barri-emoteak argi agertzen dauskue gaur arte koñoni-bidea, **iñoren** izerdia norberaganatzea eta sendoak makala menperatzea beti agertu dirala laterri-arteko **artu-emonetan, burubidez egiten diran agerpenak orrein** aurkakoak izanarren.

Gure gizaldi onen bigarren zatian, eragozpen **aundiakaz, polítikako** askatasuna **lortu daben** lurraldeak, lotsagarri dagoz **ekonomi-giroko** menperatzearen **azpian**. Eta orrexegaitik itaundu bear dogu euren **buru-jabetza osoa** benetakoa **izan dan ala ez**.

Arazo **edo egoera au aztertzen eban Eleizearen berbea antziña** esan eban VI **Paulo'k kondairan garrantzi** aundikoa **dan agiri baten: Agiri** onen idazpurua Populorum Progressio **da eta beronen gaia, errien** aurrerapena.

Ortxe agertzen oa *bakea* egiteko bear-bearrekoa dala gaurkoa *lakoa* ez dan Laterrien arteko **alkarte bat sortzea**:

- Okerkeriak alboratu dauzan laterri-arte ko alkartea.
- Gaurko ezbardintasunak gainditu dauzana.
- **Gaurko** menperatzeak **eta erri batzuk** besteak azpiratzeak kenduko dauzana.
- Lurraldeak alkarren **laguntzaille** izango dauzan laterri-arte ko alkartea.
- **Lurreko** ondasunak obeto banaluaz giza-ugartzearen arazoa arinduko dauana.

5. Kristiñauak eta gudea

Edozeiñek ba'dauko gudea alboratzeko **al dauan bide guztiak ipinteko** eginbearra, askoz geiago kristiñauak.

Bakea billatzeko, erakunde guztiakaz lana egin bear dau,

- Eta bake-billa dabiltzen guztiakaz, eritxiak alde batera itzita.
- **Edozelako iztilluak** bideratzeko bide **lez**, alkar-izketea artu bear dau.
- **Bere bizikerea latza ta** besteai laguntzekoa izan bear da.
- Eta Eleizearen **barruan, bera be kideko dan ezkeru, lan egin bear dau íxiroen eta bakearen arazoan benetan laguntzeko.**

"Indatsuak makala zapaltzen dauanean, aberatsak Daroan errez aurrea artzen **dautsoenean, laterri aundiak besteak menperatzeko ta euren buru-bideak ezarteko bidea** artzen dabenean, **bakea egiteko zeregiña bete barik geratzen da**".

"**Eta gaur gure egunetako guden** gorakadeak ta ikarea (**kizizkoak izan naiz izan ez izan**) gudea laterri arteko eztabaidak konpoízeko artu ezin dan bide **lez agertzen dabe. Gudea antxiñako jazokizun larri bat lez** agertu bear **litzake, kondairan izandako** gauza oker **bat lez; etorkizune-**rako gizadiak dauzan egitekoen artean ez leuke lekuri izan bear".

Joan Paul'ek Coventry'ko Bagongton'en dan Egazkin zelaian (82-5-30).

Bakea da bizia dakarren
gauza bakarra.

EGIN GEINKENA

iztegia... Billatu berba *onein esan-gurea*: Kizia, *napalm*, misil, eroakin, o/iba. gizarte-iztia, Laterri-Alkatea, menpetzea, kolonizitzea, guda-giroa, Kontzientzizko aurkalaria, erri-laguntza.

Billatu... nortzuk diran amar azkenengo Bakearen Nobel sandunak, eta esan zergaitik lortu daben.

Billatu... gero irakurri ta azaldu iparrameriketako Gotzaiñen agiria, izkillu-albotzeari buruz.

Eztabaldatzea... gaia: jakin-gaiak bakearen ala apurtzearen laguntzarako diran.

Azaldu... Gaiaren azkenean dagozan Jon Paul II'aren berbak

Zer da eta zer egiten dau... "Zuzentasunata Bakea" erakundeak.

Egin... talde txikietan lan bat "giza-ugaritzeari" buruz. Gero bateratu eta eztabaidatu.

Batu... izkilluak eta euren sal-erosketak munduko ekonomian eta lurraldeen irabazian dauken garrantzia agertzeko jakingarriak.

Zergaitik... lenago gudarako ministertzak esaten jakenai orain zaintze-ministeritzak esaten jake?

Azaldu... Zergaitik dan bakea zuzentasunaren askatasunaren eta maitasunaren ondorena.

Zein da... Jesus'en pentsabideagudeari buruz?

Esan **labur...** Eleizea ta gaurko mundua Batikano'ko II Batzar Nagusiaren agiriak bostgarren atalaren bigarren zatian diñoana.

Edestu,... Agirian edo agiri barik gaurko munduan diran gudak.

Guda zuzenik ba'lego... zillegi izango litzake olako gudak egitea?

Eziabaidatzea... bake-zaletasuna bildurkeria dan ala ez.

Lurralde neutralik... egon leikeieke gaur?

Billatu... Zine polrtikuari **buruz. Bakerako** izaten da?

Esan labur... Bakea **Lurrean aginaren** gaia.

AURKIBIDEA

Liburu au...

Lenengo zatia: **Aldien joanean**

I gaia: **Jesus'en lenengo jarraitzaileak (Eleizea, Jaungoikoaren Erreiñura-ko bidean Jesukristo'k irasia).**

1. **Jaungoikoaren Erreiñua asi da.**
2. **Espirituaren indarra.**
3. Muga-bako **alkartea.**
4. Benetako sendi **aundi bat.**
5. **Asi da baiña ez guztiz.**
Egin **geinkena.**

II gaia: Aurrean **erabilia** izatetik zabaitzera (Erromako aginterriko Eleizea)

1. **Erromatarren giza** rte a.
2. **Kristiñauak** aginterriak: **Beste biziera** bat.
3. Iztillua.
4. Iztillua agertu da: Aurrean erabilteak.
5. Alkartzera.
6. Aikartzearen **ondorenak.**
7. **Jatorrira biurtzen? Lekaide-bizitza.**
8. Eleizeak **sinisten dauana aztertzen dau.**
Egin **geinkena.**

III gaia: **Illun-une bat baiño geiago (Eleizea Erdi-Aroko munduan).**

1. **Erdi-Aro luzea.**
2. Karlos Aundiak, **gurari aundia.**
3. Eleizea **be lurrak lez zatitzen da.**
4. **Ezin onelan jarraitu.**
5. **Kluni'tarrak: Aize barria.**
6. **Arazo barriari erantzun barriak.**
7. Sortaldeko banatzea.
8. Sartaldeko banatzea.
Egin **geinkena,**

IV gaia:Aldj barria (Eleiza mundu barrian)

1. Aldi barria.
 2. **Eleizea aldi barri onetan.**
 3. **Protestanteen *aldaketa*.**
 4. **Kaíolikuen aldaketa.**
 5. **Trento'ko Eleiz-Batzar Nagusia.**
 6. **Lur-alde barriak.**
- Egin geinkena.**

V gaia:Gaurko egoerea ulertzeko (Eleizea gaurko **munduan**)

1. **Buru-argia erriratu (sekularizatu).**
 2. **Fedea ez da buru^bakoa. Batikano'ko) Batzar Nagusia.**
 3. Politikearenemratzea.
 4. **Gizartearen errirratzea.**
 5. **Erantzuna^.**
 6. **Gaurko munduaren erantzun nagusia: Batikano'ko Eleiz-Batzar Nagusia.**
- Egin geinkena.**

Bigarren zatia: ERRI BAT

VI gaia:Gure Eleiza **au: gure erria. {Jaungoikoaren Erria "Lumen Gentium"**
agiri Nagusian, Batikano'ko bigarren **batzarrean.**

1. **Ezaugarri-izenak gure eleiza onetan.**
 2. **Nortzuk diran Eleizakoak,**
 3. **Erri one zeregin ezbaridiñak.**
 4. **Guztiok santutasunera deituak,**
 5. **"Oraintxe" ta "oraindiño ez" en bitartean.**
 6. Lenengo emakume kristiñaua: Maria.
 7. Maria Eleizearen Ama.
- Egin geinkena.**

VII gaia:Errj baten fedea (Fedea agertzeko era bat. **Eleizearen bizitza fede bat autortzen agertzen da. Eleizearen irakasletza).**

1. Benetako erri **bat.**
2. **Erri onen fedea.**

3. Erri onetan lendik artua.
 4. Erriaren fedea dituan laburpenak.
 5. Erri onetako irakasletza.
 6. Aldi bakortxari erantzun bat.
- Eginginkena.

VIII gaia: Gure erriaren jaiak (Fedea ospakizunetan agertzen).

1. Jairik aundiena.
 2. Jai berezi-bereziak.
 3. Biziaren iturriak.
 4. Jaiak guztienak dira.
 5. Sartzeko ate bat.
 6. Eta barruan geratu.
 7. Barruan egon eta betiko geratu.
- Egin geinkena.

IX gaia: Erri au zelan bizi dan {Fedearen agerpen bizia: Kristo Jaunari jarraitzean agertzen da Eleizearen bizia}.

1. Erri baten jokabideak.
 2. Erri onen fedea.
 3. Erri onen itzaropena.
 4. Erri onen maitasuna.
 5. Erri alaia.
- Egin geinkena.

Irugarren zatia: ERRIARENTZAT BIDE BAT

X gaia: Legeak baino arago (Maitasuna, kristiñau bizitzaren oiñarrizko ardatza. Kristiñauen maitasuna zelakoa dan. Jesus, maitasunaren maitasua).

1. Maitasunerako egiñak gara.
 2. Maitasunaren ituna.
 3. Agindu zarra ta barria.
 4. Nik maitatu zaituedan lez.
 5. Ikusi zelan alkar maite diran.
 6. Maitasunaren olerkia.
- Egin geinkena.

XI gaia: Maitasunaren erakuspena: Eukaristia (Eukaristia, **Kristo'ren maitasunaren** agerpena).

1. Mezarajoan.
 2. Apari baten **asi zan dana**.
 3. Jarraipena dauan aparria.
 4. **Gure Eukañstia**.
 5. Jatordu bat baiño geiago.
 6. Kideko **izatea**.
- Egin geinkena.**

XII gaia: Maitasunaren agerpena: Adiskidetasuna.

- 1, Adiskidetasuna balioa gajuta.
 - 2, Adiskidetasuna, baiña benetakoa.
 3. Adiskidetasuna ez dogu guk asmau.
 - 4, Adiskidetasunaren bide luzea,
 5. **Zer** da adiskidetasuna?
 6. Adiskidetasuna **izan** al daiten.
- Egin geinkena.**

XIII gaia: Maitasunaren era bi: parkatzea ta errukia.

1. Albotik igaro.
 2. Jaungoikoa ez da albotik igaroten.
 3. Gaisorako **ta** eriotzarako **sakramentua**.
 4. **Ateak** zabaltzen.
 5. Jaungoikoak ateak zabaltzen **dauskuz**.
 6. Parkamenerako **sakramentua**.
- Egin geinkena.**

XIV gaia: Gure elburua: Maitasuna {Ezkontzea, sendia, Zeruetako Erreiñuag artik **ezkongea** *izatea*}.

1. Edononetaedonoz.
2. Batera ta toki batera begira.
3. Maitasunaren lekua.
4. *Gizaiie-erakunóe bal* baiño geiago.
5. Sendian egiten dan bidea.
6. Sendiabai. baiña bateatuen.

7. Maitasuna ez da izten.
Egin geinkena.

Laugarren zatia: **ERRI GUZTIENTZAT BIDEA**

XV gaia: Maitasuna argitara agertzen da (atkar-bizitzaren oiñarriko jokabidea rau ak).

1. Gizonaren alde,
2. Zuzentasun barik, maitasuna guzurrezkoa da.
3. Maitasunak gogorkeria alboratu egiten dau?
4. Jaungoikoaren erako maitasuna.
5. oraindiño be esaneko izan?
6. Alkar-bizitzaren arazo aundi bi.
Egin geinkena.

XVI gaia: Maitasuna agiriko egi biurtzen da (Alkar-bizitzarako erakundeak: Jakintza, eziketa eta albiste-bideak).

1. Guzurrezko munduan, egiaren bidetik.
2. Aldakuntzak geu be aldatu egiten gaitue.
3. Egirantza bidea: Eziketea.
4. Egiarentzat arrisku bai eta itxaropen bat.
Egin geinkena.

XVII gaia: Ondasunak gizonarentzat dira (Ondoren-lorlzearen, banatzearen eta ondasunak erabitearen jokabide-araudia).

1. Berbak, baifia berbak baiño geiago dira.
2. Zer joka tzen dan.
3. Kondaira apur bat.
4. Ardatza gizona da.
5. Izan ala euki?
6. Kristiñauaekintzetan.
Egin geinkena.

XVIII gaia: Lan egin... bai baiña zelan? (Laneko artu-emonen jokabide-araudia)

1. Ona ala txarra?
2. Baiña lana zergaitik da ona?

3. Lanik-ezaokerkeriada.
 4. Asti-aldien bear-izana.
 5. Lan-iztea eskubide bat.
 6. Alkargo edo sindikatoak.
- Egin geinkena.

XIX gaia: Errigintza edo politikea (Politikako artu-emonen jokabide-araudia)

1. Errigintza gaur.
 2. Zer da errigintza?
 3. Orain arte egin dan bidea.
 4. Errigintza izan bear dauana izan daiten.
 5. Ete kristiñauak zer?
- Egin geinkena.

XX gaia: Bakea izan leiteken gauzea (Errien alkartea eta bakea egitea).

1. Ez ipiñi gudarako baldintearik.
 2. Gudaren aurka dagoana.
 3. Bakea gertatzea.
 4. Gudearen iturriak, bakearen iturriak.
 5. Kristiñauak eta gudea.
- Egin geinkena.